

# E U S K E R A

Euskaltzaindiaren lan eta agiriak  
Trabajos y actas de la Real Academia de la Lengua Vasca  
Travaux et actes de l'Académie de la Langue Basque



## EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA  
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

1995, 2-3  
40. liburukia (2. aldia)  
BILBO

# EUSKALTZAINDIA

Plaza Barria, 15. 48005 Bilbo

Argitalpen batzordea / Comisión de Publicaciones:

Burua:	Jean Haritschelhar
Kideak:	Juan Mari Lekuona Endrike Knörr J. A. Arana Martija Patxi Altuna Miren Azkarate Beñat Oihartzabal
Eragile eta idazkaria:	Ricardo Badiola Uriarte

© Euskaltzaindia

ISSN. 0210-1564

**Euskera**

ISBN. 85479

Legezko Gordailua BI-1.244-58

Fotokonposaketa: Rali. Particular de Costa, 12-14 - 48010 Bilbo

Elkar, E. Koop. grafikagintza. Autonomia, 71 - 48012 Bilbo

**Aldizkari** hau beste agerkariekin trukutzen da. Otoi, idatz Zuzendariari.  
Esta **Revista** admite el intercambio con otras publicaciones. Se ruega dirigirse al Director.

## AURKIBIDEA

### PATXI GOENAGA EUSKALTZAINDIAN SARTZEA

Jean Haritschelhar, euskaltzainbura, <i>Patxi Goenaga Euskaltzaindian sartzea</i> .....	649
Patxi Goenaga Mendizabal euskaltzainaren sarrera-hitzaldia, <i>Euskararen batasunaz eta duintasunaz</i> .....	651
Patxi Goenaga Mendizabal (versión en castellano del discurso de ingreso en la Real Academia de la Lengua Vasca), <i>Unificación del euskara y dignificación de la lengua</i> .....	669
Patxi Goenaga euskaltzainaren sarrera-ekitaldian, <i>Miren Azkarate euskaltzainaren erantzuna</i> .....	683

### AITA GABIREL JAUREGIREN OMENALDIA

Jose Ramón Uribe, Aramaioko alkatea, <i>Gabirel Jauregiri omenaldia</i> .....	691
Patxi Salaberri Muñoa, <i>Aramaioko hizkuntz ondareaz</i> .....	693
Gotzon Garate, <i>Aramaio. Bizkaiera</i> .....	699
Julen Urkiza, <i>Aita Gabirel Jauregi</i> .....	703
Patxi Uribarren, <i>Aita Gabirel Jauregi</i> .....	707

## ANAI INNOCENTIUS ELIZANBURUREN MENDEURRENA

Andrée Arbelbide, Heletako auzapez anderea, <i>Anai Innocentius Elizanbururen mendeurrena</i> .....	713
Jean Haritschelhar, euskaltzainburua, <i>Anai I. Elizanburu-ren mendeurrena</i> .....	715
Xipri Arbelbide, <i>Heleta eta Elizanburu. Dokumentuak</i> .....	719
Martin Jose Lasa, lasalletarra, <i>Mixel Elissambururen bizia eta lanak (Heleta, 1826-Hazparne, 1895)</i> .....	745
Gabriel Fraile, <i>Elissamburu, framazonak eta juduak</i> .....	767

## GERHARD BÄHR HIL ZENETIK 50. URTEURRENA

Jose Luis Ugarte, <i>Gerhard Bähr-en heriotzaren 50. urteurrena</i> .....	781
Ignacio Arbide Elorza, <i>Vida de Gerhard Bähr</i> .....	785
José Antonio Arana Martija, <i>Gerhard Bähr, euskalaria</i> .....	795
Ander Ros Cubas, <i>G. Bähr-en euskal aditzari buruzko lanak eta eztabaidak</i> .....	801
Joakin Gorrotxategi, <i>Gerhard Bähr-en <b>Baskisch und Iberisch</b> tesiaz</i> .....	821
José Luis Ugarte Garrido, <i>Gerhard Bähr eta Euskal Herria</i> .....	829
Hans-Peter Bähr, <i>Gerhard Bähr, muerte y vida</i> .....	833

## EUSKALTZAINDIAK HERRI-AGINTEEKIN EGINDAKO II. HITZARMENA

Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua, Foru Aldundiak eta Euskaltzaindiaren arteko <i>Hitzarmena</i> .....	839
<i>Acuerdo</i> entre el Gobierno Vasco, Gobierno de Navarra, Diputaciones Forales y Euskaltzaindia .....	849
Tomás Uribeetxebarria, Bizkaiko Kulturako foru diputatua, <i>Euskaltzaindiak-Herri-aginteekin sinaturiko. II. Hitzarmena</i> .....	859

Federico Tajadura, <i>Palabras del Consejero de Presidencia del Gobierno de Navarra en el acto de firma del Acuerdo con Euskaltzaindia</i> .....	861
M. Karmen Garmendia Lasa, Kultura Sailburua, <i>Euskaltzaindiak Herri-aginteekin egindako II. Hitzarmena</i> .....	863
Jean Haritschelhar, euskaltzainbura, <i>Euskaltzaindia–Herri-aginteek sinaturiko. II. Hitzarmena</i> .....	865
Bilera akta, <i>Euskaltzaindiaren egoitzan, Bilbon, 1995.eko urriaren 27an, arratsaldeko lau eta erdietan, Hego Euskal Herriko Herri-aginteezik II. Hitzarmenaren sinadura ekitaldiari hasiera ematen zaio</i> .....	867

## EUSKALTZAINDIAREN AGIRIAK

30. Partitiboa baiezko perpausetan noiz eta nola .....	871
31. <i>Ekartzea merezi du</i> .....	874
32. Espainiako Erresumako probintzia eta elkarte autonomoen izenak .....	876
33. <i>Ongi etorri!</i> .....	879
34. Hiru kiloko haurra, lau hankako mahaia .....	881
35. Orduak nola esan .....	885
36. Frantziako Errepublikako eskualdeen izenak .....	890
37. Data nola adierazi .....	896
38. Munduko estatu izenak, hiriburuak eta herritarren izenak ..	908
39. Zenbait aditzen erregimena .....	914
40. <i>Topiko(a) bihurtu</i> .....	919
41. <i>Egiteko asmoz</i> .....	921
42. <i>Lehenago etorriko zen; lehenago asmatuko zuen</i> .....	923
43. <i>Arazi aditzaren erregimena</i> .....	924
44. Hiztegi batua .....	928
45. Gure egitura politiko batzuen euskal izenez .....	940
46. Hiztegi batua: <i>almendra-arratsalde</i> .....	941
47. <i>Hizkuntza hilak eta klasikoak</i> .....	949
48. Hiztegi batua: <i>arraun-azuzena</i> .....	951
49. <i>-Ari (-lari) atzizkiak</i> .....	962
50. <i>-Ari / -Ario</i> .....	964
51. Kontinenteak, geografia izen nagusi batzuk eta herritarren izenak .....	967
52. Munduko geografiako zenbait izen (mendiak, ibaiak, itsasoak) .....	968

## BATZAR AGIRIAK

<i>1995eko III, IV, V, VI, VII, IX, X, XI, XII</i> .....	973
Euskaltzaindiaren Barne-jardunaldiak: Larrabea, Euskaltzaindiaren <i>adierazpena</i> .....	1015
Euskalkien erabilera administrazioko 1. eta 2. hizkuntz eskakizunetan	1019
<i>Errenteria eta Orereta</i> izenez .....	1025
<i>Kudeatzaileaz</i> Euskaltzaindiaren erabakia .....	1029

## TXOSTENAK

Beñat Oihartzabal, <i>Hizkuntz atlasa dela eta</i> .....	1033
Michel Morvan, <i>Commentaire critique des “materiales para un diccionario etimológico de la lengua vasca”</i> : ASJU, XXIV-1, 1990, 111-202 ( <i>Beule-Buzuntz</i> ) .....	1039
Michel Morvan, <i>Commentaire critique des “materiales para un diccionario etimológico de la lengua vasca”</i> : ASJU, XXIV-2, 1990, 615-668 ET ASJU XXIV-3. 1990, 819-870 .....	1051
José Garmendia Arruebarrena, <i>Iztueta y sus estrofas acerca de las ca-bras</i> .....	1059

## ONOMASTIKA: DIKTAMENAK

Mikel Gorrotxategi Nieto, Onomastika batzordeko idazkaria, <i>Zuya/Zuia</i> .....	1067
Mikel Gorrotxategi Nieto, Onomastika batzordeko idazkaria, <i>Valle de Arana/Harana</i> .....	1069
Mikel Gorrotxategi Nieto, Onomastika batzordeko idazkaria, <i>Peñacerrada/Urizaharra</i> .....	1071
Mikel Gorrotxategi Nieto, Onomastika batzordeko idazkaria, <i>Campezo (Santa Cruz de Campezo)/Kanpezu (Santikurutze-Kanpezu)</i> .....	1073
Mikel Gorrotxategi Nieto, Onomastika batzordeko idazkaria, <i>Gainza/Gaintza</i> .....	1074
Mikel Gorrotxategi Nieto, Onomastika batzordeko idazkaria, <i>Zumárraga/Zumarraga</i> .....	1075

## GRAMATIKA

<i>EITB-ko galdera zerrendari Gramatika batzordeak oraingoz ematen dion erantzuna</i> .....	1079
---	------

## BERRIAK

### AURKEZPENAK

Jean Haritschelhar, euskaltzainburua, <i>Euskaltzaindiaren Arauak. Aurkezpena</i> .....	1089
Pello Salaburu, Euskara Batuko batzordeburua, <i>Euskaltzaindiaren Arauak. Aurkezpena</i> .....	1091

### EUSKALTZAINDIAREN XIII. BILTZARRA

Jean Haritschelhar, euskaltzainburua, <i>Euskaltzaindiaren XIII. Biltzarraren Agiriak (Euskera-ren 1994.eko 3. liburukiaren aurkezpenaren kariatara)</i> .....	1095
Jose Luis Lizundia, idazkariorde-kudeatzailea, <i>Diccionari de la Lengua catalanaren aurkezpena Valenciako Unibertsitatearen parainfoan</i> .....	1099

### BIZKAIKO FORU ALDUNDIA-EUSKALTZAINDIA: EUSKAL HERRIKO HIZKUNTZ ATLASA CD-ROM. HITZARMENA

Ignacio Javier Etxebarria Etxeita, <i>Bizkaiko Foru Diputazioa-Euskaltzaindia Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa CD-ROM delakora pasatzea (II)</i> .....	1103
Bizkaiko Foru Aldundia eta Euskaltzaindia Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa dela eta, <i>Hitzarmena/Convenio</i> .....	1105

## OMENALDIAK

Jean Haritschelhar, euskaltzainburua, <i>Jose Maria Makua Zarandonaren oroimenez</i> .....	1111
Jose Maria Makua Goienetxe, <i>Jose Maria Makua Zarandona jaunari Euskaltzaindiak oroitarria</i> .....	1113

**BI EUSKALTZAIN  
OHOREZKO BERRIAK**

Jean Haritschelhar, euskaltzainburua, <i>Bi euskaltzain ohorezko berri</i> ..	1117
Pedro Pujana, <i>Pedro Pujana Agirregabiria euskaltzain ohorezkoa</i> ..	1121
Joan Corominas I Vigneaux .....	1129

**JUAN ANTONIO MOGEL  
250. URTEURRENA**

José Antonio Arana Martija, <i>Juan Antonio Mogel jaio zenetik 250. urteurrena</i> .....	1133
M. Karmen Garmendia Lasa, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailburua, <i>J.A. Mogeli omenaldia</i> .....	1135

**BESTE BERRI BATZUK**

Jose Luis Lizundia, idazkiorde-kudeatzailea, <i>Rosa Mari Arza Azuetaren "zilarrezko eztaiak" lanean</i> .....	1141
Alfonso Irigoien, <i>Federico Krutwig y Juan Jose Pujana, medallas de honor de la ciudad de Cabala</i> .....	1143
Alfonso Irigoien, <i>Federiko Krutwig eta Juan Jose Puiana ohorezko dominadun Kabalan (Grezian)</i> .....	1144
José Antonio Arana Martija, <i>Olentzaro</i> .....	1145

**BBK-EUSKALTZAINDIA  
LITERATURA-SARIAK 1995**

Jon Mancisidor, Bilbao Bizkaia Kutzako ordezkaria, <i>Bilbao Bizkaia Kutxa-Euskaltzaindia: literatura-sariak</i> .....	1149
--	------

**HIL BERRIAK**

Juan San Martin, <i>Josu Oregi Aranburu (1919-1995)</i> .....	1153
Fr. Luis Villasante, <i>Ignacio Omaechevarria Martitegui (1909-1995)</i> ...	1161
Jose M. Satrustegi, <i>Julio Caro Baroja (1914-1995)</i> .....	1167
E. Knörr, <i>In memoriam Julio Caro Baroja (1914-1995)</i> .....	1169
Jose Antonio Arana Martija, <i>Maria Aldazabal Elisburu (1906-1995)</i>	1173
Jose Antonio Arana Martija, <i>Gabriel Ramos Uranga (1939-1995)</i> ....	1175



**PATXI GOENAGA**  
**EUSKALTZAINDIAN SARTZEA**

*Vitoria / Gasteiz, 1995-XI-24*



**PATXI GOENAGA**  
**EUSKALTZAINDIAN SARTZEA**

*Vitoria/Gasteiz, 1995-XI-24*

*Jean Haritschelhar,  
euskaltzainburua*

Felix Ormazabal, Arabako diputatu nagusi jauna.  
Jose Manuel Lopez de Juan Abad, Arabako Batzar Nagusien buru jauna.  
Agintari anderea eta jaunak,  
Euskaltzainkideak,  
Andreak eta jaunak.

Bada zazpi urte euskaltzainburu naizela eta zazpigarren aldikotz ongi etorri erranen diot euskaltzain berri bati. Ikus daiteke nola aldatzen den Euskaltzaindia Antonio Maria Labayen joan zitzaigun larogeita hemezortzi urtetan. Utzi zuen alxian jarriko da berrogeita zazpi urteko euskaltzain berri bat: Patxi Goenaga Mendizabal.

Ez da lehen aldia agertzen zaigula Euskaltzaindian Patxi Goenaga. Berrikitan izendatua zelarik euskaltzain urgazle, 1979an. Gramatika batzorde sortu berrian sartu zen eta geroztik batzorde horretan lan egin du. Lekuko gisa agertu nahi dut egun, baitakit, batzordekide izanik, zein den Patxi Goenagaren emaitza, bai txostenetan eta bai eztabaidetan. Haren izpiritu zorrotzak ez du deus uzten bazterrera, denak ikertzen ditu sakonki, denak eztabaidatzen. Ainitz zor dio Gramatika batzordeak.

Unibertsitateko erakasle da Patxi Goenaga. Patxiri esker sartu naiz lehenbiziko aldikotz Euskal Herriko Unibertsitatean. Alabainan. 1984an Koldo Mitxelena deitu ninduen epaimahaikide gisa Patxi Goenagaren *Euskal sintaxia: konplementazioa eta nominalizazioa* deritzan tesiaren aztertze eta jujatzeko. Euskal joskerari buruz eginikako lanetan lehenetarik bat da Patxi Goenagarena eta duda izpirik gabe eman genion aho batez *apto cum laude*, merezi zuen bezala. Geroztik, aldi bat baino gehiagotan epaimahaikide izan naiz Euskal Herriko Unibertsitatean, baina nola ahantz lehen aldia!

Erakasle eta denbora berean ikerle izan da Deustuko Unibertsitatean lehenik 1976tik eta 1980a arte eta geroztik Euskal Herriko Unibertsitatean, Fi-

lologia, Geografia eta Historia fakultatean, katedradun delarik 1991 geroztik. Bere kideen konfiantza lortu du izan baita fakultate horretako dekanoa eta Arabako kanpuseko errektore orde azken urte hauetan.

Erakasle, ikerle, administrari, kalitate guziak dauzka Patxi Goenagak euskaltzain oso izaiteko. Hala erabaki dute euskaltzainek. Egun egiten du bere sarrera-mintzaldia Gasteizen eta etxe honetan. Eskerrak eman nahi dizkiet Arabako agintariei eman baitigute gela nagusi honetan gure biltzar idekiaren egiteko parada. Bai, eskerrak bihotz-bihotzetik eta ongi etorri Patxi Goenagari.

## EUSKARAREN BATASUNAZ ETA DUINTASUNAZ

### *Patxi Goenaga Mendizal euskaltzainaren sarrera-hitzaldia*

Vitoria/Gasteiz, 1995eko azaroaren 24an

Euskaltzainburu jauna,  
Arabako Batzar Nagusietako buru jauna,  
Euskaltzain jaun-andreok,  
Herri-agintari jaun-andreok,  
Senideok,  
Adiskideok,  
Jaun-andreok.

Horrelakoetan legeak agintzen duenez, merezimendu gutxirekin bada ere Euskaltzaindik lanetan ordezkatzea egokitu zaidanaren oroitzapena berritu nahi nuke gaurkoan. Antonio M.<sup>a</sup> Labaien zena gogoratu beharrean aurkitzen naiz, beraz. Eta aitor dezadan: ez da samurra euskal letretan antzerkiari emana ibili zen gizon batez eta honen lanaz hitzegin beharra, *dramatika* baino gehiago *gramatika* kontuak atsegin dituenarentzat.

Labaienen antzezlanak argitalpen bakar batean bilduak ditugu (1), nahiz eta, nire ustez, era txukunagoan atera zitezkeen. Bestalde, Labaien euskal teatroaren teorizatzaile ere izan genuen. Hizkuntza eta teatroaren arteko harremanez ere aritu zen: hizkuntzaren problema teatroan, teatro hiztegiaren batasun arazoa, e.a. *Antzerki* teatro aldizkariaren sortzaile eta zuzendari ere bai. Horien guztien azterketa gramatikazale baten esku uzteari ez deritzat zuzen. Irreberentzia handiegia ere izango litzateke.

Beraz, lantegi hori beste batentzat utziz, beste alor batez hitzegin nahi nuke. Labaienen eskutik, euskara batuak egin duen bidea ibiltzera gonbidatu nahi zintuzketet, hasi Arantzazutik eta gaur egun eskola-liburuetan eta antzeakoetan umotu den euskara motara iritsi arte.

Izan ere, Labaienen bibliografian murgilduz gero, euskararen batasunak alor zabal xamarra betetzen du. Gazteenei euskara idatziari dagozkion hainbat eta hainbat arau “betidanik” emanak irudituko zaizkie, gauzak beti horrela izan direlakoan, arau horien nondik norakoa edo zertzelada historikoak zein dira-

---

(1) A. M.<sup>a</sup> LABAYEN: *Teatro osoa euzkeraz*, Ed. La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1977.

tekeen ohartu gabe. Hori normala da. Seinale ona dela ere esango nuke. Baina adin batera iritsiak garenok batasunaren inguruan sortutako eztabaidak geure begiez ikusi genituen eta asko eta asko eztabaida horietan buru-belarri sartuta ibili ere bai.

Borroka horietan ibilia dugu Labaien ere. Ibilía eta erabilia. Proposatzen zen batasun bidearen kritikatzailer izan genuen. Oso ikritiko, gainera. Baina bide hori kritikatzeko zutenekin ere, bere nolabaiteko bidelagunekin ere, kritiko ageri zaigu.

Labaienen euskara batuari buruzko pentsamoldea eta jarrera, egunkari eta aldizkarietako zenbait lanez aparte, bi liburuxkatan ematen zaigu: bata *Sasi-Batasuna. Mala letra y peor espíritu de una pseudo unificación*, 48 orrialdeko liburuxka bat, 1972an agertua. Arantzazuko bilera sonatutik lau urtera argitaratua, beraz. Bigarrena, *Alternativas para una factible unificación y desarrollo del euskera*, 1984an argitara emana, Bergarako bileraren ondoren Latiegik eta Oñatibiak kaleratu zuten liburu lotsagabe eta iraingarriari aurre eginez.

Lehenbiziko liburuan, Labaien, Euskaltzaindiak Arantzazuko bilera hartan hartutako bidearen kontrako agertzen zaigu. Pentsa daitekeenez, burruka pil-pilean, bero-bero zegoenean argitara emandako iritziak ezin izan hotzak.

Arantzazuko Biltzarra hizkuntzaren batzerakoan aldaketa txikiak egitera mugatu izan balitz, erraza izango zen akordio positibora iristea. Baina baziren asmo maltzurak, lehenagoko zenbait bileratan azaleratu zirenak eta ondorioz nahastea eta bateraezina suertatu ziren, Labaienen ustez. Egiazki, Euskaltzaindiak ordurarte onartuak zituen ortografia legeek ez omen zuten funtsezko berrikusterik behar. Hatxearen erabilera bera hain era absurdoan ezarri beharrik ere ez zen. Azken batean, kaltegarritzat jotzen du, ortografia arauak hain sarri aldatzea.

## **LABAIEN, ERDIBIDEAREN ALDEKO**

Labaienek erdibidean ikusten du bere burua euskara batuaren arazo honetan, bai 72ko liburuan bai 84koan. Haren ustez, Arantzazuko Biltzarraren osteko zenbait gomendiok praktikan ondorio ekibokoak eta nahasteak sortzen zituen. Euskal idazleen artean sortarazitako konponezinaz eta bateraezinaz gainera.

Horregatik, urtebete igaro ondoren Euskaltzaindiari txosten bat aurkeztu zion gauzak berrikus zitza. Urruntze eta liskar handiagoak uxatzeko, biltzar hartan presa handiegiz hartu omen ziren zenbait erabaki zuzendu beharra ikusten zuen.

Idatzi hartan hatxearen erabilera neurri batean onartzeko prest dugu, adiskidantzako konpromezu batera iristeko asmoz. Batez ere Bidasoaz handiko idazleen begiramenez (...).

Baina haren mozioari kontra egin omen zioten tazituki erreformazaleek. Kontrakoeak, berriz, berek ere Euskaltzaindiak emandako eta ordurarte bete omen zituzten arauen gainean ez zutela inongo inposiziorik onartuko.

Azken hauek behin eta berriro ohartarazi omen zioten kontzesioak egitearen alperrikakoaz.

Horregatik, Labaienek bere ohizko kokaguneetara erretiratzea erabaki zuela diosku. Eta erreforma orok eskatzen dituen bermeak eta betebeharrak betetzen ez diren bitartean Akademiak 1919an erabaki eta azken berrogeita hamar urteotan euskal idazleek gehienbat erabili duten grafiaz idazten segituko duela diosku.



*Ezkerretik eskumara:* Felix Ormazabal, Arabako diputatu nagusia; Jean Haritschelhar, euskaltzainburua; Jose Manuel Lopez de Juan Abad, Arabako Batzar Nagusietako burua; Endrike Knörr, Euskaltzaindiko idazkaria eta irakurtzen ari dena, Patxi Goenaga, euskaltzain berria.

Labaienen erdibide hori honako puntu hauetan biltzen da:

1. H letraren erabilpena ahalik eta gehien mugatu, diptongoa osatzen ez duten bokal bikoteen arterako gordeaz.
2. Hitz hasieran, etimologiak eskatzen ez badu, alde batera utzi hatxea.

3. Puntuazio marketan, aurrizki eta atzizkiak jartzean eta erabiltzean, eta orohar morfologian eta deklinabidean ez dago oztoporik ponentziaren plana onartzeko.

4. Garrantzi handiagoa ematen dio hiztegiari, hitz berrien eraketari eta kultur terminologia geureganatzeari. Baina ez du esaten zertan datzan garrantzi hori ez eta nola jokatu behar den ere.

5. Sintaxi kontuetan Azkue eta Altuberen irakaspenak gidari hartzea proposatzen du. Hala ere, zurruntasunetik ihes egin beharra aipatzen du: "Idazleari iharduteko askatasuna utzi behar zaio, bere estiloa baitu eta perpausen egitura eta hitzak hautatzeko nor baita, neurri batean".

6. Aditza hizkuntzaren bizkar hezurra da. Euskaltzaindia funtsean gipuzkerazko aditzaren aldera makurtzen bada, Azkuek proposatutako "gipuzkera osotua" delakoaren aurrean aurkituko ginatke. Hau atseginez ikusten du Labaienek, erdikoena bera delako, eta, batasunari begira, eskuragarriena eta bideragarriena ere bai.

Argi dago, hortaz, hatxea zela egiazki arazoa. Gainerakoen artean ere, letra honek eman zuen zer esan handiena. Bigarren liburuan, aldiz, egiazki neurritz kanpoko garrantzirik ez duela aitortuko digu (2).

Hatxearen kontra batzuek erakusten duten itsukeria kritikagarri zaio (3): "Intrantsigentzia horrekin ez goaz inora. Are gutxiago *higuingarri* eta *gorrotagarritzat* emanaz letra horren erabilera; Iparraldeko euskaldunek beren literaturan eta ahoskeran erabiltzen dutela ahantziz". Labaienen ikuspegi nazional hau berak kritikatzeko duen liburuaren egileenarekin muturka ari da. Hauek behin baino gehiagotan aipatzen dute Iparraldeko eta Hegoaldeko euskaltzainen jarrera desberdintasuna. Behin baino gehiagotan ukatu egiten zaie mugaz handikoei euskarari dagozkionak definitzeko orduan esku hartzeko eskubidea. "Nortefios" hitza erabiltzen dute behin eta berriro. Ulergaitza, benetan, beren buruak abertzaletzat dituzten pertsonengan. Labaienek ez dio horrelakorik. Aitzitik, errespeta eskatzen du, euskara euskaldun guztion arazoa baita.

## EUSKALTZAINDIAREN ZEREGINA

Batasunaren inguruko borroka honetan Euskaltzaindiaren errola bera bazalantzan jartzen zuen zenbaitek. Labaienek garbi dauka Euskaltzaindia dela gure hizkuntzaren berriztapena portura eramane behar digun erakunde egokia.

Euskaldun herria, bere hizkuntzaren jabe da baina erakunde akademiko baten beharra du hizkuntza hori honda ez dadin eta zuzen erabilia izan dadin.

(2) *Alternativas*, 14.

(3) *Alternativas*, 21.



Horrek eraman du batasunari buruzko arauak ematera, ahaketa guztien etsaiek mezpretxuz “el batua” deitzen duten eta Azkuek gomendatu zuen “gipuzkera osotua”ri indar emanez.

Euskara normalizatu hura da Euskal Herri osoan zabaldu eta onartu behar dena, kasu batzuetan aplikatu beharreko tokian tokiko aldaera batzuk gorabehera. Batasunaren hatsarriak, printzipioak, aniztasun anarkikoarenaren gainetik egon behar du. Bestela diotenek beren helburuak zein diren eta horietara iristeko zer ahalmen dauden argiro azaldu behar dute (4).

Nolanahi ere, Bergarako batzarraren ondoren, akademia(?) paralelo bat sortu zuten, Euskerazaintza. Honen sorrera kaltegarritzat jotzen du Labaienek. Horrelakoetan hobe omen da barnetik borrokatzea kanpoko bigarren erakunde paralelo bat osatzea baino. Erakundeei eutsi egin behar zaie (5).

Hasiera batean gaizki iruditu ez bazitzaion ere, delako akademia haren ihardueretatik kanpoko begirale bezala jarrita, iharduera horietako askok kausa beraren aldekoen artean behar litzatekeen elkar ulertzeari onura baino kalte gehiago ekarri diotela uste du Labaienek.

Honela dio: “Munduko herrialde guztietan hizkuntza ofizialari dagozkion arazoak Akademiek ebazten dituzte. Gure kasuan alperrik da Euskaltzaindiari lehentasuna ukatzea beste erakunde paraleloak kontra jarritz. Luzarora, bikoiztasuna eta nahasmendua sortzen dute”.

## EUSKARAREN KALITATEAZ

Arantzazuko biltzarraren ondoren sortutako kalapitaren erakusgarririk nabarmenena *h* letraren inguruan gertatu bazen ere, Labaien gehiago kezkarazten du, berak behin eta berriro aitortzen duenez, alde batetik, hizkuntzaren iraupenak, jakina, eta hizkuntzaren erabilera zuzenak, hitz egokien erabilerak eta bizitza modernoaren eskakizunen arabera hitz berriak sortzeak eta hiztegia zabaltzeak bestetik. Hau askoz arazo larriagotzat dauka.

Euskara kaxkarraren kontrako jarrera behin eta berriro ageri da Labaienen izkribuetan. “Larria da hizkuntza degradatu batean, inongo arreta estilistikorik gabe eta sintaxi dorpekeria onartezinekin idaztea” (6).

Baina garbizalekeria ere gaitzesgarritzat jotzer, du. Hizkuntza bezalako elementu bizi orok bere izatea aurrera doan heinean nahitaezko bilakaera jasaten du. Euskara, beste edozein baino areago, kultura modernoaren eskakizunek ezarritako egokitze baten beharrean dago. Labaienen ustez, bada bide

(4) *Alternativas*, 23.

(5) *Alternativas*, 12.

(6) *Alternativas*, 29.

zabal, erdiko eta zuzen bat, bi muturren artean kokatua. Hori da jarraitu beharrekoa.

Euskara batuaren balioaz, Labaien baikorregia ez bada ere, argi dauka behar beharrezkoa dela. Euskara batuari arerioek egin liezaioketen objeziorik larriena omen da inon ez dela hitzegiten eta ez duela inon komunikabide ohizko gisa erabiltzeko aukerarik. Labaienek kritikatzten duen liburuan uste hori behin eta berriro ageri da. Salakuntza honen kontra, dio Labaienek, ohizko euskararen eragozpenik larrien eta nagusiena da eskualde batetik bestera modu desberdinean erabiltzea dela. Honek eragozten du komunikazioa. Ez da egia —dio— euskara batua ez dela ulertzen. Frogatua dago eskualde desberdinetako bertsolariek eta entzuten dieten jende ugariak neke handirik gabe jasotzen eta ulertzen dutela mezua.

Nolanahi ere, euskara eskoletan “egokitu” beharra ikusten du. Kontu handiz ibiltzea gomendatzen du Euskal Herrian zehar egiten diren aldaera dialektalei zor zaien errespetuarekin.

## LABAIENEN JARRERA ALDAKETAZ

Hizpide eman diguten bi liburuetan oso jarrera desberdina erakusten du egileak. Hain zuzen, lehenbizikoa nolabait Euskaltzaindiak Arantzazun hartutako bidearen kontra dator. Batasunaren premia ukatu gabe, batasunerantz hartutako bide konkretu haren kontra. Bigarrenak, ostera, Euskaltzaindiari erasoka modu itxuragabean argitaratutako liburuari egin nahi dio aurre (7).

Bere jarrera aldaiketaren berri eman nahian honela mintzo zaigu: Eta, zer jarrera izan gaur gure artean, ia salbuespenik gabe —ez dakit Euskaltzaindiaren arauak jarraitzeagatik ala errebeldia izpirituagatik— H erabiltzen duen eta liburu, aldizkari erreibistetako orrialdeak betetzen dituen gazterien aurrean? Zer egin horrelako egoera batean? Elkar joka hasi? Elkar iraindu? “Batua”-ren kontrako libelo pasionatuak idatzi? Kultur iraultza batean gaude bete-betea. Honen arrazoi biologikoak denbora dela iragarri zituen gure Koldo Mitxelenak eta haren iragarpena egiazkoa gertatu da (8). Gogoan izan hasiera batean Mitxelenaren gaizeenganako joera hura gaitzetsi egiten zuela Labaienek.

“H-aren erabilera premiazkoa ez dela eta askotan alperrikakoa eta nahasgarria dela uste izaten segitzen dut. Hau idatzi nuen eta honi eutsi nion 1968az

(7) Ik. liburu horren “índice temático” delakoa: *Antisabinianismo*; “Aránzazu”: *la asamblea de Aránzazu fue inválida; Batasuna. Unificación. Ya existía; (...) El Batua. No se lee. No es aceptado; El batua es de significación política; El Batua no es euskera; El batua es un torpe lenguaje; El batua no es entendido por los vasco-parlantes; El batua es rechazado por el pueblo vasco-parlante; ... Euskaltzaindia la de hoy en contra de la de ayer; Euskaltzaindia no juega limpio; Euskaltzaindia no obra científicamente; Euskaltzaindia euskericida; Euskaltzaindia dialecticida; eta abar.*

(8) *Alternativas*, 21-22.

geroztik, horrrrela egiteko abagadunea zenean. Gero, Euskaltzaindiaren gomen-dioak 15 urtetan zehar indarrean daudenean eta idazlerik gehienek liburu eta aldizkarietan erabiltzen dutenean, eta ikastola, goi mailako ikastetxeetan eta herri administrazioan erabilia denean, ebidentziaren aurrean amore eman behar da eta onartu, gogo txarrez bada ere, H-aren erabilera (9).

Batuaren kontrakoek arrazoiak badituztela ezin ukatuzkoa omen da. Baina egia da ere ez dela aski arrazoiak izatea, ezartzeko indarra ere izan behar da. Eta hori da falta omen dutena. Euskaltzaindiak gomendatutako eta gehienek onartutako erreformaren aurrean ez du ikusten beste erremediorik hartara makurtzea baizik, ahal dela gertatzen diren hutsegite handiak zuzenduz. Kontrako batek ere ez du erakutsi nola aurre egin modu eraginkorrean Euskaltzaindiaren arauak jarraitzen eta bultzatzen dituzten erakundeei ez eta ere nola kontrarresta irakasle, itzultzaile, andereño, aldizkari eta liburu idazleen lana. Korrontea hain da ikaragarria eta gazteen bultzada hain ezin eutsizkoa, ezina da lehenagoko kokagune tradizionaletara itzularaztea. Dena aurrera doa bizitzan, nahiz eta ez beti bide ordenatuetatik. Atzera jotzen ahalegintzea *contra natura* da eta porrotera kondenatua dago (10).

Bere jarrera aldatu egin duela garbiro aitortzen du. “Lehenago mantentzen nituen premisak idatzi nituen garaiak baldintzatuak zeuden. Aitortzen dut nere gomendioek ez zutela ondorio onik izan eta egoki da nere konklusioak aldatzea. “Orduan erratu egin nintzen eta oraingoan asmatu egin nahi nuke” -dio (11).

Jarrera aldaketa honek erakusten digu, nik uste, Labaienek Euskaltzaindia bere-beretzat zuela, maite zuela. Euskara maite zuen bezala. Ez zegoela ados Euskaltzaindiak azken garaietan hartutako bidearekin, baina, hala eta guztiz ere, erakunde hau dela uste du euskararen araubidea marka dezakeen bakarra. Ez du lotsarik galtzaileen multzoan gertatu zela aitortzeko. Ebidentziak erakusten diona ezin du ukatu. Ez da hori beti gertatzen den gauza.

## EUSKARA BATUA ETA IRAKASKUNTZA

Utzi ieazadazue orain batasun bidean abiatua dugun euskara horrek gaur eskaintzen dituen emaitzez gogoeta egiten. Irakaskuntza mundua hartu nahi nuke, batez ere gaitzat.

Euskara batua, irakaskuntzan erabiltzeko zen, batez ere. “Ezin-bestekoa, hil —edo— bizikoa dela uste dugu —zioen Mitxelenak— euskara batasun-bidean jartzea. Haur eta gazteei euskeraz irakasten baldin bazaie, eta euskeraz

(9) *Alternativas*, 28.

(10) *Alternativas*, 42-44.

(11) *Alternativas*, 46.

irakatasi behar euskara biziko baldin bada, premiazkoa da guztiei batera edo bateratsu irakastea. Nahi eta behar dugun batasun hori, lehen urratsetan behintzat, euskera idatziarena, izkribuzkoarena, da. Eta, euskera idatziaren barrutian, irakaste-lanean dugu beharrenik batasun hori, irakurlearen atseginerako egiten den literatura «ederrean» baino areago” (12).

Zenbait jendek aspaldi eman zituen aditzera bere kezka euskara batuaren emaitzez. On dela iruditu zait, horrenbestez, euskara batuak bide luze xamarra egina duela, irakaskuntza munduan daukagun egoeraz hausnarketa egitea. Euskararen batasunaren inguruko gatazka honetan hizkuntzaren kalitatea behin eta berriro ateratzen da. Euskararen iraupena bera ere zalantzan jarria izan da. Hiru alderdiri buruz egin daiteke gogoeta: euskara batuaren onarpenaz beraz, euskararen egiazko erabilpenaz eta euskararen nolakoaz.

#### a) **Euskara batuaren onarpena**

Euskaltzaindiak 1978an Bergaran egin zuen batzarrean, euskara batuaren onarpen maila Arantzazutik Bergarara arteko hamar urte horietan zehar nolakoa izan zen aztertu zuen (13). Hango datuek ez dute inolako zalantzarik uzten. Orduan, idazleen % 61,3-k euskara batuan idazten omen zuen. Idatzitako materiala, berriz, epe horretan, % 54-tik gora euskara batuan zen. Urtetik urtera haziz joan zen, gainera: 1969an % 46,4 baldin bazen euskara batuan, 1977an % 65,4-ra iristen da. Eta material idatzi horren gaia irakaskuntza zenean, porzentaia ere handiagoa zen: % 71.

Bergarako bilerarako egin zen ikerketa honen antzekorik ez dakit egin den harrezkero, baina egin gabe ere, begien bistakoa da gaur argitaratzen den gehiena Euskaltzaindiak urte hauetan zehar eman dituen arauak beteaz idazten dela. Eta are nabarmenago irakaskuntza munduan.

Irakaskuntzarekin zerikusia dutenak kontuan hartuz, 1970ean 22 ikasliburu argitaratu baziren, 1990ean 305 argitaratu ziren (14).

Produzio hau dena, ikastolen hazkundera bezala, euskara batuaren eskutik etorri dela argi dago. Horrek esan nahi du hazkunde hori ezina izango zela euskara batu bat izan ezean. Eta horrenbestez, euskara batua abian jarri ez balitz jarri zen garaian, irakaskuntzak berekin dakartzan premiei erantzun ahal izateko, lehenago edo geroago —nahiko arin nolana ere— asmatu beharko zela euskara batu bat. Hori argi ikusi zuen Euskaltzaindiak eta 1968an apustu

(12) K. MILXELENA: “Euskararen batasun bideak”, *Sobre Historia de la Lengua Vasca*, 972 orr.

(13) Ik. *Euskera* XXIV (2.) 1978-2, 481-531.

(14) Ik. *Euskal Irakaskuntza: 10 urte*, 55-57.

gogorra egin zuen. Kontra zetozen haize bolada bortitzei aurre egin behar izan bazien ere. “Bitartean —Villasanteren hitzak erabiliz— zenbat irain, mehatxu eta eraso ez ditugu irentsi behar izan! Gezurra ere badirudi hunelako gauzak era hortaraino bere onetik eta tentutik atera nahi izatea! Baina Euskaltzaindiak bere bete beharrari ez dio uko egin, eta ez du amorerik eman” (15). Eta egia da. Paperak edozer gauza jasaten omen du. Nolako barrabaskeriak idatzi ziren garai haietan eta geroago ere! Baina Euskaltzaindiak bere eginkizunari eutsi dio. Apustu egin zuen eta irabazi. Euskal Herriaren esker ona izango ahal du! Honela zioen Mitxelenak: “Arantzazukoaz eta ondorengoez oroitzen naizenean, gogoan barrena sumatzen dudana poza da eta ez damua. Inolazko damurik nabaitzen ez dudala esango baldin banu, ez nuke gezurrik esango. Euskaltzaindiak hartu zuen noraezean hartu behar zuen erabakia, artean mila arrazoi edo atxakia zirela medio (lotsa gaiztoa, zeresanen beldurra, bake-itxurak gorde nahia bakerik ez zen lekuan...) hartu ez zuena. Erabakirik onena hartu zuen, Euskal Herriari, euskaldun guztiak minduko bazituen ere, aspaldixko zor ziona: batasun bidetik, gerotik gerora ibili gabe, gogotik eta deliberatuki abiatzea” (16).

Euskara batuak hogeitabost urtetik gorako bidea egina badu ere, lanik bada oraindik. Sarasolaren arabera, *Euskaldunon Egunkari*ko orrialde batean gaingiroki bildutako 521 hitzetatik, “badira 66 oraindik zalantza bat edo gehiago idazkeran agertzen dituztenak. Hots: % 12,7. Inguruko hizkuntzek, gai berri oso espezializatuak alde batera uzten baditugu, % 99tik gorako batasuna agertzen dutenez gero, ondorioa berez dator: gure lehia-kide diren hizkuntzek baino hamar aldiz gehiagoko zalantzak ditugu guxtienez estandarrean” (17).

Bergarako bilerarako ikerketan bada beste kontu bat ni neu benetan kezkarazten nauena. Irakasleen artean, % 90,9-k euskara batua erabiltzen omen zuen irakaskuntzan. Baina, euskara batuaren ezagupideaz galdetzean, ongi ezagutzen zutela % 31,8-k erantzun zuen eta erdizka % 61,1-ek. Euskara batua “erdizka” ezagutzen omen duten irakasle horiek hutsuneak non dituzten aitortzen digute: gehienek, aditzean (% 30,4-k), sintaxian (% 15,6-k), sail guztietan (% 15,3) eta aditza eta sintasian (% 12,6-k). Ordutik hona euskararen normalizazioak bide dexente egin du. Gaur egingo balitz galdeketa, ez dakit zein izango liratekeen emaitzak, baina ziur naiz, positiboagoak izango liratekeela. Nolanahi ere, datu horiek argi erakusten digute irakasleen prestakuntzaz ere arduratu beharra dagoela. Han-hemenka ikastaroak antolatu izan dira eta parte hartzaile guztiek aitortu izan dute horien premia.

(15) L. VILLASANTE: “Euskaltzaindia eta euskararen batasuna”, *Euskera* XXIV-2 442.

(16) K. MITXELENA: “Arantzazutik Bergarara”, *Sobre Historia de la Lengua Vasca*, 985 orr.

(17) I. SARASOLA: “Euskara batua 60ko hamarraldian”, *Euskaldunon Egunkaria*, 1995. 8.8, 3. orr.

## b) Euskararen erabilpena

Euskararen gibelatzearen, atzeratzearen, errua, zenbaitentzat euskara batuarena da. Bidezko da, hortaz, euskararen erabilpenaz zerbait esatea.

Batzuek inon diren errurik handienak aurkitu dizkiote euskara batuari. Hona hemen egiten duten analisi sinplea: etxean euskalkia erabiltzen da, haurrak eskolatik batuan hitzeginez datoz, elkar ezin ulertu eta, horrenbestez, etxean erdaraz hitzegiten amaitu.

Euskararen galera zergatik gertatzen den ongi aztertu beharreko gaia da, baina ezin da eskema sinple hori ontzat eman, zeren hori egia balitz Euskal Herriko lekurik gehienetan, batzuetan gutxiago, beste batzuetan gehiago, euskarak atzera egin beharko zukeen, eta hori ez dirudi horrela denik.

Inoiz abusuak salatu izan dira arlo honetan. Baina, jakina, pedagogiari edo zentzu komuna deitzen den horri eta giroak agintzen digunari jaramon egin behar. Horrenbestez, irakasleen lana izango da euskara estandarren eta tokian tokiko euskara biziaren arteko zubia egitea.

“Hilobaren euskarak ez du balio jadanik aitonaekin hitzegiteko (...)” idatzi zuen Oteizak euskara batua zela eta. Zenbaitek bere alde erabili nahi izan du Oteizakeria hau. Baina honela ihardesten dio Labaienek: “Benetan penaz diot: mundu osoan zehar saritua izan den Oteizak, gure herriaren loriak, ez du eskubiderik esateko «hilobari bere gaurko euskarak ez dio jadanik balio aitonaekin hitzegiteko». Hori esatea ez zaio zilegi bere aitaren euskararen erraztasunez komunikatzeko gauza ez den bati. Bere arbasoen hizkuntza berreskuratzeko borondatearik ez baitu izan —eta ez dago horretarako aitzakirik— inkulturazko bekatuan erortzen da”.

Haurrei eskoletan irakasten zaien euskarak gero etxean, gurasoekin, edo aitona-amonekin hitzegiteko balio duela ez dago dudarik. Ez dut uste inork froga dezakeenik ezin ulertu hori. Alderantziz: kasu pila bat aurkez litezke juxtu kontrakoa erakusten dutenak, areto honetan bertan.

Benetan euskararen iraupena kezkatzeko kontua da, baina normalizazio-erantz egindako urratsez gain beste faktore asko dira tartean. Arazoari irtenbidea bilatu ahal izateko, lehenbizi, diagnostiko zuzena egin behar da. Espero dezagun Hizkuntz Politikako arduradunek formula egokiak aurkitzea. Adibidez, guztiz kezagarria da zenbait euskal herritan gertatzen ari dena. Uda honetan irakurtzen genuen egunkarietan (18) Bermeon, 15 eta 30 urte arteko gazteetatik % 7-k bakarrik erabiltzen duela euskara ohiko komunikazioan. Eta datu hau oraindik ere kezagarriago bihurtzen da kontuan hartzen badugu 1986-ko erroldaren arabera 2 eta 17 urte arteko bermeotarren % 72 euskalduntzat hartzen

(18) *El Correo*, 1995-08-24.

zela (19). Bizilagun multzo horixe da, hain zuzen, orain % 7-ra jeitsi dena. Arazo larria, baina zergatiak leku zuzenean bilatu behar dira, erremedioa ere zuzena izan dadin.

Nolanahi ere, euskararen galera batasuna baino lehenagoko dinamika bati zor zaio. Euskararen galerak eskola baino zabalago den eremu batean ditu sustraiak. Soluzioa aurkituko bada, hortaz, eremu zabal horri begiratu behar zaio. *Euskal Irakaskuntza: 10 urte* delako liburuaren egileek ongi ematen dute arazo honen berri: "... euskarak gizartean duen pisu eskasa ekarri behar da gogora. Eskolak urte luzeetan egindako euskalduntze ahaleginak ez du behar bezalako segidarik gizartean: ez lan munduan, ez kulturaren, ez kaletan. Ditugun baliabideak (euskal komunikabideak, errotulazioa...) uharte txikiak dira erdal itsasoan. Euskaraz jakitea lehen baino hobeki ikusia eta komenigarriagoa bada ere, askoz probetxugarriago gertatzen da erdara erabiltzea. Gizartearen eragin erdalzalea nabarmen-nabarmena da eskolan, gaztelaniak euskara baztertuta baitu zenbait alor garrantzizkotan, ikasleen arteko harremanetan bereziki, eta hori belaunaldi berrion bihar-etzietako hizkuntz portaeraren seinale izan daiteke. Lagunarteko erlazioan erdarak aukera gehiago ematen du: txistek kontatzerakoan, bromak inprobisatzean, moda-modako hitzak erabili nahi direnean, esamoldeetara jo behar denean, talde-hizkera berezietan murgiltzeko... Erdarak eskaintzen dizkigun baliabide horiei uko egitea zail egiten zaigu denoi, gazteari partikularzki, hainbat eta hainbat ingurune eta egoeratan integratuago sentitzeko aukera ematen baitigute (...) Problema latza da: teoriak onak diren eskola-baldintzetan, etorkizuneko gizon-emakume euskaldunen arteko harremanak erdaraz eraikitzen ari dira maiz. Belaunaldi gazteek, euskaraz ikasi eta eskolatuak izan arren, ez dute, hainbat eskualdetan behinik behin, euskal gizarterik osatuko. Hori gertatzen ari da dagoeneko hainbat lekutan: euskaraz eskolatutako neska-mutilak hasiak dira eskolatik irten eta gizarteratzen, baina herri horietako kaleetan ez da euskaldungoaren indartze nabarmenik somatzen: zaharrak eta haurrak bakarrik sentitzen dira gustora euskaraz, baina gizartearen gune aktiboek gaztelanaiz segitzen dute jo eta ke, tartean txikitako eta ez hain txikitako euskarari uko egin dioten gazte euskaldun horiek direla.

Jokabide sozial hauei soluzioak bilatzea ez da agian eskolaren erantzukizuna, ez nagusiki eskolarena behintzat, baina handik eta hemenik konponbideak bilatu eta garatu beharra dagoela ez da dudarik" (20).

(19) Ik. Eusko Jaurlaritza. Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia, 1989, *Soziolinguistikazko Mapa*. Gasteiz, Eusko Jaurlaritaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

(20) *Euskal irakaskuntza: 10 urte*, 117-118 orr.

### c) Euskararen kalitatea

Aipa dezagun, azkenik, eskola-liburuetako euskararen kalitatea.

Gaur egun kalitatearen apustuaz hitzegiten da nonahi. Irakaskuntzaren kalitateaz ere hitzegiten da, zorionez, eta ikasteko tresnen kalitateaz ere bai, horrenbestez.

Ikusi dugu nola euskara batuari egozten dizkioten batzuek euskara txarraren ajeak. Kontuan izan gabe euskara batua zer den. Euskara ona erabil daiteke euskalkia erabiliz eta euskara ona, halaber, euskara batuan. Eta alderantziz ere bai. “Bixetan egin leike ondo ta bixetan egin leike txarto”, zioen Amurizak Euskerazaintzak antolatutako mahai inguru batean (21).

Jakina, euskaldunok euskara estandarraren beharra geure egin dugun neurrian, normala da testurik gehienak, itxura batean behintzat, batuan egotea. Eta hori horrela izanik, gerta liteke testu oker gehienak ere batutzat jotzen den hizkera mota horretan egotea. Gure hirietako edozein kaletan egiten ari diren lanak iragartzen dituen kartelean “Fueros kalea pasabide” irakurtzen badugu, bidegabekeria handia egiten dugu akats hori euskara batuari egotziz. Euskara akatsduna ezin da euskara batutzat hartu, euskaratzat ere nekez hartu ahalko dugun bezala.

Arazoa hori baino askoz meheagoa da, ordea. Erdibidea aipatu da. Hizkuntzaren senarekin bat datorren estiloa ere aipatu da. Baina non da hori? Erraza da herriaren ahotan bizi diren esamolde jatorrak erabili beharra aipatzea. Bidegabekeria da alde horretatik merezimendu guztiak parte batekoei egotea eta beste partekoei ukatzea (22).

Bada zeregina bazterretan. Ezin uka. Ausartuko nintzateke, ordea, esatera gaur inoiz ez bezala, inoiz ez bezain ongi idazten duen jende asko dugula. Egia da zenbait alor berritan sartu beharrak berekin ekar dezakeela huts egiteko arriskua. Baina gauzak gero eta hobeto egiten ari garelako ezin ukatu.

Baina eskoletan erabiltzen diren ikasliburuez zer esan? Gure haurrek eta gazteek darabiltzaten testu-liburuetako euskara nolakoa da? Galdera honi behin

(21) Ik. *Euskerazaintza* XXXI, 1995, jorrailla-ekainilla, 18. orr. Eta honen frogatzat, horra jendeak nola manipulatzten dituen datuak. Labaienek eraso zion liburuaren egileek euskara batua-  
ren txarkeria behin eta berriro darabilte ahotan. Liburu hartan dena gaztelaniaz ematen da. 305.  
orrialdean, hala ere, nonbaitetik ateratako panfleto batek dioena jasotzen dute, itzuli gabe, uler-  
tezinak direlako, eta hala dira. (ik. 305 orr.). Batuan omen. Ostera, piska bat aurrerago, Txillar-  
degiren hitzak jasotzen dituzte, beren erdara ederrera itzultzeko inongo oztoporik gabeak. Hauek  
ez zeuden nonbait euskara batuan.

(22) “Euskera batuak iñoiz ez du lortuko euskal sena bere barruan izatia, euskal sena, euskal  
anima (...) esaldietan dago. (...) Alegiñak egin ditut batuan idatzitako liburuetan esaldi jatorrak  
biltzen, batea jo ta bestea jo, ta sinisten erreza ez bada ere esaldi jatorrak bat bakarrik ere ezin  
jaso izan det, ori da euskera batua, baina ori ez da euskera” dio Oñatibia jaunak gorago aipatu  
mahai inguruan.



behineko erantzuna eman nahian hasi nintzen zenbait liburu miatzen, gaur egun hor zehar erabiltzen direnak. (Bidenabar, esan dezadan ez litzatekeela lan txarra izango azken hogeita hamar urte honetako testugintza aztertzea euskararen aldetik. Tesi gai polita egon liteke hemen.) Nolanahi ere, seme-alaben testuliburuak miatzen ari nintzela, “zer, aita, zer moduz daude?” galdetzen zidan semeak aski harriturik, bere liburuak aztertzen hain serio ikusten ninduenean. Horixe jakin nahi nuen nik ere: zer moduz daude gure ikasleek erabiltzen dituzten liburuok? Euskara batuari zenbaitek egozten dizkioten orbainak ageri ote dira testuotan? “Nahiko ongi” erantzun behar izaten nion galdetzaile jakin-goseari. Eta egia da, orohar. Nahiko ongi aurkitu ditut testuok. Nolanahi ere, susmatzekoa da duela zenbait urte egindako testuak eta oraingoak aski desberdinak direla. Oraingoak samurragoak, irakurterrazagoak, normalagoak, nolabait esateko. Duela hogeitabost urtekoak, latzagoak, zailagoak.

1982tik hona Hezkuntza Sailak martxan du EIMA programa eta horrek, nahi eta ez, eragina izan behar ikasmaterialen kalitatean. Guri dagokigunez, programa horren helburuetako bat “material horiek hizkuntz trataera egokia izan dezaten zaintzea” da. Jakina, egokitasuna gramatikazko zuzentasuna baino harago doa, zerbait gehiago da.

Dena den, egokitasunaz eztabaida liteke eta ez litzateke oso erraza izango zenbaitetan adostasunera iristea. Zuzentasun kontuetan ere listioia non jarri izango da kontua. Alegia, material bat onetsi ahal izateko, gutxieneko maila izan den erabaki beharko litzateke eta horretan ere, behar bada, kosta egingo litzaziguke ados jartzea. Nire ustez, hala ere, dagoeneko argi eta garbi emanak diren arauak goitik behera errespetatu beharko lirateke. Horiek guztiak betetzen ez dituen lanari ez eman oniritzirik. “Zero akats”, beraz.

Baina zein da nire behin-behineko eta axaleko azterketa honen emaitza?

Miatu ditudan testu guztiak ez dira berdinak. Adibidez, 1985eko testuren bat gainbegiratu dut, eta, orobat, 1990eko eta 94ko beste batzuk. Badira hizkuntz zuzentasunaz den bezanbatean diferentziak testu horietan. 94koan ez dut akats aipatzekorik aurkitu, baina 90ekoetan bai.

Aztertutako testu batzuek Hizkuntza dute gaitzat. Hauetan, esenplu ona emateko edo, ez dut hutsegite nabarmenik atzeman. Historiazkoetan, berriz, errazago gertatzen da horrelakoekin topo egitea. Akats hauek batzuk huskeriak dira, beste batzuk larriagoak. Huskeriak, huskeria direlako hain zuzen, harrigarriago gertatzen dira hainbeste iragazki pasatu behar izan dituzten testuetan.

Aipa ditzadan, labur-labur han hemenka aurkitu ditudan huts horietako batzuk. Berehala ohartuko gara bestelako testuetan ere sarri samar agertu ohi diren berberak direla akatsok. Beraz, aski erraz identifika daitezke, eta, horrenbestez, zuzentzen ere errazago izan daitezke.

## 1. Batzuk deklinabideari dagozkio:

— ergatiboa, pluralean bereziki, behar ez den leku batean agertzea (*“feniziarrek merkatari apartak ziren”* (APLI, 75)) edo behar lukeen lekuren batean ez agertzea, adibidez: *“Lantegirik haundienak (Bizkaiko Labe Garaiak, esaterako) altzairua dute produkturik nagusiena”* (H6, 15).

— Edo -a organikoa duten hitzen deklinabidean (*“okeletarako”, “okelatarako”*-ren ordez, adibidez (APII, 31)).

— Mugagabeak arazoak sortzen ditu zenbaitetan:

*“zenbait herrialdeetan”* (H6, 18) baina *“falta diren hilabetetan”* (H6, 28).

*“Itsasaldeko paisaiaren formak bi eragilei zor zaizkia”* (H6, 13).

— -KO atzikiarekin ere zalantzak agertzen dira: *“3.400 kilometroko erradioa”* eta piska bat beherago testu berean *“2.900 kilometrotako geruza”* (H6, 26). Hemen, jakina, eztabaida liteke zein den modu zuzena, baina, nolahi ere koherentzia falta da.

2. Joskeran ere badira akatsak edo bihurritzat edo badaezpadakotzat jo daitezkeen esaldiak:

*“gainera beste gauza askotarako ere erabiltzerik dago”* (APII, 42).

*“Sarri askotan, gobernuen laguntzarekin, gure enpresetako batek, berak bakarrik era eskusiboan badauka kontrolatzerik bai produkzioa nola salmenta ere produktu batena”* (APII, 60).

— Juntadurak ere arazoak sor ditzake: *“Ixiltasun eta zaratarik gabe”* ageri da (H6, 29) *“ixiltasunean eta zaratarik gabe”* esan behar lukeen lekuan.

*Ere lokailuarekin ere sarritan hutsegiten da: “Planeta bat ez beste guztiek ere ordulariaren orratzen alderantzizko norabidea dute”* (H6, 32).

*Hobe / hobeto / hobekien: “Gipuzkoa, Lapurdi eta Zuberoa dira Euskara hobe gorde dutenak”* (H6, 16-17).

## 3. Izenaren konplementu gisa agertzen diren perpausekin arazoak:

*“ez zuten alargun edo bakardadean biziko zirenaren beldurrik”* (APEA, 69).

*“Kristauen gudaosteak (...) Jerusalem berreskuratu duenaren berria eman du”* (APEA,75).

Beste adibideren bat jartzeko, arazoak daude nonbait sintagma kuantifikatuekin: *“Hainbeste janari bustitzeko 20.000 ardo litrotik gora izango da”* (APEA, 75).

*“Oihal metro gutxi egiten dugu”* (APII, 42).

#### 4. Aditzari buruzkoak.

Aditz perifrasiak lehen osagaiari eskatzen dioten partizipioaren ordezkia agertzen da zenbaitetan: “*ingura ahal izango dituzte*” (APII, 37). Problema bera honako honekin ere: “*altxa zituzten*” (APII, 10).

Aditz komunztadurazko okerrak ere gertatzen dira batzuetan:

“*Egunak eta gauak eguzkiaren mugimenduari zor zitzaiela uste izan du gizonak*” (H6, 27).

#### 5. Hiztegiari dagozkionak.

Sail honetan asko aurreratu dela garbi dago, batez ere terminologia kon-tuetan (Zalbide). Hala ere:

a) Sarritan koherentzia falta da bai morfologiari dagokionez bai idazke-riari dagokionez: *ingles / ingeles; artisau / artesau; makinaria* (APII 42) / *ma-kineria* (APII 40); *kostea* (APII 46) / *kostua* (APII 48); *baltsamendu* (APII 32) / *baltsamamendu* (APII 35) / *enbaltsamatu* (APII 36) /; *enbaltsamatzaiile* (APII 36); *injinari / injineritza* (APII 66); *herbeerak* (A II. 71) / *herbereetan* (APII. 74).

b) Zenbait hitz eratorri bide okerretik eraman direla dirudi: *musulmandar* (APEA, 72); *europear* (APII, 52), *indoeuropear* (H6, 20), e.a.

c) Zenbait hitz eratorriren gramatika kategoria behar bezala ez errespetatzea: *artisau* izen kategoriakoa izan arren adjektibo modura ageri zaigu (“*en-presa artisauak*” (APII 40); “*negozio itiki artisau bat*” (APII. 54) alde batetik eta “*artesau erruralek*” (APII. 41) bestetik. Gauza bera aurkitzen dugu *merkatari* izenarekin: “*garapen teknologiko, industrial eta merkataritari eusteko*” (APII. 50).

d) Zenbait aditzen errejimena: erantzun (“*erantzun itzazu galdera hauek*”); *ahal izan* (“*eroso bizi ahal izango zuten*” (APEA. 69).; *utzi* (“*merkataritzan aritzea uzten zitzaien*” (APLI. 50); *irabazi* (“*inork ez gaitu irabazi-ziko*” (APLI 57); *jiratu* (“*ilargi gehienak jirutzen dira*” (H6, 32).

Honek erakusten digu noizpait egin beharko den euskal adiztegiaren beharra, aditz bakoitzak zer nolako argumentuak edo “inguratzai-leak” eskatzen dituen erakutsiko diguna.

#### 6. *Beranduago geroago* erabili ordezkia (APLI 66).

“*Bailara*” “*ibarra*” esan beharrean (H6, 16)

“*Eman*” aditza “*gertatu, suertatu*”, esateko, nonahi.

Nire asmoa ez da eskola testuei triapak ateratzea, ez eta ere inor lotsaraztea zentsorearen kainabera luzea aidean astinduz. Are gutxiago, zuzentzaile lan hau zenbaitetik, sormenaren kontrako zentsuratzat hartzen dutelako edo, hain begi

Después del armisticio y la desmovilización, Alemania vivió unos años de dificultades económicas y sociales. Joaquín y Gerardo volvieron entonces a Legazpi, a donde llegaron en 1919. Pero los efectos de la lejana guerra se habían hecho notar, y de manera dura, en la vida de los Bähr: éstos no vivían ya en la tan recordada casa de Udana, sino que residían en Olaberria, casa perteneciente también a Legazpi. ¿Qué había sucedido? ¿Se habían producido en la dirección de la Real Compañía Asturiana de Minas, propietaria de las de Katabera, modificaciones sustanciales que habían llevado a retirar de sus cargos directivos a los técnicos alemanes como D. Federico Bähr?

El hecho cierto es que, a su vuelta de Alemania, Gerardo se encuentra en Olaberria, con el bachillerato alemán terminado (había aprobado la reválida a los dieciocho años, poco antes de su movilización) y sin poder volver allí para empezar su estudios universitarios. ¿Qué podía hacer? En ese momento de incertidumbre y de inactividad forzosa, empieza, casi como distracción, a interesarse por el euskara. ¿Hasta qué punto conocía él, entonces, este idioma? Su asistencia a la escuela de Brinkola había sido bastante corta, y las clases en ella se darían, probablemente, en castellano; sus bajadas al pueblo de Legazpi acompañando a D. Federico, aunque numerosas, serían breves y apenas podría durante ellas charlar en euskara con otros niños de su edad. Mercedes nos dice así, muy gráficamente, en una de sus cartas: *“en general (en los contactos de los Bähr con la gente de Legazpi), se hablaba castellano y sólo alguna gente de los caseríos en vasco. Así, mi amiga Justiña que me acompañaba todos los días hasta Telleriarte. Por eso fui yo la única de la familia que hablaba bien en vascuence. En Udana era Petra la única que hablaba «oñatiarra»”*.

Cuando, a los diecinueve años, se toma en serio el aprendizaje del euskara, pide ayuda a su hermana Mercedes. Nos dice ésta: *“Como Gerardo había estudiado algunas lenguas antiguas, le interesaba muchísimo el vascuence, y empezó a preguntarme a mí, como hermana, palabra por palabra, y comparando los dialectos de Legazpi y de Oñate”*. También charlaba cuanto podía con sus vecinos, los numerosos hijos del yuguero Martín Arizti. Los resultados que obtuvo Gerardo en este período de aprendizaje fueron verdaderamente asombrosos. En poco más de un año pasó de tener unos conocimientos del idioma superficiales a aparecer ya en 1921 como colaborador asiduo y apreciado de la Academia de la Lengua Vasca, Euskaltzaindia, con el grado de “correspondiente” de dicha academia. ¿Cómo pudo un muchacho de diecinueve años, sin otros profesores que su hermana menor y sus amigos del vecindario, alcanzar en un año un dominio del euskara que le permitiera colaborar con los grandes lingüistas que fueron los Azkue, Campión, Eleizalde, Urkijo, Eguzkiza, Uhlenbeck, Vinson, Schuchardt, etc.?



Este hecho que nos resulta casi increíble, pero que está perfectamente comprobado, demuestra la gran facilidad que tenía Gerardo para el estudio de los idiomas, la profunda formación en los idiomas antiguos que había adquirido en su período de formación en Alemania, y el coraje y tenacidad que derrochaba al enfrentarse a una tarea difícil. Al darse en él todas estas cualidades reunidas, el resultado fue que al final de su vida conocía nada menos que quince idiomas. Pero en el caso de Gerardo, y a la vista de cómo profundizó en el euskara, debemos pensar que no se limitaba a tener de esos quince idiomas, o de alguno de ellos, una idea superficial, un ligero “barniz”, sino que los dominaba a fondo.

En este dominar a fondo, en este profundizar en el estudio de las cosas, creo que radica el rasgo acaso fundamental del carácter de Gerardo. Les voy a leer, como ejemplo, un pequeño párrafo de cómo entendía él que debía ser aprendido un idioma y, en concreto, el euskara. Lo pone en un artículo que escribió en el año 1928, en recuerdo de Hugo Schuchardt, el gran lingüista y euskerólogo alemán, que acababa de fallecer. Nos cuenta que Schuchardt intentó en su juventud aprender el euskara, sin conseguirlo, por causas ajenas a su voluntad; y continúa diciendo: *“muchos años después, siendo ya mayor, se dedicó de nuevo a aprender el euskara, pero a sabiendas de que no era suficiente con leerlo en los libros. Había que vivir en el propio País Vasco, y aprender a hablar, unas veces divirtiéndose un rato con los pastores en el monte, otras hablando con los baserritarras, o bien contemplando el trabajo duro de los pescadores, o andando por las ferias y escuchando a los bersolaris: eso es lo que él quería hacer para conocer a fondo el idioma, para beberlo a placer en sus fuente limpias e incontaminadas”*.

Esta actitud para aprender el euskara que Gerardo atribuye a Schuchardt en el párrafo leído fue exactamente la que él mismo adoptó para dominar este idioma. Recordemos que empezó por las conversaciones que mantenía con los hijos del yuguero. Pero pronto se dedicó a recorrer todos los pueblos de Gipuzkoa, para captar en cada uno de ellos, charlando con la gente, la forma de hablar más pura y genuina. Y eso en una época en la que los coches particulares estaban al alcance de muy pocas personas, apenas había autobuses y los trenes llegaban a pocos sitios. Para visitar los lugares a los que no pudiera llegar por otros medios, Gerardo hacía montones de kilómetros en bicicleta, y cuando se le acababa la carretera, alcanzaba a pie los barrios o caseríos más lejanos. Solamente así se puede entender que recogiera, por ejemplo, el material para el estudio que, por encargo de Euskaltzaindia, realizó sobre el verbo guipuzcoano.

Gerardo construía siempre sus teorías científicas sobre la base de una observación exhaustiva de los hechos reales. Huye de la tentación —en la que, por cierto, tantos caen— de montar esquemas teóricos sobre hechos escasos en número y mal estudiados. Sus trabajos y artículos empiezan con la aportación de muchos datos estudiados a fondo, y, sobre esa base sólida, va razonando

hasta llegar a las hipótesis que tratan de explicarlos. Porque Gerardo tampoco cae en el extremo opuesto de limitarse a hacer trabajo de campo, sin atreverse a formular hipótesis que puedan ser discutidas.

## **ESTUDIOS UNIVERSITARIOS EN ALEMANIA. VIDA PROFESIONAL**


En el año 1921, al comprobar que se iba normalizando la vida en Alemania, después de las alteraciones originadas por la Gran Guerra, se marchan allí Mercedes, Gerardo y Juanito. Gerardo empieza los estudios superiores en la universidad de Göttingen. Como carrera fundamental eligió (tal como le había indicado su padre) la de Química, pero siguió también cursos de Ciencias Naturales y de Física. Y como su gran pasión eran los idiomas, se dedicó también a ellos con empeño. En 1927 consigue el título de profesor, en el grado más alto, de Química, de francés y de inglés. Y además —confirmando sus buenas cualidades de montañero y de ciclista que demostraba desde su juventud en Udana—, el título de profesor de gimnasia y de deportes. En el curso 1927-1928 pasa de Göttingen a Hannover, donde estudia en la facultad de Clevertor y en la Escuela Humboldt, obteniendo la licenciatura de Química, y aprobando un examen de pedagogía que le da la posibilidad de dedicarse a la enseñanza.

Como se ve, el campo de los conocimientos de Gerardo era muy amplio, muy abierto. Al leer sus obras, se tiene la impresión clara de que se mueve con soltura en muchos terrenos de la ciencia, tanto técnicos como humanísticos. No era un mero “especialista” —es decir, ese tipo de hombre que se limita a “saber casi todo sobre casi nada”, y que tanto empobrece a menudo a la sociedad en que vivimos— sino que está interesado y sabe discurrir sobre muchos aspectos del saber humano.

Durante estos años de estudios universitarios de Gerardo, suceden acontecimientos importantes en su familia. En 1926, muere su padre, D. Federico, en San Sebastián. La familia no residía ya en Legazpi, sino en Ormaiztegui, a donde se habían trasladado hacia 1922. Al morir D. Federico, su viuda Doña Juana se reúne con sus hijos en Alemania, terminando así la etapa guipuzcoana de la familia Bähr, que había durado unos cuarenta años, de los que vivieron en Legazpi unos treinta y cinco.

Gerardo inicia en el otoño de 1928, recién obtenida su licenciatura de química, su actividad como profesor en varias ciudades alemanas. Primeramente es auxiliar en el Instituto superior de Hildesheim; luego, en las escuelas Herschel y Humboldt de Hannover. Pasa a ser profesor en el Realgymnasium de Hannover, donde enseña durante varios años.

En este período de estudios y de docencia, no se olvida del País Vasco ni del euskara. Continúa su colaboración intensa con Euskaltzaindia, de la que es ya "miembro correspondiente" en 1921. D. Resurrección María de Azkue, presidente de dicha academia, le aprecia especialmente, y la amistad entre ellos durará toda la vida. Mercedes nos recuerda que Azkue visitó en una ocasión a Gerardo en Hannover, y así ella pudo conocer también al ilustre fundador de la Academia Vasca. Gerardo viene al País Vasco siempre que puede, y sabemos que estuvo aquí en los veranos de 1923, 1924 y 1930. Sus trabajos sobre temas lingüísticos van apareciendo con regularidad en la prestigiosa "Revista Internacional de Estudios Vascos" que publicaba D. Julio Urkijo. En los tomos que se editan entre los años 1926 y 1935 se pueden leer artículos firmados por Gerardo, varias recensiones de libros hechas también por él, y, además, su concienzudo estudio sobre las formas del verbo guipuzcoano que ocupa, sólo él, más de doscientas páginas.



Bähr-Daacke familia. Udana, 1913.07.13. Friedrich, Friedrich (aita), Mercedes **Gerhard**, Johanna (ama), Hans, Joachim

A lo largo de los años treinta prepara con esmero su tesis doctoral. Versaba sobre los idiomas vasco e ibérico, sobre su afinidad o parentesco. Es, en opi-

nión de los euskerólogos, su obra más importante y ambiciosa, que demuestra ya una madurez en sus conocimientos y que permitía augurar una producción posterior interesante para el estudio de las raíces del euskara. Presentó esta tesis con el título de “El vasco y el ibérico” en la universidad de Göttingen, y con ella alcanzó el grado de doctor en el año 1940.

## SEGUNDA GUERRA MUNDIAL

Pero ya para estas fechas de 1940, la vida de Gerardo, como la de tantas personas en el mundo entero, se desarrollaba en las circunstancias excepcionales y terribles de una Segunda Guerra Mundial, que había estallado en septiembre de 1939 y duraría, en Europa, hasta mayo de 1945. Gerardo, que había participado ya en la Primera a los dieciocho años, es movilizadado ahora con sus treinta y nueve, y enviado al frente, donde resulta herido; después se le destina, como intérprete, a la llamada División Azul que España había enviado a combatir contra Rusia. Por último, pasó a la escuela de preparación de intérpretes de Berlín. En enero de 1942, Gerardo contrae matrimonio con Erika, que era hija de uno de los profesores del Realgymnasium de Hannover, donde él había dado clase varios años. De esta unión nació su único hijo Hans Peter, Juan Pedro. Se sabe muy poco de los últimos meses de la vida de Gerardo. Mercedes estuvo con él, con motivo de algún permiso, en Salzburgo, en Austria, y cree, incluso, que le llegó a visitar en la escuela de preparación de intérpretes. Las tropas soviéticas ocuparon Berlín a fin de abril de 1945 y, en el enorme caos de aquellos días, se pierde el último rastro de la vida de Gerardo...

Terminaba aquí una vida que había durado cuarenta y cinco años, que Gerardo había sabido aprovechar a fondo. Si tenemos en cuenta que diez de esos años transcurrieron en medio de dos guerras mundiales, que representaron para él períodos de movilización y de lucha en el frente y para Alemania circunstancias de vida duras y excepcionales, poco fue el tiempo que le quedó a Gerardo para dedicarse a las tareas ordinarias con normalidad. Pero fue capaz de estudiar varias carreras, de aprender quince idiomas, de ser profesor durante muchos cursos, de indagar sobre el euskara y sus orígenes.

Al terminar este esbozo de su vida, quiero volver a algo que he dicho al principio: Gerardo fue legazpiarra, porque nació entre nosotros; porque vivió en una familia que fue legazpiarra durante treinta y cinco años; porque transcurrieron entre nosotros esos años tan decisivos de su infancia y de su primera juventud; porque aquí descubrió y se adentró en el mundo del euskara, al que iba a dedicar buena parte de su trabajo; porque en su obra están siempre presentes los paisajes, la toponimia, las leyendas, las personas de Legazpi. Por todos esos motivos, Legazpi recuerda hoy, con orgullo y agradecimiento, a este notable hombre de ciencia que fue el legazpiarra Gerhard Bähr.

## GERHARD BÄHR, EUSKALARIA

*Legazpi, 1995-04-29*

*José Antonio Arana Martija*

Legazpiko seme kutun honen biografiaz eta lanetaz zerbait esana da eta esatera noa. Euskal literaturaren historiako liburuetan ez du inork pertsonaia hau baztertu eta ahaztu. Eta ikerketa sakonagoak ere eginak dira, 1984.eko irailan bertan argitaratu zen *Legazpiko idazleak* liburuxkan, eta luze-zabalago *Ene bada!* aldizkariak 1991.eko irailean kaleratu zuen alean eta *Hots* aldizkariak argitaraturiko *Artikulu bilduma* liburuan. Gaur hemen esandakoak ere lagungarri izango dira gizona eta bere lana zehatzago ezagutzeko, heriotzearen mende erdia ospatzen dugularik. Baina ez dut uste honetan geratu behar garunik. Bost urte barru ospatuko dugu jaiotzaren mendeurrena (Udana, 1900.5.6) eta ordurako zerbait mamitsuago prestatzen hasi beharko garelakoan nago, egingo omen diren ekintzetatik aparte omenaldi liburu bat ere, zenbait ikerlek prestatua, kaleratuz.

Alemaniano Friedrich Bähr eta Johanna von Daacke senar-emazteak etorri ziren Legazpira, duela ehun urte, Kataberako meategira. Zientzia alorrean oso aurreratua zen orduan Alemania, baina hizkuntzalaritzan ere —eta hau da aztertu behar duguna— han zegoen gunerik aurreratuena. Ezin ditugu ahaztu Johann Christoph Adelung (1732-1806) eta honen loba Friedrich Adelung (1768-1843) zeinek eman ziguten *Mithridates* izeneko liburuak, Lorenzo Hervas Panduro-ren (1735-1809) lanak jarraituz, “Gure aita” 450 hizkuntzetara itzulia eman zigutenak, tartean euskara zelarik. Obra honen bigarren tomoan euskarari buruzko ikerketak agertzen dira, Humboldték argitu eta gehitu zituenak. Jacob Grimm (1785-1863), Franz Bopp (1791-1867), Friedrich Schlegel (1772-1829), Friedrich Diez (1794-1876), August Schleicher (1821-1868), Friedrich Müller (1823-1900) eta beste izan ziren Alemanian hizkuntzen sailkapenak eta gramatikak aztertzen ari izan zirenak. Eta hauek jarritako oinarrietatik sortu ziren gero Frantzian, Ingalaterran eta Italian, gehien bat, izan ziren hizkuntzariak eta filologoak.

Baina gure euskal mundura etorrita, ez dira gutxi izan gure kultura eta hizkuntzarekin arduratu diren alemanak. Done Jakue bidean erromes joan zen Von Harff-ek eman zigun 1497an ezagutzen den hiztegiño zaharrenetarikoa. Wilhelm von Humboldték (1767-1835), Euskal Herritik bi bidaiak 1798 eta 1801ean burutu ondoren, Berlingo Unibertsitatea sortu zuen 1809an, eta bertan

utzi zizkigun euskararekiko hainbat ikerketa eta dokumentu baliotsuak. Gero etorriko ziren euskara aztertu zuten euskalari alemanak, hots, Karl Mahn, Göttingengo Unibertsitatean ikasketak egin zituen, gure Bähr-ek bezala, Arno Grimm, Georg Gabelentz, Rudolf Sprenger, J.A. Schmeller, Werner Bergman, Meyer-Lübke, M. Winkler, Juan Martin Schleyer, “volapuk” hizkuntza asmatu zuena, gure Julio Urkixorengan honen lehendabiziko ikerketetan eragina izan zuena, Viktor Stempf, Wilhelm Ziesemer eta abar. Baina guztien gainera azpimarratu behar ditugun ikerleak honako hauek dira: Theodor Linschmann eta Karl Hannemann, “Baskische Gesellschaft” edo “Euskal Elkarte” eta *Euskara* aldizkaria sortu zutenek, Hermann Urtel, 1923an euskara katedra Hamburgoko Unibertsitatean sortu zuena eta Göttingenen lanak argitaratu zituen, Karl Bouda, eta denen gainera, behar bada, Hugo Schuchardt, zeinen biografia eta lanak gure Bähr-ek argitaratu eta itzuli zituen. Zor handia dauka Euskal Herriak hauekin guztiekin eta norbaitek prestatu beharko du ikerketa bat, Julio Urkixok paratu zuen *Vascófilos ingleses* monografiaren antzerakoa.

Gerhard Bähr-ek, alemanen familiakoak, bazeukan aurreko eta berealdikorik euskararekiko atxekimendua izateko. Hautzarotan Legazpin euskara askorik ikasi ez arren, Alemanian batxilergoa bukatu ondoren Euskal Herrira itzuli zenean, buru-belarri ekin zion euskara ikasteari. Euskaltzaindia sortu berria zelarik, Azkue euskaltzainburuari euskaraz idazten dizkio gutunak 1920an hasita. Baina euskara meneratzeaz gain, ikerketa lanetan ere murgiltzen zaigu. *Legazpiko aditzaz*\* txosten bat prestatzen du eta Erraimun Olabide euskaltzainak irakurtzen du 1921.eko otsailaren 24ko osoen bilkuran. Lanaren balioa eta egilearen prestutasuna ikusi zuten bildutakoek eta euskaltzain urgazle izendatu zuten bilera horretan. Euskaltzaindiaren historian Bähr jauna izango da, behar bada, izendatua izan den urgazlerik gazteena, 20 urte zituen eta.

Urte bereko ekainean Göttingengo Unibertsitatara joan zen aitaren gomendioz natur zientziak eta kimika ikastera. Baina ez du mozten euskararekiko grina. Urgazlea izendatu eta handik urte betera, 1922.eko otsailaren 24an, Schuchardt-en *Baskische Studien* lanaren zati bat itzultzea eskatzen dio Azkuek, lana ordainduz, jakina. Orduan sortu zen Euskaltzaindiaren lehen bekaduna: 1922-10-26an 200 pezeta ordaintzen zaizkio egiten ari den lanagatik. Eta urte bereko azaroaren 2an bukatzen du itzulpen hau: “Sobre la formación de las flexiones de relación del verbo vasco” (BR SBAP, 1972, 217-337), Schuchardtek 1893an idatzia.

Hurrengo urtean, 1923an hain zuzen, urtarrilaren 26ko bileran, Schuchardt-en *Sarako euskara* lana itzultzea agintzen zaio. Eta agindua ondo betetzen du, apirilko 26/27ko bileretan Azkuek itzulpen hori irakurtzen baitu. Göttingenen apirilaren 14an bukatu zuen lan hori, “Zur kenntnis des Baskischen von Sara”, Grazeko irakasleak 1922an idatzi berria, “Sobre el vascuence de Sara” izenburuarekin itzulia (*Euskera*, 1992, I, 247-292). Baina ez da hori

\* “Flexiones verbales de uso actual en Legazpia (Goyerri)” *Euskera*, 1925, 73-114.

egin zuen itzulpen bakarra. Orain arte izan dudan zalantza bat argitu zait Azkueri egindako gutunak irakurri ditudanean: 1923.eko martxoaren 3an igortzen dizkio *Latsibi* elaberriaren hiru lehen kapituluak gipuzkerara itzulita. Eta zera esaten dio: hurrengo urteko apirila/maiatza epean bukatuko duela itzulpena.

Bekadun gisa lan egiten zuela Bähr-ek esan dugu. Baina ez zen bera bakarra. 1923.eko apirilaren 26ko bileran zera irakur dezakegu:

Odon Apraiz, Aita Polikarpo Iraizoz ta Gerhard Bähr gure bekadunak batzarraldi batera betoz, Iztegi Aundiaren lanetan berri ta ikasbideak aitortu ditzaten, atzerri-ikastetxetan ikusi dutenaz.

Eta Bähr bekaduna etorri zen, bai, abuztuaren 8an egin zen bilerara. Udan ibilia zen Gipuzkoan zehar 39 herritan Azkueren *Erizkizudi Irukoitza* galdeketei erantzunak biltzen. Bidebatez, Gipuzkoako aditz-jokoak ere bildu zituen gero RIEV aldizkarian argitaratuak (1926-1931, 1934, 1935); baina ez zen dena argitaratu, gerrak moztu zuelako argitaratze hau: *Estudio sobre el verbo guipuzcoano: comprendiendo el presente e imperfecto de indicativo del auxiliar transitivo izan y de los verbos jakin, euki, ekarri, eraman, egon, joan, etorri en sus flexiones comunes y alocutivas*. Hogeita hiru urte zituen orduan gure ikerleak. Azaroaren 23an Donostian Euskaltzaindiak egin zuen bileran parte hartu zuen Bähr-ek eta agirian irakurtzen denez, “Schuchardt jaunari deritzaienez —esan zuen eta olbeltzean frogatu— euskal aditza pasivoa da”. Eguzkitza euskaltzainak bere aurkako iritzia agertu zuen orduan. Bilera horretan jaso zituen Bähr-ek 500 pezeta *Erizkizundi Irukoitza*-rako egin zuen lanagatik. Baina 1924.eko urtarrilaren 24ko bileran erabaki zen galdekizun bakoitzagatik 6 pezeta ordaintzea, eta 60 zirenez bete zituenak, 360 pezeta ordaintzea. Ordurako, abenduaren erdian edo joanda, Göttingenen zegoen. Ikasturtea aspaldidanik hasia zela adierazi zion Azkueri eta ahalegin handiak egin beharko zituela ikasketak ez atzeratzeko.

1924ko martxoan Friedrich aitak kobratzen ditu bekarako 500 pezeta eta apirilean berriz beste 500 pezeta. Ordurako Ormaiztegin zegoen familia. Uztailaren 21ean aitak sinatzen duen ordain-agiri baten (1.000 pezeta urtea bukatu arteko beka) kimika ikasketetik aparte filologiakoak ere hasi zituela semeak adierazten du. Ordurako beste lan bat ere hasia zeukan Gerhardek, hots, *Hiztegi Etimologikoa*, baina Larramendi, Astarloa eta Arana-Goiriren etimologiak baztertuz. Ez dugu tamalez ezagutzen lan hau. 1924 urte horretako udan oporrak Ormaiztegin bete zituen, Gipuzkoako aditzari ekinez. Hurrengo urteko martxoaren 24an aitak jasoko diut 1.000 pezeta, beka gisa, Göttingenen filologia ikasketak egiten ari den semearentzat. Eta 1924ko udan egindako lanagatik, 650 pezeta jasotzen ditu. 1925.eko udan jarraitzen du Gerhardek Gipuzkoako aditza jorrazten eta urriko bileran aurkezten du lana. Julio Urkixok RIEVen argitaratzeko eskaria egiten dio Euskaltzaindiari, eta onartzen da. Hil bereko 30ean Bilboko bulegoan dago Gerhard eta bigarren seihilabeteko beka kobratzen du, 1.000 pezetakoa, hala sinatuz “El pensionado, académico correspon-

diente”. Abenduaren 7an bukatzen du Donostian honako lan hau: “Sobre el nombre de plomo en vascuence” (RIEV, 1926).

Bitartean, Karmelo Etxegarai euskaltzaina hil zen 1925.eko azaroaren 4an eta Azkuek idazten dio Bähr urgazleari haren aulkia eskainiz. Isaka Lopez Mendizabal proposatua zen, baina Azkuek ez zuen onartzen izendapen hori. Tolosarrak bere Hiztegia egiteko lekeitiarrak 1905/1906 urteetan argitaratutakoa baimenik gabe kopiatu zuela eta ez zion hori parkatzen. Arazoa konpontzeko irtenbideak proposatu zizkion Azkuek, baina ez ziren konpondu eta hortik zetorren legazpiarra aurkeztea. Azkenean, Bonifazio Etxegarai, Karmeloren anaia, izan zen izandatua 1926.eko urtarrilaren 29an. Urte honen martxoaren 26an Euskaltzaindiak Bilbon egiten duen bileran agertzen da Bähr urgazlea. Filologia ikasketarako 1.000 pezetako dirulaguntza jasotzen du Gerhardek eta urriaren 7an, Göttingenen beste 1.000 pezetako erdia. Ikasketak bukatu ondoren Hannover-en kokatzen du bizilekua eta irakaskintzako zeregina. Hannover-en idazten du 1926.eko abenduaren 12an “Otra vez *eslata*, vallado de madera” lana (RIEV, 1927). Ordurako Friedrich aita ere hila zen eta familia Alemaniara itzuli zen.

Bähr euskalariak izan zuen maisurik handiena, Hurgo Schuchard, 1927.eko apirilaren 27an hil zen Grazen. Honen biografia idatzi zuen legazpiarrak eta Iruñean argitaratu 1928an: *Hugo Schuchardt zana*. Lan honetaz zera idatzi zuen Georges Lacombe euskaltzainak: “La brochure est écrite en excellent basque guipuzcoan” eta bi euskalarien iker lanak goraipatuz honako hau idatzi zuen: “Il ne suffit pas d’aimer la langue basque, il faut encore et surtout l’etudier”.

Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae* liburuarekin zerikusirik ez daukan Hugo Schuchardten *Primitiae Linguae Vasconum* izenpeko ikerketari, Leizarragaren testu bat aztertzen baitu filologikoki, hitzaurrea jarri zion Schuchardtek berak., Hitzaurre honek 1923ko abuztuaren data darama, eta Bähr-ek Euskaltzaindiak urte bereko abuztuaren 8an agindako bileran irakurri zuen. Gero Halle hirian argitaratzen zen *Zeitschrift für Romanische Philologie* aldizkarian egin zion 1928an irazkina. Urte berean eman zigun Harz inguruetakoa Sankt Andreasbergen idatzi zuen “Los nombres vascos de la abeja, mariposa, rana y otros bichos” (RIEV, 1928). Hurrengo urtean, 1929-9-8an idazten du Hannover-en “Nombres de plantas en vascuence” (RIEV, 1929) eta azaroaren 24an “De Astronomía vasca” (RIEV, 1929), gai berbera ukituko duelarik 1931an euskaraz eta gaztelaniaz: “Ostraillika ta ostadarra Gipuzkoan” (*Euskera*, 1931, 51-61) eta “El arco iris y la vía láctea en Guipúzcoa” (RIEV, 1931). Lan hauetaz zera diotso Justo Garatek: “Continúe usted trabajando con ese método científico germánico y ese genuino vasquismo de Udana” Urte berean idatzi zituen Hannover-en “Alrededor de la mitología vasca” (RIEV, 1931) eta “De toponimia vasca” (RIEV, 1931). Azken lan hau Urkixori igorri zion 1930-10-26an, eta gutunean esaten zion Legazpiko artxiboa arakatzen ibili zela urte bereko abuztuan.



Schuchardt hil zenean beronen omenezko sari bat sortu zuen Euskaltzaindiak, 500 pezetakoa, lehendabizi *Usauri* elaberriarekin Agustin Anabitartek 1929an irabazi zuena. Berriz irabaziko zuen Anabitartek sari hau 1932an *Donostia* elaberriarekin. Bitartean, 1930.eko maiatzaren 26an, Gerhard Bähr urgazleari eman zioten Schuchardt saria “Los nombres de parentesco en vascuence” lanagatik. Hannover-en idatzi zuen lan hau 1930-3-28an, beraz saritua izan baino bi hilabete lehenago. *Euskera* boletinean agertu zen (1935, 3-42), separata gisa ere bai eta gero *La Gran Enciclopedia Vascan* (1968).

Hannover-en jarraitzen du lanean gure euskalariak. Gogoan dauka Juan Bautista Eguzkitzarekin 1923an izan zuen eztabaida eta 1931.eko ekainaren 23an zera idazten du: “Verbos compuestos, factitivos o causales ¿cuál es en ellos el verdadero elemento factitivo? (Respuesta al señor Eguzkitza)” (*Euskera*, 1933) Berunaz 1925ean idatzitakoari eusten dio berriz eta 1932-11-20an alemanez idazten du “Medrubiga = Die Bleistad?” eta geroxeago, urte bereko Gabon egunean, gaztelaniaz, “Medrubiga = la villa de plomo” (RIEV, 1933). Hurrengo urteko Gabon egunean, berriz, datatzen du irazkin bat, hots, Wilhelm Ziesemer “Das Land der Basken” liburuari dagokiona. 1934 urtean beste euskararekiko bi lan idatzi zituen Hannover-en: martxoaren 19an “El vasco y el camítico”, eta martxoaren 28an “Aurten, Geurtz, Igaz” (biak RIEVen, 1934an, argitaratuak).

Azkueren *Erizkizundi Irukoitzari* erantzunak eta Gipuzkoako aditz-jokoak biltzen ibili zela 1923an badakigu. Baina lexikografia lana burutzeko ere hainbat hitz bildu zituen, berak 1936an dioskunez. Euskalari askorekin harremanak izan ondoren, eta aipatzen dituen hainbat liburu eta aldizkari irakurri ondoren, RIEVen eman zigun lan baliotsu hau: “Nombres de animales en vascuence (etimología y folklore)”.

Azkenean geratzen zaigu Filologian doktoregoa lortzeko Göttingengo Unibertsitatean aurkeztu zuen tesia: *Baskisch und Iberisch*. Karl Boudak dioskunez 1940.eko martxoa baino lehen burutu zuen Bähr-ek tesia. Doktore berria 1945ean hil ondoren, Erika Micha alargunarengandik kopia bat ateratzea lortu zuen Boudak eta beronen hitzaurre batekin argitaratu zuen *Eusko Jakintza* aldizkarian 1948an. Euskarak eta hizkuntza iberikoak ez dutela zerikusirik frogatzen du Bähr-ek tesian. Oraingoan ez dator ados Schuchardt maisuarekin, bi hizkuntzen ahaidetasunaren aldekoa zen Grazeko irakaslea eta.

Doktoregoa lortu ondoren ez zuen lanean jarraitzeko aukerarik izan. Alemania gerran sartua zen eta Bähr-ek gaztelania zekienez, Espainiako batailoiekin (División Azul-ekin hain zuzen) Errusiatik ibili zen 1942/1944 bitartean, baina ez dut uste “nazi” pentsamoldekoa zenik, garai hartako ezinbesteko semea baizik. 1944.eko apirilaren 15ean Berlingo Itzultzaileen Akademiakoa zen. 1945.eko apirilaren 27an hil omen zen Berlinen, duela 50 urte. Legazpiko euskalari alemanari ospe, ohore eta eskerrona.



# G. BÄHR-EN EUSKAL ADITZARI BURUZKO LANAK ETA EZTABAIDAK

*Legazpin, 1995.eko apirila*

*Ander Ros Cubas*

## 1. G. BÄHREN IHARDUERA ETA LANGINTZA

Bähren obran bi garai, arras ezberdinak, bereiztu beharra dagoelakoan gaude. Hasierako sei urteak, 1920-25, ikasle urteak izan zituela esan dezakegu, ikasteari ekin orduko gure arteko maisu askoren parean ezezik gainean ere bazela eta ikasteari inoiz utziko ez ziola jakinaren gainean gaudelarik ere. 1923 arte ez zuen tamaineko lanik egin, azken hiruotan egingo zituen lan gehienak ordurako enkargatuak zizkioten; 1923tik 1925era jo ta ke lanean aritu eta gero, 1926. urtea, gure artean eman zuen azkena izan baitzen, gertakizun apartekorik ez dagoela ematen ez duen arren, inflexio urtea gertatu zitzaion gazte aleman legazpiarrari, heldutasun eta independentzia urtea, nolabait esateko. Norabide aldaketa bortitza jaso zuen orduan Bähr gaztearen ikasbideak. Arrazoiak eta motibapenak ez daude zeharo garbi baina zerbait susmatu eta esan dezakeguelakoan gaude. Ordutik aurrera hasten da Bähren bizitzaren edo obraren norabide berri (zahar) bat, Euskal Herrira etortzeari utzi egiten dio —1929.ean eta 1930.ean eginiko bisita laburrak salbu— eta hortaz hain maite zituen bilketa lanak alde batera behar ditu, aurreko urteetan bildu materialaren azterketari ekiten diolarik. Euskaltzaindiarekiko, eta Azkuerekiko, harremanak hoztu egiten dira eta Urkixorekikoak, aldiz, estutzen.

### 1.1. Ihardueraren nondik norakoak

Aipatu hasierako urteetan euskara ezezik, linguistika eta lan egiteko metodologia eta ahalmenaz jabetu zitzaigun Gerhard Bähr, frantsesa, ingelesa, gaztelania, kimika,... e.a. ikasketa ofizialak zituenez gain, jakina. Oso gaztea genuen Bähr artean baina langile sutsu nekaezina, biltzaile metodiko esanekoa, ikasle zintzo aurreratua. Besteen, batez ere Azkueren, ekimenari gogotik plegatzen zitzaion laguntzaile edo morroia genuen gazte legazpiarra; ez inizatiba propioaren faltaz, alabaina, errespetuak eta ikasteko eta laguntzeko gose asekaitzak bultzatuta baizik. Nolabaiteko grina laino eta inuxente batek jota bezala zegoen euskararen ikasketen baranoan murgildua.

Bost urte horietan burutu zituen lanak edozeinek bizitza oso batean ez egitekoak bestekoak ziren, nornahik ezin burutzezkoak, lanei ematen zizkien kalitate eta zehaztasuna bide: Legazpiko aditza (1921, 1925.ean argitaratua), “Uñaño zein xirietaz” artikulua (1922), Schuchardten lanen itzulpena (1923, 1924; hilondoan argitaratuak), Erizkizundi Irukoitzeko lankidetzatza (1923, 1924; hilondoan argitaratua), Gipuzkoako Adiztegia (1923-1925-1926.ean argitaratzen hasi baino bukatu aurretik bertan behera utzia eta azkenik galdua), Euskal Hiztegi Etimologikoa (1924.ean hasita; bukatu eta publikatu gabea, galdua antza), Azkueren Latsibi nobelaren itzulpena (1924), Linguistika klaseak Bilbon (1923 ?), lexiko bilketa (1921-1925; sekula publikatu gabea, eta seguruenik galdua). 1921.eko urrian Euskaltzaindian irakurri zen baina ezagutzen ez dugun beste lantxo baten berri ageri da Akademiaren aktetan: “*Bähr, gazte azkarraren idazki bat, gogoz entzun du Euskaltzaindiak*”, agian gero agertuko zuen lanen bat da edo ezezaguna eta galdua zaigun Bähren bigarren lana, Legazpikoaren ondotikoa. Lan guzti hauek, gogoratu beharra dago, oporretan egitekoak zituen, gero, udaldia iragandakoan, Alemaniatik ezin egitekoak asko, edota lanari eta ikasketei ebasten zizkien txolartetan burutzezkoak, besteak.

Euskaltzaindian urgazle izendatu zutenetik, luzatu zioten enkargu piloari, tamainaz eta zailtasunez, kupidagabe deritzagu orain. Hasteko Schuchardten lanak alemanieratik itzultzea agindu zioten, *Baskischen Studien* lehenbizi, Sarako euskarari buruzkoa gero, eta “Baskischen” zeritzan sail osoa, azkenik. Modu adierazgarri honetan eskaini zion gutunez Azkuek: “... *lan ori ¿nork egin? nori eman arazo ori? Euskaltzain guztiok ao batez zerorren izena aitatu genuen eta orregatik zerorri eskaintzen dizut*”. Euskaltzaindiaren erabakia hiru egun ondoren hartu zen (1922/214): “*Euskaltzaindiak Gerhard Bähr jaunaren euskaltasuna ikusirik, gazte azkar oni zerbait diru ematea erabaki du, euskal-lanetan indar aundiz jardun dezan. Diru ori bide, lan bat egotzi lekiyoke, ta Euskaltzaindiaren gogokoa auxe litzake: Schuchardt'en Baskischen Studien es-pañeratu*”. Ageri denez, estraineko itzulpen enkargua, 200 pezetaz ordaindua, behin behinekoa izan zen, nolabait gazteak zer gehiago egin zezakeen Euskaltzaindiari begitandu bitartean. Itzulpenaren lanaren tamaina gaitzaz jabe gaitzen gogoratu behar da ordurako ezaguna zela Schuchardt itzultzeko eta are irakurtzeko zailtasuna, Urkijok, esaterako, edota Irigarayk, ondo baino hobeto testifika zezaketan bezala. Bährek ere lehenengo momentutik lanaren zailtasuna ikusi eta apaltasunez aitortu zuen. Gaztelania behar bezala menperatzen ez zuela esanez, besteren batek bere itzulpena zuzentzea eskatzen zion Azkueri: “... *hartako gertu nintzake, baldin gai banendi (...) besteren bat idoro ezpadadi, itzulpena sayatzeko aukeran naukazute ni, edozein gauzerako legez. Nahi nuke, baño, hangoren batek nere lantxo orraztutea, elezketaren duin izan dadin*”.

Erantzun hori jasota eta hilabete eskasera lehenengo itzulpenean ezezik bigarreanean ere hasteko agintzen dio Azkuek: “*Baskischen Studien itzulita Saran egin zituan ikasmenak itzultzen azi zaitetzke*”. Itzulpen lanean gogoz jarri zen Bähr, bi aste baizik paseak ez zirelarik, lehendabiziko frogak bidali baitzizkion

“nagusiarri”. Urte amaierarako Euskaltzaindiaren batzarretan hasten da itzulpena irakurtzen, eta berriro, berandu gabe, 1923.eko lehen batzarraldian: *“Schuchardt-lan guzrien itzulpena berandangik nai litzake. Asi ditek: Sarako euskera ta gero Baskischen deitzen diren lanetatik”*. Ez zegoen denbora alferrik galtzerik, hilabete lehenago hurrengo udarako enkargua erabakia baitzegoen: *Erizkizundia*. Uda iritsi bitartean, berriz, Sarako lana amaitu zuen, Azkuek apirilean bi egunez irakurri baitziren euskaltzainei. Gogoz entzun bide zuten lan hori ere, batzar horretan bertan hurrengo batzar baterako gonbidatu baitzuten Bähr, Apraiz eta Iraizoz beste bekadunekin batera, Iztegi Aundiaren berri eman zezan: *“... batzarraldi batera betoz. ‘Iztegi Aundiaren’ berri ta ikasbideak aitortu ditzaten, ikastetxetan ikusi dutenaz”*.

1923.eko udarako, beraz, bigarren enkargua, Erizkizundi Irukoitza, “egotzia” zioten, aurrekoa baino are nekosoagoa, orduan garaiko baldintzak zertan ziren ohartzen bagara. Oraingoan ere ondo baino hobeto erantzuten jakin zuen Bährek, enkargupeko hirurogei herriak baino dexente gehiago bisitatu bide baitzuten. Denetan ere, gainera, egin beharreko lana inork ez bezala, metodikotasun, zehaztasun eta ñabardura izugarri piloaz beti, eta inportanteago dena, geroko lanetarako bestelako informazio ugari eta oparoa jasoz ere, aurreragoko publikazioetan erakutsiko zuen bezala. Hasiera batean Gipuzkoaz gain, Iraitzozekin batera Nafarroan lehenik, eta, Iparraldean gero Lakonbe eta Gaveli laguntzen aritzea ere nahi izan zuten Euskaltzaindian, baina horretarako, 1926.ean, gertu zenerako, Bähren atsekabez, lana egina zen.

1923.eko urtean ari zedin beste enkargu bat ere luzatu zioten. Euskaltzaindiaren 1922.eko urriko batzarrean “linguistikako ikaskuntzari” lotzeko agintzen zaio eta berehala, hurrengo hileko batzarrean, berriz, Bilbon hamabostean behin linguistika klaseak ematea: *“Zerorrek amabostean bein linguistika-ikaskizunak Bilbon emateko bosteun peseta oien ordez”*. Ez daukagu horren geroko berririk, gure artera etorri zenean buru belarri aritu baitzen aginduriko Erizkizundiko lanetan.

Hurrengo urtean Gipuzkoako adiztegia jasotzea izango zen egin beharrekoa, horretan ere beste bi urte enplegatu behar izan zituelarik. Guzti hori hogeitau hiru, lau, bost urte baino ez zuelarik Bährek, eta guztia beka baten bidez nolabait kontratatua zutelako.

Hala eta guztiz ere, ez zitzaigun, ez, kikildu gazte langilea; erronka horiei eta handiagoei ere fin erantzuteko gauza zela erakusten ari zen, horretarako aukera ematen ziotenean. Lan horiei nahikoa iritzi ez eta, guztiak agindu bezala betetakoan, beste batzuei lotzen zitzairen bere kasa, Azkueren Latsibi nobela itzultzea eta Hiztegi Etimologikoa, esaterako, biak ere 1924.ean hasiak.

## 1.2. Ihardueraren gorabeherak

Legazpiko aditzari buruzko lana Euskaltzaindian irakurri eta hilabete bazuetara, urrian, Euskaltzain Urgazle izendatu zuten. Aurreko urtean jadanik Bähren izena aipatua izan zen, orduan izendapenaren gaia hurrengo baterako uztea erabaki bazen ere. Apenas ez zuen artean inork ezagutzen gazte alemaniarra, eta horren seinale hasieran Euskaltzaindiaren Euskera agerkarian bere izena transkribatzeko egiten dituzten etengabeko hutsak dira: *Bacher, Baher, Baher,...* Bi urte paseak zituen Gipuzkoan, Alemaniatik batxilerra egitetik etorrita, baina atzera joana zitzaigun.

Azkue, gaztearen aitabitxi sutsua izan baitzen lehendabiziko momentutik, ez bide zegoen pozik gaztea Alemanian egotearekin; betidanik bere ametsa gaztea erakortzea izan zelarik. Horretarako asmatu zuen bidea bekario egitea izan zen; pentsatu eta egin: *“Euskaltzaindi onek bekadun bi ditu eta auetatik batek irugarren urtea darama eta aurten izango da azkena. Onen orde zatorren urtean zerorri izatea erabaki degu; berri onek poztuko zaitula uste der”*.

Bekek, berriz, aurreko hitzetatik uler daitekeenez, hiru urteko gehienezko luzapena zuten. Horretarako ere bazuen Azkuek bere irtenbidea; beka nolabait bitalizioa egitea. Honen inguruan, pentsatzen dugu, sor zitezkeela, nahiz eta Bährek muzinik ageri ez, besoetako eta aitabitxiaren arteko desadostasunik eta tentsiorik. Bekarioa izateko gonbidapena goian transkribatu duguna bera dela ematen du, Azkuek gutunez jakinarazia, beraz. Erantzuna ere gutunez helarazi zion Bährek Azkueri: *“Seguramente se sonreirá usted cuando le cuente mi tercer punto —la culpa la tiene mi poco conocimiento del castellano— por lo que no he entendido muy bien de qué se trata. ¿Qué significa ‘beca’? ¿Se trata de algún tipo de subvención? En caso que así sea, ¿qué condiciones lleva consigo? (...) De momento no me he decidido, puedo tomar la decisión más adelante”*. Badirudi Azkuek ez diola baldintzarik aipatu, baina zerbait susmatzen dela. Baldintza horiek jakin artean Bähr gazteak nahiago du itxaron. Erantzuna, egun batzuk geroago Azkuek bidalitako gutunean dator, labor eta oraindik ez argiegia: *“Datorren urterako agindu dizugun beka alemanez stipendium da eta bi edo iru urtean 2.000 edo 3.000 peseta izango da bere saria, linguística sakonez ikasi dezazun. Beka orrek noraezeko (indispensable) baldintza bat izango du ta auxe da: biar edo etzi gure artean euskereaz lan egiteko”*. Urte berria hasi eta berehalaxe lehenengo saria luzatzen diote, artean Bährek erabakia hartu gabe duela: *“Maidaganez, Euskaltzaindiak ematen dizun ikaspidearen (beca) saritzat bosteun peseta igorri zizkizun. Euskaltzaindiak ikaspide ori agindu zizunean baldintza bat jarri zuela oroituko alzera. Baldintza ori, ikasketak bukatuta, gure artean bizi izatea zan Euskaltzaindiari lagundu al izateko. (. . .) Zeure buruaren jabe zara baina bekario bezala ori ezin egingo dezue. Euskaltzaindiaren bekaz ikasketak ikasi eta ondoreak beretzat ez izatea nere lagunak ontzat artuko dutenik ezte uste”*. Estukura larrian jarria zuten gaztea, nahiz eta Azkuek alternatiba bat ere ematen dion: *“Bidali diz-*

*giguzun (sic) bosteun pesetak, bekario ez izatekotan Schuchardten lanak itzul-  
tzearen aldera bi bat urteetan izango dituzu”.*

Bähr gaztea ez zegoen ukoa emateko egokieran, baina baiezkoa ez zen oso erabatekoa izan, gero gertatutakoak frogatuko zuen bezala: *“Mi estancia allí no debería ser corta, quisiera ocuparme en algo para toda mi vida. Aceptaría con agrado el puesto de químico que me ofrece. Quizás no me he expresado bien en mi carta. Pienso con alegría en el verano, que pasaré allí”*. Hurrengo urtean kobratzen hasiko da, 1.000 pezeta edo lehenengo urtean eta 2.000 pezetana hurrengo bietan. 1927.erako bekarik ez zegoela, eta Bähr euskaltzain osoa egiteko Azkueren asmoa zapuztua zela ez zen berriro gureganatu, lehen esan bezala, 1929. eta 1930.eko bisita laburrak alde batera utzita. Egia da aita 1926.ean hila zitzaiola eta horrek eragin ziezakiokeela Bähri baina gertakizun tristea gáinditua zuela dirudi, horren ondoren, urte horretan gure artean egon eta udan lanean murgiltzeko gogoia agertzen duelarik. Azkueretik eta Euskaltzaindiarekiko loturak lasatzeko erabaki edo eginkizunean gertaera familiar horrek baino pisu gehiago, erabatekoa agian, izan zuela uste dugu Azkuek, beka bitarteko, inposatu nahi zion lotura hertsitik askatzeko aukerak batetik eta urte horretan Euskaltzaindiak enkargu berririk eman ez izanak bestetik. Ez genuke ahaztu beharko, bestaldetik, Bährek ordurako xextraren bat edo beste izana zuela Eguskitzarekin, eta nolabaiteko etsaiak ere bazituela. Bekaren inguruan eta bestela gazteak jasotako diru eta laudoriek inbidiaren bat baino gehiago ere piztu eta ernatuko zutela pentsatzea ez da zentzugabea. Bekaren sariz 3.000 pezeta, itzulpenen truke beste 300, Erizkizundian eginiko lanagatik 360 gehi 1.694 gastuetarako, Gipuzkoako aditza jasotzeko 650 eta 600, hurrenez hurren. Ez zen, ez, ordurako diru makala, inork gutxik kobratuko zuena, ziurrenik.

Azkuerengandik gero eta urrunago ikusten dugu Bähr, hainbat eta alde-  
ratuago zenbat eta helduago. Urkixorekiko elkarridazketan garbi ikusten da Bährek Azkueri buruz denboraren eta esperientziaren indarrez egin zuen irudia. eta Azkueri buruz ezezik Euskaltzaindiari buruz ere. Kontrastez kanpotarrak, Schuchardt buru —*“héroe de la ciencia”*, Bähren hitzetan—, seriotasun zientifikoaren zutabeak. Horretara Urkixori adierazten dio bere burua gehiago ikusten duela kanpoko euskalari zientifikoaren artean eta prestago alde horretatik, RIEVen parte hartzeko, Euskaltzaindiaren inguruko bertako euskaldunen artean baino: 1926.erako jada, esaterako, honela mintzo zaio Urkixori: *“Opino que en la Academia deben tener mayoría los que son vascos netos y que conocen el idioma desde joven, pues según creo la labor de la Academia seguirá siendo literaria y de investigación, reservándose los serios estudios científicos (más bien) para el extranjero, luego como el presente”*. Eta urte bereko beste gutun batean: *“¡Lástima que él (Azkue) no se decida a consultar previamente las demás publicaciones! Así hubiera podido ahorrarse mucho trabajo y no necesitaría buscar explicaciones donde ya las hay y bien buenas”*. Schuchardti buruz, ordean: *“Con él se nos va al hoyo el más sublime representante de la*

*vascología entera el que incorporaba en sí sólo la época clásica de los estudios vascos apareciendo como enanos a su lado aquellos colaboradores como Bonaparte, van Eys, Vinson. El que fué maestro absoluto del estudio de la lengua vasca sobrevivió a los demás acabando así toda esta época*". Eguskitza eta aranazaleekiko iritzia, bestaldetik, ez da nolana hikoia: "*Pero en las cuestiones científicas hay que prescindir del punto de vista político. A mi se me antoja que los neologismos cuanto más deficientes, son más aceptados por los nacionalistas*".

## 2. G. BÄHR-EN EUSKAL ADITZARI BURUZKO OBRA

### 2.1. Legazpiko aditza

Gerharden lehendabiziko lana daukagu hau, 1921.ekoa hasierako bertsiotan, nahiz eta lau urte beranduago arte ez zen argitaratu eta, argitaratzearen karietarat, emendatu eta osatu. Lehena izanagatik ere, ez da inolaz ere lan eskasa, aldiz, monografia bikaina da, gero emango ez dituen datuak ematen dituelarik orain. Bere estreinaldian berean frogatu zuen aleman gazteak euskal estudioekiko atxekimendua eta lan egiteko ahalmen apartekoa; Azkueren begien alaigarri, baina bestetzuen inbidiagarri.

Lan honi esker edo lan honen aitzakiz, hobe esanik, zabaldu zitzaizkion Euskaltzaindiaren atea: "*Oron aburuz lan ori gure Euskera agerkarian argitaratzea erabagi zan eta jaun argitsu ori Euskaltzainurgazle izentau*". Lan honekin ere estrainatu nahi izan zuen RIEVeko kolaborazioa. Azkenean, beste lan garrantzitsuago baten ernamuina gertatu zelarik, hasierako interesa galdu zuen eta, hasierako laudorio nabariak ahaztoratuak zirenean, bost urteren buruan eta gorabehera askoren ondoren ikusi zuen argia.

Atzerapenaren arrazoiak ez du ematen guztiz argitaratzaileei egoztekoa izan zenik, hasiera batean guk geuk uste izan dugunaren kontra. 1921.eko otsailaren hondarretan irakurri zion Olabidek Euskaltzaindian —Bähr, Alemanian batxilerra egin eta gure artean bi urte eman ondoren Alemaniara itzulia baitzen— eta Euskera agerkarian argitara zedin erabakia hartu zuten, baita euskaltzainurgazle izendatzea ere, izan ere aurreko urtetik atzeratua zen izendapena. Izendapenaren berri Maidaganek jakinarazi zion Bähr gazteari, hilabete geroago jakinarazi ere, barkamen eske eta guzti. Lanaren beste aipamenik ez da ageri bilkuretako aktetan, harik eta lau urte geroago azkenik argitaratu zen arte.

Bien bitartean, halere, badago, Azkuerekiko eta Urkixorekiko korrespondentzia aztenutakoan, lan honi buruz zeresanik franko. Urte bereko ekainean Azkueri lana bihur diezaion eskatzen dio, lana Olabideri eman zionean inorako asmorik gabe emana ziola eta, inprentartzeko moduan ez zegoenez gero. Urte amaierarako oraindik ez diote lana itzuli eta Urkixori eskaintzen dio, hurrengo



urteko udaberrirako izango duelako asmotan. Apirilean, laster izango duela jakinerazten dio Urkixori eta abuztuan, berriz, lanaren zirriborroa baduela baina, espainola aitzaki, oraindik ez dela lana argitaratzera ausartzen. 1922. urtea zen eta urte t' erdi pasea lana Euskaltzaindian irakurri ziotenetik.

Artean beste proiektu batzuetan murgildua eta murgilarazia zegoen Bähr: Schuchardten lanen itzulpena, Erizkizundi Irukoitza, Hiztegi Etimologikoa, Linguistika klaseak, Latsibiren itzulpena,... ez nolanhiko lantegiak, Alemanian ikasbidekoak zituenez gain. Azkenik, 1925.ean, Euskaltzaindiaren idazkaria zen Maidaganek gutunez eskatu eta laster batean inprenta bidean zen lana. Euskaltzaindiarekin bete zuen hitza lehendabizi, eta Urkixorekin hurrengo urtetik hasita. Nahi izan balu ere, aitzitik, ez zukeen erraz edukiko lehenago argitaratzea, Azkuek 1923, 1924 eta 1925.aren hasierako *Euskera* aldizkari osoak berarentzat hartuak baitzituen *Morfología Vasca* argitaratzeko. Ez da kasualitatea, beraz, Maidaganek orduantxe, Morfología argitaratzen amaitutakoan, eta ez lehenago, eskatu izana lana. Bähr ez zen kokoloa eta Azkueren monopolioaz kontzientzia argia zuen, behin eta berriz, baina beti apalki, hitzerdika esana zuenez: “*su inconmensurable obra que llena los últimos números*” (Azkueri, 1925), “... y vi que el contenido era en gran parte de su pluma” (Azkueri, 1928), “... quizás le sobre los originales como durante mucho tiempo” (Urkixori, 1929). Horren aitzakiz edo, lana berak heldua zuen, harik eta Euskaltzaindian, Azkueren publikatzeko gose askaitzak zirrikitu bat utzita publikatzeko garaia iritsita, eskatu zioten arte.

Legazpiko aditzaren lana hasierako horretan utzi zuen, ez zuen Urkixori urte batzuk lehenago adierazi bezala ondoko herrietako flexiotegiekin alderatu; ohar batzuk erantsiaz moldatu zuen bere konpromezua. Estudio konparatiboa, aldiz, hasierako asmoa gainturik, Gipuzkoa osorakoa izango zen eta RIEVen “*Estudio sobre el verbo guipuzcoano*” izenburuaz hurrengo urte sailean argitaratzekoa, Euskaltzaindiaren horretarako baimena lortu eta gero.

Legazpiko lanak bi zati ditu, lehenengoa, erditsua hartzen duena, paradigma taulek osatzen dute, datuek, alegia. Bigarrena, “*Notas*” izenpekoa, aditzaren jatorriari buruzko estudio teorikoa dugu. Lan honetan, “*cortés*” deritzan sailean, “*ni-zu-hura/gu-zuek-haiek*” hurrenkeran ematen ditu paradigmetakoa flexioak (*naiz, zara, da, gara, zarete, dira, ...*), *hi* izenordeari dagozkion flexioak (*haiz ...*) kontutan hartu gabe, “*familiar*” deritzan sailean, ostera, aurrekoen formahalokutiboak (*nauk, duk, gaituk, dituk; ...*) ematen dituenez gero, ez ditu “*hi*” izenordeari dagozkionak (*haiz, . . .*) ematen, alokutiboak ez baitira. Estudion hutsune hau konponduko du, flexiotegiak beste era batera antolatuz.

Esanak esan, bukatu dezakegu laburbilduaz Legazpiko aditzari buruzko bere lan honetan markatzen hasten dela Bähr-en euskalgintzaren norabide edo patua.

## 2.2. Erizkizundi Irukoitza

Urte haietan Atlas Linguistikoaren papera bete behar zuen *Erizkizundi Irukoitza* zerabilen Azkuek esku artean. Berehala, —1922-X-26— sartu zuen gure gaztea bere lankideen artean: “*Gerhard Bähr; Alemanian dagon euskaltzale onari, Euskaltzaindiak, bere euskal-lanen saritzat, 200 peseta oraingoz eman bezazkio. Opor egunetarako Euskaltzaindiak egotziko dizkio lantxo batzuek ta geroxnean beka bat emateko asmotan dago. (...) Apraiz jaun bekadunari idatzi bear zaio, Atlas lingüístico lanetan jardun dezala, bere oraingo ikasketak utzi gabe. Bähr jaunak ere lingüística’ko ikaskuntzari gogoa lotu bezaio. Polikarpo Iraitzoz’ek udarako opor egunetan Aita Etxalar laguntzalle bikain zaiolarik, Naparroari dagokion Erizkizundiko lanetan ekin lezake ta Bähr jauna, udaran Euskalerrian balitz berau ere lan ontan lotu liteke. Lakonbe jaunak Bidasoatik aruzko erizkizundi-lanak artu bitza, Gabel jauna lankide zaiolarik ta Aita Iraitzoz ta Gerhard Bähr, Naparroa’ko lanak bukatzekotan, Bidasoatik aruzko erizkizundian ere arreta bitez”.*

Enkarguaren berria, atzera ere, Azkuek heleraziko zion: “*A. Polikarpo Iraitzoz gure bekadun dan eta zure eskuetan eta ardurapean uztea erabaki dugu. Lan hau datorren udan egitekoa da*”. Bähren arrapostua ezin bestelakoa eta ezin azkarragoa: “*... me resulta particularmente agradable la realización de una investigación como la que me propone, ya que me permite conocer todos los lugares y dialectos, además de, con toda seguridad, reseñar otros hechos interesantes relativos a la dilectología (...) siempre he tenido el deseo de investigar todas las particularidades de la fonética local*”. Gazte gartsuaren beste arretagune horien arteko bat aditza zen, nahiz eta berak dialektologia eta fonetika baino ez aipatu, hurrengo udan lanean hasi eta Euskaltzaindiari bidalitako lehen txostenean ezin argiago geratzen denez: “*Bähr urgazle jaunak adierazten du Gipuzkoa-goi guzian ibili dala E.I. Ianak geitzen ta ango euskal aditza batez ere entzun ta aztertzen. (...) ta euskaltzañak auxe entzunik eskerak eman dizkiote ta aurrerantzean lana egiteko bultzabide*”.

Euskaltzaindiaren hitz hauetan hurrengo urtean formalki luzatuko zioten enkarguaren kimua dagoela ematen du, eta Bährek bi hilabete geroago, urrian Azkueri gutunez emaniko informaziotik atera daitekeenez, enkargua jaso aurretik ere hurrengo bi urteetan bildu behar zuena neurri handi batez bildua zuen 1923. urte honetarako: “*He detectado el E.I. en unos 25 lugares, además de otras palabras interesantes, y, en especial el verbo (aditza)*” eta aurrerago: “*Espero poder mostrarle también una hermosa lista de palabras desconocidas, así como de variantes, y si aun fuera posible, una colección de la conjugación fuerte (verbos sintéticos) de Gipuzkoa, para la próxima reunión de la Academia. Por supuesto que tengo registrados también los demás verbos, sólo que no me da el tiempo para presentarlos en la próxima reunión*”.

Azkenean, nahiz eta oporraldia dextente luzatu —abenduaeren erdialdera arte ezbaizten Alemaniara itzuli—, ez zuen Bizkaia arakatu hasierako asmoen

kontra, ez eta urte horretan ez hurrengoetan Nafarroa eta Iparraldea, Euskaltzaindiaren hasierako proiektuen kontra. Bataren eta besteen asmoak kanbiatu ziren, Gipuzkoako adiztegia jasotzeari interesgarriago iritzi ziotelako, hain zuzen ere, Azkuek ere, gero frogatuko zuenez, interes pertsonal berezia zuelako horretan. Diru kitapena Gipuzkoan ibili 60 herrien alderako egin zioten, 360 pta., hain zuzen. Bi urte beranduago, Gipuzkoako aditzarekin amaitu zuenean, Erizkizundia Iparraldean burutzeko gogoia agertu zion Azkueri: “... *desearía ponerme a su entera disposición para cualquier trabajo que usted pudiera tener. Según he oído, el E.I. no está completamente terminado en Laburdi, Benavarra y Zuberoa. Para mí sería muy interesante llegar a conocer de ese modo también los dialectos transpirenaicos del euskera*”. Berandu zen, alabaina; lana bukaturik zegoen.

Erizkizundiak bazuen aditzari buruzko galderarik ere, 68 zehazki 11 fonetika, bakar bat lexiko eta beste 56ak morfologia ataletan sartuak. Badirudi, nahiz eta aditzari buruzko galderak gutxi eta bestalako intereseekin eginak izan, orduan egin zituela Bährek bere lan handia izango zenerako galdetegiak ere. Ez, alabaina, Erizkizundia baliatuz, Erizkizundia egokitzeko aukera eman bazioten ere. Bisitaldiak aprobetxatuz bere galdetegi propioei ekin bide zien. Hori, baina, hurrengo lana zuen.

### 2.3. Gipuzkuerazko Adiztegia

Azken enkargua adiztegia Gipuzkoa osoan biltzea izan zen. Honetan ere, beste bi urte eman zituen (1924-25), gehi alde z aurretik Erizkizundiarekin batera emana zuen aurrekoa. Badirudi Azkue Bähren asmoez jakinaren gainean zegoela, azken honek Erizkizundirako egin lanaren kontu Euskaltzaindian ematen denean, Erizkizundikoak ez, baina aditza jasotzeko beste koaderno batzuk aipatzen dira: “*Gipuzkoa-goi guzian ibili dala E.I. lanak geitzen ta ango euskal aditza batez ere entzun ta aztertzen. Bildu ditula dio adizkera entzungarriak. Guziak jarri ditula idatzita lan ortarako egin diran gutunetan*”. Zein dira koaderno edo gutun horiek, Erizkizundirakoak ala Azkuek berak *Morfologiako* adiztegia biltzeko apailatuak? Bigarren hauek, “*Flexionarios Verbales*” izenaz ezagutzen direnak direla ematen du, espreski aditzari buruz ari baitzen Bähr kontu ematen Euskaltzaindian. Enkargu ofiziala urtebete beranduago iritsiko zen, oraingo honetan ere, nola ez !, Azkueren eskutik.

Erizkizundia herri guzti guztietan egin behar zen, Gerhardek 60 herritan jardun zuen, baina Madariaga, Ormaetxea, Arregi eta beste laguntzaile batzuk gainontzeko herrietan aritu ziren. Hala ere, Bärhen *Estudio del Verbo Guipuzcoano* obra handian, Erizkizundirako, berak —eta batzuetan inork— bisitatu ez zituen herrietako datuak ematen ditu, Aizarna, Astigarraga, Berastegi, Deba eta Gabiriakoak, hurrenez hurren. Izan daiteke, Bähr bere kontu ibili izana,

besteak egiten zituen bitartean, edota, seguruago, hurrengo bi urteetan ibili izana, espreski horretarako enkargua jaso eta lanean ibili zen bi urte horietan.

Azkue, aitzitik, bere kontu ari zen Morfologia Vasca lantzen. 1923-24 urteetan publikatua zuen, baina “*Conjugación Guipuzcoana*” delakoa, hau da; Morfologiaren 1. Eranskina, beranduago aterako zuen, 1931.ean. Horretarako lekeitiarrak goian aipatu “*Flexionarios Verbales*” izeneko koadernoak erabili zituen. Zenbait kasutan argi dago Bähren datuak baliatu zituela, agerian aitorzen ez badu ere. Azkuek flexionario horietako 19 herrietatik 2 baino ez dira Bähren 38 herrien artean ez daudenak: Urrestilla eta Lizartza. Legazpikoa, esaterako, zati batzuetan hitzez hitz, aditzez aditz kasu honetan, kopiatu zuela dirudi Azkuek, Legazpia delarik, gainera, osorik dituen bakarrenetarikoa. Informantea ere bera izan omen zen.

Bähr, anartean, aurreko urtean bildu materialarekin lanean ari zen Alemanian, 1924eko martxoan Azkueri gutunez honela baitiotsa: “*Le comunico que estoy muy ilusionado en proseguir con su trabajo, pues el verbo es un problema muy interesante, si bien para una representación breve hay que resumirlo mucho*”. Egun batzuk beranduago, berriz, Azkuek beste eskaera bat egiten dio: “*Lardizabal -en euskal- izkindea zertifikaturik igortzen dizut. Tarteke-marteka eta astia dezunean jotoi! aztertu zazu eta zure eritziz Lardizabal berak asmatu zituen aditzen ondoan eta gutun beraren aldamenean, erriak erabili oi dituan bezela jarri itzazu. Lan ori amaitzen duzunean, baina estuasun gabe, igorri zadazu neronek ikusi eta erabili dezadan*”. Argi ikusten denez, Azkue ordurako 1924erako jada, lanean ari zen Gipuzkoako aditzarekin, harrezakeen laguntzailerik esaneko eta langileena aldamenean hartuta.

Azkuek, uda ailegatzear zegoela eta, Euskaltzandiak Bähr lan horretarako “kontratatzea” lortzen du: “*Bähr gure urgazle jaunak, Azkueri idatzi dionez, datorren udaran euskal-lanetan jardun nai luke. Euskaltzain buruaren aburua ontzat arturik Gipuzkoako aditz-lana egotzi zaio*”. Eta orduko beste berririk ez badaukagu ere, badakigu uda horretan aritu zela buru belarri, hurrengo urtean, artean Alemanian zela, honela informatzen baitio Azkueri: “*Primeramente quisiera continuar con el resumen de las investigaciones del verano anterior (el impf: ha crecido hasta la mitad)*”. Diru kitapena Azkueri bidalitako gutuna eta hiru egunetara erabaki zuen Euskaltzaindiaren Osoko Bilkurak, osoko atsegina adierazten ez duten hitz hauekin: “*Bähr jaunari joan dan udaraldiko bere euskal lanagatik zer sari eman lekioken autua jo da. Ikusten denez, bere eralketak 489'60 pta. izan dira. Euskaltzain batzuek diote, Bähr jaunak, eralketa ta bere lan ordain, 650 pta. artu lezazkikela ta geiago ez noski, Euskaltzaindiaren bekaduna delako*”. Adierazgarriak dira hitzok, izan ere Azkue ahaleginetan ikusten dugu beti Bährentzako lan eta ikasketa ordainduak erdiesten, eta atzean guzti hori nolabaiteko inbidiaz ikusten zukeen euskaltzain talde bat.

Hurrengo urtean, 1925ekoan, kimika ikasketak amaitu eta Euskal Herrira lanak amaitzera etorri behar duela jakinarazten dio Azkueri: “... *he alcanzado*

*un gran éxito, cual es el de haber finalizado Química, con lo que me encuentro ya de lleno dedicado a los idiomas y a la lingüística. (...) Nuestras vacaciones son del 1 de agosto al 25 de octubre. Así que, merece la pena viajar allá para estos tres meses. Me urge también finalizar el trabajo comenzado el año anterior, sobre el verbo en Guipúzcoa. Como usted ya sabe, he recogido y le envié el trabajo en su día. También he recogido el imperfecto en muchos lugares, aunque no en todos los que quería. También el condicional. Dado que estos trabajos están aún a medio terminar, los he retenido aquí. En caso de que me decidiera a viajar, estaría de buen grado dispuesto, o no está la Academia de momento muy interesada?".* Oso datu jakingarriak dira gutun honetan azaltzen dituenak. Azken galdera ere premonitorioa da oso, izan ere hasierako urteetako enkarguak urtebeteko aitzinapenez jakineraziak izan baitzitzaizkion, aurreko urtekoa, ostera, ekainaren amaieran, *in extremis* beraz, eta oraingoan uztaila bukatuta zegoen eta Bähr bera da Azkueri galdezka ari zaiona, bere burua eskainiaz.

Azkuek, bere aldetik, egun berean idazten dio, honantza etor dadin kontentzitu beharrez bezala, Bähr osasunaz eta ezin jasateko beroaz kexu baitzen, horretarako gazte minberatua baserri giroaren minaz giharrean jotzeko, adizkien oroitzapenez bihotza kilikatzeko dudarik ez du: "*Udako oporraldia emen igarotea osasunerako obe izango duzula uste dut. Lanik egin gabe ezin zu egon. Emengo lanak basauririk basaurik ibili ta adizkiak biltzeak kalte egin-beharrean badaiteke zuri on andia egitea. Aurten, orainarte beintzat, beroa zer den eztagitu".* Bestetik, Azkuek bere Gipuzkoako aditzaz aipamen ilun bat egiten dio eta bide batez Legazpiko aditzerako zoriona opatzen, nolabait lan hori lehenago ez agertzeaz bere erru zatia onartuko balu bezala: "*¡Zure aditz, Legazpikoa Euskeran agertua izango ote den! Askozaz obe litzakela deritzat Gipuzkerazko aditza irakurleari eskini nionez, osorik eta batera agertzea".*

Azkenik, Gipuzkoara etorri zen eta egin gogoko lana egin ere zuen. Urkixorekin, eta Azkuerekin ere ziurrenik, hitz egina zen, ordea, Bähr. Legazpiarraren lana RIEVen argitaratuko zen, Lekeitiarrarenak, Bizkaikoa eta Gipuzkoakoa gero, *Euskeran* argitaratuko ziren bitartean. Ez zukeen Azkuek, ez eta beste euskaltzaleek, arazo handirik jarriko bere bultzada handia izan zuen lana azkenean Euskaltzaindiatik kanpo argitara zedin, besteak beste, antzeko lan bat Azkuek berak argitaratu behar zuelako: "*Bähr urgazle jaunak lan eder bat irakurri digu: Gipuzkoako euskalkiaren adizkerak. Urkijo jaunak Euskaltzaindiari bereziz eskatu dio, bere zuzendaritzako Revista Internacionalen Bähr jaunaren lan auxe argitaratzeko baimena. Euskaltzaindiak baiekoa eman dio! Onen antzeko lan ederra badu Azkue jaunak: Bizkaiko euskalkiari dagozkion adizkerak. Gure Euskeran lan au argitaratzeko erabakia Euskaltzaindiak lendik artua dauka".* Diru kitapena, urte amaieran egiten da, 600 pta. azkenengo honetan.

Hurrengo urtean, 1926an, RIEVen agertzen hasi zen Estudioa, bi atal urte horretan, eta atal bana hurrengo urteetan. Karmelo Etxegarai hil berria zen eta

ordezko bila ari ziren. Mendizabalen izena omen darabilte ahoan batzuek eta Bährena Azkuek, honelako aitorten eta eskaintza egiten dio: “*Se trata de nombrar un nuevo académico de número, en sustitución de Echegaray (Carmelo) y yo me he fijado en V. (...). En carta que acabo de escribir a nuestro gran Schuchardt le hablé de este mi proyecto de meter a V. en la Academia como individuo de número. Mi sueño dorado es tenerle a V. en Bilbao trabajando de químico parte del día en alguna de estas fábricas y parte en la Academia con sueldo*”. Azkueren nahiak inoiz ez ziren hain deplauki azaldu, baina oraingoan alferrikakoak izan ziren, Karmelo Etxegarairen ordeaz, ez Azkueren kultura zen Bähr ez hiztegiaren plagioaren kontura begitan hartua zuen Mendizabal, baina Karmeloren anaia Bonifazio izan baitzen aukeratua. Hala ere, Azkuek ez zuen eskaintzaren aukera alferrik galdu nahi izan, trukean edo, eskaera bat eginez: “*Envíame la familiaridad guipuzkoana más general de los verbos egon, ibili, ekarri y eraman; pues estoy preparando, a petición de algunos compañeros, un estudio algo más detenido que hice en la Morfología acerca de la familiaridad del verbo bizkaino. Con tal motivo diré también algo acerca de la del guipuzcoano*”.

Urte honetan, lehen esan bezala, *chômeur* geratu zitzaigun Bähr. Azkuek harremanak ez bide ziren harrezkero lehen bezain beroak. Azkue Bähren jaiotetxe inguruan ibili zelarik, ez zion hari jakinarazi, Bährek bere kasa jakin zuen. Bestaldetik, uda horretarako lana berak programatu duela diotsa Azkueri: “*En aquella ocasión le informaba además que estaría dispuesto a recoger en el transcurso de las próximas vacaciones, el E.I. en el país vasco-francés. Yo no sabía que ya estaba hecho ... con ello queda este punto listo, y yo me preparé otra cosa para las vacaciones. Me dedicaré sobre todo a continuar con mi diccionario etimológico y con el ‘Estudio sobre el verbo guipuzcoano’*”. Azkenengo aipamenak zalantzatan jartzen gaitu ea bilketa lanik oraindik ere egin ote zuen edo lehendik zituen materialak apailatzeaz ari zen. Argi dagoena da, horregatiko, Euskaltzaindiarekiko lotura hautsia zela, lehenik bekaren eta gero euskaltzain izendapen proiektuaren harira Euskaltzaindiari lotzeko Azkueren asmoak porrot egina zuela, haria gehiegi tinkatuta, azkenean, eten egin baitzen. Beste horrenbeste esan liteke, gainera, Bähren osasunaz beraz.

Urte hauetako Urkixorekiko elkarridazketarik ez dugularik, ilunxkoak dira Bähren benetako asmoak eta burubideak, eta batez ere Euskaltzaindiako jendearekin izandako harremanen bero epelak. Batetik, Azkuek eskuartean zera-biltzan lanen artetik bazen bat, goian luze aipatu bezala, Bähren langintza beharrezkoa zuena, baina, aitzitik, zuzenik, ofizialki ez behintzat, Bähri laguntzarik eskatu gabe bururatu zuena: *Gipuzkera Osatua* osatzeko beharrezkoa zuen *Verbo Gipuzkoano* lana. Lana nahikoa atzeratu zitzaion Azkueri, 1931-33 urteetan publikatu baitzuen Morfologiaren Eranskin moduan atundu zuen *Verbo Gipuzkoano* lana, eta hurrengo bi urteetan *Gipuzkera Osotua*. Anartean Bähr RIEVen bidez ari zen bere *Estudio del Verbo Guipuzcoano* lana

atalka argitaratzen. Bion lanak, alabaina, dozena bat urte atzeragotik ari ziren ernatzen.

Bien lanek badituzte, eduki ere, urrunxkoko hatsarriak. Bährena Legazpiko aditzarena zela esan dugu; Azkuerena, berriz, Akademiak sorreratik beretik helburuen artean zuen batasunaren proiektuan kokatu behar dugu. Bährek Legazpiko aditzari buruzko lana Olabideri eman zion eta ez Euskaltzaindiari, Azkueri gutunez adieraziko zion bezala: “*Olabide jaunari Legazpiren aditzazko bilduma eman niola, ez nuen, alegia, uste, Euskaltzaindiaren eskuetarako zanik, bestela arreta geyagoz ta xehago egin nukean lantxo*”. Zer zela eta Olabideri, apaiz gasteiztarra, oso gogokoa ere ez zuen Eguskitzarekin batera, legazpiarrak oso atsegin ez zituen lerro aranazaleetarikoa zelarik? 1922. urteko batasunari buruzko eztabaiden ondoren gazte alemaniarrek ohi ez bezalako tonuan adierazten zion Azkueri elementu horiekiko desadostasuna. Aditzaren batasunaren arloan ere suposa dezakegu ez zetozkeela oso bat gazte legazpiarraren eta abade aranazaleen asmoak. Olabidek, aurrexkoan, 1920.aren bukaeran, Euskaltzaindiaren aginduz ‘*Giputx-lana*’ burutzen ihardun zuen. Azaroaren 24ean agindu eta hilabete baten buruan hurrengo batzarraldian irakurri zuen Olabidek. Mahaiपुरuaren ohar batzuk jasota, Euskera aldizkarian agertzeko erabakia ere hartu zen batzarrean. Lana ez zen publikatu eta orain galdurik dagoela dirudi. Bi hilabete eskas iragan eta gero, berriz, Olabide bera izan zen Bähren lana Euskaltzaindian irakurri zuena. Daitekeena da Olabidek, eskuartearen egiteko hori zuela eta, Bähren lanaren berri izatea eta eskatzea.

Olabiderek in saiaturiko bideak, antza, atarramendu onik ez eta, beste modu batera jokatzeko deliberratu zen. Laster batean, batasunari begira herriaren euskara jasotzea erabaki zuten eta horrekin batera aranazaleen kontra, edo aurrean behintzat, batasunaren zama zeraman Azkueren *Morfología Vasca* agertzen hasi ere. Bähr Azkuerekin lerratu zen momentuoro, beronen *Erizkizundi Irukoitza* proiektuaren langile eta bultzatzaile nagusienetarikoa bihurtu zelarik, ezaguna denez. Eta, Erizkizunditik jarraian Bähren *Estudioa*. Azkenengo honek, aldiz, lanak eta egileak ere, nortasun eta pisu gehiegixkoa hartu zuen, Azkueren protagonismoa nolabait ilun zezakeelarik.

Azkuek, 1927.aren hasieran bertan, hau da, Bährek bere lana RIEVen agertzen hasi eta berehala, hasi zen Akademian gero Verbo *Guipuzcoano* izango zena irakurtzen: “*Azkue jaunak Giputx-aditzaren idazki-atzerpen bat irakurri digu*”. Urtebetera, hain juxtu, aurreko lanaren osagarria zen beste lan bat irakurri zuen, *Irun-Ondarribi ta Oyartzungo aditza*. Gero beste bi urte pasatu behar izan zuten lana osorik irakurri eta hurrengoan, 1931.ean, argitaratzen hasteko. Orain Verbo *guipuzcoano y del subdialecto de la frontera* izenburu zehatz eta osoaz.

Hemen ere kasualitatea daukagu; Bährek ez zituen Gipuzkoako bizkaierako herriak hartu Oñati, Bergara, Eibar e.a., bai, ordea Gipuzkoako nafarre-rako mugako herriak, Oiartzun, Irun eta Hondarribia, alegia. Azkuek ere, oro-

bat, jaso zituen. Liburuaren lehenengo orrian ematen du honen kontu: “*Hace ya más de un año que este Apéndice habría salido a la luz si, por acceder a deseos de mis compañeros de Academia, no me hubiera decidido a introducir en él flexiones de la variedad dialectal nabarra de Irún, Fuenterrabía y Oyarzun*”. Bi orri aurrerago, oinohar batean: “*Las flexiones de Irún y Fuenterrabía las recogí del pueblo personalmente. Las de Oyarzun, tras un estudio personal poco satisfactorio, se las oí a nuestro excelente compañero Lekuona*”. Hurrengo orrian, informanteen izenak emango dituela dio, baina guk ez ditugu *Morfología*n aurkitu: “*Al final del Apéndice constarán los nombres de las personas de quienes he aprendido las flexiones correspondientes a los veintitantos pueblos al efecto consultados*”. Izenak *Flexionarios* koadernoetan daude.

Garrantzitsua izan daiteke puntu hau, konproba dezagun zein neurriraino baliatu zen Azkue Bähren lanaz eta horrela agian ulertzeko Bähr eta Azkueren arteko harremanen hoztura edo haustura hori. Orain eskuartean ez dugun *Flexionarios* obra eta Bähren *Estudio*a alderatu beharko lirateke. Dударik ez dago, hala ere, Azkue, Bähren lanaz baliatu zein baliatu ez, Gipuzkoan barrena ibili zela bere Flexionarioak betetzen, 23 herritan hain zuzen ere. Bähr Estudiorako ibilitako 15 herritan gehi Orio, Oikina, Ormaiztegi, Arama, Igeldo, Lizartza, Urrestila eta Zegaman, nahiz eta azken lauotan Erizkizundirako bai ibili zen Bähr. Zergatik egin zuen Azkuek berriro ere legazpiarrak aurretiaz eginiko lana? Batetik Bähren lana ez zegoelako osorik, *izan* aditz osoa batetik, eta indikatibotik kanpoko modu eta denbora guztiak bestetik falta zituelako. Bestaldetik, badirudi Azkuek ez zuela Bähren, eta akaso inoren, itzalik nahi, *Morfología* osoan, *Verbo Gipuzkoano* eranskinean ere, ez baitu behin ere aipatzen Bähren izena, lana berea nahi zuen. Zenbait kasutan harrigarria gertatzen da Azkueren jokaera, aditza jasotzeko bisitaldi horien berri batere ez baitio ematen Bähri, ezta ere Legazpia edota Ormaiztegi bisitatzen dituenean, esaterako: “... *he tenido conocimiento de que ha estado usted, por motivo de estudios, en Legazpia y Ormaiztegi. (...)*”. Gaingiroki egin begi-ukaldi batean, ikusten dugu Igeldoko *Ignazio Martikorena*, Berastegiko *Jazinta Garziarena* eta Legazpiko bertako *Martina Alberdi* informanteak erabili zituztela batak zein besteak. Legazpikoari dagokionez, berriz, A. M. Etxaidek erizkizundirako eta P. Yrizarrek Flexionarioetarako ematen duten izena *Martina Alberdi* den bitartean, Bährek *Martina Aztiria*, *Motxorro* baserrikoa aipatzen du. Ez dakigu Bähren nahaste txiki bat den ala ez ote den informante bera erabili zutena.

Nolakoa da *Estudio* lana, zein garrantzia eman behar zaio? Guk dudarik ez dugu Bähren lanik garrantzitsuenetarikoa dela esateko orduan, guztiz burutu ez zuen Hiztegi Etimologiko eta Vascoiberismoari buruzko tesiarekin batera. Euskal aditaz egin diren lanetatik, alde handiz, garrantzitsuena da; Bonaparteren obra ezagunaren gaintekoa ere, biak aldera daitezkeen neurrian. Are garrantzitsuagoa izan zitekeen, osorik agertu izan balitz. Badirudi lehenaldiko flexioen %62a inguru falta dela, lan osoaren heren bat, hortaz. Falta den zatia lehenaldiari dagokiona da, horixe utzi baitzen azkenerako. Bestaldetik, Bährek



*condicional* saila ere biltzen ari dela diotsa behin Azkueri, baina horren beste arrastorik ez da inon ageri gero: “*También he recogido el imperfecto en muchos lugares, aunque no en todos los que quería. También el condicional. Dado que estos trabajos están aún a medio terminar, los he retenido aquí*”. Hasiera batean behintzat, ez al zuen lanak gero izan zuen baino zabalera handiagoa? Zer nola, bestela, uler daiteke “*condicional*” horren aipamena? Azkueren Flexionarioetarako ari bazen uler daiteke, baina Azkuek momenturo bera ari dela diosku. Ez al zuen bekaren amaierak zapuztu, eta horretara lanaren eta muga ezarri eta erabaki? Baiezkoan gaude gu.

Hogeita hamazortzi herritan burutu zuen galdetegia, gipuzkerari zegozkienak gehi Irun, Oiartzun eta Hondarribia, Azkuek 23tan. Indikatiboa baino ez zuen bildu, baldintza inoiz biltzen hasi zela pentsatu behar badugu ere. Aditz trinko eta laguntzaileak, hikan eta zukan, *ni-hi-zu-hura-gu-zu-zuek-haiek* hurrenkeran oraingoan. *Izan* aditza bai, baina transitiboa baino ez, Bähren beraren esamoldea erabilita, hots; *ukan* edo *edun* aditza bai baina *izan* aditza ez. Transitiboen lehentasun honetan —ordenan ere— teoria pasibistaren islada ikusi behar dugu, aditz transitiboak baitzuen horren barruan benetako pisua. Lanaren ezaugarri nabari bat zehaztasunarena daukagu, aldaki ezberdinak, ñabardura fonetikoak, inoiz erabilera sozialari buruzko oharrak... . Azkueren arintasunaren aldean Bähren zuhurtasuna ageri zaigu. Legazpiko aditzaren lanean, esaterako, Bährek galdera ikurraz josi zituen dudazkoak zituen formak; Azkuek, berriz, paradigma berdinak guztiz osatu zituen, baina zalantza marka bakar bat ere gabe. Publikatutakoak 542 flexio direnez, 20.596 adizki inguru dira argia ikusi zutenak, askotan isladatzen zituen aldakiak kontutan hartu gabe. Galdutako zatia kontutan hartuta, 858 flexio edo izango ziren, lehengo biderketa berdina eginez, beraz: 32.604 flexio. Bährek berak kalkulatu zuena gutxigorabehera: “*Lo que he recogido es el indicativo, el presente y el imperfecto de izan (transitivo), egon, joan, ibili, etorri, jakin, euki, ekarri, eraman en zuka e itano, y nada más, unas 32.000 formas!*”.

Lanaren hutsuneak ere nabarmentzekotan, bi aipa daitezke. Batetik ordena ez beti ordenatua. Ez darabil Bährek beti ordena erizpide berdina, edo, bestela esanik, antzematen den ordena, grafikoa da; orriak ahalik eta modu egokienean betetzekoa, alegia. Beste hutsarte bat azalpenik ezarena daukagu, Legazpiko lanean egin bezala azalpen teorikotan sartu gabe, lanak gutxienezko sarrera bat sendi du faltan, halaber, gutxienezko aurkibidea. Bährena ez, baina besteona den beste hutsune tamalgarri bat, osorik publikatu ez izana eta horrenbestez galdu izana dugu.

#### 2.4. Schuchardt eta aditzaren pasibismoa

Ezaguna da Schuchardtenganako Bähren atxekimendu eta errespetua; haren lanak itzuli, haren teoriak zabaldu eta haren omenez, maisuaren herio-

tzaren zioz, egin liburuxka biografikoa. Ezin ahantz daiteke, halere, aurrerago Bährek, bere tesi doktoralaren harira, Grazeko irakaslearen teoria vasco-iberistari emaniko itzulia. Ezezagunagoa da, ordea, Schuchardten pasibismoaren defendatzaile eta zabaltzaile sutsua izan zela Bähr. Schuchardten Baskische Studien itzultzearen karietara —1922ko amaiera alderako itzulpena bukatua baitzuen— ezagutu zukeen errotik pasibismoaren gaia. Euskaltzaindiaren Oso-ko Bilkura batean egin agerraldian (1923/11/22) Schuchardten teoria pasibista horren berri eman zuen, berri zaharra bestaldetik: *“Bähr jaunak Schuchardt jakintsuaren iritxi bat agertu du. Aburu ori euskal aditzari dagokio. Schuchardt jaunari deritzaionez, euskal aditza ‘pasivo’ da. Bähr jaunak olbeltzean egin ditu iritxi orren adibideak”*. Eta biharamunean: *“Bähr jaunak jarraitu du bere itzaldia, Schuchardt jaunaren aburua azaldurik. Amaitu duenean Eguskitza jaunak erantzun dio ta bere itzaldian agertu du ez dala euskal-aditza beñere pasivo izan activo baño. Eguskitza jaunaren itzaldia gure ‘Euskera’-n azalduko da”*. Orduantxetik izan zituen, bistan denez, aurrean Ormaetxea, baina, batez ere, Eguskitza jauna. Oraingoan ere ez zen ezer argitaratu. Hilabete lehenago Eguskitzarekin egona zen Bähr, honek bizkaitarrari egin zion bisita bat medio, Eguskitzaren erantzun hau izan zen bisitaren ordaina.

Urtebetera, 1925eko hasieran, Ormaetxeak esku hartu zuen eztabaida honetan, Bähri ez, baina zuzenean Schuchardti ihardukitzen ziolarik: *“Ormaetxea urgazle jaunak bere lan bat irakurri du: Pasividad del verbo vasco: gai au lendik Schuchardt jaunak erabili du. Ori erantzun nai dio Ormaetxea jaunak esanik, euskaldunok ezdegula pasivorik somatzen edo bururutzen gure aditza darabilkigunean. Oni erantzun dio Urkijo jaunak, ez dala ori (Ormaetxea jaunaren gaya), Schuchardt jaunak erabili ta dakarrena”*. Jakina da Urkijok berak parte hartua zuela urte batzuk atzerago pasibismoaren eztabaida luzean, *Alberto Leon y la conjugación vasca*, eta *Más noticias acerca de la teoría pasiva del verbo vasco* artikuluekin. Urkijok pasibismoa defendatu edo, gutxienez, ulertarazteko asmoa erakutsi zuen beti, orduan bertan, orain Eguskitzak eta Ormaetxeak berpizturiko argudio berdinari erantzun behar izan ziolarik: *“De que los vascos actuales no perciban el sentido pasivo de dut, no se sigue lógicamente, ni mucho menos, que dut no haya tenido ese sentido en la noche de los tiempos: como no se deduce del hecho de que los vascos actuales no tengan conciencia de que dut es una abreviación de dadut, el que dadut no sea la forma originaria de dut”*. Argudioaren funtsa endogenoa da, nazionalista— izan ere, euskal aditzaren pasibismoaren teoria euskaltzale kanpotarrek defendatu izan zuten beti: A. F. Pott, 1873; Friedrich Muller, 1887; Victor Stempf, 1890; Hugo Schuchardt, 1893; C. C. Uhlenbeck, 1906;... Bähr bera. Ormaetxearen argudioa nazionalista endogeno fundamentalista bihurtzen zaigu Eguskitzarekin, euskaldunok *“beñere”* ez baitugu sentitu pasiboki aditza. Urkijo, beraz, zuzen zebilen, Schuchardten planteiamendua ez zela hori defendatzen zuenean, hots; euskaldunok aditza pasiboki sentitzea, baizik eta historikoki, bestelako fenomeno batzuen ondorioz, egitura pasiboetarik sorturiko aditza darabilela euskarak, besterik gabe. Esan dezagun, bidenabar, argudio berdina era-

biltzen jarraitzen dela egun ere Eguskitzaren planteiamendu fundamentalista, eta ez Urkijoren kritikoa bailitzan zuzena. 1925eko urte horretan Eguskitza ere ari zen aditzarekin bueltaka: “*Eguskitza jaunak irakurri dizkigu aditzaren sus-tar-mota batzuek ta oyetatik gutxi-goraberako aditzaren arpegialdeiak*”. Bähr orduan bere Estudioarekin nahikoa lanpetuta zegoen eta ez zien erantzunik eman, ez Ormaetxearen ez Eguskitzaren lanei. Aldiz, A. Trombettirekin oso interesaturik agertu zen Bähr, italiarra Europan teoria pasibistaren kontra mintzatu zen lehenetariko eta bakarrenetarikoa izaki. Azkueri interesarazten saiatu zen, baina, oraingoan ere, Urkijorengan aurkitu zuen interlokutore zoliagoa: “*Veo en el último número de Euskera que acabo de recibir que Vd. recomienda a la Academia el trabajo de Trombetti, lo cual celebro mucho. Pues aun sin haberlo recibido todavía, creo que es un estudio muy importante y curioso. Creo haber leído en alguna parte que el autor no admite la famosa pasividad del verbo*”. Azkenean Trombettiren lana irakurri ahal izan zuenean hunkituta geratu bide zen, berehala Azkueri, Lacomberi eta Urkixori idatzi baitzien, hurrenez hurren. Azkueri, honela: “*Hace poco recibí el artículo de Trombetti. Hojeándolo siento uno vértigo al ver una materia tan extensa y retorcida (...)* El ambiente aquí es de expticismo contra Trombetti, —a quien se tiene por un gran conocedor de idiomas—, porque se le tiene por un tanto fantástico”. Urkijori, berriz: “*He leído el artículo de Uhlenbeck sobre el trabajo de Trombetti. Escribí también a Azkue y a Lacombe porque creía que en la Academia no habían tenido a la vista este estudio tan importante. . . Lo que resulta es que Trombetti dejó muy atrás a los célebres Marr y demás jafetólogos bolcheviques. Aquí nadie duda de que Trombetti es un verdadero portento de instrucción (...) pero algunos dudan de sus métodos y lo creen demasiado fantástico y superficial*”. Linguistika munduan fama eman zion *Elementi di glottologia*, Bologna, 1923 eta Uhlenbeckek iruzkindu eta Bährek erreferitu *L’origini della lingua basca*, Bologna, 1925 lanak argitaratu zituen Trombettik. Europako aintzineko batasun linguistikoaz eta euskokaukasismoaren alde, baina pasibismoaren kontra mintzaten zen italiarra, denon intereseko baina gutxiren sinisgarri orduan Europako giro linguistikoan, Bährek aipatu bezala. Oraindik ere guztiz erori gabe zegoen Bährek gaindituzat ematen duen N. Marr jafetista dogmatikoaren ospe eta hotsa. Hilabete batzuk lehenago, Urkijok gonbidatuta, gure artean egonik zen georgiarra euskaraz interesaturik. Gazte legazpiarra, nahiz eta georgiarraren kontrako susmoez jabetuta egon eta begi kritikoz begiratu, ezagutzeko gogoia erakutsi zuen: “*Marr jakintsua berriz an dabil, euskera ikasteko asmoz. Nai nuke gogorki lotuko balitzayo, oso argitsua omen da, ba, bero, bai ordea, irudimenezkoa*”. Ikusten denez, gero Trombettiri luzatuko dizkion hitz kritiko beretsuak: argia baina irudimen gehiegikoa. Marrek estadialitate linguistikoa defendatu zuen, bilakaera ekonomikoari loturiko determinazio linguistikoaren predikatzailea izan zen. Marren heriotza izan zela eta, 1935an, Bährek Urkijori idatzi zion jafetologiaz izan zezakeen interesaz galdezka: “*En este mismo sobre le envío un recorte de la ‘Kölnische Zeitung’ que anuncia la muerte de N. Marr aunque sospecho que Vd. tendrá otras in-*

*formaciones más detalladas. ¿Se encontrará alguien para continuar los estudios de 'jafetología'?*". Marrismoak aurrera egin zuen, Marr hilda gero ere, Stalinekin suntuarazi zuen arte, Bähr hil eta bost urte geroago.

Pasibismoaren eztabaida ere ez zen, aitzitik, orduan amaitu eta baretu, inor ez baitzuen aurrekoa konbentzitu. Bi urte geroago, 1928an, ixilune luze baten ondoren, Azkueri idazten dio, azken honen Espainiako Akademian sartzeko hitzaldiak sortarazitako buruhausteez gupidaturik bezala. Erantzuna, halere, inoizkorik luze, zorrotz eta kritikoa. Beste puntu askoren artean pasibismoarena aipatzen dio Bährek, tinko ageri delarik. Azkueren lana ez bide zuen oso gogoko Bährek, sarrera hitzaldia publikatzeko orduan zuzendu eta asko murriztu beharko zuela esatera ausartzen ere baita. Hilabete batzuk lehenago honela ziotsan Urkijori: "*¿Cuánto siento que Azkue anda tan mal con su tema! Hace casi medio año que no he visto letra suya*".

1934an, oraindik, —Bähr eta Eguskitza laster aipatuko ditugun beren eztabaida partikularretan ari ziren bitartean— Ormaetxea berriro lotu zitzaion gai berdinari: "*Ormaetxea jaunak bere lan bat irakurri digu: Algunas formas pasivas*". Pasibismoari buruzko Ormaetxearen lanak ez ditugu ezagutzen, ez baitziren argitaratu, baina azken honen izenburuak iradokitzen du pasiboa onartzen duela, aditzena ez bazen, egitura pasibo batzuen existentzia bai, bederen.

## 2.5. Eguskitza eta Bähr: azken eztabaida ttiki handia

Pasibismoaren ezkutuko eta ilunpeko auzi honez gain beste hikamikarik ere izan zuen Bähr gazteak. Ezagunak dira —argia ikusi baitzuten— bere betiko arerio berdinarekin izan zituen *bel-* erroari buruzkoa eta aditz kausatibo edo erazleen suffixuari buruzkoa. Azken eztabaida ttiki handi hau aipatuko dugu, laburki bada ere. Eztabaida, interesa izan balezake ere, hutsala bezain antzua suertatu zen, baina Eguskitzarekin lehian hasteko joera edo erraztasuna berriro erakusteko balio digu. Eguskitzak 1929an suffixu kausatiboa *era-* aurrizkia zela eta ez *-ra-* artizkia defendatu zuen Euskaltzaindian. Hurrengo urtean *Euskera* aldizkarian argitaratu zen: *Verbos compuestos factitivos o causales: ¿cuál es en ellos el verdadero elemento factitivo?*, eta Bährek, Azkue defendatzen omen zuelarik, hurrengokoan bidali zuen Hannoveretik erantzuna, nahiz eta 1933a arte ez zen argitaratu, Eguskitzak jarri zion izenburu berdinez, baina *Respuesta al Sr. Eguskitza* epigrafea erantsita. Eztabaida honen karietara elkarri luzatutako hitzak batzuetan gogorrak izan baziren ere, Bährek beti jakin zuen tonu diplomatiko eta adeitsuari eusten, eztabaida hauen kritiken estiloaz Urkijori bidalitako hitz adierazgarri hauetan ederki ikus daitekeenez: "*Tuve un pequeño disgusto con mi artículo sobre los verbos causativos o factitivos que se leyó en la última sesión de la Academia a que Vd. asistió. Yo no quise que se leyera así, sino rogué al Sr. Azkue me hiciera las observaciones que él creyera oportunas y se lo mostrara también a Vd. si posible devolviéndomelo*

*para que yo lo pudiera corregir. Pero Azkue lo hizo leer sin cambiarlo y sin hacer reparo alguno porque lo juzgaba muy bien así según me escribió en una carta en que aplica a mi artículo los términos más lisonjeros. Ahora el Sr. Maidagan me escribe insinuando que el Sr. Egusquiza estuvo muy ofendido —lo cual yo precisamente quería evitar— pretendiendo que yo le había comprendido mal. Añade el Sr. Maidagan que sería conveniente rectificar un poco mis afirmaciones porque el autor del trabajo, al cual el mío contestaba “gogorra baita bere erantzunetan”. Siento mucho que las cosas se hayan pasado así, a pesar mío, pues yo mismo me había propuesto modificar mi estudio cuando Azkue lo hubiera devuelto. La teoría de E. —poco importa la forma en que él redactara— es infundada, inverosímil y superflua. Su idea me parecía ser de agraviar a la opinión de Azkue en lo que se refiere a los neologismos: así lo delata claramente el final del estudio en que dice que no se pueden desechar ciertos neologismos por la sola razón de estar formados con el prefijo “era-”. Esta sola frase basta para demostrar la tendencia del estudio y su valor científico. Yo quise salir a la defensa de Azkue pero siempre siguiendo al lema ‘fortiter in ve, suaviter in modo’. Por lo demás la colaboración de E. me parece muy oportuna y muy importante sobre todo en la literatura”. Eguskitza zinez mindu zatekeen, eta sumindurak bultzatuta, 1934an, berriro izenburu berdineko beste artikulu bat idatzi zigun.*

Oraingo honetan ere, Urkijok berriro esku hartu zuen, gazte legazpiarraren alde, itxura denez. Bähr ostera ere, erantzun beharrean aurkitu zen. Erantzuna oraingoan Urkijori bidali zion, aurrekoan, Azkueren eskuetan utzi zuenean, gertatutakoa berriro gerta ez zedin. Erantzun hau ez zen publikatu, baina Urkijori gutunez esandakoek ematen digute, berriro ere, polemikaren berri zehatza: *“Hace pocas semanas recibí el último número de Euskera con una respuesta de Eguskitza a mi informe sobre los verbos factitivos que envié hará tres o cuatro años. Podría pensarse que es tiempo de olvidar esa cuestión o de terminar el ‘litigio’ pero ciertas apreciaciones del señor Eguskitza son tales, que no se les puede dejar sin rectificación. Por lo que toca a su estilo —esa fingida cortesía de decir ‘mi ilustre contradictor’,... etc.— entre nosotros tales términos en un litigio literario son de mal gusto y cuando se usan hoy día es para insultar so capa de cortesía. Seguramente este no es el caso en castellano ni tampoco supongo en lo más mínimo que el señor Eguskitza haya querido insultarme. Esa suposición me parecería ridícula. Eso no impide que su respuesta, traducida al alemán resultaría grosera e inconveniente. Yo por mi parte me propongo contestarle de una manera clara y precisa pero guardando los modales y con el respeto que merecen tanto el señor Eguskitza como la Academia en particular. Y por eso antes de enviar mi rectificación a la Academia quisiera someterla a Vd. para que Vd. me diga francamente lo que le parezca. No le pido esta amabilidad para referirme posteriormente a su aprobación ni para que Vd. tome ninguna clase de responsabilidades, sino sólo para evitar que vuelva a ocurrir lo que ocurrió la primera vez hace cuatro años y que fué esto. Según sabrá Vd. la cuestión de los factitivos fue suscitada*

por Eguskitzza el cual —según me parecía a mí que no había asistido a las sesiones— trataba de sacar faltas al señor Azkue. Yo naturalmente quise salir a la defensa de éste y así me decidí a escribir aquel informe que se leyó creo que en el año de 1931. Yo al redactarlo me había propuesto expresarme de manera que Eguskitzza no se sintiera ofendido y no quise herir susceptibilidades de nadie. Pero como por otra parte su manera de ver las cosas científicas es tan simplista, había de expresarme claramente aunque tratando siempre de ser suave y respetuoso. Por fin me pareció que estaba bien y que sólo el estilo o algún término era tal vez un poco demasiado fuerte o decidido. Y para evitar toda complicación, envié el artículo a Azkue rogándole —como le ruego ahora a Vd.— que lo leyera y me indicara lo que no le parecía bien o demasiado fuerte o inconveniente para que yo lo arreglase. Pero Azkue no hizo nada y lo leyó sin ninguna modificación, no sé si porque lo juzgara bien o porque se le olvidó lo que yo le escribiera. Lo demás lo sabe Vd. tan bien como yo o mejor”. Gainontzekoa, gure aldetik ere, zuek ongixko dakikezue, edo, bestela, beste baterako aztertu beharko dugu.

Bukatu aurretik Bähren iritzi interesgarri baten berri eman nahiko genuke. Aditzaren historiaz arduratu bazen ere, ez zuen ekarri handirik egin Bährek, arlo honetan besteen ideien zabalkunde lana egin baitzuen batik bat. Bada, halere aurrerantzean sakon aztertu beharko den ideia bat. Izan aditzaren *da* flexioaren jatorriaz ari delarik, honela mintzo zaio Urkijori: “*Se me figura, ante todo, que nadie hasta ahora ha reparado en un hecho muy notable en esta palabra cortada, es decir la d- inicial, cosa absolutamente inaudita en la lengua vasca que no tiene voces castizas empezando con d-, excepción precisamente de da y las demás flexiones verbales formadas sobre su molde. Esto induce a suponer que ha tenido lugar un apócope o alguna otra alteración violenta, según lo sugerí yo en un número de la ‘Euskera’*”.

\* \* \*

Gure lantxo hau amaitzeko zer hobe eta zer bestela, Bährek hain maite zuen beste aleman euskaltzale handi bati, Gothako maisuari, jarritako hitzak berari bihurtzea baino: “*Euskaldun guztien esker ona merezi du betiko*”. Halaber, ezin geratuko gara Legazpian Bähr omentzeko ataza honetan, Jose Luis Ugarte buru dabilen talde osoari, eta Bähren korrespondentziaren itzulpenaren zama hartu duen Rodolfo Ausserladscheideri bereziki, esker onik beroenak eman gabe, eurek buruturiko lan erraldoia gabe ezin izango baikenukeen gure lantxo hau bururatu.

## GERHARD BÄHR-EN *BASKISCH UND IBERISCH* TESIAZ

96-06-24

Joakin Gorrotxategi

Gerhard Bähr-en heriotzaren 50. urteurrena dela eta, Legazpiko Udalak mahainguru batera gonbidatu ninduenean bertan haren tesiaren garrantzia azter eta azal nezan, gustora onartu nuen gonbitea, Bähr-en obrarekiko nuen zorra erakusteko aukera ona ematen zitzaidalako. Euskal herrian gehienek, normala denez, haren euskal lanak eta ikerketak ezagutzen dituzte gehienbat. Nik, ostera, G. Bähr-en berri bere tesiari esker izan nuen neure ikerlanetan hasi nintzanean, eta askoz ere berandu arte ez nintzen jabetu hark euskal dialektologian egin zuen lanaz. Esan dezaket, bada, Bähr eta bere obraren ezaguera kontu honetan kanpotarrekin batera ibili naizela euskaldunekin batera baino, zeren haiek bakarrik bere tesia ezagutzen zuten eta gure herritarrek euskararekiko obra.

Zatiketa honen arrazoa —banaketa osagarri baten antza duen zatiketaren arrazoa— oso sinplea da: hizkuntzan datza, eta ez gaian, zeren *Baskisch und Iberisch* izendaturiko tesian euskararen historiaurrea —eta arlo horretan ikutu daitezkeen gai interesagarri asko— tratatzen zuen, baina alemanieraz hain zuzen. Gotingako unibertsitatean aurkeztu zuen ikerlan bat izan zen, hango unibertsital tradizioan idatzia eta Alemaniako akademi munduan kokatzen zena. Euskara zuen idatzgai, edo zehatzago esate arren, euskarak iberierarekiko dituen ustezko antzak edo parekotasunak zituen aztergai, baina gai hori ez zuen gure tradizioan erabiliak ziren metodoekin aztertu, baizik eta alemanek XIX. mendean zehar Humboldt, Hübner eta H. Schuchardt-en obretan ikasi zituztenekin. Iturri horietan edan du Bähr-ek eta tradizio horretan bilatu behar da obrari darion sendotasun kutsuaren funtsa.

Ezer baino lehen, esan behar da haren tesia dela emazurtz, postumoa, egilea hilez gero sortua. Karl Bouda hizkuntzalari ezagunak publikatu zion *Eusko Jakintza* aldizkarian 1947.an. Hurrengo urtean liburu gisa atera zuten eta hori da, hain zuzen ere, gehienok erabili dugun edizioa. Karl Boudak obrari egin zion hitzurrean azaltzen digu zer nolako bihurbideak eta ezbeharrak jasan behar izan zituen eskuizkribuak egilearen heriotzaren, edo hobeto esanda, desagertzearen ondoren. Ez gara euskalzale honen heriotzaren inguruan oraindik ere ilun dirauten puntuetan arituko. Boudak berak ez zuen asko argitu eta nik dakidanez inork ere ez du gai hori gehiago aztertu.

K. Bouda bat-batean ohartu zen eskutartean zeukan liburutto haren garrantziaz, eta argi eta garbi azpimarratzen du aipatutako hitzaurre horretan. Obraren muina zein den hitz gutxitan esan behar bada, hobe dugu hona aldatzea K. Boudak berak diona: “laburtuz, ondorio honetara heltzen da [egilea]: euskara hizkuntza isolatutzat eman behar dela” [1-2 or.]. Egin dezagun kontu Bähr-en garaian ia guztiak euskara eta iberieraren arteko ahaidetasuna edo parenteskoa aitortzen zutela. Kontu hau urrutitik zetorren sinismena zen, gure artean apologistek begi onez ikusten zutena, euskarari aintzinatean ematen zioten headurarekin nahiko ondo zetorrelako. Baina dudarik gabe Alemaniako jakintsuak eta hizkuntzalariak ziren ahaidetasun horren alde bere burua gehien agertzen zutenak: hauen artean G. Bähr-ek bere maisutzat zeukan H. Schuchardt hizkuntzalari azkar eta itzal handikoa, batez ere.

G. Bähr-ek liburu honetan, ordu arte eman ziren arrazoi eta argudio guztiak miastu eta aztertu ondoren, erakusten diguna zera da: askotan aipatutako euskara eta iberieraren arteko ustezko parekotasunak uste ustelak baino ez dira eta, ondorioz, ez dagoela batere frogatua hainbeste aldiz aldarrikatu izan den hizkuntza bien arteko ahaidetasuna. Ondorio honetara heltzen da Bähr eta hauxe da, hain zuzen ere, bere tesiaren muina. Ikusirik garai hartan gehienek ahaidetasun horretan sinesten zutela, frogatzen ba zen tesi horretarako erabiltako argudioak ustelak zirela, ateratzen zen ondorioa berez zetorren: euskara genetikoki, hau da bere jatorriari dagokionez, isolaturik dago, bakarrik dago, munduko hizkuntzen artean.

K. Boudak ez du euskararen isolatasunean sinisten, baina Bähr-en liburua ezin hobea datorreo indarrean zegoen basko-iberieraren teoria birrindu eta honen ordez berak uste zuena jartzeko orduan. Irakur ditzagun haren hitzak: “Nire adiskide den [René] Lafon jaunak eta biok alor zail hau berriro ere jorratu dugu, eta gaur esan dezaket euskarak kaukasiar hizkuntzekin duen ahaidetasuna gauza frogatutzat eman daitekeela” [2. or.]. Hemen ikusten dugu, hitz gutxitan esanda, XX.mende honetan zabaldu den beste teoria, eta funtsean euskararen eta Kaukasoko mendien inguruetan hitz egiten diren hizkuntzen arteko ahaidetasuna aldarrikatzen duena. Basko-iberismoa baino berriagoa da eta, hura ez bezala, ondo irakurri eta ulertzen diren hizkuntzen gainean eraikia. Beste gauza bat da, zeharo desberdina, aldarrikatzen den ahaidetasun hori, Boudak zioen bezala, ‘frogatutzat eman daitekeen’ ala ez. Badakit hizkuntzalari batzuk oraindik ere teoria horretan sinesten dutela, eta esan behar da georgiarrak beti izan direla gu baino askoz ere siniskorragoak, behar bada bere hizkuntzalaritza tradizioan tipologiak eta hizkuntzen egituren ikerketak beti izan duten pisu handiengatik.

Urte asko pasa dira Bähr-ek bere tesia aurkeztu zuenetik, baina bateon-batek galdetuko balit niri, eta zu zeinekin geldituko zinake: Bähr-ek proposatzen zuenarekin edo Bouda-k garbi pentsatzen zuenarekin? Bada, dudarik gabe, Bähr-ek esaten zuenarekin. Hau da, beste hitzen bidez esanda, euskara isolatua dagoela munduko hizkuntzen artean. Honek zer esan nahi du? Euskara gene-



tikoki isolaturik dagoela esatean ez diogu euskarari berari ezer gaiztorik ez onik leporatzen, ez eta ere euskararen beraren akatsik edo ahuleziarik onartzen, haren aztarnak aztertzekoan gure ahulezia eta ezina baizik. Esaten den bakarra zera da: ez diogula oraindik ahaiderik aurkitu, nahiz eta horren atzetik ibili. Eta hori da hain zuzen ere Gerhard Bähr-ek esaten zuena.

Aurreratu dugu lehenago nola egilea liburu honetan orduko ideia nagusiaren aurka joan zela: hau da, oraingo euskara aintzinako iberieraren ondorengo bat zelako ideiarekin kontra. Lanbide horretan aurkeztu zituen argudioak hain zorrotzak izan ziren, non harrezkeroz inork ez du defendatu, —lehenago arrazoibide berberak erabiliz—, hizkuntza horien arteko ahaidetasuna. Esan daitekeena da, baina hori beti esan daiteke, hizkuntza horien arteko ahaidetasuneza frogatuta ez dagoela, eta beste pausu bat aurrera emanez, litekeena dela ahaidadeak izatea. Ikertzaile batzuk gehiago sinisten dute ideia honetan beste batzuk baino eta uste dute egunen batean hizkuntzalariek oso azaleko eta batez ere izen propioen eremuan agertzen diren antzekotasunak gramatikaren eremu sakonetara eramango dituztela, orain uste hutsa baino ez dena froga argia bihurtuz. Baina garai horretara heltzen ez garen bitartean, gauzek Bähr-ek utzi zituen bezala diraute.

Eta nola ailegatu zen Bähr ondorio honetara? Horretarako, nik uste, bi edo hiru arrazoi egon ziren. Alde batetik, lehen aipatu den Alemaniako tradizioaren ildotik, obra erudito gehienak alemanieraz idatzita zeuden: Hauen artean, aipatzekoak dira Humboldt-ek euskarari eta Hispaniako aintzin toponimiari buruz 1821.an azaldu zuen liburutoa, Hübner-ek 1893.an argitaratu zuen iberiar iskrizioen bilduma (*Monumenta linguae ibericae*) eta Schuchardt-ek iberikoari eta aintzin euskarari buruz idatzi zituenak. Baina obra hauek guztiak garrantzi handikoak izanik ere, garai hartako hizkuntzalaritza alemaniarraren indarra metodoaren zuzentasunean datza, dudarik gabe. Osthoff, Brugmann, Leskien, Hermann Paul eta antzeko hizkuntzalarien izenek argi eta garbi erakusten digute Alemaniako unibertsitate gehinetan hizkuntzalaritza historikoaren eta gonbaratismoaren aurrerapenak zeharo onartuak zeudela. Espainian, Menéndez Pidal eta bere eskola salbaturik, oso atzeratua zebilen artean hizkuntza ikerkuntza.

Esaten dudan hau garbiago azal dedin, bi argibide aipatuko ditut. Bata toponimiari buruz zuen iritzia da. Denok dakigu toponimiazko azterketak teoria tradizionalaren punturik sendoenak zirela, leku izenen gainean eraikitzen zutelako teoria osoa, ontzat ematen baitzen —eta printzipio gisa ez du akatsik— leku izenak espaldi desagertutako egoera linguistiko baten lekukoak zirela. Hala abiapuntu honetatik abiatuz saiatu ziren bere hipotesi nagusia frogatzen, hau da, Espainian zehar aintzinatean euskara besterik ez zela egin. Apologisten lanak —eta Poza lizenziatuarena batez ere, bera izan baitzen gure artean metodo horren aintzindari eta erakusle hoberena— irakurri besterik ez daukagu azterbide horren mamiaz eta aritzeko moduaz ohartzeko. Bähr-ek metodo honen akatsak eta zailtasunak argibide baten bidez azaltzen ditu, *Cala-* erakusten duten leku izenak aztertzean. Aintzinatean *Calagurris* izeneko iri bat baino ge-

hiago ezagutzen dugu, zeini Galiziako *Caladunum* eta Akitaniako *Burdigala* gei diezazkiokegu. Gaur egunekoak, ostera, asko dira, hala nola, Calaceite, Calamocha, Calatrava, eb.; hauen artean ezagunenetakoa, Calatayud. Schuchardtek leku izen hauek guztiak batu egiten zituen, ontzat emanaz aintzinako *Cala-* eta oraingo erdal zatia *Cala-* euskarazko *Garagorri*-ren antzeko izenetan agertzen den euskal *gara-* ren ordainak direla. Bähr-ek, erakutsiz arabieraz *qala* hitzak “gaztelu” esan nahi duela eta *Ayud* ibai baten izena dela, izen osoak “Ayud ibaiko gaztelua”ren esan nahia duelarik, nahiko argi utzi zuen toponimiazko azterketek duten arriskua. Horrexegatik toponimia alde batera utzi behar zen eta, ahal zen neurrian, zuzenezko lekukoetara jo: hau da, monedetan, hilarri eta bestelako iskriizioetan aurkitzen ditugunetara.

Bigarren etsenpluztat euskararen aspirazioarena aipatuko dut. Badaki euskarak bere lekuko zaharrenetatik hasita aspirazioa *h* letraren bidez erakusten duela. Konturatzen da, —eta badirudi lehenengoa dela honetan— Akitanian agertzen diren aintzinako izenetan *H* letra oso arrunta dela, inguruko eremuetan ez bezala. Bestalde, ikusirik euskararen bertan, euskalki desberdinetako datuak bilduz, aldaerak daudela soinu honi dagozkion zenbait kasuetan, *hau*, *gau*, *kau* erakuslearen kasuan esate baterako, uste du *H* soinu hau beste soinu zaharrago batetik etor daitekeela. Honek guztiak erakusten dio ezin daitezkeela *h-* dun eta *h-* gabeko hitzak modu berean tratatu iberierarekin gonbaraketak egiteko orduan. Bähr-ek ez zukeen inoiz ere Alcoy-ko iskriuzio ezagun batean agertzen den *bios-* hitza euskarazko *bihotz* hitzarekin lotuko, Anderson-ek orain urte asko ez duela lotu zituen bezala.[Nahi duenak ikus beza Anderson-en liburuari *Veleia* aldizkarian (6, 1989, 306 or.) egin nion erreseina]

Bigarren arrazoitzat, —hau ere nahiko garbi ikusten dena— euskararen ezaguera sakona aipa dezakegu. Beste batzuk, nik baino hobeto, azaldu dute Bähr-en lana euskararen alorrean, batez ere dialektologiaren sailean: hasteko bere idatzlan eta eskutitzetan ikus daiteke zein ondo ezagutu eta menderatzen zuen euskara, gero Triple Cuestionario delako horren betetze lanak euskal lexiko eta gramatikaren zenbait puntu argitu zion; bestalde irakurriak zituen Schuchardt kutunaren obrak ez eze, Gavel eta Uhlenbeck-enak ere. Arrazoi horregatik bazekien gonbaraketak egiteko momentuan zeintzuk ziren onak eta zeintzuk ziren txarrak. Gezurra badirudi ere, badago jenderik hor zehar munduan uste duenik euskararen jatorriaren inguruan zerbait esateko ez dela premiazkoa euskara bera jakitea. Eta harrigarriena zera da, horietako batzuk ez direla amateur hutsak, unibertsitateko nominatik kobratzen dutenak baizik. Bähr-en kasuan ikusten dugu nola batu zituen bi jakinduri diferente, bata euskararen ezaguera sakona eta bestea hizkuntzalaritzan erabiltzen ziren metodo hobereen manaiatzea.

Azkenik *Baskisch und Iberisch* tesia edo liburua ez zatekeen idatzia izango, berorren egilea gizon irakurria izan ez balitz: alemanen obrak ez ezik espainolenak ere irakurriak zituen. Arkeologoenak, esate baterako Bosch Gimpera-renak edo Adolf Schulten-enak. Schulten arkeologo eta historigile

alemana zen, baina espainolez asko publikatu zuena. Espainian Numanciako iri zaharra lurrazaleratu zuen eta zeltiberoei buruzko iturri guztiak aztertu eta argitaratu. Baina obra hauen guztien artean, Gómez Moreno-renak izan zuen, du-darik gabe, eragin sakonena Bähr-en —eta ondoren eginkizun hauetara dedi-katu zirenen— ikerketetarako.

Gómez Moreno-k 1923.an Menéndez Pidali eskainitako omenaldian parte hartzen du eta hor iberiar idazkeraren deszifrapena ematen du. Kontuan eduki behar da iberiera iskrizio batzuren bitartez ezagutzen dela batez ere, eta iskrizio hauek ez daudela latin grafian idatzita, baizik eta letra berezi batzuetan. Ez dago zer esanik letra edo zeinu horiek betidanik atentzio ikaragarria erakarri dutela, baina artean ez ziren ondo irakurtzen. Zeinu gutxi batzuren gainean, hala nola bokalen edota zenbait sudurkari edo likidaren gainean, adostasuna zegoen, baina herskarien baloreak ez zeuden inolaz ere ondo finkatuta, eta Hübner-ek lehen aipatu dugun *Monumenta Linguae Ibericae* liburuan ematen dituen baloreak gehien erabiliak izan arren guztiak konturatzen ziren sistema horren barne-kontraesanez eta ahuleziaz. Zeinuak irakurtzeko modu asko zegoen eta, egoera horietan sarritan gertatzen ohi denez, nork bere irakurketa egi-ten zuen bere hipotesiaren frogagarri.

Gómez Moreno izan zen, beraz, iberiar idazkeraren sistema deszifratu zue-na. Kontua da, Gómez Moreno-ren artikulua hori, nahiz eta oso inportantea izan, inork ere, Bähr izan ezik, ez zuela aintzakotzat hartu. Egia da, idatzlanean ber-tan aurki daitekeela erantzunezaren arazoia, ezen Gómez Moreno-k ez bait zuen bere proposamena inondik ere argitu edo azaldu, bakarrik huts-hutsean eman zuen eta kito. Hori, Bähr-ek berak tesiaren kapitulu oso inportante baten hasieran, iberiar idazkerari eskaintzen dion atalean hain zuzen, aipatzen du: “iberierari buruzko ikerketa idazkerak sortzen duen arazoaren menpe egon da beti eta halaxe da neurri handi batean orain ere. Arazo larri honetan sartu nahi dut, zeren Hübner-en obra klasikoa ‘*Monumenta Linguae Ibericae*’ —bestalde Delgadoren obrari irakurketarik seguruenak zor dizkiona—, 1893.an argitaratu zenetik benetako aurrerapausua eman da Gómez Moreno-ri esker, baina kon-tuan harturik honek zeinuen balore hutsak ematen dituela soilik, inongo azal-biderik eman gabe (Homenaje, 484 or.), sistema honen jatorria eta garapena argitzen saiatuko naiz ni hemen” [45 or.]. Eta hasten da atal horretan iberiar idazkeraren azalpen zehatz zehatza ematen, Gómez Moreno-k eman ez zuena. Aldatuko dut hona Gómez Moreno-ren zatia garbiago ikus dedin zer nolako estilo ilun eta konzeptista erabiltzen zuen: “Tocante a lo escrito con letra ibé-rica, ciertas monedas, las estelas que parecen ser epitafios, arrojan palabras con apariencia de nombres personales. Con las reservas precisas aquí van los más probables, pero ya que no sea cómodo presentarlos sino transcritos, valga in-cluir además por comprobante un esquema del alfabeto silabario en cuestión, sin pretender colacionarlo con el tartésico cuyos valores se mantienen a mi juicio casi inciertos. Así resultarán si no justificadas una por una las transcrip-ciones subsiguientes, que esto sería faena muy larga e inoportuna para el caso,

a lo menos comprensibles las diferencias grandes introducidas respecto al sistema Delgado-Hübner hoy en boga...” eta zeinu guztien balorea ematen du segidan baina inongo azalbiderik gabe. Hau, esan bezala, 1923.an argitaratua izan zen; gero monarkiaren azken urte latzak, errepublika eta gerra etorri ziren, eta hemengo ikertzaileek ez zioten bere lanei berriro ere ekin gerra amaitu ez zen arte.

G. Bähr-ek Gotingako unibertsitatean aurkezten du bere tesia 1940an. Gero, 1940-tik 1945-erainoko urte horietan Alemaniako armadan hartzen du parte, antza denez, eta Berlinen desagertzen da, 1945.ko maiatzean, errusiarrek iria menperatzen dutenean. Espainian, gure gerra amaitu orduko, Caro Baroja hasten da gauza hauetara dedikatzen, eta 1942-43.an *Emerita* aldizkarian artikulua oso garrantzitsu bat argitaratzen du, “Observaciones sobre la hipótesis del vasco-iberismo considerada desde el punto de vista histórico” izenburua daramana. Hiru urte beranduago, 1946.an hain zuzen, Gómez Moreno-ren proposamenaren ildotik jarraituz iberiar idazkeraren deskripzio zehatza eta sistematikoa egiten du. Noski, Caro Barojak ez du Bähr-en tesia ezagutzen, bi urte beranduago, 1948.an, argitaratua izango delako. Historia honek guztiak erakusten digu nola jendea, bakoitza bere aldetik, iskrizio iberiarrak Gómez Morenoren metodo berriarekin irakurtzen hasten denean, gutxienez hiruzpalau pertsona bat datozela bere irakurketa eta azalbieetan: hor metodoaren zuzentasun eta emankortasunaren frogarik ezin hobea! Baina azpimarratu egin behar da, aurkikuntza horri etekin iraunkorra atera zion lehenengo Bähr izan zela.

Eta hori hala da, berak azaltzen digulako lehenengo aldiz aintzinako hizkuntza paleohispanikoei buruz gero guztiok onartu dugun zatiketa garbia. Irakurketa arazoak tratatu ondoren, esaten du: “Eta honekin uste dut iberieraz mintzatzen ziren ekialdeko eta Ebro haraneko tribuen eta zeltaz egiten zuten mesetako biztanleen artean bereizketa argi eta garbi bat zegoela frogatu egin dudala” [103 or.]. Iberiera idazkeraz idatzitako testu guztiak irakurri eta aztertu ondoren gauza bat ateratzen zen garbi: han hizkuntza baten lekuan gutxienez bi hizkuntza zeudela. Alde batetik, iberiera, beti uste izandako iberiera, eta bestetik hizkuntza zelta bat, inork ere han zegoenik uste ez zuena. Eta horregatik, hain zuzen ere, 1907.an, Schuchardt-ek atera zuen “Iberische Deklination” izendaturiko artikulua inportantean eraiki zuena bertan behera jausi zen, inongo balorerik gabe gelditu zen, Bähr-ek oso garbi erakutsi zuelako Schuchardt-ek bere proposamenerako erabili zituen datuak bi iturri zeharo desberdinetik zetozela, erabilgaitzak ziren datuak nahastuz.

Uste dut esandakoarekin obraren garrantzia azpimarratu dudala. Esan beharra dago, hemen azaldu dudan tesi nagusi horren inguruan, beste puntu inportante asko ere tratatzen dituela eta batzuk oraindik ere indarrean daudenak, edozeinek defenda ditzakeenak. Alde batetik, Akitanian agertu ziren pertsona izen eta jainko-jainkosa izen propio horien eta euskal izenen arteko harreman estua frogatu zuen, nahiz eta aurretik zetorren tradizio bat ere egon. Bestetik euskara eta zeltaren arteko harremanak ere ikutu eta aztertu zituen. Uste zuen

Akitaniako hizkuntza hori hizkuntza mixto edo nahasi bat zela, euskara eta zeltaren arteko nahasketa bat. Horretarako argumento batzuk eman zituen eta esan liteke ideia horiek duda-mudakoak direla, baina harritzekoa da bestalde Kimika, Espainiera, Frantsesa eta Inglesa estudiatu zuen batek, euskara aparte utzita, nola menperatzen zituen grafia kontuak, aintzinako iturriak, hizkuntza zeltetako datuak, eta horiek guztiak zein juizio onarekin tratatzen zituen.

Tamalgarría izan da benetan Bähr-en tesi honekin gertatutakoa, postumoa izateaz gain alemanieraz idatzia izatea. Berrogeita hamar urte beranduago bada ere, ez litzateke alperlana izango ikerlan zoragarri hori euskaldunok ezagutzen dugun hizkuntza batera itzulia balitz. Hala bedi!



## GERHARD BÄHR ETA EUSKAL HERRIA

96-06-24

*José Luis Ugarte Garrido*

Hitzaldi labur honetan Gerhard Bähr-en bizitzaren etapa bati soilik lotuko natzaio: 1919tik 1926ra doan tarteari hain zuzen. Izan ere, aldi horretan harreman estuak izan zituen Gerhard-ek Euskal Herriarekin eta euskal munduarekin. Erabili ditudan iturriak hauetxek izan dira: Gerhard-ek Azkuerekin izandako korrespondentzia (Euskaltzaindian gordetzen dena), Julio de Urkijorekin izandako korrespondentzia (Gipuzkoako Foru Aldundian gordetzen dena), Euskaltzaindiako Batzar-agiriak eta gurekin dagoen Mercedes Föll-ekin izandako elkarrizketak.

Gerhard Bähr sortzez legazpiarra zen eta 13 urte arte Legazpiko Udana auzoan bizi izan zen. Hala ere, itxura denez, ez zen gehiegi murgildu giro euskaldunean. Izan ere, oinarrizko heziketa Udanara etorritako maixu-maistra alemaniarrengandik jaso zuen, Brinkolako abade-etxean zertxobait ibili bazen ere. Berak aurrerago aitortuko zuenez, umetan alemaniera eta gaztelera ikasi zituen, ez ordea euskara. Eta hamairu urterekin, berriz, Alemaniara joan zen ikasketa ertainak burutzera, handik aurrera Legazpira udako oporraldietan itzuliz.

Alabaina, Munduko Lehen Gerratearen ostean, 19 urte zituela, Legazpira itzuli behar izan zuen, halabere, denboraldi luze baterako. Olaberri auzora oraingoan, alemaniarrek gerra galdu zuten zutenez guraso eta senideak Udanatik bota egin baitzituzten. Aldi honek haren bizitza markatu zuela esan liteke. Olaberrin, anai-arreba txikien irakaskuntzaz arduratu zen, eta bide batez euskara ikasten hasi, hizkuntzak ikastea gogoko baitzuen. Eta denbora gutxian euskara ikasi ez ezik Euskaltzaindiarekin harremanetan ere jarri zen. Honela idatzi zion 1920ko uztailaren 13an Resurrección M.<sup>a</sup> de Azkue euskaltzain buruari Olaberritik: *“Euskera ta beste izkeraendako arratsaldea baño besterik etzait gelditzen. Ia arrastioro jostun batekin euskeraz ordu batez (geyago naita ere ezin) jardun oi det, ta berari esker apurtxo batean izketan itzegin ahal izaterañoako aurrepenak egin ditut”*.

1921eko otsailean, Euskaltzaindiako ohiko batzarrera Gerhard Bähr-ek Legazpiko aditzaire buruz egindako lan bat bidali zuen. Lan hark eragindako inpresioa hain ona izan zen, ezen argitaratzea ez ezik *“jaun argitsu ori euskaltzain urgazle (laguntzaile) izentatzea”* ere erabaki baitzuen Euskaltzaindiak.

## Kimika ikastera

1921eko apirilean, Legazpin bi urte pasa eta gero, Gerhard Bähr Alemaniako Göttingen hirira joan zen ikasketekin segitzera, bertan Kimika ikasketak hasi zituelarik, aitaren aholkuari jarraituz. Baina Resurrección M.<sup>a</sup> de Azkue konturatuta zegoen Gerhard Bähr-en talentuaz eta lan batzuk agindu zizkion, Alemanian egin zitzaizkien. Itzulpenak ziren lehenengoak: garai hartan euskal hizkuntzaz arduratzen zen Schuchardt hizkuntzalari alemaniarren idazlan batzuren gaztelarazko itzulpenak, hain zuzen. Lan horiek ordainduak ziren.

1921eko urte horretan, halaber, RIEV (Revista Internacional de Estudios Vascos) aldizkariaren sortzaile eta zuzendaria zen Julio de Urkijorekin harremanetan jarri zen. Modu honetan idatzi zion Gerhard-ek azaroaren 27an Göttingen-etik: *“Le agradezco además su lisonjera invitación de mandarle algún artículo en castellano o vascuence para su Revista, que acepto muy gustoso”*. Kontutan izan behar dugu 21 urte besterik ez zituela orduan.

## Lehenengo argitalpena

1922. urtean EUSKAL ESNALEA aldizkarian lehen euskal idazlana argitaratu zuen, Alemanian egiten ari zen ikasketekin lotuta zegoena: *“Uaño naiz xirietaz”* (Sobre bacterias y bacilos, alergia). Euskara ederki menperatzen zuela ikus daiteke idazki horretan. Baina, hurrengo ikasturtean, Kimika ikasketak alde batera utzi eta hizkuntza modernoak (frantsesa eta ingelesa, batez ere) ikasteari ekin zion. Bestalde, urte horretako udako oporretan Azkuek agindutako lanak burutu ahal izan zituen.

1922ko azaroaren 27an Euskaltzaindiaren osoen bilkuran Gerhard Bähr bekatzea erabaki zen eta *“Erizkizundi Irukoitza”*-rako Gipuzkoako datuen bilketa haren gain uztea. Gerhard-ek gogo onez onartu zuen lan eskaintza hori (diru premian ere baitzegoen, gurasoen egoeragatik), eta hurrengo urteko udako oporretan Euskal Herrira horretarako etorri zen. Aita-amak eta anaia txikiena Ormaiztegin bizi ziren ordurako.

## Langile nekaezina

Horrela bada, 1923ko udara osoa Euskal Herrian bota zuen, batera eta bestera, 60 herritan galdeketak eginez. Lan izugarria egin zuen, kontutan hartuta garai hartan kotxerik ia ez zegoela eta herri eta baserri guztietara ailegatzeko bizikleta eta trena besterik ez zituela erabili. Benetan aparteko sasoi eta diziplina erakutsi zuen.

1924eko udaran ere Euskal Herrian ibili zen, eta, oraingoan, Gipuzkoako 40 herritako adizkerak biltzen. Bilketa lan horiek RIEV aldizkariak argitaratu



zituen 1926 eta 1935 bitartean. Hala ere, baserrietara egiten zituen bixitak informazio gehiago jasotzeko ere aprobetxatzen zuen, eta adizkeraz gainera, material etnografiko asko bildu zuen, handik urte batzutura argitaratuz joango zena. Azkuek, Gerhard-ek lanerako zuen gaitasunaz harrিতuta, honela idatzi zion behin: *“Lanik egin gabe ezin zu egon. Emengo lanak basauririk basauri ibili ta adizkiak biltzeak kalte egin-bearren badaiteke zuri on andia egited”*. Beste batean, berriz: *“Atsedean piska baten duin zera eta zure onerako esaten dizut, otoi! artu zazu bestela gazterik zaartuko zera”*.

Gerhard Bähr-ek, ordea, ez zuen euskarazko ikerlanak eta bere goi-mailako ikasketak aldiberean aurrera eramateko arazorik, 1925eko urtarrilaren 31ko gutun honetan nabari denez: *“Ikaskuntza asita dago ta gogor ekiten diot lanari, ostaroan edo, azterketak jasan gogo naiz”*.

1925eko udazkenean, Gerhard Bähr Euskal Herrian zela badakigu, Euskaltzaindiako bi bilkuran parte hartu baitzuen.

### **Euskaltzain Osoa izateko proposamena**

1926ko urtarrilaren 2an Azkuek Gerhard Bähr-i idatzi zion euskaltzain osoa izateko proposamena luzatuz, eta lizentziatutakoan Euskal Herrira etortzeko nahia azalduz. Bähr-ek, ordea, astun zeritzon euskaltzain karguari, oso lanpeturik baitzebilan eta konpromezu franko ekar zezazkiokelako, Julio de Urkijori idatzi zion gutunean ikusten den bezala: *“Yo creo que en mi modesta esfera de colaborador científico podría trabajar por el vascuence tanto fuera de la Academia como siendo académico de número. Opino que (...) la labor de la Academia seguirá siendo literaria y de investigación reservándose los serios estudios científicos más bien para el extranjero...”* Azkenik, ez zuen kargua onartu.

### **Aitaren heriotza**

1926ko otsailean, Ormaiztegin bizi zen Friedrich Bähr (Gerhard-en aita) hil egin zen, eta ama alarguna, bakarrik geratu zenez (seme-alaba guztiak Alemanian), jaioterrira itzuli zen. Gertakari honek eragin handia izan zuen Gerhard-engan, ezen Euskal Herrira etortzeko arrazoi nagusienetako bat gurasoak baitziren. Eta, horrela, aitaren heriotza gertatuz gero Euskal Herrirako joan etorriak asko urritu ziren. Urte horretan, gainera, lizentziatu egin zen eta behin-behineko irakasle lana Alemanian topatu zuen. Harako jarri zen, Azkueren nahigaberako.

Dena den, portaera horrek ez zuen hemengo gauzak baztertu zituenik adierazi nahi, ez eta gutxiagorik ere. Aitzitik, euskarazko lan garrantzitsuenak gerorago argitaratu zituen. Alemania aukeratu zuen, ordea, bizi izateko.

Gainera, gerora Euskal Herrira bisita gehiago ere egin zituen. Horrela, badakigu 1930ean Legazpin ibili zela, honela esaten baitio Julio de Urkijori gutun batean: *“Yo cuando en agosto de este año rebusqué en el archivo de Legazpia los documentos más antiguos para coleccionar la toponimia más antigua....”*

Beraz, urrun bizi izanda ere, Legazpin sortutako hizkuntzalari hau grinatsu saiatu zen beti euskararen alde, haren denbora librearen ordu asko eta asko berari eskainiz. Eta buka dezadan hitzalditxo hau Gerhard Bähr-ek Azkueri idatzitako esaldi hau gogora ekarriz: *“Zeinnahi garaitan Euskalerriko gauzak darrarizkit: batez ere euskara maitea”*.

## GERHARD BÄHR, MUERTE Y VIDA

*Legazpi, 29-04-1995*

*Hans-Peter Bähr*

Con honda emoción recibí la invitación para asistir a los actos del quincuagésimo aniversario del fallecimiento de Gerhard Bähr, mi padre. Cuando murió, el 27 de abril de 1945 durante la defensa de Berlín, yo era tan solo un niño de escasos dos años y medio, de modo que no puedo decir que lo haya conocido realmente. ¿Qué puedo yo entonces contaros de él?

Este homenaje que le tributa Legazpi, la cuna de su existencia, me motivó a reflexionar profundamente sobre el hombre que fuera mi padre y, extrañamente, no es poco lo que pude reunir: por un lado sé lo que me han contado mi madre, Erika Bähr y los hermanos de mi padre, de los que, para gran alegría de todos, tía Mercedes se encuentra entre nosotros. También contribuyeron a completar el cuadro los relatos de amigos y colegas de mi padre, algunos de los cuales fueron mis profesores en la escuela superior, el Gimnasio de Hannover. Pero también, buceando en mí mismo he hallado muchas cosas que evidentemente debo a mi padre. Quisiera, si me permiten, bosquejar algunas imágenes de Gerhard Bähr que, si bien reflejan en su mayoría los relatos de terceros, también son en parte el resultado de mis propias reflexiones.

Mi padre fue reclutado como soldado durante el transcurso de la Segunda Guerra Mundial, a pesar de su extrema miopía y de contar, al comenzar la guerra, 39 años de edad. Fue destinado al Servicio de Intérpretes con asiento en Berlín y su tarea fue la formación de intérpretes en idioma ruso. En ese ambiente, seguramente, supo antes que muchos otros, que Alemania perdería la guerra, irremediablemente. La naturaleza de su trabajo también le permitió reconocer las consecuencias que esto acarrearía al país, por lo menos en términos generales. Por eso recomendó a mi madre, por ejemplo, que no permaneciera conmigo en Mecklenburg. Evidentemente ya estaba informado que Mecklenburg caería bajo la ocupación soviética, como lo habían acordado Rusia, EEUU e Inglaterra en la conferencia de Yalta.

En las últimas semanas de la guerra, mi padre fue finalmente llamado al servicio activo. Fue un crimen más del gobierno nazi el recurrir a hombres mayores y niños para la defensa de Berlín cuando ésta fue asediada por las tropas rusas. Mi padre, totalmente inepto para la lucha, cayó durante las es-

caramuzas callejeras en Berlín-Moabit. Ante la inminencia del fin, amigos y parientes se habían ofrecido para mantenerlo oculto hasta que terminaran las acciones bélicas, pero él se había negado a aceptar tales ofrecimientos.

Una vez terminada la guerra, mi padre fue declarado “desaparecido”. Mi madre había huido de los bombardeos de Hannover hallando refugio en casa de parientes en Mecklenburg, donde yo había nacido en 1942. Permanecimos hasta 1950 en ese bellísimo rincón del Norte de Alemania, que considero mi patria hasta el día de hoy.

Recibimos en 1950 la triste noticia de la muerte de mi padre. A diferencia de mi madre, esto no fue una catástrofe para mí, seguramente porque aún no estaba en condiciones de reconocer el alcance de lo ocurrido. Después de unas largas investigaciones, mi madre logró ubicar vagamente la tumba de mi padre en un cementerio de soldados en Berlín-Moabit. Mi hija Anja, su nieta, estudia actualmente Medicina en Berlín; vive a 2 kilómetros de ese cementerio y suele llevar flores de vez en cuando.

Mi madre y yo abandonamos Mecklenburg en 1950, en circunstancias difíciles —por supuesto de forma ilegal— para volver a Hannover, la verdadera patria de mi madre. Hannover estaba en ese entonces en manos de las fuerzas de ocupación británicas y esto me brindó la oportunidad de gozar de una buena educación, cosa que nunca hubiese podido alcanzar en la zona dominada por el régimen soviético, por ser hijo de un “intelectual”. En Hannover también se habían conocido mis padres diez años antes de contraer efectivamente matrimonio. Mi abuelo materno y mi padre habían sido colegas en el mismo gimnasio. Era obvio que también yo concurrí a ese colegio, donde tuve como profesores a algunos antiguos colegas de mi padre. Me acuerdo en especial de un profesor de Historia muy exigente, que me puso una nota baja en su materia siendo yo un niño de once años. Su argumento fue el siguiente: “Tu rendimiento en verdad no fue tan bajo como la nota que te puse, pero con esto quiero que aprendas que siendo el hijo de Gerhard Bähr, espero de ti un rendimiento brillante en mi materia, nunca un rendimiento mediocre”.

No debéis malinterpretar esto, pues a lo largo de mi vida nunca fui prisionado ni se me exigió un rendimiento escolar poniendo como medida de comparación a mi padre, pero siempre que se hablaba de él, se lo hacía con gran admiración. Entre otras cosas también, por ejemplo, por la forma en que ayudó a sus hermanos menores Jochen, Jans y Mercedes en los difíciles tiempos después de la primera guerra mundial, cuando también ellos debían estudiar en Alemania, donde él ya desempeñaba como docente. Despertaban también gran admiración su facilidad para los idiomas que, de acuerdo con lo que me cuentan, aún hoy me parece extraordinaria. Dicen que dominaba trece lenguas y que en su mayoría las había aprendido solo. Lo extraordinario de esto me parece, es que esos trece idiomas no pertenecían a la misma familia lin-

güística sino que entre ellos había lenguas tan diferentes como el euskera, el turco, el ruso y el rumano.

El amor a las lenguas pertenece a las imágenes en que me veo reflejado. Siento a mi padre dentro de mi y aún hoy voy descubriendo facetas que atribuyo a ese aspecto de mi personalidad. Muy lejos estoy de haber heredado la facilidad para los idiomas y para las ciencias lingüísticas que tenía él, pero siento una atracción muy especial hacia los idiomas extranjeros y la lengua en general. Incluso el amor que siento por la península ibérica, sus lenguas, su gente y su cultura podría haber sido heredado, aunque os parezca increíble. De cualquier modo lo afirmaba mi madre, que estudió el idioma español cuando me llevaba en su seno. Sostenía que el hecho de haber tenido un contacto tan estrecho con todo lo español, en la más íntima comunicación conmigo, había conducido a desarrollar en mi un amor muy personal y profundo por este país y por esta región, Gipuzkoa.

En mi condición de ingeniero, me inclino más bien a creer que se debe atribuir a mi madre el haber contribuido sistemáticamente a que este amor creciera. A partir de 1963, visitó conmigo en repetidas ocasiones el País Vasco donde conocí a antiguos amigos de la familia Bähr. Yo mismo vine varias veces con mi familia, como seguramente lo hubiese querido mi padre. Permítanme aprovechar esta ocasión para hacer llegar un agradecimiento muy especial a Jose Maria Leturia y a su esposa María Luisa, de Oñati, que me hicieron conocer de cerca la patria de mi padre. Jose Mari es el hijo de la madre de leche de Gerhard Bähr y casi su hermano, por decirlo así. Todavía tengo ante mí la imagen de todos nosotros durante nuestra visita de 1976, cuando trepamos con mi hija, entonces de cinco años, el pedregoso pero bellísimo camino hacia la mina donde trabajaba mi abuelo paterno. Dicen que mi abuelo recorría ese camino a lomo de burro, leyendo el diario.

La generosa hospitalidad y el cariño que se nos brindó y sigue brindando en este País, es una vivencia que en esta forma resulta única en el mundo. Es maravilloso el mantener vivas la tradición y la cultura. Esto no se desarrolla automáticamente: requiere de hombres e instituciones que se dediquen a ello. En este sentido, agradezco a aquellos que tuvieron la idea de hacer este homenaje y a aquellos que lo organizaron. Vosotros contribuís a que el recuerdo de mi padre no muera.



**EUSKALTZAINDIAK  
HERRI-AGINTEEKIN EGINDAKO  
II. HITZARMENA**





## **EUSKO JAURLARITZA, NAFARROAKO GOBERNUA, FORU ALDUNDIAK ETA EUSKALTZAINDIAREN ARTEKO HITZARMENA**

Batetik, M. KARMEN GARMENDIA LASA andere txit prestuak, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailburuak Eusko Jaurlaritzaren izenean eta honen 1995eko irailaren 26ko Erabakiaren arabera.

FEDERICO TAJADURA ISO jaun txit prestuak, Nafarroako Gobernuaren Lehendakaritzako kontseilariak.

MIKEL MINTEGI AREITIOAURTENA jaun txit agurgarriak, Arabako Foru Aldundiaren Kultura eta Euskara diputatuak.

TOMAS URIBEETXEBARRIA MAIZTEGI jaun txit agurgarriak, Bizkaiko Foru Aldundiaren Kultura diputatuak.

KORUKO AIZARNA REMENTERIA andere txit agurgarriak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kultura eta Euskara diputatuak.

Bestetik, JEAN HARITSCHELHAR DUHALDE jaun txit prestuak, euskaltzainburuak.

### **PARTE HARTZEN DUTELARIK**

Lehenengo bostek nork bere erakundearen izenean eta haren ordezkari.

Azkenak Euskaltzaindiaren izenean eta haren ordezkari.

Honako hitzarmen hau elkarri aitortzeko gai direlarik, zera

### **ADIERAZTEN DUTE**

**Lehenengo.**—Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako Diputazioek 1918an sortu zutenetik, berauen onspenez eta dirulaguntzaz jardun duela Euskaltzaindiak.

**Bigarren.**—Estatuaren antzaldatzearekin batera, otsailaren 26ko 573/1976 Dekretuak Euskaltzaindiaren berarizko onarpena agertu zuela aurrerantzerako Euskararen Erret Akademia izena emanaz eta bere arautegia onartuz.

**Hirugarren.**—Euskal Herriko Autonomia Estatutuak, euskara hizkuntza ofizialtzat hartzeaz bat, Euskaltzaindia euskarari dagozkionetan, erakunde aholku emale ofizial izango dela aitortzen duela bere 6. artikuluan. Horregatik, Eusko Jaurlaritzak bere babes, onespina eta dirulaguntza eskaintzen dio Euskaltzaindiari.

**Laugarren.**—Era berean, abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeak bere 3.3. atalean diotenaren arabera, Euskaltzaindia hizkuntza araei dagokienean erakunde aholku emale ofiziala izanik, Nafarroako Gobernuak iniziatiba ezberdinez baliaturik, bere laguntza eta onespina eskaini eta eman dizkiola erakunde honi.

**Bosgarren.**—Goian aipaturiko herri aginte desberdinek, hasieran bakarka eta ondoren gerok eta elkarlan estuagoan, hainbat neurri hartu dituztela azken urteotan erret akademia honen ekintzak sustatzeko.

Horren harian, azken mugarría, berez garrantzitsua dena, Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak, foru aldundiak eta Euskaltzaindiaren artean 1989an sei urterako sinatutako *hitzarmena* da.

Bertan, hitzarmen berri honen bidez berebiziko indarrez berri eta berri nahi den diru zein baliabide lankidetzaren egitura oinarriak finkatu ziren.

Guzti horregatik,

## HITZARTZEN DUTE

### Lehenena.—Hitzarmenaren xedea

1.1. *Hitzarmen* honen xedea batetik Euskaltzaindiaren eta bestetik Eusko Jaurlaritzaren, Nafarroako Gobernuaren eta Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko kondaira lurraldeetako Foru Aldundien arteko hitzarmen oinarriak finkatzea da. Era berean, erakundearen aurrerantzeko ekintzabidea ziurtatzeko alde desberdinek bere gain hartzen dituzten betebeharrak, diruzkoak zein baliabidezkoak, arautzea.

1.2. Aurreko pasartearen aipaturiko xedeekin bat datozen Euskal Herriaren gainerako lurraldeetako herri aginteak bildu ahal izango dira hitzarmen honetara, horretarako hitzarmen honetan sortzen den Jarraipen Batzordeak finka ditzakeen baldintzen arabera. Baldintza horiek ezin izango dira hitzarmen honetan jasotzen direnak oinarrian edo era nabarmenean aldatzeko modukoak.

### Bigarrena.—Hitzarmenaren indarraldia

*Hitzarmen* hau bost urtez izango da indarrean, baldin eta helburu horretarako aurrekontu-kreditu nahikoa eta egokia bada hitzarmenkideten aurrekontu

orokorretan, ekitaldi bakoitzean; dena dela, hitzarmenkiek hala erabakitzen badute indarraldia beste horrenbeste luzatu ahal izango da, baldintza beretan.

Abiaburu-hitzarmen honetan ezarritakoaren kaltetan joan gabe, urteko hitzarmenak izenpetu eta honi atxekiko zaizkio. Urteko hitzarmen horietan zehaztuko dira hain zuzen, hitzarmenkiek urte bakoitzean bete behar dituzten eginbeharrak.

### **Hirugarrena.—Euskaltzaindiak bere gain hartzen dituen betebeharrak**

Honako baldintza hauek betetzeko hitza ematen du, luze-zabalean, Euskaltzaindiak:

#### 3.1. *Aurrekontu, ekonomi eta finantza izaerakoak:*

3.1.1. Urteroko aurrekontugaiak aurkeztuko dizkie izenpetzen duten herri aginteei. Aurrekontugai horien azalpenak ondoko puntuok hartuko ditu kontuan:

##### a) Aurrekontu arruntak:

a.1. Euskaltzaindiaren langile taldearen osakera eta kostua. Hauetan, erakundearenak izanik ere, lan programa zein azpiprogramekin lotura zuzen-zuzenik ez duten langileak aipatuko dira, baita, kasuan-kasuan, euskaltzainen ordainsariak edo/eta dietak ere.

a.2. Euskaltzaindiaren funtzionamendu gastuak: lan programa edo azpiprogramekin zerikusi zuzen-zuzenik ez duten bulego gastuak, komunikabideak, joan-etorriak, zerbitzuen funtzionamendua, batzar gastuak, ohizko zaintze eta konponketak...

a.3. Euskaltzaindiaren inbertsio gastuak: lan programa edo azpiprogramekin zerikusi zuzen-zuzenik ez duten altzariak eta bulegorako tresneria, idazmakinak, fotokopiagailuak, ordenadoreak...

a.4. Lan programa edo azpiprogramekin zerikusi zuzen-zuzenik ez duten aurrekontu arruntetako gainerako gastuak.

##### b) Programa aurrekontuak:

b.1. Martxan dauden programen eta azpiprogramen aurrekontuak. Hauek Euskaltzaindiaren egiturazko gastuekin zerikusia ez duten ikerketa lankide hitzartuak eta bekadunen gastuak, funtzionamenduzkoak zein diruzkoak jasoko dituzte era banatuan.

b.2. Martxan jarri nahi liratekeen programa edo azpiprograma berrien aurrekontuak a) atalean esaniko moduan.

3.1.2. Urtea amaitzean, urteari dagozkion aurrekontu arrunt zein programakakoaren likidazioa aurkeztuko die Euskaltzaindiak hitzarmen hau sinatzen

duten herri aginteei. Era berean egoera balantzea zein ekitaldi bukaerako ekonomia eta finantza egoera agertuko dituzten kontabilitate agiria.

Ildo beretik, jasotako dirua zertan erabili den azaltzen duen *Oroit Idazkia* aurkeztuko die, eta honekin batera burutzen ari den lana medio, sor daitezkeen gastuen jatorrizko frogagiri edo fotokopia konpultsatuak ere bai.

Hurrengo urteko otsailaren 28rako luzatu beharko ditu, beranduenik, horren azalpenak, egokien deritzen argibideekin batera.

### 3.2. *Ekintzabidezko baldintzak zein materialak:*

3.2.1. Martxan dauden programen eta azpiprogramen urteko ekintza asmo xeheak aurkeztuko ditu Euskaltzaindiak; begiz jotako xedeak, kronograma, giza baliabideak, baliabide materialak...

Ekintza asmo hauek urteroko aurrekontugaiekin batera aurkeztuko dira.

Urte anitzetako ekintza asmoen kasuan, urteari dagozkionak zehaztuko dira.

3.2.2. Eskuartean dituen lan programen zein azpiprogramen eta hartarako dirubideen informazio jarraia eskainiko die Euskaltzaindiak hitzarmena izenpetzen duten herri aginteei. Horretarako, besteak beste,

a) Barne funtzionamenduan nahiz programen mamikuntzan emandako pausoak eta jasotako emaitzak azalduz, txostenak aurkeztuko dizkie izenpetzen duten herri aginteei. Txostenak, urteko hitzarmenak programa bakoitzarekiko finkatzen duenaren arabera izango dira.

Txosten ekonomikoak, berriz, sei hilabetez behinekoak izango dira.

b) Azkenik, hitzarmena izenpetzen duten herri aginteei eska diezaioketen osagarriko edozein argibide eskainiko duela hitz ematen du Euskaltzaindiak.

3.2.3. Euskaltzaindiak, aurrekontu ekitaldian zehar, izenpetzen duten herri aginteei osorik edo zati batez finantzatutako programa edo azpiprograma berriren bat martxan jarri nahi balu, haiei dagozkien aurreproiektuak prestatu eta garaiz aurkeztuko dizkie aipatu herri aginteei.

Bertan, besteren artean, honako puntuok azalduko dira beharrezko xehe-tasunez: proiektu berriaren xedea, epe iraupena, kostua (urtez urtekoa eta guttirakoa) eta baliabideak (gizajendekoak, antolamenduzkoak, materialak).

Proiektu horientzat herri aginteen dirulaguntza egongo balitz, honako hitzarmen honen bosgarren atalean aipatzen den urtean urteko hitzarmenaren osagarri izango den hitzarmena sinatuko da.

### 3.3. *Bestelako betebeharrak:*

3.3.1. Ekintza planean begiz jotako langintzak honetan edo hartan etenik izango balu, guzti horren berri emango dio Euskaltzaindiak hitzarmen honetan

sortzen den Batzorde Teknikoari eta doan eskainiko ere dio batzorde honi behar adinbateko laguntza bere txostenez eta programa zein ikerketa proiektuen oroitaz zuzen jabetzeko.

3.3.2. Euskaltzaindiak berak aldez aurretik finkaturiko baldintzak bete ditzaten ikerlariei bere azterlan eta ikerketa zerbitzuetara sarbide emango die Euskaltzaindiak.

3.3.3. Euskal Herriaren lurraldeetako unibertsitateekin, publiko zein pribatuekin, hizkuntzalaritzaren alorreko ikertzaileen prestakuntza lanean parte hartuko du Euskaltzaindiak, beraiek hala eskatuko baliote.

3.3.4. Indarrean dauden legeek eta arauzko erabakiek ezarri duten bezala, hizkuntzazko zerbitzua emango die Euskaltzaindiak kasuan kasuko herri aginteei: Eusko Jaurlaritzari, Nafarroako Gobernuari, foru aldundiei, udalei eta berarizko erakunde publikoei.

### **Laugarrena.—Hitzarmena izenpetzen duten Herri Aginteen Euskaltzaindiarekiko dituzten betebeharrak**

4.1. Hitzarmena izenpetu duten Herri Aginteen, urteko aurrekontuak jasotzen dituzten lege-egitasmoetan edo foru-arauetan, Euskaltzaindiarentzako diru izendapena onartuko dutelako ardura hartzen dute bere gain, Euskaltzaindiak hitzarmen honetan jasotakoa bete ahal izan dezan.

4.2. Sinatzaile den herri aginte bakoitzari dagozkion partida hauen zenbatekoa, hitzarmen honen bosgarren atalean zehaztutako prozedura jarraitu ondoren. Jarraipen Batzordeak proposatutako aurrekontu dirutzari atal honetan finkatzen den ekarpen ehunekoak ezarriz ateratzen dena izango da.

4.3. Hitzarmena izenpetzen duten herri aginteen, norik bere esparruan, behar adina neurri hartuko dute hitzarturikoa behar bezala betetzen dela ziurtatzeko.

4.4. Hasieran, izenpetzen duen herri aginte bakoitzak honako aportazio maila hau izango du Euskaltzaindiak diruz eusteko:

Eusko Jaurlaritzak dirulaguntza osoaren % 58,403a.

Nafarroako Gobernuak dirulaguntza osoaren % 10,342a.

Arabako Foru Aldundiak dirulaguntza osoaren % 4,507a.

Bizkaiko Foru Aldundiak dirulaguntza osoaren % 16,406a.

Gipuzkoako Foru Aldundiak dirulaguntza osoaren % 10,342a.

4.5. Aurreko puntuan finkatutako ehunekoak urtero berrikusi ahal izango dira, hitzarmen honetan sortzen den Jarraipen Batzordeak horretaz erabaki de-

zakeenaren arabera. Guzti horiek, eragina izan dezaten, urtean urteko finantza protokoloan jaso beharko dira.

### **Bosgarrena.—Prozedura**

5.1. Hirugarren klausulan zehaztutako egiturari jarraituz prestaturiko behin-behineko aurrekontuak urte natural bakoitzeko irailaren 15a baino lehen aurkeztuko dizkio Euskaltzaindiak hitzarmen honetan sortzen den Jarraipen Batzordeari. Guzti horri, kausula honetan zehazten den ezinbesteko informazioa erantsiko zaio.

5.2. Jarraipen Batzordeak, urriaren 15a baino lehen ohizko batzarrean bildu beharko duenak, esaniko agiriak aztertuko ditu eta hurrengo urterako aurrekontu dirutza finkatuko. Dirutza horri laugarren klausulan zehaztutako ehunekoak ezarri ondoren finkatuko da herri aginte bakoitzak nork bere Aurrekontu Nagusietan Euskaltzaindiari dirulaguntza gisa eman beharrekoa.

5.3. Aurrekontu dirutzak zehatz-mehatz bereiztu beharko ditu Euskaltzaindiaren finantziario arrunterako zatia zein hurrengo urteko programak eta azpiprogramak finantziaztekoa. Dirutza horren eta onartu eta diruz-lagundutako programa eta azpiprogramen berri emango zaio Euskaltzaindiari jakitun egon dadin eta behar diren ondorioetarako.

5.4. Bai aurrekontu dirutza bai diruz lagundutako programa zein azpiprogramak, Euskaltzaindiak hurrengo urtean bete beharrekoak direnak, urtean urteko lankidetzaren protokoloan jasoko dira. Hau, dirulaguntzak zehaztu eta jakinarazi ondoren sinatuko dute bi aldeek. Protokoloa sinatu ostean, alde aurretik bidalitako behin-behineko aurrekontutik aldentutako behin betikoa onartuko balu Euskaltzaindiak, onartutako aurrekontuaren ale bat emango zaio Jarraipen Batzordeari jakitun egon dadin.

5.5. Urtean urteko dirulaguntzen ordainketa beharrezkoak diren administrazio bideak betetzerik izanez gero, era honetan bideratuko da:

- Laguntza osoaren lehen erdia urtarrilean.
- Laguntza osoaren bigarren erdia ekainean.

1995. urteari dagokionez, dirulaguntzen ordainketa ekitaldi honi dagokion lankidetzaren protokoloak ezartzen duenaren arabera egingo da. Urteko lankidetzaren protokoloa lankidetzaren hitzarmen hau mamitu ondoren egingo da.

5.6. Gaur egun indarrean dagoen legediari jarraituz, bai hitzarmen hau izenpetu aurretik, bai hitzarmen honen klausuletan zehazten diren herri aginteen diru kopuruak jaso aurretik, urtean-urtean Euskaltzaindiak ogasunari ordaindu beharreko zergak, batetik, eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak, bestetik, egunean dituen ziurtagiriak aurkeztuko ditu.

**Seigarrena.—Jarraipen Batzordearena**

6.1. Hitzarmen hau izenpetu eta, beranduenik, handik hilabeteko epean batzorde bi izendatuko dira bere mamikuntza zuzenerako.

6.2. Ondoko kideoz osatuko da Jarraipen Batzordea:

a) Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea, batzordeburuari dagokion egitekoa beteko duena.

b) Nafarroako Gobernuko Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusia.

c) Arabako Foru Aldundiaren ordezkaria.

d) Bizkaiko Foru Aldundiaren ordezkaria.

e) Gipuzkoako Foru Aldundiaren ordezkaria.

f) Eusko Jaurlaritzako Euskara Sustatzeko zuzendaria, batzordeko idazkariari dagokion egitekoa beteko duena.

g) Euskaltzainburua edo berak izendaturiko ordezkaria.

h) Euskaltzaindiko idazkaria edo berak izendaturiko ordezkaria.

6.3. Jarraipen Batzordeko bileretara Euskaltzaindiko beste lau ordezkariak joan ahal izango dute. Berauek hitza izango dute, baina ez botorik.

6.4. Jarraipen Batzordearen eginkizun dira hitzarmen hau behar bezala betetzeko koordinazio eta kontrol lanaz gain:

a) Euskaltzaindia hitzartutako lanak zuzen eta garaiz bideratzen ari den erabakitzea.

b) Herri aginteek horren beharrik ikus dezaten kasuetan, Euskaltzaindiari corpus plangintzaren alorreko beharrak edota lehentasun iritziak aurkeztea.

c) Herri aginteek diruz lagundutakoei dagokienez, Euskaltzaindiaren programen eta azpiprogramen emaitzak argitaratzeari dagokion gutzia proposatzea.

d) Urteko aurrekontuko diru kopuru gutzia proposatzea, hitzarmena izenpetzen duen herri aginte bakoitzak dagokion organoaren bidez Euskaltzaindiari izendatutako dirulaguntza eman diezaion hitzarmen honetan ezarritakoaren arabera.

e) Euskaltzaindiari agindutako diru kopuruak garaiz eta arauz iristarazten ahalegintzea.

f) Euskaltzaindiari, euskarari dagokionean erakunde aholku emale den aldetik, dagozkion itzal eta eskubideak segurtatu eta zaintzea bere aginte esparruetan.

g) Euskaltzaindiaren urteko ekintza plan guztiak eta aldian aldiko txostenak jaso eta aztertuko dituen Batzorde Teknikoa izendatzea.

6.5. Jarraipen Batzordea eratzeko quorum-ak bere kideen arteko gehien-goia behar izango du.

6.6. Orokorrean ahobatezko adostasunez hartuko ditu Jarraipen Batzordeak, ahal delarik, bere erabakiak. Halakorik lortu ezin denean, batzordearen erabakiak botuen gehiengoaren arabera hartuko dira.

6.7. Urtean zehar, gutxienez, bi bilera egingo dira, lehena martxoaren 30a eta maiatzaren 30a artean kontu errendapena aztertzeko, eta bigarrena irailaren 15a eta urriaren 15a artean, hurrengo urterako Aurrekontuak onartuko dituzten Lege eta Foru-Arau Egitasmoetan Euskaltzaindiari ezarriko zaizkion kopuruak ikusi eta proposatzeko.

Hauetaz gain, Jarraipen Batzordeko bi kidek gutxienez hala eskaturik, Jarraipen Batzordeko buruak hilabeteko epean gehienez, ez-ohizko bilerarako deia egin ahal izango du.

### **Zazpigarrena.—Batzorde Teknikoarena**

7.1. Hiru kide izango ditu Batzorde Teknikoak Jarraipen Batzordeak izendatuak. Programen eta azpiprogramen jarraipena zuzen bideratu ahal izateko bai lanaren alderdi teknikoaz eta bai ekonomikoaz ezaguera duten ordezkariak izendatuko dira batzorde honetarako.

7.2. Batzorde Teknikoaren berariazko eginkizunak honako hauek dira:

a) Euskaltzaindiaren urteko ekintza plan guztiak eta aldian aldiko txostenak jaso eta aztertuko ditu. Kontu-errendapena aztertzeko, martxoaren 30a eta maiatzaren 30a artean bilduko da, eta aurrekontuak aztertzeko, irailaren 15a eta urriaren 15a artean.

b) Euskaltzaindiaren Zuzendaritzaren onespenez, beharrezkoa gerta dadin guztietan programa eta azpiprograma desberdinen lantaldeekin aurrez aurreko bilerak egingo ditu, besteak beste hitzarmendutako programa eta azpiprogramen behin-behineko ebaluazioa eginez eta lan bakoitzaren egoera zehatza bertan ikuskatuz.

c) Urteko kontu, aurrekontu, kontabilitate paperak eta balantzea aztertuko du.

d) Aurreko pauso guzti horien ondorioz, beharrezko argibideak eta ebaluazio txostenak aurkeztuko dizkio Jarraipen Batzordeari.

7.3. Euskaltzaindiak bidezko ikusten dituen arrazoibide edo alegazioak azaldu ahal izango dizkie Batzorde Teknikoaren txostenei.



**Zortzigarrena.—Hitzarmena bukatzeko arrazoiak**

Hitzarmen hau indargabetu egin ahal izango da ondoko gertaera hauetariko bat suertatzen denean:

a) Sinatzaile diren alde guztien adostasuna.

b) Euskaltzaindiak bere eginbeharretan hutsegite larria izatea. Jarraipen Batzordearen alde aurretiko adostasunez, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailordetzak tramitaturiko espedienteen halaxe adierazitakoan hartuko da hutsegite hori aintzakotzat.

**Bederatzigarrena.—Diru itzulera**

*Hitzarmen* hau bere horretan betetzen ez bada, edota emandako dirua beste eginkizunetarako erabiltzen, ez da ordainketarik jarraituko eta xede horretarako lehendik jasotako laguntza kopuruak dagozkien administrazioetako altxortegi nagusietara itzuli beharko dira, berez legozkiokeen lege ekintzez eta isunez gainera. Diru kopuru horiek diru sarrera publikotzat hartuko dira lege aldetik.

*Hitzarmen* hau ez betetzeagatik sor daitezkeen eskubide, kanon, tasa, zerga, konpentsazio eta kalteordainketak, bera mamitzeko beharrezkoak liratekeen baimen eta lizentziak oro eskuratzea bezala, Euskaltzaindiaren eginbide dira.

**Hamargarrena.—Hitzarmenaren izaera**

Hitzarmen honek administrazio izaera du, eta Jarraipen Batzordeari dagokio bere edukinen interpretazioa. Interpretazio horren garapenezko auziak dagozkien auzitegi kontentzioso-administratiboek ezagutu eta ebatziko dituzte azken buruan.

**Hamaikagarrena.—Hitzarmenaren jectio ardur**

Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailordetzari, hitzarmen honen jectioaren arduradun denez, honako eginkizun hauek dagozkio:

a) Jarraipen Batzordea biltzeko deiak egitea.

b) Batzorde Teknikoa gidatu eta bere funtzionamendu gastu nagusiez arduratzea.

c) Euskaltzaindiarekiko etengabeko jectio harremana.

d) Euskaltzaindia diruz eusten duten herri aginte guztiak jectio eta emaitza guztien jakinaren gainean edukitzea eta beraien arteko informazio lana bideratzea.

**Hamabigarrena.—Azkena**

Hitzartutakoa hala ager dadin, eta esan bezala betetzeko, partaide ezberdinek honako dokumentu hau bere orrialde guztietan izenpetzen dute seikoitzez.

M. KARMEN GARMENDIA LASA  
Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailburua

FEDERICO TAJADURA ISO  
Nafarroako Gobernuaren Lehendakaritzako kontseilaria

MIKEL MINTEGI AREITIOAURTENA  
Arabako Foru Aldundiaren Kultura eta Euskara diputatua

TOMAS URIBEETXEBARRIA MAIZTEGI  
Bizkaiko Foru Aldundiaren Kultura diputatua

KORUKO AIZARNA REMENTERIA  
Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kultura eta Euskara diputatua

JEAN HARITSCHELHAR DUHALDE  
Euskaltzainburua

Bilbon, 1995eko urriaren 27an.

## **ACUERDO ENTRE EL GOBIERNO VASCO, GOBIERNO DE NAVARRA, DIPUTACIONES FORALES Y EUSKALTZAINDIA**

De una parte la Excma. Sra. Dña. M. CARMEN GARMENDIA LASA, Consejera de Cultura, en nombre y representación del Gobierno Vasco conforme al Acuerdo del 26 de septiembre de 1995 del Gobierno Vasco.

El Excmo. Sr. D. FEDERICO TAJADURA ISO, Consejero de Presidencia del Gobierno de Navarra.

El Ilmo. Sr. D. MIKEL MINTEGI AREITIOAURTENA, Diputado de Cultura y Euskera de la Diputación Foral de Alava.

El Ilmo. Sr. D. TOMAS URIBEETXEBARRIA MAIZTEGI, Diputado de Cultura de la Excma. Diputación Foral de Bizkaia.

La Ilma. Sra. Dña. KORUKO AIZARNA REMENTERIA, Diputada de Cultura y Euskera de la Excma. Diputación Foral de Gipuzkoa.

De otra parte, el Excmo. Sr. D. JEAN HARITSCHELHAR DUHALDE, Presidente de Euskaltzaindia/Real Academia de la Lengua Vasca.

### INTERVIENEN

Los cinco primeros en nombre y representación de sus correspondientes Instituciones.

El último en nombre y representación de Euskaltzaindia/Real Academia de la Lengua Vasca.

Teniendo la capacidad suficiente para otorgar el presente *Acuerdo*,

### EXPONEN

**Primero.**—Que Euskaltzaindia, desde que fuera fundada en 1918 por las Diputaciones Forales de Bizkaia, Gipuzkoa, Alava y Navarra ha contado con el apoyo, reconocimiento y ayuda financiera de tales Diputaciones.

**Segundo.**—Que al producirse el cambio de régimen político, el Decreto 573/1976 del 26 de febrero reconoce a la Academia de la Lengua Vasca bajo la denominación de Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia, al tiempo que se aprueban sus estatutos.

**Tercero.**—Que el artículo 6 del Estatuto de Autonomía del País Vasco, además de declarar el euskera lengua oficial del País Vasco, instituye a Euskaltzaindia como institución consultiva oficial en lo referente al euskera. Por ello el Gobierno Vasco otorga su apoyo, reconocimiento y ayuda financiera a dicha Institución.

**Cuarto.**—Que del mismo modo, dado que de conformidad al artículo 3.3 de la Ley Foral Navarra 18/1986, del Vasceuce, Euskaltzaindia es la institución consultiva oficial a los efectos del establecimiento de las normas lingüísticas, el Gobierno de Navarra ha venido ofreciendo y otorgando su ayuda y reconocimiento a esta institución a través de diversas iniciativas.

**Quinto.**—Que en los últimos años, los diferentes poderes públicos más arriba mencionados han adoptado, en primer lugar individualmente y progresivamente de forma conjunta, distintas medidas orientadas a fomentar la actividad de esta Real Academia.

En este sentido, el último hito, por demás trascendente, lo protagonizó el Acuerdo entre el Gobierno Vasco, Gobierno de Navarra, Diputaciones Forales y Euskaltzaindia, firmado en octubre de 1989 para el siguiente sexenio, y en el que se sentaron las bases estructurales de una colaboración financiera y material que ahora, a través de este nuevo *Acuerdo*, se trata de renovar y volver a garantizar con mayor énfasis si cabe. En su virtud,

## ACUERDAN

### **Primero.—Objeto del Acuerdo**

1.1. El presente Acuerdo tiene por objeto establecer las bases generales de colaboración entre Euskaltzaindia, por una parte, y el Gobierno Vasco, el Gobierno de Navarra y las Diputaciones Forales de los Territorios Históricos de Alava, Gipuzkoa y Bizkaia, por otra, así como regular el marco de compromisos tanto financieros como materiales que cada parte asume con el fin de garantizar la actividad futura de la Institución.

1.2. Con idénticas finalidades a las recogidas en el párrafo precedente podrán incorporarse a este Acuerdo los Poderes Públicos de otros territorios que integran la comunidad lingüística euskaldún de conformidad a las condiciones que la Comisión de Seguimiento que se crea en este Acuerdo pueda fijar en su momento sin que puedan afectar sustancialmente ni ser muy distintas a las contenidas en el presente Acuerdo.

### **Segundo.—Vigencia del acuerdo**

La vigencia del presente Acuerdo se prevé para un período de cinco años, siempre y cuando exista crédito presupuestario suficiente y adecuado para el objeto del mismo en los respectivos Presupuestos Generales de las entidades

suscribientes para los ejercicios correspondientes, sin perjuicio de que de acordarlo así las partes intervinientes pudiera ser prorrogado, en idénticas condiciones, por el mismo período de tiempo.

Sin perjuicio de lo establecido en el presente *Acuerdo* marco, anualmente se suscribirán los sucesivos acuerdos que, unidos al presente, formarán parte integrante del mismo, y serán en los que se concreten las obligaciones anuales a asumir por los intervinientes.

### **Tercero.—Compromisos de carácter general que asume Euskaltzaindia**

Euskaltzaindia se compromete con carácter general al cumplimiento de las siguientes condiciones:

#### 3.1. *De carácter presupuestario, económico y financiero:*

3.1.1. Presentación de sus presupuestos provisionales anuales a los Poderes Públicos firmantes. En tales presupuestos deberá especificarse:

##### a) Presupuestos ordinarios:

a.1. Composición y costo de la plantilla de Euskaltzaindia. Se referirán de modo desglosado al personal propio de la Institución no adscrito a programas ni subprogramas y a las retribuciones y/o dietas, en su caso, de los académicos.

a.2. Gastos de funcionamiento de Euskaltzaindia: gastos de oficina, comunicaciones, gastos de desplazamiento, gastos de funcionamiento de servicios, dietas, gastos de mantenimiento y reparaciones ordinarias, etc. que no puedan ser atribuidos de modo específico a programas o subprogramas.

a.3. Gastos de capital, inversiones reales de Euskaltzaindia: mobiliario y maquinaria de oficina, máquinas de escribir, fotocopiadoras, ordenadores, etc. que no puedan ser atribuidos de modo específico a programas o subprogramas.

a.4. Otros gastos ordinarios de Euskaltzaindia no imputables de modo específico a programas o subprogramas.

##### b) Presupuestos por programas:

b.1. Presupuestos de los programas y subprogramas que ya se han puesto en marcha con desglose de los gastos de personal de investigación contratado y becarios, de funcionamiento y de capital imputables al programa o subprograma pero que no son estructurales de Euskaltzaindia.

b.2. Presupuestos de nuevos programas y subprogramas que se pretenden iniciar en el ejercicio con idéntico desglose al de la letra a) anterior.

3.1.2. Al finalizar el año Euskaltzaindia presentará a los Poderes Públicos firmantes del presente *Convenio* tanto la documentación contable que registre la situación económico-financiera de la entidad al final del ejercicio y el balance de situación como la liquidación de presupuestos del año tanto ordinarios como por programas.

Asimismo presentará memoria justificativa de la aplicación dada a los fondos percibidos a la que adjuntará los justificantes originales o fotocopias compulsadas relativos a los gastos ocasionados por la actividad desarrollada.

Esta información se deberá aportar antes del 28 de febrero del siguiente año acompañada de cuanta información sea pertinente al respecto.

### 3.2. *De carácter material y de actuación:*

3.2.1. Euskaltzaindia presentará un plan anual de actuación de los programas y subprogramas que se realicen en el correspondiente ejercicio: objetivos fijados, cronograma, medios humanos, medios materiales, etc.

Dicho plan de actuación será presentado junto con los presupuestos provisionales del año correspondiente. Si se tratase de planes plurianuales se especificará la parte del año que corresponda.

3.2.2. Euskaltzaindia remitirá a los Poderes Públicos firmantes información continua acerca de los programas y subprogramas a realizar, así como de cuestiones económicas referentes a los mismos. Para ello, y entre otras medidas:

a) Remitirá a los Poderes Públicos firmantes informes acerca tanto de su funcionamiento interno como de sus actuaciones y resultados obtenidos en el desarrollo de los proyectos, según se especifique para cada programa en el acuerdo anual correspondiente.

Los informes económicos serán semestrales.

b) Facilitará, asimismo, cuanta información complementaria le sea solicitada por los Poderes Públicos firmantes.

3.2.3. Si Euskaltzaindia pretendiera iniciar nuevos programas y subprogramas total o parcialmente financiados por los Poderes Públicos suscribientes, en el curso de un ejercicio presupuestario, preparará y presentará con antelación los anteproyectos correspondientes y los remitirá a los Poderes Públicos señalados.

En dichos anteproyectos, entre otros extremos, especificará debidamente: la finalidad del nuevo proyecto, duración, costo (año por año y en total) y medios (humanos, materiales, de organización).

Si hubiera financiación complementaria para estos proyectos por parte de los Poderes Públicos se suscribirá el correspondiente acuerdo complementario al anual que se menciona en la cláusula quinta del presente acuerdo.

### 3.3. *Otros compromisos:*

3.3.1. Euskaltzaindia informará a la Comisión Técnica que se crea en el presente Acuerdo de cuantas incidencias supongan interrupción del normal desarrollo de las actividades previstas en el plan de actuación y prestará desinteresadamente cuanta asistencia se precise para la interpretación de los informes y memoria de los programas y proyectos de investigación.

3.3.2. Euskaltzaindia permitirá el acceso a sus servicios de estudio e investigación a todos aquellos investigadores que, previo cumplimiento de los

requisitos a tal efecto establecidos con anterioridad por Euskaltzaindia, así lo deseen.

3.3.3. Colaborará con las universidades tanto públicas como privadas de los territorios que integran la comunidad lingüística euskaldún en la formación de investigadores en materia lingüística, si así lo solicitaren.

3.3.4. Euskaltzaindia ofrecerá a los Poderes Públicos (Gobierno Vasco, Gobierno de Navarra, Diputaciones Forales, Ayuntamientos y otras instituciones públicas) sus servicios como órgano consultivo en lo referente a la lengua, conforme a lo establecido en las leyes y demás disposiciones vigentes.

#### **Cuarto.—Compromisos de los Poderes Públicos firmantes del Acuerdo frente a Euskaltzaindia**

4.1. Los Poderes Públicos firmantes del *Acuerdo* se comprometen a velar por la efectiva asunción de las medidas necesarias que hagan posible la consignación en los correspondientes proyectos de Ley o normas forales presupuestarias de carácter anual, de la dotación necesaria a los efectos de conceder a Euskaltzaindia las ayudas que posibiliten la instrumentalización de lo previsto en el presente *Convenio*.

4.2. El importe de dichas partidas, para cada entidad pública suscribiente, será el equivalente a la aplicación del porcentaje de aportación que se fija en esta misma cláusula al fondo presupuestario propuesto por la Comisión de Seguimiento de acuerdo al procedimiento establecido en la cláusula quinta de este *Acuerdo*.

4.3. Los Poderes Públicos firmantes del presente *Convenio* tomarán cuantas medidas sean necesarias, en el ámbito interno de cada uno de ellos, en aras a asegurar en lo posible la correcta ejecución de lo dispuesto en el mismo.

4.4. Los distintos poderes públicos firmantes tendrán el siguiente nivel de aportación inicial para la financiación de Euskaltzaindia:

Gobierno Vasco: 58,403 % del total asignado.

Gobierno de Navarra: 10,342 % del total asignado.

Diputación Foral de Alava: 4,507 % del total asignado.

Diputación Foral de Bizkaia: 16,406 % del total asignado.

Diputación Foral de Gipuzkoa: 10,342 % del total asignado.

4.5. Los porcentajes establecidos en el párrafo anterior podrán ser objeto de revisión anual de conformidad a las decisiones que al respecto pueda tomar la Comisión de Seguimiento que se crea en el presente *Acuerdo* y que habrán de hacerse figurar en los protocolos anuales de financiación para su plena efectividad.

### Quinto.—Procedimiento

5.1. Con la estructura que se ha mencionado en la cláusula tercera, Euskaltzaindia presentará a la Comisión de Seguimiento que se prevé en el presente *Acuerdo*, sus presupuestos provisionales anuales con anterioridad al 15 de septiembre de cada año natural. A este documento se adjuntará toda la información preceptiva que, asimismo, se menciona en aquella cláusula.

5.2. La Comisión de Seguimiento, en sesión ordinaria que habrá de celebrarse con anterioridad al 15 de octubre siguiente, estudiará los documentos citados y establecerá el fondo presupuestario correspondiente al año siguiente que, a su vez, supondrá la cifra sobre la cual se aplicarán los porcentajes de la cláusula cuarta y que dará la cuantía a incluir por cada institución pública en los respectivos proyectos de Presupuestos Generales como subvención a Euskaltzaindia.

5.3. El fondo presupuestario aludido distinguirá con claridad suficiente la parte que del mismo habrá de dedicarse a financiación ordinaria de Euskaltzaindia como institución de aquella otra que se deberá dedicar a financiar los programas y subprogramas en vigor en el ejercicio siguiente. Este fondo así como los programas y subprogramas anuales aprobados y financiados serán notificados a Euskaltzaindia para su conocimiento y efectos.

5.4. Tanto el fondo presupuestario como los programas y subprogramas que se han financiado y que, por consiguiente, constituyen obligaciones de realización concreta para Euskaltzaindia para el ejercicio siguiente, formarán parte del protocolo de colaboración anual que se suscribirá por ambas partes una vez sean conocidas y definitivas las cifras subvencionales. Si de la suscripción antedicha resultase la aprobación por parte de Euskaltzaindia de un presupuesto definitivo distinto al remitido con carácter provisional, aquél deberá ser remitido a la Comisión de Seguimiento a los efectos de su conocimiento.

5.5. Cada año el devengo de las subvenciones se realizará, siempre que lo permita el cumplimiento de los trámites administrativos pertinentes, de la siguiente manera:

— La primera mitad del total en el mes de enero.

— La segunda mitad del total en el mes de junio.

Por lo que hace al año 1995, el devengo de las subvenciones se realizará de acuerdo con lo determinado por el protocolo de colaboración correspondiente al presente ejercicio, que se suscribirá una vez formalizado el presente convenio de colaboración.

5.6. De conformidad con la legislación vigente, con anterioridad a la suscripción del presente *Acuerdo* así como con anterioridad a la percepción de los fondos públicos que se especifican en las cláusulas del presente *Acuerdo*, Euskaltzaindia aportará la documentación acreditativa de estar al corriente de las



obligaciones tributarias así como de los pagos de la Seguridad Social que le corresponden.

### **Sexto.—De la Comisión de Seguimiento**

6.1. Firmado el presente *Acuerdo*, se nombrará en el plazo de un mes, una Comisión de Seguimiento para asegurar la debida realización y coordinación de lo establecido en el mismo.

6.2. La Comisión de Seguimiento estará formada por los siguientes miembros:

- a) El Viceconsejero de Política Lingüística del Gobierno Vasco, que desempeñará las funciones de Presidente de la Comisión.
- b) El Director General de Política Lingüística del Gobierno de Navarra.
- c) Un representante de la Diputación Foral de Alava.
- d) Un representante de la Diputación Foral de Bizkaia.
- e) Un representante de la Diputación Foral de Gipuzkoa.
- f) El Director de Promoción del Euskara del Gobierno Vasco que desempeñará además las funciones de Secretario de la Comisión.
- g) El Presidente de Euskaltzaindia o un representante nombrado por el mismo.
- h) El Secretario de Euskaltzaindia o su sustituto.

6.3. Podrán asistir a las reuniones de la Comisión de Seguimiento, y participar con voz pero sin voto, hasta cuatro representantes más de Euskaltzaindia.

6.4. La Comisión de Seguimiento, además de las funciones generales de coordinación y control de la ejecución de este *Acuerdo* que le son asignadas, tendrá las específicas siguientes:

- a) Decidir si Euskaltzaindia está realizando satisfactoriamente y dentro de plazo los trabajos convenidos.
- b) Si los representantes de los Poderes Públicos así lo considerasen, presentar a Euskaltzaindia su opinión acerca de las necesidades y/o prioridades en el campo del “corpus planning”.
- c) Proponer cuanto se refiera a la publicación de los resultados de los programas y subprogramas de Euskaltzaindia que hayan sido subvencionados por los poderes públicos.
- d) Proponer el monto total anual del fondo presupuestario para que cada uno de los Poderes Públicos firmantes del *Acuerdo*, a través de los respectivos órganos competentes y si éstos lo autorizan, proceda a asignar a Euskaltzaindia su correspondiente subvención nominativa según lo establecido en este *Acuerdo*.

e) Procurar que el pago de las aportaciones indicadas a Euskaltzaindia se realice en el tiempo y forma debidos.

f) Asegurar y velar, dentro de su ámbito, por el respeto y derechos que corresponden a Euskaltzaindia en su calidad de institución consultiva oficial en lo referente al euskera.

g) Nombrar una Comisión Técnica encargada de recibir y analizar los informes respectivos presentados por Euskaltzaindia así como los balances anuales.

6.5. El quórum para la válida constitución de la Comisión de Seguimiento será el de la mayoría de sus componentes.

6.6. La Comisión de Seguimiento adoptará sus acuerdos siempre que sea posible por unanimidad. En caso de discrepancia serán adoptados por mayoría.

6.7. Al cabo del año se habrán realizado dos reuniones como mínimo, la primera entre el 30 de marzo y el 30 de mayo, al objeto de examinar el estado de cuentas, y la segunda entre el 15 de septiembre y el 15 de octubre, al objeto de examinar y proponer los fondos presupuestarios previstos en los Proyectos de Ley y Normas Forales de presupuestos.

Además de las señaladas, el presidente de la Comisión de Seguimiento a petición como mínimo de dos miembros, podrá convocar en el plazo máximo de un mes, una reunión extraordinaria de la citada Comisión.

### **Séptimo.—De la Comisión Técnica**

7.1. Esta comisión estará compuesta de tres miembros nombrados por la Comisión de Seguimiento. Para esta Comisión se nombrarán representantes con conocimientos tanto técnicos como económicos de los trabajos con el objeto de realizar un adecuado seguimiento de los diferentes programas y subprogramas.

7.2. Son funciones específicas de la Comisión Técnica:

a) Recibir y analizar tanto los planes anuales de actuación como los informes respectivos presentados por Euskaltzaindia. La primera reunión, al objeto de analizar el estado de cuentas, se realizará entre el 30 de marzo y el 30 de mayo, y la segunda, a fin de examinar el monto presupuestario, será entre el 15 de septiembre y el 15 de octubre.

b) Siempre que se considere necesario, y contando con la aprobación de Euskaltzaindia, celebrará reuniones con los grupos de trabajo de los diferentes programas y subprogramas y, entre otras cosas, realizará una evaluación provisional de los programas y subprogramas acordados y revisará in situ la situación del balance anual.

c) Llevará a cabo el análisis del balance anual.

d) Presentará a la Comisión de Seguimiento toda la información e informes evaluativos que se consideren necesarios.

7.3. Euskaltzaindia podría presentar en su caso las alegaciones que considere pertinentes a los informes de la Comisión Técnica.

#### **Octavo.—Causas de resolución del acuerdo**

El presente *Acuerdo* podrá resolverse cuando se produzca alguna de las siguientes circunstancias:

a) Mutuo acuerdo entre todas las partes suscribientes.

b) Incumplimiento grave de los compromisos contraídos por Euskaltzaindia, cuando así quede declarado por expediente tramitado al efecto por la Viceconsejería de Política Lingüística del Gobierno Vasco previo acuerdo con la Comisión de Seguimiento.

#### **Noveno.—Reintegro de cantidades**

El incumplimiento del presente *Acuerdo* o utilización para otros fines de la cantidad concedida implicará la suspensión de pagos con la obligación de reintegrar las cantidades obtenidas por tal concepto a las Tesorerías de las Administraciones correspondientes, sin perjuicio de las acciones legales y sanciones que correspondan. Las referidas cantidades tendrán la consideración de ingresos públicos a efectos legales.

El pago de los derechos, cánones, tasas, impuestos, compensaciones e indemnizaciones a que diere lugar el incumplimiento del presente *Acuerdo*, así como la obtención de todos los permisos y licencias para su ejecución serán llevados a cabo por Euskaltzaindia.

#### **Décimo.—Naturaleza del acuerdo**

El presente *Acuerdo* tiene naturaleza administrativa correspondiendo a la Comisión de Seguimiento la interpretación de su contenido. Las cuestiones derivadas de esta interpretación serán, en última instancia, conocidas y resueltas por los tribunales contencioso-administrativos competentes.

#### **Undécimo.—Responsabilidad de la gestión del acuerdo**

A la Viceconsejería de Política Lingüística del Gobierno Vasco, como responsable de la gestión de este *Acuerdo*, corresponde:

a) Convocar las reuniones de la Comisión de Seguimiento.

b) Dirigir la Comisión Técnica y encargarse de los gastos generales de funcionamiento.

c) Mantener con Euskaltzaindia continuas relaciones referentes a la gestión.

d) Mantener informados a todos los Poderes Públicos que subvencionan a Euskaltzaindia de toda gestión y resultados obtenidos y coordinar todo intercambio de información entre ellos.

**Duodécimo.—Final**

Para la debida constancia de lo convenido y con la expresa declaración de su cumplimiento, por las partes se firma y rubrica en todas sus páginas el presente documento por sextuplicado ejemplar.

M. KARMEN GARMENDIA LASA  
Consejera de Cultura del Gobierno Vasco

FEDERICO TAJADURA ISO  
Consejero de Presidencia del Gobierno de Navarra

MIKEL MINTEGI AREITIOAURTENA  
Diputado de Cultura y Euskera de la Excma. Diputación Foral de Araba

TOMAS URIBEETXEBARRIA MAIZTEGI  
Diputado de Cultura de la Excma. Diputación Foral de Bizkaia

KORUKO AIZARNA REMENTERIA  
Diputada de Cultura y Euskera de la Excma. Diputación Foral  
de Gipuzkoa

JEAN HARITSCHELHAR DUHALDE,  
Presidente de Euskaltzaindia

Bilbao, a 27 de octubre de 1995.

# EUSKALTZAINDIAK – HERRI-AGINTEEKIN SINATURIKO

## II. Hitzarmena

*Bilbo, egoitza, 1995-X-27*

*Tomás Uribeetxebarria,  
Kulturako foru diputatua*

Jaun eta Andre agurgarriok:

Berriro bildu gara Euskaltzaindiaren eta Herri-Erakundeen arteko *Hitzarmena* sinatzeko.

Duela sei urte onartu genuen lehenengo *Hitzarmenak* Euskaltzaindiari zor zitzaion begiramena eta itzala agertzen eta egiaztatzen zuen. Bide luzea zuen Euskaltzaindiak egina ordurako euskararen alde eta euskarari eutsiz garai on eta txarretan. *Hitzarmen* harekin lan horren garapena oinarritu eta ziurtatzen zen.

Sei urte hauek onuragarriak izan direla ez dago ukatzerik, baina, harreman guztietan bezala, ibiliaren-ibiliz ikasten da okerrak zuzentzen eta ongi eginak hobeagotzen.

Gaur bigarren *Hitzarmena* sinatuko dugu. Alde batetik, aurrenekoari jarraia emango dio eta, hura onduko du. Beraz, poztu gaitzke gaurko ekitaldi honekin berriro ere euskarak biltzen gaituelako Euskalerriko Erakundeak eta Euskaltzaindia. Guztion helburua bat eta bera da: euskara sustatu eta hedatu Euskalerra osoan.

Ez dago besterik esan beharrik, euskarari eusten jarraitu behar dugula baik, hori baita Herri honen arnasa.



**PALABRAS DEL CONSEJERO DE PRESIDENCIA DEL GOBIERNO DE NAVARRA EN EL ACTO DE FIRMA DEL ACUERDO CON EUSKALTZAINDIA**

*Bilbao, 27 de octubre de 1995*

*Federico Tajadura*

Entre los objetivos programáticos del actual Gobierno de Navarra cabe destacar el interés del Ejecutivo por avanzar en la normalización lingüística de nuestra Comunidad, donde, como todos ustedes conocen, el euskera es una de las dos lenguas oficiales existentes.

Nuestros esfuerzos en la presente legislatura se van a centrar en:

— el establecimiento de los circuitos administrativos bilingües en los servicios centrales de la Administración;

— fomentar el aprendizaje, o en su caso, el reciclaje de los funcionarios en el dominio del euskera;

— posibilitar el empleo del euskera como lengua de trabajo y servicio al ciudadano en la zona vascofona, y, en garantizar el ejercicio de los derechos lingüísticos por parte de los ciudadanos en las zonas mixta y no vascofona;

— la modificación de la Ley del Vascoence de modo que se garantice a los ciudadanos de la hoy denominada zona no vascofona, el derecho a recibir la enseñanza del euskera y en euskera, de acuerdo con el principio de voluntariedad;

— intensificar nuestra colaboración con los servicios municipales de euskera, mediante el desarrollo del convenio marco ya existente;

— promover la legalización de emisoras de radio en euskera;

— la creación del Consejo Asesor del Euskera como órgano consultivo del Gobierno de Navarra para todas las cuestiones relacionadas con la normalización lingüística.

Expuestos estos criterios del Gobierno de Navarra en materia de política lingüística, quisiera manifestarles que para mí supone una satisfacción personal el representar al Gobierno de Navarra en este acto y firmar el *Acuerdo* entre

los Gobiernos Vasco y de Navarra, Diputaciones Forales de Alava, Guipúzcoa y Vizcaya y Euskaltzaindia.

El Presidente de la Academia decía textualmente en Pamplona, el pasado día 18 de octubre en su alocución ante el Presidente del Gobierno de Navarra que “es un hecho bien conocido que Navarra ha estado presente en Euskaltzaindia desde sus comienzos”. Y poco más adelante añadía que “Euskaltzaindia guarda un sentimiento especial de gratitud y reconocimiento hacia la Ex-cma. Diputación de Navarra”.

Debo decir, por mi parte, que el Gobierno de Navarra recibe con sumo agrado expresiones como las que acabo de referir. Efectivamente, Navarra se honra de haber prestado desde un principio su apoyo entusiasta a la idea de creación de la Academia. La Diputación de Navarra aceptó el proyecto de la llamada moción de Urquijo ya en 1906. También se mostró favorable a los intentos protagonizados por Azkue en 1913. Y prestó total adhesión a las decisiones tomadas en el primer Congreso de Estudios Vascos de 1918 en Oñati y la subsiguiente aprobación del proyecto de estatutos en 1919. Posteriormente, ha seguido esa misma trayectoria, como lo ponen de manifiesto el reconocimiento de Euskaltzaindia como institución oficial consultiva por la Ley Foral del Vasconce de 1986 y la firma del *Acuerdo* junto con el Gobierno Vasco y las Diputaciones Forales en 1989.

Por todo ello, el Gobierno de Navarra se siente complacido, honrado y —porqué no— legítimamente orgulloso de haber estado siempre vinculado a Euskaltzaindia junto a las instituciones hermanas de Euskal Herria. Al mismo tiempo, desea expresar su firme disposición a seguir en la misma dirección, cumpliendo responsablemente los compromisos adquiridos.

Mila esker. ¡Muchas gracias!



## EUSKALTZAINDIAK HERRI-AGINTEEKIN EGINDAKO II. HITZARMENA

*Bilbao, 1995-X-27*

*M. Karmen Garmendia Lasa,  
Kultura Sailburua*

Euskaltzainburua,  
Agintariok,  
Jaun-andreok.

Erakunde askoren ordezkariak gaudenez, ezin luzaz mintza. Baina, labur bederen, gauza pare bat azpimarratu nahi nituzke batzar honetan.

Hasteko, garbi utzi nahi nuke, Euskaltzaindiak Herri-aginteekin orain 6 urte egindako *hitzarmena* berriro izenpetzea berri on bat dela, nire ustez. *Hitzarmen* hark eman dituen fruituetan oinarritzen baita *hitzarmen* berri honek ere emango dituen fruituen itxaropena.

Urteotan gauza asko ikasi dugu: besteak beste, erakundeekiko onarpena eta elkarren arteko elkarlana. Eta hori ez da lan makala erakundeak berriak diren gizarte batean. Are zailagoa, multzo handi bat erakunde zalea ez den Herrian. Baina autonomiarekin batera sortu diren berriek eta demokraziarekin batera eraberrituek Euskaltzaindia onartu dute erakunde ofizialtzat hizkuntzari dago-kionez. Eta Euskaltzaindia aitortu dute gidari bakartzat.

Elkarrekiko onarpen horri esker, elkarlana bideratu dugu. Elkarrekin aztertu ditugu beharrak, zailtasunak, eginkizunak, baliabideak eta abar. Eta elkarrekin aztertu dugu Euskaltzaindiak gizartean duen eginkizuna ere.

Eta haundia izan da Euskaltzaindiak eginkizun horri erantzuteko gizartean egin behar izan duen lana: hitz altxorra biltzen, ikertzen, euskara batzeko erabakiak hartzen, gaurko premietara egokitzen eta abar.

Hori guztia orain sei urte izenpetu genuen *hitzarmenak* ahalbideratu du. Baina oraindik eginkizun eta lan haundiak ditu Euskaltzaindiak. Horregatik izenpetzen dugu berriro *hitzarmen* hau, hasitako lanari jarrai diezaion. Eta aurrekoaren emaitzak kontuan izanik, pozik izenpetu ere, esperantza osoan.

Eskerrik asko guztioi. Berriro ekin indarberriturik eta jarrai itxaropentsu.



# EUSKALTZAINDIA – HERRI-AGINTEEK SINATURIKO

## II. Hitzarmena

*Bilbo, Egoitza, 1995-X-27*

*Jean Haritschelhar,  
euskaltzainburua*

Duela sei urte, Oñatin, 1989ko urriaren 7an. Euskaltzaindiak sinatu zuen *hitzarmen* bat Hegoaldeko bi gobernu eta hiru foru-aldundiekin. Egun, 1995.eko urriaren 27an, II. *Hitzarmena* izenpetzen dugu.

Sei urtez diru publikoa hartu du Euskaltzaindiak eta II. *Hitzarmenaren* sinatzeak ematen dit parada erraiteko denen aurrean zer egin duen Euskaltzaindiak diru horrekin, nola eta zertan baliatu duen.

Uste dut neurt daitekeela Euskaltzaindiaren emaitza ikusiz zer publikatu duen sei urte horietan, 1989tik eta 1994a arte. Orotara: 35.180 orrialde.

— *Euskera* agerkariak: 6.500.

— *Euskaltzaindiaren Arauak*, igaz sortua Leioako Biltzar Nagusiaren ondorik: 260.

— Urteoroko *Oroit-idazkia*: 900.

— Argitalpenen katalogoak: 100.

Horiek dira ohiko argitalpenak.

Bestalde, ezagutuak dira bertze sortak, hala nola:

● *Euskararen lekukoak*: 15., 16. eta 17. zenbakiak dauzkatena, honek 1.300 orrialde egiten dituenak.

● *Iker bilduma*: 6., 7. eta 8. Luis Villasanteri omenaldia. Nazioarteko Dialektologia Biltzarra. Oihenarteren laugarren mendeurrena: 2.000 orrialde.

● *Onomasticon Vasconiae*: hamar liburu agertu ditu Euskaltzaindiak sei urtez. Badakit ez dituela Euskaltzaindiak eginak denak, baina gainbegirada bat emana izan zaie eta Euskaltzaindiko langileak sartu dira inprimategi-lanetan, frogak aztertuz edo berrikusiz: 5.000 orrialde dira orotara.

- Gauza berbera gertatzen da Pedro de Yrizar-en liburuekin Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako aditz laguntzaileen taula eta zerrendekin. Ikertzailea: Pedro de Yrizar, inprimatze lanak Euskaltzaindiak: 5.300 orrialde.

- Hiztegitzintzan LEFen *Hitz-elkarteketa/3*: 474 orrialdekoa eta *Orotariko Euskal Hiztegia*: sei-urtez sei liburuki II.etik 7.a arte: 5.300 orrialde.

- Gramatika batzordeak eskaini ditu bi liburuki azterketa eta bereizketa sakonak eginez lokailu eta juntagailuen artean: 450 orrialde.

- Ez nuke ahantzi nahi Euskararen lekukoen ondoan Literatura klasikoa-ren berrargitalpenak (Ubillos, Leizarraga, Azkueren *Euskalerrriaren Yakintza* eta *Cancionero popular vasco*, Bonaparte-ren *Opera omnia*). Berrargitalpenak izanik ere, inprimatze lanak Euskaltzaindiak eraman ditu.

- Are gutiago ez dut ahanzten Atlasgintzan egin eta egiten den lan ixila: inkesta guziak bukatuak dira (145 tokitan 2.800 galde, orotara 400.000 erantzun, 3.000 zintatan gordeak eta orain CD-ROMera pasatuak). Datu horiek sartzten ari dira informatikan eta gaurko egunean lehenbiziko bi liburukien datu-sarrera egina da. Datu-sarreratik liburuetara iragaiteko badira problema teknikoak. Agian laster gaudituko ditugu.

Euskarari dagokionetan Euskaltzaindia aholku-emaile da bi gobernu eta hiru foru-aldundientzat. Betetzen du bere eginbidea eta kontuan hartu behar da, bai Bilboko egoitzan eta bai ordezkarietzan egunero heldu direla jendeak zenbaiten galdatzera eta erantzuten zaiela, hori baita Herriari eta herritarrei zor dioguna.

Bigarren *Hitzarmen* honekin segurtatzen dugu Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru-aldundien diru laguntza. Agintari jaun andereak Euskaltzaindiaren izenean eskertzen dizuet diru-laguntza hori, beharrezkoa dugulakotz.

Madriletik bertze parte bat hartzen dugu, Erret-Akademia garelakotz. Diputatu Kongresuan lortu eta bozkatu dutenei doatzi gure eskerrik beroenak.

Pirineo Atlantikako Kontseilu Orokorrearengatik ardiesten dugu diru poxi bat. Gutxi izanikan ere onartzen dugu, pentsatuz emeki-emeki hobetuko dela haren emaitza. Salmentekin emendatzen dugu diru-sartzea.

Baina badakigu eta errana zaigu bertze diru-iturrietara jo behar dugula. Hori argi eta garbi daukagu eta horretarako jadanik lanean hasia da Lege-Ekonomi batzordea. Batzorde horretan parte hartzen duten Euskaltzaindiaren adiskide jaunei nahi diet nire adeitasuna adierazi. Haiei esker eta gure diru-laguntzaileei esker Euskaltzaindiak segituko ditu hasi dituen ikerketak, beteko osoki bere eginbidea Euskal Herriaren eta herritarren aurrean. Gauden gu eta goazen aitzina.

**EUSKALTZAINDIAREN EGOITZAN, BILBON, 1995.EKO  
URRIAREN 27AN, ARRATSALDEKO LAU ETA ERDIETAN,  
HEGO EUSKAL HERRIKO HERRI-AGINTEEKIKO  
II. HITZARMENAREN SINADURA EKITALDIARI HASIERA  
EMATEN ZAIO**

*Bilera akta*

Mahaipuruan eseri dira: Jean Haritschelhar euskaltzainburua, Juan Mari Lekuona buruordea, Endrike Knörr idazkaria, Jose Antonio Arana Martija diruzaina, Patxi Altuna *Iker* sailburua, Miren Azkarate *Jagon* sailburua, Euskaltzaindiaren aldetik. Herri-Aginteengandik: Mari Karmen Garmendia Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua, Federico Tajadura Nafar Gobernuako Presidentziako sailburua, Tomas Uribeetxebarria Bizkaiko Kulturako foru diputatua, Mikel Mintegi Arabako Kultura eta Euskara foru diputatua, Koruko Aizarna Gipuzkoako Kultura eta Euskara foru diputatua, Jose Mari Zeberio Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea, José María Rodríguez Otxoa Nafar Gobernuako Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusia eta Xabier Huizi Gipuzkoako Kultura zuzendaria.

Horrez gain, euskaltzain hauek aurkitzen dira: Jean Louis Davant, Xabier Diharce, Patxi Goenaga, Federico Krutwig, Emile Larre, Beñat Oihartzabal, Francisco Ondarra, Txomin Peillen, Pello Salaburu, Ibon Sarasola eta Luis Villasante; Jose Luis Lizundia idazkariorde-kudeatzailea antolakizun zereginetan, Ricardo Badiola Argitalpen eragilea eta Pello Telleria eragile teknikariaren laguntza.

Endrike Knörr idazkariak egiten du moderatzaile gisa. Lehendabizi hitza ematen dio Koruko Aizarna andeari, honek hitz labur batzuk egiten ditu; jarraian, gauza berbera Mikel Mintegik; ondoren, Tomas Uribeetxebarriak; segidan, Federico Tajadura jaunak. Hurrengo, Mari Karmen Garmendia andreak hitzaldi bat egiten du; eta azkenik, Jean Haritschelhar euskaltzainburu jaunak bere txostena irakurtzen du.

Hizlariak amaitu ondoren, *Hitzarmena* sinatzeari ekiten zaio. Segidan, berataratu diren komunikabideek zenbait galdera egiten dituzte. Horrela bukatzen da sinadura ekitaldia.



# **EUSKALTZAINDIAREN AGIRIAK**





## 30

## PARTITIBOA BAIEZKO PERPAUSETAN NOIZ ETA NOLA

Izen sintagma-partitiboak lau perpaus motatan erabiltzen dira:

- ezezkoetan,
- galderetan,
- baldintzazkoetan,
- baiezkoetan, indar enfatikoa emanez.

Lehenbiziko hiru kasuetan ez da arazorik, eta partitiboak, nahi izanez gero, beti badu tokia:

*Ez dut ogirik erosi.*  
*Ogirik erosi duzua?*  
*Ogirik erosi bazenu, puska bat hartuko nizun.*

Laugarren kasuan, baiezko perpausetan, alegia, gauzak ez dira hain argi.

Alde batetik, partitiboa baiezkoetan erabiltzea itzuli enfatiko bati dagokionez gero, ohiz kanpoko erabilera dela, edo bederen erabilera markatua dela esan beharra da, ugaritasuna edo *bizikitasuna* adierazten baita haren bidez, edo baieztapena indartzen:

*Bada pentze gizenik hemen!*  
*Badut beste egiteko presatuagorik!*

Goiko adibide horietan gertatzen den bezala, maizenik *izan / egon* eta *ukan / eduki* dira perpausoko aditzak, baina ez da hori baitezpadako baldintza:

*Artzain baliusik hara biltzen da* (Etxahun).

*Gaur film hoberik egiten da* (Mitxelena, *Idazlan Hautatuak*, 328).

*Ni ez naiz eredutarako jaioa, eta hoberik aurki dezake irakurleak bazterretan* (Mitxelena, *Idazlan Hautatuak*, 366).

Bestalde, baiezko perpausetan diren sintagma partitiboek badute gutiz gehienetan ardatz izenaren ondoan, izenondo bat, edo beste elementu adjektibal bat. Hona zenbait adibide:

#### **Beste + izena**

*Anartean bazen eta bada omen orain Parisen bertze lanik* (Hiriart-Urruty, *Zezenak Errepublikan*, 89).

*Badu bertze egitekorik goiz huntan* (Barbier, *Ipuinak*, 134).

*Gaixoak badu bertze lanik egungo egunean* (Lafitte, *Murtus eta bertze*, 117).

*Beste esankizunik ere badago* (Mitxelena, *Idazlan Hautatuak*, 324).

#### **Izenlagun genitiboa + izena**

*Bazen heien artean thalendu handitako gizonik* (M. Elissamburu, *Framazonak eta...*, 122).

*Jainkoak ezaitu ezarri mundu hunetan zure beharrik zuelakotz* (Pouvreau, *Philotea*, 36).

*Bazeukan buruan aurreragoko gauzarik* (D. Agirre, *Garoa*, 160).

*Eukiko jok oraindino Anastasik nire beharrik* (F. Bilbao, *Ipuin barreka*, 198).

#### **Izena + izenondoa**

*Ziberuan bada mithil eijerrik* (Etxahun).

*Geroz eta lehen izan da zure familian letratu handirik* (Tartas).

*Botigan badut nik kalitate finik, Parisetik jinik, zuentzat eginik* (J. Moulier, *Lan orhoitgarri zombait*, 205).

*Zeren baskoak baitira abil ..., eta hetan izan baita, eta baita letratu handirik* (Etxepare).

*Akzione ederrik eta saildurik egin du hark ere* (Tartas).

Batzuetan sintagma<sup>ko</sup> ardatza isildua izanik, sintagma adjektibala bakarrik agertzen da; hori perpaus erlatiboekin ere maiz gertatzen da:

*Horretarako biguinagorik behar da* (Mitxelena, *Idazlan Hautatuak*, 253).

*Mintzatu balitz ederrik ikasiko zuten itsasuarrek* (Lafitte, *Murtuts eta bertze*, 62).

*Antonio, pixkat kantatzeko mesedea egin bear diguzu: gure gau-lagun onek ikusi dezan, musika dakienik ba dala basi ta menditan ere* (P. Berrondo, *Don Kijote Mantxako*, 126).

*Bada bakean dagoenik, eta bertzeekin ere bakea dadukanik* (S. Pouvreau, *Imitazionea*, 87).

Joera hori ikusirik, zenbait gramatikalarik, hala nola Lafittek (§ 160), erran izan dute izen xoil batez osatu izen sintagmetan partitiboak ezin erabil daitekeela baiezeko perpausetan.

Joera nagusia da, dudarik batere gabe, sintagma partitibo horiek sintagma adjektibal barnean daukatela erabiltzea. Haatik, ez bide diogu joera horri debeku zorrotz-zorrotzaren itxura eman behar zeren ez baita salbuespenik gabekoa. Alabaina, gutiagotan bada ere, sintagma partitiboak agertzen dira zenbaitetan baiezeko perpausetan, inolako izenondorik ez izenlagunik izan gabe ondoan:

*Iratin eta Arbotin hik badük lagünik* (Etxahun).

*Entzuleen artean komentariorik izan zen* (Erkiaga, *Irribarrea galtzen danean*, 68).

Sintagma partitiboak helburuzko perpaus bati lotuak direnean errazkiago agertzen dira izenak bakarrik haien barnean:

*Badauka lanik konjuruak egiten* (F. Bilbao, *Ipuin barreka*, 231).

Kontuan har bedi, halere, horrelakoetan izena bakarrik agertzen den arren, izenondo bat ondoan balu bezala ulertzen dela: *lagun onik, komentario txarrik, lan handirik* edo *zailik* balute bezala ulertzen ditugu goiko perpausak. Badirudi izena soilik utzi nahi bada, horrelako interpretazioei bidea irekitzen dieten izenak behar direla. Adibidez, ondoko adibideko perpausetan *beste* kentzen bada sintagma partitibotik, perpausa trakeski moldaturik gelditzen da (edo oso testuinguru berezia asmatu beharra da interpretazio egokiari leku egiteko):

*Gatu horrek badu bertze buztanik/*

*?? Gatu horrek badu buztanik.*

Ikus daitekeenez, baiezeko perpausetan partitiboak erabil badaiteke, ez da nolanhika egiten. Horregatik ez da egokia itzuli hori enfasi beharrik gabe eta izen soilekin erabiltzea.

Eman dezagun norbaitek goizetik arratsaldera arte eguraldia aldatu denentz jakin nahiz galdera hau egiten duela: *Izan da aldaketarik?* Ez litzateke egoki, hanpadura berezirik gabeko baiezeko erantzun xoil batean partitiboa erabiltzea eta *Bai, izan da aldaketarik* esatea. Alabaina, testuinguru horretan eguraldi aldaketa besterik gabe izan dela adierazi nahi bada, ez da tokirik partitiboarentzat.

Orain, gerla aurreko eta gaur egungo gizarte egoerak aipatuz galdera bera eginen balitz, eta erantzuncan gertatu diren aldaketak ugari eta sakonak izan direla azpimarratu nahi bagenu *Bai, izan da aldaketa sakonik* esanez, oso molde egokian gerta liteke partitiboa.

Badirudi azken bolada honetan piska bat eskutik joan zaigula partitiboaren erabilera hori, hanpadura joko berezia eskatzen duelarik, batere horrelakorik gabe baliatua baita batzuetan. Adibidez, gero eta maizago entzuten edo irakurtzen dira hau bezalako esaldiak:

*UGT-k eta CCOOek egin dituzte proposamenak. Dena den ELAk ere egin du proposamenik.*

Adibide horretako bigarren perpausuan ELA sindikatuak ere beste sindikatuek bezala proposamenak egin dituela esan nahi da besterik gabe. Lekuz kanpo erabilia da, beraz, kasu honetan partitiboa.

Komeni litzateke baiezeko perpausetako sintagma partitiboaren erabilera zaintzea, eta tradizioaren arabera erabili jokuetara mugatzea, komunzki izenaren ondoan zenbait sintagma adjektibal ere erabilirik.

Gainera dezagun, aurretik esana osatuz baina gauzei beste aldera behatuz, guziz baztergarria dela batzuetan, sintagmak balio generikoa duenean alegia, ezezkako perpausetan partitiboaren ordez artikulua erabiltzea. Har dezagun adibide bat.

Izatezko perpausetan artikulua balio generikoa izanik erabiltzen da maiz baiezekoan:

- a) *Papera bada.*
- b) *(Ez naiz ezkontua baina) haurrak badituz.*

Aitzitik, ezezkako perpausetan artikulua generikoa ezin erabil daiteke horrelakoetan, eta partitiboa beharrezkoa da:

- a) *Paperik ez da / ez dago paperik.*
- b) *(Ez naiz ezkontua eta) haurrik ez dut.*

Beraz, egia bada perpaus zenbaitetan bai artikulua eta bai partitiboa zilegi direla, ez da beti horrela gertatzen:

- a) *\*Lana ez dago.*
- b) *\*Ez ditut gehiago lagunak,*

edo horrelako itzulietan partitiboa nahitaezkoa da:

- a) *Lanik ez dago.*
- b) *Ez dut gehiago lagunik.*

**Horrenbestez, hau da Euskaltzaindiaren erabakia: baiezeko perpausetan partitiboa erabil badaiteke ere, enfasi mugatuetara bakarrik mugatu behar da, testuinguru berezietara, alegia, tradizioan beti egin izan den gisa. Halakoetan, normalean, izenak sintagma adjektibal bat behar du ondoan.**

(Euskaltzaindiak, Donostian, 1995.eko apirilaren 28an onartua)

*Partitiboa baiezeko perpausetan noiz eta nola*

## 31

**EKARTZEA MEREZI DU**

Azken urteotarf badirudi zalantzak sortu direla zenbait idazleren artean *merezi izan/ukan* aditzak duen erregimenaz. Horrela, tradizioan ongi oinarritua dagoen *ekartzeta merezi du* formaren ondoan hasi dira sortzen eta hedatzen *ekartzeak merezi du* bezalakoak. Esan behar da halakoak berriak direla, azken urteotan sortuak eta zenbait gramatikariren nola-halako gogoeten ondorio. Ez da bereizketa hori gertatu leku batzuetan modu batera esaten delako, eta beste batzuetan, ostera, bestera. Ez, badirudi gramatikaren itxurazko logikaz adizkiaren subjektu-ergatiboa izatearen ondorio gisa sortua dela.

*Orotariko Euskal Hiztegia* hartuz gero, ehunka perpaus jasoak daude *merezi* aditza dutenak:

*Iñaxiok ez du merezi.*  
*Jainkoak laguntzea ote du merezi?*  
*Hark hiltzea merezi du.*

Adibide horiek bezalakoak dira gehienak. Hala ere, puntu honetaz zerbait esan nahi bada, 'nork' espresuki nahiz implizituki esan gabeko perpausak aztertu behar dira, alegia, beste ergatiborik ez dutenak. Hau, esate baterako, nola esan beharko litzatekeen jakiteko: (1a) bezala ala (1b) bezala?

- (1) a) *Merezi al du jaiotzea?*  
 b) *Merezi al du jaiotzeak?*

Esan bezala, *OEH*-n ageri diren gehienak ergatiboa agerian dutenak dira. Badira, hala ere, ergatiborik gabeak, nahiz hauctan ere beti gelditzen den duda ez ote dagoen testuinguruan ergatiboren bat isildua edo izkutatua. Hauetan, esate baterako:

*Orain akordatzia ez al du merezi?* (Udarregi, *Udarregi Bertsolaria*, 131).

*Merezi leuke miña ondotik ateratia* (Mogel).

*Ez dau merezi duten kasurik egitia* (Fray Bartolome, *Euskal Errijetaco Olgeeta...*, 166).

*Bera danugatik, beste gabe merezi du, guziak...bere serbizioan enpleatzeu* (Guerrico-078).

*Iduritzen zait merezi duela orotara zabaltzia* (Astolasterrak, 065).

*Emen aitatzea merezi duena* (Lardizabal, 213).

*Lenengo mallan ipintzea merezi duena* (Lardizabal, 485).

*Etzun merezi zuk argi egitea* (Orixe, *Aitorkizunak*, 380).

*Ori abonatzia ez al du merezi* (J.M. Barandiaran?-162).

Bada, hala ere, absolutiboaren aldeko zeharkako beste froga bat ere: aditz izena, sarritan, partitiboan erabiltzen da:

*Ez du merezi kontatzerik.*  
*Ez du merezi zabarkerian orain galtzera uzterik.*

Baina, jakina denez, partitiboa, testuingurua nolakoa den, absolutiboaren tokian ager daiteke, ez ergatiboarenean:

*Ez da andrerik mintzatu.*

*\*Ez du gizonik hitz egin.*

*Andreak ez du gizonik ikusi.*

*\*Andrerik ez du gizona ikusi.*

Hortaz, badirudi onartu behar dela esaldi hauetan ageri den nominalizazioa *merzi ukan* aditzaren osagarri zuzena dela, eta ez subjektua. Batzuetan garbiri ageri da hori, ergatibo dena bistan delako:

*Zuk bai merzi duzula jan gabe gelditzea.*

*Hark ez du gurekin etortzea merzi.*

*Merzi ukan* aditzarekin osaturiko esaldietan, hala ere, ez da nahitaezkoa ergatiborik agertzea. Batzuetan agertuko da, beste batzuetan ez:

*Argudio txepel hōrrek ez du erantzutea merzi.*

*San Ferminetara joatea merzi du.*

Hau ez da harriztekoa, bai baitaude beste zenbait aditz *ukan* hartzen badute ere ergatibo barik erabiltzen direnak:

*Euria egin behar duela ematen du.*

*Iduri du laster sendatuko zarela.*

*Balio izan aditza ere hor dago, nahiz honek bi erabilerak onartzen dituen:*

*Zer balio du tematzeak?*

*Ez du balio orain etxea konpontzen hastea.*

Beraz, tradizioaren eta herriaren erabileraren arabera, ez da inolako zalantzarik nominalizazioa absolutiboan (edo partitiboan) erabiltzen dela, baina ez ergatiboan:

*Ez dakit merzi duen erantzutea.*

*Mereziko ez du, bada, guziok elkartzea!*

*Ez du merzi horregatik haserretzea.*

*Merzi ote du horrela bizitzea?*

Hau guztia kontuan hartuta, hau da Euskaltzaindiaren erabakia: *merzi izan/ukan* aditzaren osagarria aditz izen bat dezan (*joatea, ikustea, egitea*) erabil bedi absolutiboa, eta ez ergatiboa, horrela erabiltzen baitu herriak bere eguneroko hizkeran eta horrela erabili izan baita euskararen tradizioan ere:

*Joatea merzi du.*

*\*Joateak merzi du.*

*Ikastea merzi du.*

*\*Ikasteak merzi du.*

(Euskaltzaindiak, Donostian, 1995.eko apirilaren 28an onartua)

## 32

## ESPAINIAKO ERRESUMAKO PROBINTZIA ETA ELKARTE AUTONOMOEN IZENAK

### A) Komunitateen izen ofizialak

Nahiz azken boladan aski erabilia izan, Euskaltzaindiak ez du garbi ikusten "Autonomi Elkar-tea" den "Comunidad Autónoma" terminoaren ordainik egokien eta zehatzena. Arcago, hasieratik beretik azaldu zituen Euskaltzaindiak kontu honi buruzko kezkak. Izan ere, jokabide bat baino gehiago ikusi da azken urteotan: *Erkidego Autonomo* (Espainiako Konstituzioaren itzulpenean); *Komunitate Autonomo* (Gernikako Estatutuaren itzulpenean). Bide beretik, "Comunidad Foral de Navarra", *Na-farroako Foru Komunitatea* itzuli da, edo "Comunidades Económicas Europeas", *Europako Ekonomi Komunitateak*. Oro har, *elkar-te, komunitate, erkidego*, e.a.en erabilera behin betiko finkatu beharra ikusten du Euskaltzaindiak. Bestela, nola esan, adibidez, "Asociación de Comunidades Autónomas"? Irtendidea aurkitzeko, administrazio munduko adituekin hitz egingo da, azken erabakia hartu aurretik.

### B) Komunitateen izen soilak

Andaluzia	Andalucía
Aragoi	Aragón
Asturias (*)	Asturias
Balear Uharteak/Balearrak	(Islas) Baleares
Errioxa	La Rioja
Extremadura	Extremadura
Galizia	Galicia
Gaztela eta Leon	Castilla y León
Gaztela-Mantxa	Castilla-La Mancha
Kanariar Uharteak/Kanariak	(Islas) Canarias
Kantabria	Cantabria
Katalunia	Cataluña
Madril	Madrid
Murtzia	Murcia
Valentzia	Valencia

### C) Espainiako probintzia eta hiriburuak

Coruña	A Coruña/La Coruña
Alacant	Alacant/Alicante
Almeria	Almería
Asturias	Asturias
Avila	Avila

(\*) *Oharra*: "Asturias" singularrean deklinatuko da: *Asturiasen, Asturiasko*, e.a.

Badajoz  
 Bartzelona  
 Burgos  
 Cáceres  
 Cadiz  
 Castello de la Plana  
 Ciudad Real  
 Cuenca  
 Errioxa  
 Extremadura  
 Girona  
 Granada  
 Guadalajara  
 Huelva  
 Huesca  
 Jaen  
 Kordoba  
 Las Palmas (Kanaria Handikoa)  
 Leon  
 Lleida  
 Lugo  
 Malaga  
 Murtzia  
 Ourense  
 Oviedo  
 Palentzia  
 Palma  
 Pontevedra  
 Salamanca  
 Santander  
 Segovia  
 Sevilla  
 Santa Cruz (Tenerifekoa)  
 Santiago  
 Soria  
 Tarragona  
 Teruel  
 Toledo  
 Valentzia  
 Valladolid  
 Zamora  
 Zaragoza

Badajoz  
 Barcelona  
 Burgos  
 Cáceres  
 Cádiz  
 Castelló de la Plana/Castellón de la Plana  
 Ciudad Real  
 Cuenca  
 La Rioja  
 Extremadura  
 Girona/Gerona  
 Granada  
 Guadalajara  
 Huelva  
 Huesca  
 Jaén  
 Córdoba  
 Las Palmas (de Gran Canaria)  
 León  
 Lleida/Lérida  
 Lugo  
 Málaga  
 Murcia  
 Ourense/Orense  
 Oviedo  
 Palencia  
 Palma de Mallorca  
 Pontevedra  
 Salamanca  
 Santander  
 Segovia  
 Sevilla  
 Santa Cruz (de Tenerife)  
 Santiago de Compostela  
 Soria  
 Tarragona  
 Teruel  
 Toledo  
 Valencia  
 Valladolid  
 Zamora  
 Zaragoza

*Oharra:* gaztelaniaz azentua duten hitzak azentuarekin nahiz azenturik gabe idatz daitezke: *León/Leon*.

#### D) Bestelakoak

Ceuta  
 Eivissa  
 Mallorca  
 Melilla  
 Menorca  
 Merida

Ceuta  
 Eivissa/Ibiza  
 Mallorca  
 Melilla  
 Menorca  
 Mérida

**E) Izen historikoak**

Asturietako Printzea/Printzerria  
Donejakue (Compostelako)  
Kataluniako Printzerria  
Oska  
Sanandere  
Sibilia

Príncipe/Principado de Asturias  
Santiago de Compostela  
Principado de Cataluña  
Huesca  
Santander  
Sevilla

(Izen historiko hauek lurralde bakoitzaren historiarekin loturik daude eta, hortaz, historia gaietan erabil daitezke).

(Euskaltzaindiak, Donostian, 1995.eko apirilaren 28an onartua)



## 33

**ONGI ETORRI!**

*Ongi etorri!*  
*Ondo ibili!*  
*Ondo lo egin!*  
*Zaretela ongi etorriak!*  
*Ongi etorria eman digu.*  
*Ongi etorri gartsua eman digu.*

Inori, bati nahiz gehiagori, oles eta hasierako agurra egitean horrela esan izan da beti, partizipioa mugatu gabe. Hala urrundik etorria kalean ikustean edo etxean hartzean edo aireportuan besarkatzean *Ongi etorri!* esan izan zaio beti, ez *Ongi etorria!*

Ez da oraintsu arte euskal literatura osoan horrelako alerik aurkitzen: *Ongi etorria!* edo *Ongi etorriak!* Hauek bart arratsekoak dira gure artean eta bistan da gainera nola eta zergatik sortuak: gaztelera bezala "bienvenido! bienvenidos!" singularra eta plurala bereiziz esanez gero, hobeto esana dagoelakoan. Euskarak ez du horrelako bereizkuntzarik egin izan eta beti mugatu gabe esan du.

Gure artean sortua dela ohitura berri hori esan dugu eta hori esatean Hegoaldean dela sortu esan nahi dugu eta duela urte gutxi, gainera, nahiz gero denbora gutxian indar handiaz zabaldu den. Hegoaldean bertan ere ez da sortu eta zabaldu herriko hitzun sotilen artean, baizik idazle, hizlari, esatari, kazetari eta maila bereko euskara landu, dotore, ikasia maite duen jende artean, eta uste okerreko hobe beharrez gainera, konturatu gabe erdarakada itzela sartzen zutela eta euskaraz esan inoiz ez eta idatzi gutxitan egin zena. Herri xeheak, ordea, oraindik ere kalean egunoro *Ongi etorri!* esaten jarraitzen du.

Horixe bera erakusten digu *Orotariko Euskal Hiztegiak*. Ehun esenplu baino gehiagotik bospati bakarrik dira hemen ematen dugun dotrinaren kontra partizipioa mugatua daramatenak eta guziak azken hogeita bost urte hauetako idazleenak dira, eta guziak Hegoaldekoenak gainera.

Iparraldean ez baitira gauzak aldatu. Han betiko aztura atxikitzen da eta betikoa zein den jakiteko aski da Ziburuko Etxeberriren *Manual debozionezkoa* zabaltzea; zazpi lerrotan barrena (2301-2308) bost bider oihukarazten dio poetak Aita Etermoari *Ongi etorri*, dohatsuen tropelak zeruko atee-tara iristen ikustean:

- (1) *Ongi etorri, ungi etorri, diozkete miletan*  
*O arima dohatsuak lekhu saindu hunetan.*  
*Ongi etorri, fidel eta adiskide maiteak*  
*Eta ene Semearen ordenantzak gordeak.*  
*Ongi etorri goiz eta arrats guri gomendatuak*  
*Eta urrikariz biluz gorriak bezituak.*  
*Ongi etorri bihotz simple malezia gabeak*  
*Eta munduko plazeren oinez zapatzailleak (Etxeberri, Manual Debozionezkoa).*

Etxahunek bere "khantoretan" honela dio hiruzpalau aldiz:

- (2) a) *hunki jin ziradela, prima anderia* (66)  
 b) *hunki jin hizala* (91)  
 c) *ukhen zünin "hunki-jin"* (104)  
 d) *Eta hunki-jin erran orde.*

Eta gerokoek ere lege hori atxiki dutelako testigantza franko dago. Bai, "ongi etorria" emanaz *Ongi etorri!* esan. Hori ongi esana dago. Ez baita ukatzen *ongi etorri*-k, beste partizipiozko perpaus askok bezala, izen bihurtu eta mugatzailea hartzen badu, esan daitekeela: *ongi etorria eman digu*. Ezta ere ukatzen, beste partizipio asko bezala, *izan* aditzaren predikatu mugatu bihurtu eta honela esan daitekeela:

- (3) a) *zarela ongi etorria!*  
 b) *zaretela ongi etorriak!*  
 c) *orain etxetik aldegin dute, baina egunen batean berriz etxerutzen badira, ONGI ETO-  
 RRIAK izango dira.*

Ohart, haatik, Etxahunek kasu honetan ere mugatu gabe "hunki jin ziradela" esan duela.

Ez gara horietaz ari, beste honetaz baizik: inon bilduei oles edo agur egitean, oihu edo deiki gisa erabiltzerakoan, esapide hori mugatzaileaz jazteko joera berriaz. Erabilera hori da auzitan ipintzen duguna eta mugatugabea gomendatzen duguna. Bi arrazoigatik batez ere: batetik, orain arte sekula esan ez delako, eta bestetik, orain ere Iparraldekoek inoiz esaten ez dutelako, ez eta Hegoaldeko herri xe-heak ere. Hortaz hobe dugu orain arte bezala *ongi etorri!* esaten jarraitu inori edo jendeari agur egitean, deiki gisa erabiltzean.

**Hau da, hortaz, Euskaltzaindiaren erabakia: agurra egitean-eta *Ongi etorri!* esan bedi, ez *ongi etorria!* edo *ongi etorriak!*, hauxe baita euskararen tradizioa.**

(Euskaltzaindiak, Bilbon, 1995.eko ekainaren 30ean onartua)

## 34

## HIRU KILOKO HAURRA, LAU HANKAKO MAHAIA

*Hiru kiloko haurra* eta *hiru kilotako haurra* bezalako forma bikoitzak aurkitzen dira euskal testuetan, eta entzuten ahozko mintzairan. *-ko* eta *-tako* bi atzizki forma ditugu, beraz, ÷teua' edo pose-siboa adierazten duten izenlagunak sorrarazteko. Kontuan harturik literaturan ageri den erabilera, ordea, ez da dudarik *-ko* atzizkia duen forma hobetsi behar dela, hori baita eskuarki erabilia.

*-ko* atzizkia, betetzen duen funtzioaren arabera, hiru egitura motatan ager daiteke:

1. Izena + *-ko* → izena.

Batzuetan *-ko* atzizkia erator-atzizkia dugu, izen bati erantsiz beste izen bat sorrarazten duenean, hain zuzen: Karlos + *-ko* → *Karloseko* (= Karlosen *etxea*), masail + *-ko* → *masaileko* (kolpea'), gerri + *-ko* → *gerriko* (Janzkia'). Eta hauek bezala beste batzuk ere: *belarriko/belarritako, oinetako* (Janzkia'). Baina hemen ez gara *-ko/-tako* forma hartzen duen *-ko* erator-atzizki honetaz arituko. Hemen ez da egitura honetaz ariko Euskaltzaindia.

2. Adizlaguna + *-ko*.

Egitura honek, *-n* kasu marka daraman izen sintagma du oinarrian, eta leku-denborako izenlagunak sorrarazteko erabili ohi da: *mendiko, mendietako, menditako* (izenlaguna singularra, plurala edo zehaztugabea den).

• Hala ere, batzuetan ez du inesiboa oinarrian, destinatiboa baizik. Hori gertatzen da *-ko /-tako* formak elkarren ordeko agertzen direnean zenbatzailerik gabeko izen sintagma bati atxikirik:

- (1) a) zuen *kaltetako/kalteko* izango da hori  
 b) bere *onetako/oneko* esan diot egia  
 c) artistaren *ohoretako/ohoreko* jarri dute oroitarri hori.

Kasu honetan *-ko /-tako* horiek *zertako* kasu destinatiboari dagozkio, eta ez inesiboari. Eta beti ere adizlagunak izango dira horrela sortutakoak eta ez adjektiboak. Euskaltzaindia ez da ariko hemen egitura hauetaz.

• Kontuan hartzekoa da, halaber, *gerizpetako / gerizpeko, ilunpetako / ilunpeko, eguzkitako / eguzkiko* bezalako bikoteen arteko diferentzia formala, eta inoiz semantikoa ere. Bikote horietako lehenek inesiboko *gerizpetan, ilunpetan, eguzkitan* forma mugagabeak dituzte oinarrian; bigarrenek, aldiz, kasu bereko *-an* forma singularra. Euskaltzaindia ez da egitura hauetaz ariko hemen.

3. Izen multzoa + *-ko*.

Adizlaguna + *-ko* egiturak ez bezala, egitura hau erakusten dutenek ez dute oinarrian inesibo kasuko izen sintagmarik, ez mugatzailek ez eta, beraz, numero markarik:

- (2) a) *buru argiko* irakaslea dugu unibertsitatean  
 b) *beso luzeko* mutilak hobe arraunketako  
 c) *lau eta hiru hankako* mahaia ezagutzen ditugu  
 d) *azken hamarrekoa* jaso ondoren, museko lagunei *bostekoa* emanez bukatu genuen mu-saldia  
 e) gerra aurretik ezagunak ziren zilarrezko *errealbiko, peztako, bi peztako* eta *ogerlekoak*

- f) *hirurehun kiloko* harria jasoa du Perurenak
- g) *hirurogei ontzako* hogei enbor ebaki zituzten atzo aizkolariek
- h) *zenbat kilometroko* bidea dago Baionatik Donostiara?
- i) "Beldurra diot liburu *bakarreko* gizakiari", esan zuen Santo Tomasek
- j) *kantari askoko/anitzeko* taldea da Donostiako Orfeoia
- k) *zazpi eguneko epea* dugu azterketa prestatzeko
- l) *urte gutxiko haurrak* zer egin lezake gurasorik gabe?

Ikusten denez, *-ko* edo *-tako* atzizki forma adjektibatzailea har dezaketen izen multzoak edo oinarriak mota askotakoak izan daitezke:

• Batzuetan izena da oinarri:

- (3) a) *edadeko* pertsonari begirunea zor zaio
- b) *hitzeko* gizona errespetagarria da
- c) *iturako* lanik egin al duzue?

• Beste batzuetan partizipioa + *behar*:

- (4) a) *ondo egin beharreko* lana da hori
- b) euskaldunek *jakin beharreko* hizkuntza da euskara.

Bi kasu horietan *-ko* atzizkia bakarrik erabili izan da; ez da, beraz, lekurik *-tako* formarentzat.

• Izena + izenondoa:

Oro har, *-ko* atzizkia erabili izan dute idazleek:

- (5) a) *Negurri gaitzekoa* zuen (Elissamburu, *Piarres Adame*, 6)
- b) *Ago oneko kafea* (*Cancionero Vasco I*, 23)
- c) Ergela da jende hori, *eta jite txarrekoa* (J. Etchepare, *Buruxkak*, 126)
- d) *Sudur handiko* gizona (Elissamburu, *Piarres Adame*, 30).

Badira, noski, *-tako* dararmaten zenbait adibide ekialdeko testuetan, Haraneder-en testuetan batik bat:

- (6) a) *...aire handitako* andre bat (Laphitz, *Bi saindu ...*, 55)
- b) *Fede apurretakoa*, fidantza gutitakoa (Axular, 179)
- c) Gauza aski *mengoa handitakoa* da (Duvoisin, *Laborantzaco liburua*, 311)
- d) Aurkiturik, bada, perla bat *balio handitakoa* (Haraneder, Harriet, *Iesu-Christo gure iaunaren Testament berria*, 32)
- e) Ez baidut nihor enekien hain *gogo berdinetako denik* (Haraneder, Harriet, *Iesu-Christo gure iaunaren Testament berria*, 403)
- f) (...) *usain onetako* zur mota guziak (Haraneder, Harriet, *Iesu-Christo gure iaunaren Testament berria*, 546).

Baina, hala ere, erabilera hau ez da erabatekoa ekialdeko testuetan, *-ko* ere erabiltzen baitute. Hegoaldean, berriz, hau da ia erabatekoa.

• Zenbatzailea + izena (+ izenondoa).

Zenbatzaileak zehaztuak edo zehaztugabeak izan daitezke; oinarriko izena, berriz, adina, prezioa, neurria, pisua, tamainoa eta denbora adierazten duena izan ohi da gehienbat. Hauek sortzen dituzte bikoitzasun gehienak eta hauetan komeni da batasuna egitea.

*Orotariko Euskal Hiztegiak* eskaintzen dituen datuak kontuan hartuta, ez da zalantzarik idazle gehienek *-ko* aukeratzaren dutela halakoetan, eta ez *-tako*. Horrela, *gutxi/guti/gitxi* zenbatzailea dararmaten izen sintagmetan ikusten denez, 167 adibide dira *-koren* aldeko (*neurri gutxiko gauza* bezalakoak alegia), euskalki guztietakoak, eta 19 bakarrik *-takoren* aldeko (*balio gutitako lanak* bezalakoak). Gauza bertsua gertatzen da asko eta *aniz*-ekin ere.

Zenbatzaile zehaztuekin ere, oro har, adina, neurria, pisua, tamainoa eta denbora adierazten duten izenekin *-ko* da erabiliena, inolako dudarik gabe. Adinaren kasuan 120 adibide ageri dira *-koren* aldeko eta 6 adibide bakarrik *-takoren* aldeko. Gauza bera neurriarekin (33 eta 1), pisuarekin (adibide bi bakarrik *-takorekin*), balioarekin eta denborarekin (forma bat bakarria *-takorekin*):

*Hiru kiloko haurra, lau hankako mahaia*

- (7) a) *Berrogei ta bi urteko mutilla zen*; oraindik ezkongai, eta bakarrik bizi zen munduan (*Izeta, Dirua Galgarri, 049*)  
 b) Batxin langosuk bere beñi baiño sarrago esan eutsan (...) *amazortzi urteko mutillak* eztabela *berrogei urteko mutil zaarrakaz* batu bear (*Azkue, Batxi Guzur, 118*)  
 c) Nork farra egingo ez du (...) emakume bat apaintzen bada *emezortzi urteko neskatxa baten* eran? (*Agirre Asteasukoa, Eracusaldiak II, 092*)  
 d) Gaixotu zan *bederatziz urteko mutitxo* ondo azi ta guraso onen semea (*Moguel, Confesioco ta Comunioco sacramentuen gañean...*, 215)  
 e) Beti aurretik zijoan, (...), ta guk, *ogeiz urteko mutillak*, (...), ezin giñon jarraitu (*D. Agirre, Garoa, 010*).
- (8) a) *Amar kilometroko bide berri bat* egiten ari gara (*Izeta, Dirua Galgarri, 036*)  
 b) Batez ere, *bi metroko itsas-huntzi zoragarri bat* (*Oskillaso, Kurloiak, 143*)  
 c) Bide orreitako *lau metroko zabalera* ori ezta ez onena ez berendiena, etzagun eta etzagun ez tirean guztiena baiño (*Akesolo, Ipiña ta ipiñatarren barri, 027*)  
 d) Ba' dira ondar-anoak *eun metroko goia* dutenak (*Anabitarte, Aprika-ko basamortuan, 008*)  
 e) *Berrogei erraldeko beia* erosteko aña diru etzuen noski berekin izango, baiñan (...) bazeuzkan (*Mujika, Fernando Amezetarra, 037*)  
 f) Iru lagunek Ispasterren apostua egin eben, jango ebela goizik gauera *amar erraldeko txala*, nerau laugarren nintzala (*Orixe, Euskaldunak, 110*).
- (9) a) Errosarioa bukatzearekin bat jarri zuan etxeko-andre gazteak maia zapi zuri batekin, onen erdian plater aundi bat, ertz batean *sei libranko ogi erre-berria* (*Zabala, Gabon gau bat...*, 048)  
 b) Donostiako plaza izanik garestienetako bat, egunik geinenetan erosiko da bertan *zortzi edo amar libranko azaburu bildua* sei edo zazpi koartoa (*Iztueta, Guipuzcoaco provinciarene condaira, 155*)  
 c) Olako semiak mundura ekartzia baiño *lau libranko ogiak* eitia be obe dok (*San Martin, Zirikadak, 041*)  
 d) Jaietarako geukan *sei libranko oilarra...* etzinen aituko, ba, epaikari barik (*Enbeita, Bertsok, 178*)  
 e) Bainan, bertaldian maileatzekotan, ez othe dautazu emanen *lau liberako ogi handi bat?* (*Barbier, Ipuinak, 143*)  
 f) Luis hurbildu zitzaieten, ederki trufatu... eta berak harria galtzarrean bere tokirat eman, *bi liberako ogi bat* bezen aise! (*Zerbitzari, Azkaine gure sorterria, 103*)  
 g) *Lau liberako haurño bat*, hots, egun goizean... (*Lafitte, Murtuis eta bertze, 117*).
- (10) a) Doi doia burua makurtzen duela: (...) emozue Marianari *hogoi liberako paper bat*, eta ez bertzerik (*Barbier, Supazter xokoan, 090*)  
 b) Han nuen beraz nere pampina, paparoa zabalik, *berrogoi'ta hamar liberako galtzerki-sedak* zangoetan (...), besoak sorbaldetarik beheraxago doi doia kukutuak (*Barbier, Supazter xokoan, 090*).
- (11) a) Ordun *iru orduko tartea* eman nion Santa Kruzi, ta errenditu zan, firmatuko zula (*Orixe, Santa Cruz apaiza, 116*)  
 b) Azkenik agerian, (...): arrapatzen zutenetik *bi orduko beta* emateko, ondo iltzeko pres-tatu zedin (*Orixe, Santa Cruz apaiza, 090*)  
 c) *Bi orduko aldapan* jendea erromes, gurutza bizkarrean ta kateak narres (*S. Mitxelena, Arantzazu, 119*)  
 d) *Zortzi orduko neurri ori* lanbide guztietarako, egokia ete-da? (*Eguzkitza, Gizarte-Auzia, 032*)  
 e) Lan batzuk besteak baiño askozaz gogor eta neketsuagoak dira-ta, guztieki *zortzi orduko muga bardiña* ipintea egoki dan ala ez, auzira ekarri ta eztabaidan erabili leiken arazoa da (*Eguzkitza, Gizarte-Auzia, 032*).

Hau da, hortaz, Euskaltzaindiaren erabakia: *buru argiko neska, adineko pertsona, hiru hankako mahaia, bost orriko txostena, lau laguneko taldea, ondo egin beharreko lana, neurri txikiko oinetakoak, fede apurreko jendea, e.a.* bezalako sintagmetan, alegia *no-lako* galderari erantzuten diotenean, *-ko* hobesten da.

Horregatik, tradizioak erakusten duen bezala, eta idazle gehienek segitu duten bidetik, *-ko* atzizki forma da hobesten dena, eta ez *-tako*.

Oinarrian zenbatzailerren bat ageri denean eta adina, prezioa, neurria, pisua, ... adierazten duten izenlagunak osatzen direnean ere, *-ko* da hobesten dena. Idatz bedi, hortaz, *bi urteko umea, bost liburako egunkaria, hiru kilometroko bidea, hamar metroko garaiera, hiru asteko egonaldia, e.a.* Baina *-ta-* atzizkia erabili beharrekoa izan daiteke zenbaitetan. Adibidez, nongo galderari erantzuten zaionean: *hiru etxetako haurrak etorri zaizkit; hiru etxeetako haurrak etorri zaizkit; \*hiru etxeko haurrak etorri zaizkit, e.a.* Zenbaitetan *-ko/-tako* bikoteaz baliatzea ezinbestekoa izan dezakegu bereizketak egiteko: *zazpi urteko ardoa* (botilan dagoen ardoak zazpi urte ditu), *zazpi urtetako ardoa* (ardoak zazpi urtetan, ez zortzitan bildua izan da) eta *zazpi urteetako ardoa* (aldez aurretik ezagutzen ditugun zazpi urte diferentzetan zehar bilduriko ardoa. Azkeneko zazpi urteetan, esaterako).

Honek erakusten digu batzuetan *-tako* beharrezko dela, baina ez urte hauetan erakutsi izan den bezain sarri.

(Euskaltzaindiak, Bilbon, 1995.eko ckainaren 30ean onartua)

## ORDUAK NOLA ESAN

Zalantzak izaten ditugu askotan ordua esatean. Modu honetakoak izan ohi dira zalantzok:

1. Zeri erantsi behar zaizkio artikulua eta plural marka: orduari ala ondorengoari? Hots: *hamabiak eta laurdenak* ala *hamabiak eta laurden* esan behar da?
2. Kasu marka daramatenean ere sortzen dira zalantzak batzuetan: *hamarrak eta hogeitan*, *hamarrak eta hogeian*.
3. Gutxi erabili behar dugunean, zalantzak ditugu nola esan: *hamarrak hamar gutxitan*, *hamarrak hamar gutxiagotan*.
4. Komunztadura zalantzak ditugu azkenik: *ordu bata-k* komunztadura singularra ala plurala eskatzen du, batez ere 'ordua gehi x minutu' esan nahi denean?

Proposamen zehatzagoren bat egin nahian, literaturako erabilera —*Orotariko Euskal Hiztegiko* corpusetik bildua— aztertu ondoren, ondorio hauek atera daitezke:

1. Orduak adierazteko, orduaren zenbakia eta plural marka erabiltzen da, besterik gabe, Hegoaldean, eta Iparraldean ere bai batzuetan:

- *Bederatziak aldean joan zen Bernardatxo berriz ere arkaitzera* (Goñi)
- *Lanak egitera etorri nintzen bostak aldean, bazkalduta* (Mattin)
- *Goizeko zortziak hirian* (Barbier).

Iparraldean ohikoena oren izena ere esatea da; Hegoaldeko autore bat edo bestegan ere aurki daiteke *ordu* izena:

- *Hamar orenak yoiteko hinkan* (M. Elissamburu)
- *Biharamuneko eguna goizeko bederatzi orenak arte* (Joannateguy).

Hala agertzen da batzuetan ondoren minutuak adierazten direnean ere:

- *Hamar orenak eta hogoi eta bi minuta ziren* (M. Elissamburu).

*Ordu bata*-ren kasuan, Bizkaialdean *ordu bata* dira nagusitzen da; Erdialdean eta Ekialdean *ordu bata / oren bata* da.

2. *Erdia* adierazteko bi joera nagusi ikus ditzakegu: artikulua eta plural marka *erdi* osagaiari bakarrik erantsen dion Hegoaldekoa (eta honek emendiozko juntagailua *t'* itxuran idaztea dakar berearekin gchienetan, ta forma laburtuan ere bai tarteka) eta Iparraldeko autore batzuetan ere ikus daitekeena:

- *Hamar t'erdia* dira (Mitxelena)
- *Ostera oeratu ta sei t'erditarako jeiki, bederatzi t'erditan gosaria ontziko guztieri, zer janarekin* (Anabitarte)
- *Ordubi t'erdietan arpoia sartuta* (Arrantzaleen bizitza).

Iparraldean, plural marka orduari ere eransten zaio; *erdi* batzuetan singularrean ageri da, pluralean beste batzuetan:

— *Bederatziak eta erdia, elizako ezkilatik* (J. Etxepare)

— *Argitu-eta, zazpiak eta erdiak ondoxean jo du komisarioak etxean sartzeko* (Hiriart-Urruty).

*Atlas*-erako egin diren galdeketetan ere, Iparraldean, erantzun nagusia *lauaketerdiak* da, baina horren ondoan *lauak eterdia*, eta bakanago *lau eta erdiak* ere aurki ditzakegu.

Absolutibo kasua ez bestelakoren bat hartzean, ordea, badirudi beti plurala ageri dela (*erditan*). Proposamena, beraz, Iparraldeari dagokionez, plural marka bi osagaien eranstea litzateke: *seiak eta erdiak*.

3. *Eta laurden* esateko, berriz, zalantza nagusia artikulua orduari eta laurdenari, biei, erantsi ala laurdenari bakarrik erantsi bada, hara nola jokatu duten gure idazleek. Hegoaldekoek, *erdi*-rekin bezalaxe, azkenean bakarrik ematen dute plural marka:

— *Ilunabarrean, berriz, 8 eta laurdenetatik 9 t'erdietara, jai eta aste* (Mítxelena)

— *Hamabi ta laurdenetan* (Oskillaso).

Iparraldekoek, bietan ezartzen dute plurala, edo ordua adierazten duen zenbatzailean bakarrik:

— *Arratsaldeko hirua eta laurdenetarik, bortzak eta laurden iri arte* (Hiriart-Urruty).

4. Hurrengo ordurako zenbat falta den adierazteko, berriz, gehienetan *gutxi* aurki daiteke:

— *Zer tenore da orai? Bederatziak hogoia-bortz guti!* (J.B. Etxepare)

— *Eguerdi laurden guti zen* (Barbier)

— *Eguardiko amabiak laurden gutxiitan illargitik praille bat botako baluteke* (G. Mujica)

— *Gero, seirak amar gutxi ziralta, Mirenen etxera jo dut* (Txillarregi).

*Gutxiago* ere aurki daitekeen arren, autore berak bi formak erabiltzea ere gertatu izan da:

— *Goizeko bostak laurden gutxiagotan* (Anabitarte).

*Atlas*-erako egindako galdeketan ere hauxe ageri da: *gutxi / guti* Erdialdean eta Ekialdean, *gutxiago* Mendebaldean.

5. Komunztadurari dagokionez, *ordu bata da* esango dugu, baina gainerakoetan, jakina, pluralean egingo da komunztadura: *hirurak dira*, etab.

Zalantzak, *ordu bata* gehi 'x minutu' adieraztean sortzen zaizkigu. Nola egin komunztadura? *Orotariko Euskal Hiztegiko* adibideteak ez du gehiegi laguntzen, bi adibide bakarrik ageri baitira:

— *Ordu bata t'erdixak baño eztozak* (J. San Martín, *Zirikadak*)

— *Zelan ordu bata t'erdixak!* (Oskillaso, *Kurloiak*).

Datu hauek ikusirik, Gramatika batzordeak zenbait gomendio aurkeztu zituen Leioako Biltzarrean. Gomendio horiek, ordea, askotan bikoitzak ziren, bi modu uzten ziren aukeran. Hori zela eta, batasunerako eskea egin zitzaion batzordeari, forma bakarra gomenda zezala, alegia. Eskeari jaramon eginez, orduak emateko molde bakarra gomendatzen ahalegindu da batzordea, Leioan aurkeztu zen txostena aldatuz eta horren gainean hartu du Euskaltzaindiak erabakia.

\* \* \*

## 1. Orduak adierazteko

Aski da dagokion zenbatzaileari artikulua eta plural marka eranstea; ordu bata da salbuespena, jakina. Beraz:

— *Ordu bata da*

— *Ordu biak dira*

— *Hirurak dira...*

Iparraldean *oren bata*, *bi orenak/biak*, *hiru orenak/hirurak...*

Eta kasu-markak eranstea:

— *Ordu batean / oren batean*

— *Ordu bateko mezatarra joango da / oren bateko mezatarra joanen da*



- Ordu bietan / bi orenetan / bietan
- Hiruretan / hiru orenetan...

Bizkaian ordubaten "ordubete barru" izan arren, zabalduena delako gomendatzen da batasunerako ordubatean.

\* \* \*

## 2. Erdia eta laurdena adierazteko

### a) Erdia adierazteko

Pluraleko marka bigarren osagaian bakarrik ezartzea gomendatzen da batasunerako, hau da:

- Hiru eta erdiak                      — Bost eta erdiak.
- Hiru eta erdietan                    — Bost eta erdietan.

Oren ezartzen denean, berriz —Iparraldean maiz egiten den bezala— bi osagaietan emango da pluraleko marka:

- Hiru\*orenak eta erdiak
- Hiru orenak eta erdietan.

Idazkerari dagokionez, *t'erdi* da Hegoaldean erabat hedatua; Iparraldean, ordea, *eta* idazteko ohitura dago, eta oraingo erabileran *et'erdi* ere arrunta da. Horiak horrela, batasuna *eta*-ren bidetik egin behar dela uste du Euskaltzaindiak. Ahoskerari dagokionez, bakoitzak bere euskalkiko ohitura gorde beza.

### b) Laurdena adierazteko

Orain arte esanaren arabera, bi lekutan ager daiteke pluraleko marka, lchen osagaian edo bigarrenetan:

- Ordua + erdiak:                      *sei eta erdiak*
- Ordua + -ak + minutuak:        *seiak eta hamar.*

Bikoitzasun hori bera erakusten dute euskalkiek laurdena adierazterakoan: euskalki batzuetan 'ordua + laurdenak' esaten duten bitartean, beste batzuetan 'ordua + -ak + laurden' aukera egin dute (pluraleko marka bietan ezartzen duten lekuak ere ez dira falta, *seiak eta laurdenak* esanez). Euskaltzaindiak sisteman kokatzen diren bi formak libre uztea erabakitzen du. Hortaz, laurden, erdi bezala erabiltzen den lekuetan.

- Hiru eta laurdenak,

esango dute. Minutuen arabera erabiltzen dutenetan, ostera,

- Hirurak eta laurden.

Biok ematen dira ontzat batasunerako.

\* \* \*

## 3. Zenbat minutu gutxi adierazteko

Puntu honetan, *gutxi/guti* eta *gutiago*, biak onartzea proposatzen du Euskaltzaindiak. Nolanahi ere, gogorarazi nahi du *gutxi/guti* dela hedatuena:

- Hamarrak hamar gutxi dira / hamarrak hamar gutxiago dira
- Bostak laurden gutxitan / bostak laurden gutxiagotan.

\* \* \*

## 4. Zenbat minutu gehiago adierazteko

Ordua gehi zenbat minutu igaro diren adierazteko, erabilerak erabilera, Euskaltzaindiak kasu-marka singularrean ematea gomendatzen du:

- *Seiak eta bostean elkartuko gara*
- *Hamarrak eta hamarrean*
- *Laurak eta hogeian.*

\* \* \*

## 5. Ordua zenbaki bidez adierazi nahi denean

Ordua zenbaki bidez adierazi nahi denerako honako gomendioak ematen ditu Euskaltzaindiak:

- a) Tauletan zenbaki, xifra hutsak ezarri, kasu-markarik gabe. Bilbotik Donostiarako autobusen irteera orduak, esaterako, honela adieraz daitezke:

09:00  
10:15  
12:30

Edo denda bat zein ordutatik zein ordutara dagoen zabalik:

— *Goizetan* 10:00 - 13:30  
— *Arratsaldetan* 16:00 - 19:30

- b) Kasu-marka erantsi nahi denean, aukera bat baino gehiago egon daiteke: kasu-marka soila erantsi, beti pluralari dagokion forma erantsi, edo kasuan-kasuan dagokiona ezarri. Hurrenez hurren:

15:05n                      15:05etan                      15:05ean

Euskaltzaindiaren iritiz, egokia da orduak esateko eman diren gomendioak zenbakietan ere betetzea. Hortaz, orduci pluralako kasu-marka ezarriko zaie, eta minutuei singularrekoa (behar denean lotura bokala erantsiz):

15:00etan	15:00etara / 15:00ak arte	15:00etatik
15:01ean	15:01era / 15:01 arte	15:01etik
15:02an	15:02ra	15:02tik
15:03an	15:03ra	15:03tik
15:04an	15:04ra	15:04tik
15:05ean	15:05era	15:05etik
15:15ean	15:15era	15:15etik
15:30ean	15:30era	15:30etik

- c) Irakurri, berriz, xifra horiek bere horretan irakurtzeko tradizioirik eza kontuan harturik, hizkera arruntean, egunerokoan (irratik, telebista, etabarretan), honela irakurtzea gomendatzen da:

— *Arratsaldeko hiruretan*  
— *Arratsaldeko hirurak arte*  
— *Arratsaldeko hirurak eta bostean*  
— *Arratsaldeko hiru(rak) eta laurdenetan.*

Era berean, erabilera informalean, 00:00, *gaueko* nahiz *gauerdiko hamabiak* irakurriko dugu. Halaber, 00:30, *gauerditan* edo *gaueko hamabi eta erdietan*, e.a.

Erabilera formalagoetan, ordea, honela irakur daitezke, zenbakien arteko bi puntuen ordez *eta* ahoskatuz:

— *Hamabostetan*  
— *Hamabostak eta bostean*  
— *Hamabostak eta hamabostean*  
— *Hamabostak eta hogeita hamarrean*  
— *Zero orduan / orenean*  
— *Zero ordua / orena eta hogeita hamarrean.*

- d) Azkenik, erdibideko erabilerak ere ikusten ditugu behin baino gehiagotan, batez ere egitarau, kartel eta horrelakoetan: hots, orduak hamabika kontatuak *goizeko*, *arratsaldeko*, *arratseko* nahiz *gaueko* erantsiz. Hala egin nahi denean, honela idaztea gomendatzen da:

— *Goizeko 10etan*  
— *Arratsaldeko 5etan*  
— *Goizeko 11,30etan / goizeko 11 eta erdietan*  
— *Iluntzeko 8etatik 11ak arte.*

**Horrenbestez, hau da Euskaltzaindiaren erabakia orduen idazkerari buruzkoa:**

1. Orduak honela ematen dira: *ordu bata, ordu biak, hirurak, laurak, bostak, seiak, zazpiak, e.a.* Ordu hitzaren ordeez *oren* ere erabil daiteke: *oren bata, bi orenak / biak, hirurak, e.a.* Eta honela deklinatu: *ordu batean, bietan / ordu bietan / bi oretan, hiruretan, e.a.*
2. *Erdia* honela adierazten da: *ordu bat eta erdiak, ordu bi eta erdiak, hiru eta erdiak, bost eta erdiak, ordu bat eta erdietan, ordu bi eta erdietan, hiru eta erdietan, bost eta erdietan, e.a.* Gauza bera *oren* hitzarekin.
3. *Laurdena* honela adierazten da: *ordu bat eta laurdenak, oren / ordu bata eta laurden, ordu bi eta laurdenak, oren / ordu biak eta laurden, hirurak eta laurden, hiru eta laurdenak, hirurak eta laurdenetan, hiru eta laurdenetan, bostak laurden gutxi(ago), e.a.*
4. Minutuak: *hamarrak hamar gutxi, hamarrak hamar gutxiago, hamarrak hamar gutxitan, hamarrak hamar gutxiagotan, seiak eta bostean, laurak eta hogeian, hirurak eta hemezortzian, e.a.*
5. Zifretan ematen direnean, bi punturekin bereizten dira orduak eta minutuak, eta bakoitzeko bi zifra erabili behar dira beti: *00:12, 12:10, 09:25, e.a.* Deklinatzen direnean, orduetuei plurala erantsi, eta minutuei singular marka, dagozkien lotura bokalekin: *15:00etan, 15:03an, 15:04an, 15:30ean, e.a.* Irakurtzeko orduan hobe da, hala ere, honela irakurtzea: *hiruretan, hirurak eta hiruan, e.a.* Erabilera formaletan ontzat ematen dira, dena den, *hamabostak eta bostean, hamabostak eta hamabostean, e.a.*
6. Egitarau, kartel eta horrelakoetan ez da eragozpenik erdiko bidea hartzeko: *arratsaldeko 5etan, goizeko 11,30etan, iluntzeko 8etatik 11k arte, arratsaldeko 3etatik gaueko 12ak arte, e.a.*

(Euskaltzaindiak, Bilbon, 1995.eko ekainaren 30ean onartua)

## 36

## FRANTZIAKO ERREPUBLIKAKO ESKUALDEEN IZENAK

## Eskualdeak

Akitania	Aquitaine
Alsazia	Alsace
Auvernia	Auvergne
Borgoia	Bourgogne
Bretainia	Bretagne/Breizh
Champagne-Ardennes	Champagne-Ardennes
Franche-Comté	Franche-Comté
Ile-de-France	Ile-de-France
Korsika	Corse
Languedoc-Rousillon	Languedoc-Rousillon
Limousin	Limousin
Pays de Loire	Pays de Loire
Lorrena	Lorraine
Midi-Pyrénées	Midi-Pyrénées
Nord-Pas-de-Calais	Nord-Pas-de-Calais
Normandia Garaia	Haute-Normandie
Normandia Beherea	Basse-Normandie
Centre	Centre
Pikardia	Picardie
Poitou-Charentes	Poitou-Charentes
Provence-Alpes-Côte d'Azur	Provence-Alpes-Côte d'Azur
Rhône-Alpeak	Rhône-Alpes

*Oharrak:*

1. *Rosello* (azenturekin nahiz gabe), *Proventza* eta *Burgundia* izen historiko gisa ere erabil daitezke *Rousillon*, *Provence* eta *Borgoia*-ren ordez.
2. Mendiak izendatzeko *Alpeak* erabiliko da. Ibaiak izendatzeko *Rodano* eta *Loira* erabiliko dira.

## Frantziako departamenduak eta departamendu hiriburuak

Agen	Agen
Ain	Ain
Aisne	Aisne
Ajaccio	Ajaccio
Albi	Albi
Alençon	Alençon
Alpe Garaiak	Hautes-Alpes
Allier	Allier
Amiens	Amiens
Angers	Angers

Angulema	Angoulême
Annecy	Annecy
Ardèche	Ardèche
Ardenak	Ardennes
Ariège	Ariège
Arras	Arras
Aube	Aube
Aude	Aude
Aurillac	Aurillac
Auxerre	Auxerre
Aveyron	Aveyron
Avignon	Avignon
Bar-le-Duc	Bar-le-Duc
Bastia	Bastia
Beauvais	Beauvais
Belfort Herrialdea	Territoire de Belfort
Besançon	Besançon
Blois	Blois
Bobigny	Bobigny
Bordele	Bordeaux
Bouches-du-Rhône	Bouches-du-Rhône
Bourg-en-Bresse	Bourg-en-Bresse
Bourges	Bourges
Caen	Caen
Cahors	Cahors
Calvados	Calvados
Cantal	Cantal
Carcasona	Carcassonne
Centre	Centre
Clermont-Ferrand	Clermont-Ferrand
Colmar	Colmar
Corrèze	Corrèze
Côte d'Or	Côte d'Or
Côtes-d'Armor	Côtes-d'Armor
Créteil	Créteil
Creuse	Creuse
Châlons-sur-Marne	Châlons-sur-Marne
Chambéry	Chambéry
Charente-Maritime	Charente-Maritime
Charente	Charente
Charleville-Mézières	Charleville-Mézières
Chartres	Chartres
Châteauroux	Châteauroux
Chaumont	Chaumont
Cher	Cher
Deux-Sèvres	Deux-Sèvres
Digne	Digne
Dijon	Dijon
Dordoina	Dordogne
Doubs	Doubs
Drôme	Drôme
Ekialdeko Pirinioak	Pyrénées-Orientales
Épinal	Épinal
Essonne	Essonne
Estrasburgo	Strasbourg

Eure  
 Eure-et-Loir  
 Évreux  
 Evry  
 Finistère  
 Foix  
 Gap  
 Gard  
 Garona Garaia  
 Gers  
 Gironda  
 Grenoble  
 Guadalupe  
 Gueret  
 Guyana Frantsesa  
 Hauts-de-Seine  
 Hego Korsika  
 Hérault  
 Ille-et-Vilaine  
 Indre  
 Indre-et-Loire  
 Isère  
 Itsas Alpeak  
 Jura  
 Korsika Garaia  
 La Roche-sur-Yon  
 Landes / Landak  
 Laon  
 Arroxela  
 Laval  
 Le Puy  
 Le Mans  
 Lille  
 Limoges  
 Loir-et-Cher  
 Loire-Atlantique  
 Loire  
 Haute-Loire  
 Loiret  
 Lons-le-Saunier  
 Lot  
 Lot-et-Garonna  
 Lozère  
 Lyon  
 Mâcon  
 Maine-et-Loire  
 Manche  
 Marne  
 Haute-Marne  
 Marseille  
 Martinika  
 Mayenne  
 Melun  
 Mende

Eure  
 Eure-et-Loir  
 Évreux  
 Evry  
 Finistère  
 Foix  
 Gap  
 Gard  
 Haute-Garonne  
 Gers  
 Gironde  
 Grenoble  
 Guadeloupe  
 Gueret  
 Guyane Française  
 Hauts-de-Seine  
 Corse-du-Sud  
 Hérault  
 Ille-et-Vilaine  
 Indre  
 Indre-et-Loire  
 Isère  
 Alpes-Maritimes  
 Jura  
 Haute-Corse  
 La Roche-sur-Yon  
 Landes  
 Laon  
 La Rochelle  
 Laval  
 Le Puy  
 Le Mans  
 Lille  
 Limoges  
 Loir-et-Cher  
 Loire-Atlantique  
 Loire  
 Haute-Loire  
 Loiret  
 Lons-le-Saunier  
 Lot  
 Lot-et-Garonne  
 Lozère  
 Lyon  
 Mâcon  
 Maine-et-Loire  
 Manche  
 Marne  
 Haute-Marne  
 Marseille  
 Martinique  
 Mayenne  
 Melun  
 Mende

Metz  
 Meurthe-et-Moselle  
 Mont-de-Marsan  
 Montauban  
 Montpellier  
 Morbihan  
 Meuse  
 Moselle  
 Moulins

Nancy  
 Nantes  
 Nevers  
 Nièvre  
 Nîmes  
 Niort  
 Niza  
 Nord

Oise  
 Orne

Paue  
 Paris  
 Pas-de-Calais  
 Périgueux  
 Perpinyà  
 Pirinio Garaiak  
 Pirinio Atlantikoak  
 Poitiers  
 Pontoise  
 Privas  
 Alpes-de-Haute-Provence  
 Puy-de-Dôme

Quimper

Rennes  
 Réunion  
 Haut-Rhin  
 Bas-Rhin  
 Rhône  
 Rodez  
 Rouen

Saint-Brieuc  
 Saint-Étienne  
 Saint-Lo  
 Saône-et-Loire  
 Sarthe  
 Savoia  
 Savoia Garaia  
 Seine-Maritime  
 Seine-et-Marne  
 Seine-Saint-Denis  
 Somme

Tarbe  
 Tarn  
 Tarn eta Garona  
 Tolosa (Okzitaniakoa)

Metz  
 Meurthe-et-Moselle  
 Mont-de-Marsan  
 Montauban  
 Montpellier  
 Morbihan  
 Meuse  
 Moselle  
 Moulins

Nancy  
 Nantes-Naoned  
 Nevers  
 Nièvre  
 Nîmes  
 Niort  
 Nice  
 Nord

Oise  
 Orne

Pau  
 Paris  
 Pas-de-Calais  
 Périgueux  
 Perpignan  
 Hautes-Pyrénées  
 Pyrénées-Atlantiques  
 Poitiers  
 Pontoise  
 Privas  
 Alpes-de-Haute-Provence  
 Puy-de-Dôme

Quimper/Kemper

Rennes/Roazhon  
 Réunion  
 Haut-Rhin  
 Bas-Rhin  
 Rhône  
 Rodez  
 Rouen

Saint-Brieuc  
 Saint-Étienne  
 Saint-Lo  
 Saône-et-Loire  
 Sarthe  
 Savoie  
 Haute-Savoie  
 Seine-Maritime  
 Seine-et-Marne  
 Seine-Saint-Denis  
 Somme

Tarbes  
 Tarn  
 Tarn-et-Garonne  
 Toulouse

Toulon	Toulon
Tours	Tours
Troyes	Troyes
Tulle	Tulle
Val-d'Oise	Val-d'Oise
Val-de-Marne	Val-de-Marne
Valence	Valence
Vannes	Vannes
Var	Var
Vaucluse	Vaucluse
Vendée	Vendée
Versailles	Versailles
Vesoul	Vesoul
Vienne	Vienne
Haute-Vienne	Haute-Vienne
Vosges	Vosges
Yonne	Yonne
Yvelines	Yvelines

**Oharrak:**

1. *Aturbe, Erruan* eta *Auski* erabil daitezke *Tarbe*-ren, *Rouen*-en eta *Auch*-en izen historiko gisa.
2. *Landes / Landak* izena dela eta, deklinabidea ere bietara egiten du: *Landesetara, Landetara*, e.a.
3. *Estrasburgo* izenarekin batera onartzen da jatorrizko hizkuntzako *Strasbourg* grafia ere.

**Bestelakoak**

Akize	Dax
Cognac	Cognac
Armañac	Armañac
Auch	Auch

**Irizpide nagusiak eta oharrak**

Espainiako Erresumako eta Frantziako Errepublikako probintzia, departamendu eta eskualdeen eskal ordainak finkatzean honako irizpideok izan dira gidari:

a) Toki izen horiek idatziz eta ahoz euskaraz izandako tradizio, usarioa eta hurbiltasuna: *Gaztela, Madril, Kordoba, Tolosa, Bordele, Arroxela, Paue, Akize*...

b) Toki izenen garrantzia eta erabiltzeko maiztasuna kontuan izanik, Herrialde Nagusi ezagun eta hurbilenak euskal fonetikaz jarri dira: *Errioxa, Aragoi, Bartzelona, Palentzia, Murtzia, Borgoina*... Beste batzuetan eskualdearen tradizio historikoa hartu da kontuan izena euskaratzeko (*Pirinio Atlantikoak*); baina tradizio historiko hori falta dutenean —eta, beraz, administrazio zatiketa hutsari bakarrik dagozkionean—, bere horretan utzi dira (*Haut-Rhin*). Halaber, batzuetan ibai edo mendien izenak euskaratu dira (*Rodano, Alpeak*), baina ez eskualdeen izenak (*Rhône, Alpes*), izen horiek normalean erabiltzen dituzten euskaldunen ohiturei jarraiki. Zenbait kasutan jatorrizko izenak ere jarri dira, hain ezagunak ez direnean: *Bretagne/Breizh, Quimper/Kemper*, e.a.

c) Gure artean gutxi erabiltzen ditugulako, tradizio sendorik ez duten izenak jatorrizko era ofizialean eskaintzen dira, inoiz toki bereko hizkuntza jatorren grafia errespetatuz, ofizialak direnean bereziki: *Avila, Valladolid, Ourense, Avignon, Lozère, Nancy, Troyes, Lleida, Girona, Eivissa, Alacant, Perpinyà*...



- d) Inoiz, bigarren mailan bada ere, forma historiko zaharrak eskaini dira: *Sibilia, Oska, Auski, Aturbe*, e.a.
- e) Izen ofizial osoaz gain, ohiko izena ere, laburtua, eskaintzen da: *Balear Uharteak* eta *Balearrak*, *Kanariar Uharteak* eta *Kanariak*.
- f) Zenbait izenatarako proposatzen den formak, *Kordoba*, adibidez, ez du esan nahi Espainiatik kanpo izen horrekin diren beste hiriak ere horrela esan behar direnik: Argentinako hiria, kasu, *Córdoba* da.

(Euskaltzaindiak, Bilbon, 1995.eko ekainaren 30ean onartua)

## 37

## DATA NOLA ADIERAZI

Data adierazteko formarik hedatuena eta erabilienak honako hauek dira:

*Durango(n), 1983ko martxoaren 7a(n)*  
*Durango(n), 1983ko martxoak 7.*

Dena den, bi horien artean ere, lehena da orain arte gehien erabili dena, bai *-n* kasu-marka leku izenari eta egunari ezarriaz, bai kasu-markarik gabe. Hori da, beraz, batez ere Euskaltzaindiak gomendatzen duena:

*Durango, 1983ko martxoaren 7an*  
*Durango, 1983ko martxoaren 7a.*

Zerbaki bidez adierazteko, berriz:

*1983/03/07; 1983/III/07*

*nahiz*

*1983-03-07; 1983-III-07*

Eta era berean:

*1993-03-07ko Euskaldunon Egunkaria-n*

Hilabetea eta eguna bakarrik adierazi nahi denean, ostera, bi aukera ditugula esan ohi da:

*urtarrilaren 20a*  
*urtarrilak 20*

Gehiago zehaztu beharko litzateke, ordea, ez baitira beti biak aukeran izaten. *Urtarrilak 20* egitura, kasu-markaren bat ezarri behar zaionean ezin dugu egitura hau erabili. Okerrak dira, beraz, ondokoak:

*Datorren ostegunean, urtarrilak 20, bilduko da epaimahaia.*

“Urtarrilak 20 egun dituela” edo horren antzeko egituraren laburpena da, azken batean. Baina kasu-markaren bat ezarri behar zaionean ezin dugu egitura hau erabili. Okerrak dira, beraz, ondokoak:

*\*Hilak 20 eta 27an, bestalde, Txotxongilo taldeak txikieneztako Erreka Mari eta Altxor bat patrikan emango du.*

*\*Otsailak 24tik 27 arte izango da ikastaroa.*

*\*Datorren otsailak 14 egingo dugu bilera.*

Horrela behar lukete:

*Hilaren 20an eta 27an.*  
*Otsailaren 24tik 27 arte.*  
*Datorren otsailaren 14an.*

Honek guztiak testuan zehar urtea, hilabetea eta eguna adierazi nahi denerako ere balio du, jakina. Goian aipatu ditugun aukeretatik forma bakarra geratzen zaigu orduan:

*1993ko martxoaren 7a egun handia izango da guztiontzat.*

*Jardunaldiak Bilbon, 1994ko urtarrilaren 5etik 7ra izango dira.*

Azkenik, aposizioetan, hiru modutara eman daiteke asteko zein egun den:

*martxoaren 7an, osteguna / ostegunean / ostegunarekin.*

Horrenbestez, azken bolada honetan asko hedatu den arren, ez da gramatikala ondorengoa:

*\*martxoaren 7an, ostegunez, ezkonduko dira.*

**Data adierazteko orduan, hortaz, forma hauek erabil bitez:**

- *Durango(n), 1995eko martxoaren 7a(n), aukeran utziz inesiboaren marka.*
- *1995/03/07; 1995-03-27; 1995/III/07; 1995-III-27; 1993-11-23ko bilera agiriak dioenez...*
- *Urtarrilak 20 bezalakoak ere erabil daitezke, baina aposizioan: gaur, urtarrilak 20 bezalakoetan (beraz, \*otsailak 20 egin zuten bilera ez da zuzena).*

(Euskaltzaindiak, Donostian, 1995.eko uztailaren 28an onartua)

## 38

**MUNDUKO ESTATU IZENAK, HIRIBURUAK  
ETA HERRITARREN IZENAK**

- Afganistango Errepublika*  
afganistandar, afganiar  
Kabul  
kabuldar
- Afrika Erdiko Errepublika*  
afrikaerditar  
Bangi  
bangiar
- Albaniako Herri-Erepublika Sozialista*  
albaniar  
Tirana  
tiranar
- Alemaniko Errepublika Federala*  
alemaniar/aleman  
Berlin  
berlindar
- Aljeriako Herri-Erepublika Demokratikoa*  
aljeriar  
Aljer  
aljertar
- Ameriketako Estatu Batuak / AEB*  
estatubatuar  
Washington  
washingtondar
- Andorrako Printzerria*  
andorratar  
Andorra la Vella  
andorratar
- Angolako Herri-Erepublika*  
angolar  
Luanda  
luandar
- Antigua eta Barbuda*  
antiguar  
Saint John's  
saintjohnstar

- Arabiar Emireerri Batuak  
emireerribatuak  
Abu Zabi  
abuzabiar
- Argentinako *Errepublika*  
argentinak  
Buenos Aires  
buenosairestar
- Armenia  
armeniar  
Erevan  
erevandar
- Australiako *Commonwealth*  
australiar  
Canberra  
canberrar
- Austriako *Errepublika*  
austriar  
Viena  
vienar
- Azerbaijan  
azerbajjandar  
Baku  
bakutar
- Bahamak/Bahametako *Commonwealth*  
bahamar  
Nassau  
nassautar
- Bahreingo *Estatua*  
bahreindar  
Al-Manamah  
manamahar
- Bangladeshko *Herri-Erepublika*  
bangladeshtar  
Daka  
dakatar
- Barbados  
barbadostar  
Bridgetown  
bridgetowndar
- Belgikako *Erresuma*  
belgikar  
Brusela  
bruselar
- Belize  
belizetar  
Belmopan  
belmopandar
- Beningo *Herri-Erepublika*  
benindar  
Porto Novo  
portonoovar

**Bielorrusia**

bielorrusiar  
Minsk  
minskar

**Boli Kostako Errepublika**

bolikostar  
Abijan (legis.) / Yamussukro (adm.)  
abijandar/yamussukroar

**Boliviako Errepublika**

boliviar  
La Paz  
lapaztar

**Bosnia-Herzegovina**

bosniar  
Sarajevo  
sarajevoar

**Botswanako Errepublika**

botswanar  
Gaborone  
gaboronetar

**Brasilgo Errepublika Federala**

brasildar  
Brasilia  
brasiliar

**Britainia Handiko eta Ipar Irlandako Erresuma Batua/Britainia Handia Erresuma Batua**

britainiar  
Londres  
londrestar

**Bruneiko Estatu**

bruneitar  
Bandar Seri Begawan  
begawandar

**Bulgariako Herri-Erepublika**

bulgariar  
Sofia  
sofiar

**Burkina Faso**

burkinafasoar  
Uagadugu  
uagadugutar

**Burundiko Errepublika**

burundiar  
Bujumbura  
bujumburar

**Bhutango Erresuma**

bhutandar  
Tinbu  
tinbutar

**Cabo Verdeko Errepublika**

caboverdetar  
Praia  
praiatar

- Costa Ricako *Errepublika*  
costarricar  
San Jose  
sanjosetar
- Danimarkako *Erresuma*  
danimarkar, daniar  
Kopenhage  
kopenhagetar
- Djibutiko *Errepublika*  
djibutiar  
Djibuti  
djibutiar (1)
- Dominikako *Commonwealth*  
dominikar  
Roseau  
roseautar
- Dominikar Errepublika  
dominikar  
Santo Domingo  
santodomingoar
- Egiptoko *Arabiar Errepublika*  
egiptoar  
Kairo  
kairotar
- Ekialdeko Timor  
timortar  
Baguia  
baguiar
- Ekuadorko *Errepublika*  
ekuatortar  
Quito  
quitoar
- Ekuatore Gineako *Errepublika*  
ginear (ekuatoreginear)  
Malabo  
malaboar
- El Salvadoroko *Errepublika*  
salvadortar  
San Salvador  
sansalvadortar
- Eritrea  
eritrear  
Asmara  
asmarrar
- Errumania  
errumaniar  
Bukarest  
bukarestar

---

(1) Izenak aldaketak izan ditu eta orain *Afar* eta *Isatarren Kosta* bezala ageri da batzuetan (*Côte des Afars et des Issas*).

Errusia	errusiar Mosku moskutar
Eslovakia	eslovakiar Bratislava bratislavar
Eslovenia	esloveniar Ljubljana ljubljanar
Espainiako	<i>Erresuma</i> espainiar, espainol Madril madrildar
Estonia	estoniar Tallinn tallinndar
Etiopiako	<i>Herri-Errepublika</i> etiopiar Addis Abeba addisabebar
Fijiako	<i>Errepublika</i> fijiar Suva suvatar
Filipinak/Filipinetako	<i>Errepublika</i> filipinar Manila manilar
Finlandiako	<i>Errepublika/Suomiko Errepublika</i> finlandiar Helsinki helsinkiar
Frantziako	<i>Errepublika</i> frantses, frantziar Paris paristar
Gabongo	<i>Errepublika</i> gabondar Libreville librevilletar
Ghanako	<i>Errepublika</i> ghanatar Akkra akkratar
Gambiako	<i>Errepublika</i> gambiar Banjul banjuldar



Georgia	georgiar Tbilisi tbilistiar
Ginea Bissauko <i>Errepublika</i>	ginear (gineabissautar) Bissau bissautar
Gineako <i>Errepublika</i>	ginear Konakry konakriar
Grenada	grenadar Saint Georges saintgeorgestar
Grezia/Heleniar Errepublika	greziar, greko Atenas atenastar
Guatemalako <i>Errepublika</i>	guatemalar Guatemala guatemalar
Guyanako <i>Errepublika Kooperatiboa</i>	guyanar Georgetown georgetowndar
Haitiko <i>Errepublika</i>	haitiar Port-au-Prince portauprincetar
Hegoafrikar Errepublika	hegoafrikar
Pretoria (ex.)/Bloemfontein (jud.) Lurmutur Hiria (legis.)	pretoriar
Herbehereak/Herbehereetako Erresuma	nederlandar/herbeheretar Amsterdam amsterdamdar
Hondurasko <i>Errepublika</i>	hondurastar Tegucigalpa tegucigalpar
Hungariako <i>Errepublika</i>	hungariar Budapest budapestar
Indiako <i>Errepublika</i>	indiar New Delhi newdelhiar

- Indonesiako Errepublika**  
indonesiar  
Jakarta  
jakartar
- Irakeko Errepublika**  
irakiar  
Bagdad  
bagdadar
- Irango Islamiar Errepublika**  
irandar  
Teheran  
teherandar
- Irlanda/Eire**  
irlandar/eiretar  
Dublin  
dublindar
- Islandiako Errepublika**  
islandiar  
Reykjavik  
reykjavikar
- Israelgo Estatu**  
israeldar  
Jerusalem  
jerusalemendar
- Italiako Errepublika**  
italiar  
Erroma  
erromatar
- Jamaika**  
jamaikar  
Kingston  
kingstondar
- Japonia**  
japoniar  
Tokio  
tokiotar
- Jordaniako Haxemi Erresuma**  
jordaniar  
Amman  
ammandar
- Jugoslavia**  
jugoslaviar  
Belgrad  
belgradar
- Kamerungo Errepublika**  
kamerundar  
Jaunde  
jaundetar

<b>Kanada</b>	kanadar Ottawa ottawar
<b>Kanputxeako Estatuak (2)</b>	kanputxear Phnom Penh phnompenhdar
<b>Kazakhstan</b>	kazakhstandar Alma Ata almaatar
<b>Kenyako Errepublika</b>	kenyar Nairobi nairobiar
<b>Kirgizistan</b>	kirgizistandar Fishepek pishpekar
<b>Kiribatiko Errepublika</b>	kiribatiar Bairiki bairikiar
<b>Kolonbiako Errepublika</b>	kolonbiar Bogota bogotar
<b>Komoreak/Komoretako Islamiar Errepublika Federala</b>	komoretar Moroni moroniar
<b>Kongoko Herri-Erepublika</b>	kongoar Brazzaville brazzavilletar
<b>Koreako Errepublika (Hego Korea)</b>	korear Seul seuldar
<b>Koreako Herri-Erepublika Demokratikoa (Ipar Korea)</b>	korear Piongiang piongiangdar
<b>Kroazia</b>	kroaziar Zagreb zagrebar

---

(2) Izena kolokan dago eta azken Gobernuak berriro hobetsi bide du: *Kanbodia*.

- Kubako Errepublika**  
 kubatar  
 Habana  
 habanar
- Kuwaiteko Estatuta**  
 kuwaitar  
 Kuwait  
 kuwaitar
- Laosko Herri-Erepublika Demokratikoa**  
 laostar  
 Vientian  
 vientiandar
- Lesothoko Erresuma**  
 lesothoar  
 Maseru  
 maserutar
- Letonia**  
 letoniar  
 Riga  
 rigatar
- Libanoko Errepublika**  
 libanoar  
 Beirut  
 beirutar
- Liberiako Errepublika**  
 liberiar  
 Monrovia  
 monroviar
- Libiako Arabiar Herri-Erepublika Sozialista**  
 libiar  
 Tripoli  
 tripoliar
- Liechtensteingo Printzerria**  
 liechtensteindar  
 Vaduz  
 vaduztar
- Lituania**  
 lituaniar  
 Vilnius  
 vilniustar
- Luxenburgoko Dukerri Handia**  
 luxenburgotar  
 Luxemburgo  
 luxenburgotar
- Madagaskarko Errepublika Demokratikoa**  
 madagaskartar  
 Antananarivo  
 antananarivoar
- Malawiko Errepublika**  
 malawiar  
 Lilongwe  
 lilongwetar

- Malaysia/Malasia (zah.)  
malaysiar  
Kuala Lumpur  
kualalumpurtar
- Maldivak/Maldivetako Errepublika  
maldivar  
Male  
maletar
- Maliko *Errepublika*  
maliar  
Bamako  
bamakoar
- Maltako *Errepublika*  
maltar  
Valleta  
valletar
- Marokoko *Erresuma*  
marokoar  
Rabat  
rabatar
- Mauritaniako *Islamiar Errepublika*  
mauritaniar  
Nuakchot  
nuakchotar
- Maurizio  
mauriziar  
Port Louis  
portlouistar
- Mazedonia  
mazedoniar  
Skopje  
skopjetar
- Mendebaldeko Sahara/Saharako *Errepublika Arabiar Demokratikoa*  
saharar  
Aaiun  
aaiundar
- Mendebaldeko Samoako *Estatu Burujabea*  
samoar  
Apia  
apiar
- Mexikoko *Estatu Batuak*  
mexikar  
Mexiko Hiria  
mexikar
- Mikronesiako *Estatu Federatuak*  
mikronesiar  
Kolonía  
koloniar
- Moldavia  
moldaviar  
Kishinev  
kishinevar

- Monakoko *Printzerria***  
 monakoar  
 Monako  
 monakoar
- Mongoliako *Herri-Errepublika***  
 mongoliar  
 Ulan Bator  
 ulanbatortar
- Mozambikeko *Herri-Errepublika***  
 mozambiketar  
 Maputo  
 maputoar
- Myanmako *Batasuna/Birmania***  
 myanmar/birmaniar  
 Rangun  
 rangundar
- Namibiako *Errepublika***  
 namibiar  
 Windhoek  
 windhoekar
- Nauruko *Errepublika***  
 nauruar  
 Yaren  
 yarendar
- Nepalgo *Erresuma***  
 nepaldar  
 Katmandu  
 katmandutar
- Nigerko *Errepublika***  
 nigertar  
 Niamei  
 niameiar
- Nigeriako *Errepublika Federala***  
 nigeriar  
 Lagos (hbr. Abuja)  
 lagostar
- Nikaraguako *Errepublika***  
 nikaraguar  
 Managua  
 managuar
- Norvegiako *Erresuma***  
 norvegiar  
 Oslo  
 osloar
- Omango *Sultanerria***  
 omandar  
 Maskat  
 maskatar
- Pakistango *Islamiar Errepublika***  
 pakistandar  
 Islamabad  
 islamabadar

- Panamako *Errepublika*  
panamar  
Panama  
panamar
- Papua Ginea Berria  
gineaberriar  
Port Moresby  
portmoresbiar
- Paraguaiko *Errepublika*  
paraguaitar  
Asuncion  
asunciondar
- Peruko *Errepublika*  
perutar  
Lima  
limatar
- Poloniako *Errepublika*  
poloniar  
Varsovia  
varsoviar
- Portugalgo *Errepublika*  
portuges  
Lisboa  
lisboar
- Puerto Ricoko *Estatu Libre Elkartua*  
puertorricoar  
San Juan  
sanjuandar
- Qatar  
qatartar  
Dauhah  
dauhahtar
- Ruandako *Errepublika*  
ruandar  
Kigali  
kigaliar
- Saint Kitts eta Nevisko *Federazioa*  
sankistar  
Basseterre  
basseterretar
- Saint Vincent eta Grenadinak  
saintvincentar  
Kingstown  
kingstowndar
- Salomon Uharteak  
salomondar  
Honiara  
honiarrar
- San Marinoko *Errepublika*  
sanmarinoar  
San Marino  
sanmarinoar

- Santa Luzia  
santaluziar  
Castries  
castriestar
- Sao Tome eta Printzeko Errepublika Demokratikoa  
saotometer  
Sao Tome  
saotometer
- Saudi Arabiako Erresuma  
saudi arabiar  
Riad  
riadar
- Senegalgo Errepublika  
senegaldar  
Dakar  
dakartar
- Seychelleak/Seychelleetako Errepublika  
seychelletar  
Victoria  
victoriar
- Sierra Leonako Errepublika  
sierraleonar  
Freetown  
freetowndar
- Singapurko Errepublika  
singapurtar  
Singapur  
singapurtar
- Siriako Arabiar Errepublika  
siriar  
Damasko  
damaskoar
- Somaliako Errepublika Demokratikoa  
somaliar  
Muqdisho  
muqdishoar
- Sri Lankako Errepublika Sozialista Demokratikoa  
srilankar  
Kolonbo (adm.)/Kote (hbr.)  
kolonboar/kotetar
- Swazilandiako Erresuma  
swazilandiar  
Mbabane (adm.) / Lobamba (hiriburua)  
mbabanetar / lobambar
- Sudango Errepublika  
sudandar  
Khartum  
khartumdar
- Suediako Erresuma  
suediar  
Stockholm  
stockholmdar



- Suitzako *Konfederakundea*  
 suitzar  
 Berna  
 bernatar
- Surinamgo *Errepublika*  
 surinamdar  
 Paramaribo  
 paramariboar
- Tadjikistan  
 tadjikistandar  
 Dushanbe  
 dushanbetar
- Thailandiako *Erresuma*  
 thailandiar  
 Bangkok  
 bangkokar
- Tanzaniako *Errepublika Batua*  
 tanzaniar  
 Dar es Salaam (hbr. Dodoma)  
 daresalaamdar
- Togoko *Errepublika*  
 togoar  
 Lome  
 lometar
- Tongako *Erresuma*  
 tongatar  
 Nukualofa  
 nukualofar
- Trinidad eta Tobagoko *Errepublika*  
 trinitatear  
 Port-of-Spain  
 portofspaindar
- Tunisiako *Errepublika*  
 tunisiar  
 Tunis  
 tunistar
- Turkiako *Errepublika*  
 turkiar, turko  
 Ankara  
 ankarar
- Turkmenistan  
 turkmenistandar  
 Ashkhabad  
 ashkhabadar
- Tuvalu  
 tuvalutar  
 Fongafale  
 fongafaletar
- Txadeko *Errepublika*  
 txadar  
 Njamena  
 njamenar

- Txekiar *Errepublika*/Txekia  
txekiar  
Praga  
pragatar
- Txileko *Errepublika*  
txiletar  
Santiago  
santiagotar
- Txinako *Errepublika*/Taiwan  
taiwandar  
Taibei  
taibeitar
- Txinako *Herri-Erepublika*  
txinatar  
Pekin  
pekindar
- Ugandako *Errepublika*  
ugandar  
Kampala  
kampalar
- Ukraina  
ukrainar  
Kiev  
kievtar
- Uruguaiko *Ekialdeko Errepublika*  
uruguitar  
Montevideo  
montevideoar
- Uzbekistan  
uzbekistandar  
Tashkent  
tashkentar
- Vanuatuko *Errepublika*  
vanuatuar  
Vila  
vilatar
- Vatikanoko Hiria/Vatikanoko Hiriko Estatua/Vatikanoa  
vatikanoar  
Vatikano Hiria  
vatikanoar
- Venezuelako *Errepublika*  
venezuelar  
Caracas  
caracastar
- Vietnamgo *Errepublika Sozialista*  
vietnamdar  
Hanoi  
hanoitar
- Yemengo *Errepublika*  
yemendar  
Aden  
adendar

*Zaireko Errepublika*  
zairetar  
Kinshasa  
kinshasar

*Zambiako Errepublika*  
zambiar  
Lusaka  
lusakar

*Zeelanda Berria*  
zeelanda berritar  
Wellington  
wellingtondar

*Zimbabweko Errepublika*  
zimbabwetar  
Harare  
hararetar

*Zipreko Errepublika*  
zipretar  
Nikosia  
nikosiar

*Oharrak:*

- 1) Izen ofiziala (*Venezuelako Errepublika*) eta laburtua (*Venezuela*) ematen dira.
- 2) Batzuetan bi aukera uzten dira: *Irlanda* eta *Eire*, nahi dena erabil dadin.
- 3) *Luxenburgoren* kasuan *Luxemburg* ere onartzen da (*luxemburgar*). Gauza bera proposatzen da *Friburgo* (Suitzako), *Hanburgo*, *Edinburgo*, *Estrasburgo* eta *Salzburgo* hiriekin. Horieta guztietan, jatorrizko grafia ere onartzen dira: *Fribourg*, *Hamburg*, *Edinburgh*, *Strasbourg* eta *Salzburg*.
- 4) Garrantzi handikoak diren beste izen batzuk: *Estatu Burujabeen Batasuna*, *Holanda* (*holandar*, *holandes*), *Ingalaterra* (*ingeles*), *Serbia* (*serbiar*), *Ulster* (*ulstertar*). Halaber, *Pekin*-ekin batera *Beijin* (*beijindar*) ere erabil daiteke.
- 5) Kultura kutsuaren aldetik duten garrantziagatik, beste aukera hauek ere har daitezke egoera berezietan: *Azerbaijan* (*azeriar*); *Finlandia* (*suomitar*); *Frantzia* (*galiar*); *Georgia* (*kartveliar*); *Grezia* (*heleniar*); *Hungaria* (*magyar*); *Israel* (*judu*); *Japonia* (*nipondar*); *Kanbodia* (*kanbodiarr*); *Mexiko* (*azteka*); *Mongolia* (*mongol*); *Portugal* (*lusi-taniar*); *Uzbekistan* (*uzbeko*).

## 39

## ZENBAIT ADITZEN ERREGIMENA

Zenbait idazle eta irakasleren artean zalantzak sortzen dira askotan aditz batzuen erregimena dela eta. Horrela *gonbidatu diot* bezalakoak entzun daitezke eta, halaber, ez dira falta *nik lagunduko dizut* bezalakoak gaitzesten dituztenak ere. Aditz horietako batzuk alderatuko ditugu hona, literaturan nola erabili izan diren ikusteko.

- *Gonbidatu, gonbidatzen*

Aditz honek *du* eskatzen du, eta ez *dio*, literaturan ageri diren ehundakako adibideek, eta gaurko erabilerak ere, ongi aski erakusten duten gisa. Esan beharra da XVI-XVII. mendetik hona aise erabiliagoa dela aditz hau Iparraldean, Hegoaldean baino (*gomita, gomitatu* formekin gainera). Hona hemen adibide batzuk:

*Afaitarako konbidau ebalá fraile sermoilari bere debozinoko santua* (T. Etxebarria, 231)

*Sanjuanetan konbidau ninduen* (J. San Martin, 232)

*Jabiak nindun gonbidatu* (Txirrita, 171)

*Neskeak bear dau anaiketakoagaz auzoak gonbidau* (E. Azkue, 96)

*Pitxar bat ardorekin gonbidatu zituen bi ganbeluak gizon onek* (Urruzuno, 118)

*Gonbidatzen gaituzu zeruko ogi hunetarik jatara* (Materre, 8)

*Aingeruen kantuek gaituzte gonbidatzen* (Echeberri, 7)

*Gonbidatzen zaituztedan bitartean elkarri zor diozuen amorioaren geiagotik geiagora berretze-  
ra* (Pouvreau, 17)

*Jainkoaren graziak intzitatzen eta gonbidatzen du gure arima* (Haraneder, 45)

*Umeen bozek gonbidatzen haute ezagutzerat hire aita* (Larregi, 47)

*Elizak gonbidatzen gaitu* (J.B. Elissamburu, 131)

*Gonbidatzen zuen krakada egiterat* (Zalduby, 123)

*Ahaide gaztea bere lagunarekin mahainerat gonbidatu zuen* (Zerbitzari, 209).

- *Iguriki & igurikatu*

Iguriki forma guztiz erabilia izan da Iparraldean. Behin batean NORK NORI edo NORK ZERI erregimena zeraman aditz honek, baina XVIII. mendetik hona, NORK NOR edo NORK ZER nagusitu da orotan. Hemendik egin behar da, beraz, batasuna. Esan dezagun, bestetik, *igurikatu* forma aski berria dela:

*Iguriki zinioen tormentan* (Echeberri, 7)

*Iguriki derautazu orai artean* (Materre, 8)

*Zer izanen da igurikitzen baderaut? Zer izanen da igurikitzen ezpaderaut* (Axular)

*Gaua dencan iguriki behar diogu argiari* (Pouvreau, 17)

- Ez dut beraz bertzerik igurikitzen* (Haraneder, 45)  
*Josepek ez zuen argia iguriki* (Larregi, 47)  
*Hanbat gaixto adixkidia: igurikatzen zütü zartaginak gure etxen* (Archu, 89)  
*Adimenduak ez du iguriki urtheen adina* (Hiribarren, 131)  
*Hanbat urthez iguriki eta jasan zaitut* (Duvoisin, 127)  
*Birden bizi bat oraino zuela igurikitzen* (Goyhetché, 123)  
*Nik hemen igurikatuko zaitut* (Laphitz, 128)  
*Luzarotxo bera igurikitzen berari begira egonta, Isabel agertu zitzaigun* (R.M. Azkuc, 188)  
*Aspaldian igurikatzen zuen unti xahar hura* (Narbaitz, 274)  
*Batak bestea igurikatzen zuten* (Mirande, 278).

• **Itxoin, itxoiten**

*Itxoin* forma Gipuzkoan baizik ez da aurkitzen eta hor ere XIX. mende bukaeran, euskara mintzatuan, bereziki. NORK NORI erregimena darama beti (*Mikeli itxoingo diot*), non ez den objekturik gabe gertatzen (*Hemen berean itxoingo dut*). Objekturik ez duenean NOR NORK hartzen du. Beraz:

- Arri itxoiten zagon bitartean* (V. Mokoroa, 121)  
*Emen itxoingo ziotet beaz gure mutillai* (M. Lekuona, 203)  
*Itxoingo diegu guztiai* (A. Labayen, 200)  
*Emen itxoingo diot* (N. Echaniz, 270)  
*Plazan itxoingo dizutet* (J. Echaide, 255)  
*An berari begira eta itxoiten zeuden* (D. Intza, 182).

• **Itxaron, itxaroten**

*Itxaron* aditza, Bizkaian *itxadon* eta Gipuzkoan *itxoin*, Hegoaldeko idazkietan aurkitzen da, bai NORK NORI bai NORK ZER erregimenekin erabilia. Euskara baturako proposatzen da bide beretik jarraitzea, hots, objektua baduelarik NORK NORI, eta objekturik ez dagoenean NOR NORK:

- Zeren begira edo zer itxaroten egongo zara?* (Echeita, 159)  
*Artzain txarragan, artalde onik ezin legike itxaron* (Enbeita, 226)  
*Jainkoagan itxaroten dot bere kurutzia eruateko indarra* (J.A. Mogel, 71)  
*Beragandik itxaroten dogu eskatuten doguna* (Astarloa, 67)  
*Gelditu ziran ba bijak, batak bestiari itxaroten* (Kirikiño, 157)  
*Ez erritarren aldetik sari on bat itxaron* (Tx. Agirre, 100)  
*Itxaron barik gizonai* (E. Azkue, 96)  
*Hainbeste itxaron dut!* (Gaztelu, 248)  
*Meza ondoan itxarongo dizut* (J. Echaide, 255)  
*Alferrik itxaron dut* (Orixe, 176)  
*Bi ordu itxaron behar izan genituan* (Oskillaso, 223).

• **Deitu, deitzen**

Gaur arte dirauen tradizioari jarraikiz Iparraldean DEITU aditzaren erregimena NOR NORK izan da eta Hegoaldean, berriz, aditz berarckin NORI NORK nagusitu da. Euskara batuan bi formak dira onartzekoak:

- Asto bati deitu neike andria?* (J. San Martin, 232)  
*Notarioari deituko deitsagu* (F. Bilbao, 230)

- Deitu deutsa aitak txakurrari* (Erkiaga, 230)
- Osorik deitu ninduzun* (Gandiaga, 237)
- Deitu biar jako abere sendatzalliarri* (Uriarte, 101)
- Deitu eutsan Tramanak Manaziri* (Tx. Agirre, 161)
- Geuk be deitu daiogun txori orren antzera* (K. Enbeita, 149)
- Egongo nintzate luzaruago zubekaz deituko ezpanenduke elexako zereginak* (J. J. Mogel, 70)
- Deituko eutsan konfessore on bati* (J.A. Mogel, 59)
- Naiz ogizaleari deitu Begizuri* (Arrese Beitia, 97)
- Semearen izenaz deituko dizu* (G. Arrue, 116)
- Sendagileari deituko al diogu?* (T. Alzaga, 205)
- Zertara deitu nauzun* (M. Lekuona, 203)
- Ez neri izen itsusi ori deitu* (A. Labayen, 200)
- Deituko ditut lagun berriak* (M. Lasa, 249)
- Askotan deitu zituen munduko guziak bere erreinu berera* (Mendiburu, 33)
- Jaungoikoak deitu zaitu Kristaua bere fede santura* (Agirre Astecas, 77)
- Deitu omen zituen abere guziak* (Iturriaga, 73)
- Jonasen seme, Simon zera, zuri Zefas, au da, Pedro deituko zatzu* (Lardizabal, 111)
- Ribadeneirak deitu zion, soldadu txar zorakerizalea* (J.I. Arana, 114)
- Billera oni ederki leikiok deitu umillen billera* (Beobide, 112)
- Deitu zaidazu Joxe, soil soilik!* (A. Labayen, 271)
- Don Tomasi deitu beariko diogu Joxe Mari* (N. Echaniz, 270)
- Figura trixte deituko diote* (Berrondo, 266)
- Urrutizkinez deitu dit* (Txillardegui, 263)
- Ni ere deitu ninduten* (Anabitarte, 261)
- Altzolako jaunak deitu zun Beltran bere lengusua* (J. Echaide)
- Joxeri deitu zion* (Tx. Agirre)
- Deitu zioten Bernardotxori* (F. Goñi, 194)
- Ordezkarriak batzar batera deituko zaituztegu* (Lizardi, 189)
- Andresen anai Simoni deitu zion Jesusek izengoitiz Arria, gero deitu zituen besteren batzuk eta aen artean Matheo* (Ubillos, 35)
- Donostiako urian bizi nintzala, deitu izan ninduen Madriltar gizon andizki batek* (Iztueta, 82)
- Maria deitu zuen ixilkan esanez: Maisua or da ta deitzen zaitu* (Iraizoz, 183)
- Jainkoak deitu nindun bidetik aldegin nun, damurik* (Orixe, 176)
- Tribunalera deitu nazazu oiek gezurrak badira* (Txirrita, 164)
- Deitu zituen bertan erriak, itxeko guziak eta kontatu zien ekusi eta aditu zuena* (Mendiburu, 33)
- Zorteak deitu izan gintuen* (M. Etchamendy, 220)
- Telefonoz deitu zuten* (Oskillaso, 223)
- Sabarotz deitu zuten Uztaritzeko erreitor* (M. Hiriart Urruty, 134)
- Horra non jende guziek deituko nauten dohatsua* (Joannategui, 130)

*Janpiuarrek deitu zuen bere iloba* (M. Izeta, 224)

*Azkar deitu sendakina!* (F. Irigaray, 219)

*Egun batez, Euskaltzaindiak bere ganat deitu zuen idazle bikaina* (J. Etchepare, 214)

*Toki hau deituko dute Euskaldun Zerumendi* (Iratzeder, 208)

*Bekatu kapitalak komunki mortalak deitzen zazpiak* (Kat. Erronkari, 145, 147, 148)

*Horiek ere pastoral deitu zituzten* (J. Casenave, 281)

*Geley ektoplasma deitu zuen gizaki zenbaiten gorputzetik horrela atera eta hukigai ditekeen ekai hori* (Mirande, 278)

*Lehenago enekin izan dut Etxeberri deitu bat errotik euskalduna* (J. Etchepare, 277)

*Ez zen segur itsasontzi txarra Santiago deitu Karaka* (P. Narbaitz, 274)

*Abokat Pierris deitu zutut ene aintzinala jitea* (Astolasterrak, 92)

*Ni naiz deitu zaitudana. Nik deitu itut ene graziaz* (S. Pouvreau, 16)

*Hunetakotzat deitu zuen Noe zeritzan gizon bat* (Axular, 9).

• **Lagundu, laguntzen**

*Lagundu, laguntzen* aditzaren erregimena NORK NORI izan da Iparraldean XVII. gizaldi arte; baina geroztik Iparraldeko tradizioaren arabera NORK NOR besterik ez da. Hegoaldean, ordea, NORK NORI da nagusi. Beraz, euskara batuan bi formak dira onartzekoak:

*Izekok lagundu eion auzi orretan* (Echeita, 159)

*Ama euskarari bizi dan arte egin daiogun lagundu!* (B. Enbeita, 226)

*Pozik be lagunduko neuskio* (F. Bilbao, 230)

*Badaezpada mutiko onek lagundu begizu!* (Erkiaga, 229)

*Antiguako Amak lagundu dakigula!* (Tx. Agirre, 161)

*Neure Ângeru Guardakoa lagundu egidazu!* (Mogel, 70)

*Arren ta arren, lagundu zadazute!* (V. Mokoroa, 121)

*Jaungoikoak lagunduko dizu ezegoki gabe eta ondo iritxi zaitean* (G. Arrue, 116)

*Itzulkizunak lagundu dezake jatorrizkoa obeki ulertzen* (Gaztelu, 248)

*Bear zalarik alkar lagundu* (Basarri, 245)

*Aurrak asi zaizkio piska bat lanian, lagunduko diote gauza ez danielan* (Uztapide, 237)

*Ordu azkenaldikoan ari lagundu zion nere adiskide apaiz on batek* (Mendiburu, 33)

*Berak gau eta egun lagunduko dizu* (Agirre Asteasu, 75)

*Lagundu bear zaio beargilleari, ez, ordea, beinere jende alferrari!* (Iturriaga, 78)

*Badakizu lagundu behar zatzaizkidala* (Materre, 8)

*Jainkoa heldu eta lagunduko zaiku* (Pouvreau, 16)

*Nork lagunduko zaika? — Nehork erranagatik ezetz, etzaizula lagunduko, eztuzu sinesten* (Axular, 9)

*Lagundu nauzu graziaz, lagun zakizkit konplitzeko behar den indar guziaz!* (Gasteluçar, 12)

*Behar dugu guziek elkar lagundu* (Chourio, 25)

*Davit galtzera zohan bere bizia, bere emazteak lagundu ezbalu* (Larregi, 46)

*Lagunduko zituzte abokatak* (Monho, 83)

*Hitzeman dauku lagunduko gaituela* (Duhalde, 84)

- Jainkoak erran zuen elkar lagunduko duzue* (Duvoisin, 136)  
*Ikusiko dugu nongo jainkoak lagunduko zaituzten!* (Hiribarren, 131)  
*Handik ateratzen lagunduko haut nik hi* (Goyhetché, 123)  
*Mutila lagundu zuen sukaldeko lanen egiten* (Laphitz, 128)  
*Hartu zuen polliki besotik eta lagundu bere ganberalat* (Joannateguy, 130)  
*Lagunduko zaitut zure xede handien betetzen* (Hiriart-Urruty, 134)  
*Amak gaitik lagunduko* (Oxobi, 207)  
*Ez dakizu Mayi lagundu behar dutala bezitzen?* (Lafitte, 215).

**Hortaz, hau da Euskaltzaindiaren erabakia ondoko aditz hauen erregimenaz:**

- *gonbidatu* aditzak NOR-NORK eskatzen du: “Mikel gonbidatu dute”
- *iguriki* aditzak NOR-NORK eskatzen du: “Ez dute bertzerik igurikitzen”
- *itxoin* eta *itxaron* aditzek NORK-NORI eskatzen dute objektua dutenean: “Mireni itxoin zioten eguerdiraino”. Eta objekturik gabe daudenean NOR-NORK behar dute: “Egongelan itxoin dute goiz osoan”
- *deitu* eta *lagundu* bietara erabil daitezke: “Mikeli deitu diogu”, “Mikel deitu dugu”; “Mikeli lagundu diote”, “Mikel lagundu dute”.

(Euskaltzaindiak, Donostian, 1995.eko uztailaren 28an onartua)



## 40

**TOPIKO(A) BIHURTU**

Euskal mugagabearen erabileraren legeak ikertu dituztenek egitura hau aipatzen dute, besteak beste: perpaus baten barnean bi nor-sintagma ager daitezke, eta askotan horietako bat bestearen predikatu osagarria izan ohi da eta mugagabea joan. Hona Etxepareren bertso lerro hau:

*Othoi, launa, engutzazu lagun zure sailduiak* (Etxepare, I,72).

“Santuak emazkidazu lagun”, alegia. Asko dira egitura hori onartzen duten aditzak, hain iragangaitzak zein iragankorrak: *joan, egon, sartu, jarri, gelditu, egin, hautatu, izendatu, eduki, saldu* eta abar. Hona horietako batzuk:

*ene arreba neska zahar gelditu da  
ene laguna apaiz egin da  
etxeko alaba neskame joan da  
gazteena hautatu dute alkate  
Peruk gazteak hartu ditu lagun.*

Aditz horien artean bat *bihurtu* da:  
*ikatza urre bihurtu zuen  
eguna gau eta gaua egun bihurtu da  
adiskidea etsai bihurtu zaio.*

Ikusten den bezala, izen sintagma bat beti mugagabea da eta beste izen sintagmari dagokion predikatua. Izen sintagma mugatua, berriz, batzuetan subjektua da, baldin aditza iragangaitza bada: “*hura* neskame joan da”; besteetan objektua, baldin iragankorra bada: “*aita* alkate hautatu dugu”. Ez zaio axola. Izen sintagma bata izan, bestea izan, predikatua beti mugagabea izango da.

Arrazoi zuen Mitxelena ohi zuen ironia mingots ez idatzi zuenac: “Gramatika aldetik, nolana ere, ongi baino hobeki gabilta. Badakigu, behintzat, *geniezazkizuekeen* esaten, baldin ederki esana badago. Baita ere, gainera, *topikoa bihurtu da* (ze arraio bihurtu ote da «topiko» hori)...” (MEIG VII, 29. or.).

Bistan da \**topikoa*, hitz mugatu hori, salatzen duela; ez hain bistan, apika, zer esan nahi duen kako arteko “ze arraio bihurtu ote da «topiko» hori” hitzekin. Hauxe, dudarik gabe: *topikoa* ongi esana izateko subjektu izan beharko lukeela eta hori zer bihurtu den adierazi (“amets bihurtu da *topikoa*”, esate baterako); baina perpaus hori esan zuenaren asmoa ez zelaririk hori, baizik “beste zerbait TOPIKO bihurtu” zela esatea, Mitxelena esaten dio mugagabea ipini beharko zukeela hitz hau:

*ametsa TOPIKO bihurtu da.*

Buruenean, honen guztiaren ikaskaia hau da: horrelako egituretan izen sintagma bat mugatua dela beti; bestea, berriz, predikatu delakoa, mugagabea.

Hori da dotrina orokorra eta gehienetan konplizten dena. Gauzak nahasixeago dira, ordea, aditza *bihurtu* denean. Honekin ere predikatu delakoa gehienetan mugagabea da, bai, eta aski arrazoi dirudi horrek euskara baturako mugagabea gomendatzeko; baina ezin uka batzuetan mugatua ere ager daitekeela. Modu askotara, gainera: ia beti absolutiboan; baina adlatiboan eta inesiboan ere bai (hauek guztiak *OEHT*ik hartuak dira):

*Hau Inglaterrako duke-herri BAT bihurtu zen*  
*...bihotz sendoko gizona haur BAT bihurtua*  
*...ornament ederrenetarik BAT bihurtu zen*  
*...ornamentik ederrenA bihurtu baita*  
*...emakumerik ederrenA biurtu al banendi*  
*...arnas huts-hutsA biurtu banintz bezela*  
*Zure bizi moldea guretzat damugarriagoA bihurtzeko*  
*...biurtu ziraden buztin kolorekoAK*  
*...biurtu ziran demonio itxusi nazkagarriAK*  
*...borroka bi anaien artekoA biurtu*  
*...siñiste gaiztokoA biurtuko litzeke*

*...seme izateRA biurtzen gaituana*  
*Amore loi guzia biurtu zitzaion gorrotoRA*  
*Biurtu zan gobernadoriaren amodijua gorrotoAN*  
*...ur garbiya ardo oniAN biurtu zuan.*

Horrek ez gaitu gehiegi harritu behar, perpaua guztiek ez baitute mugagabe izateko erraztasun edo egokitasun bera; aitzitik, nolazpaiteko hierarkia-edo seinala baitaiteke. Predikatua izen soila denean arautzat eman daiteke mugagabea dela: "Eguna gau bihurtu da". Baina izena bestelako ingurukariz (hala nola, izenondoak, izenlagunak, partizipioak, adjektibo superlatiboz nahiz komparatiboz, eta abar) janztean, hor goiko lehen hamaika esanpluetan bezala, araua joera hutsa gertatzen da eta mugagabearen ordez predikatua mugatua duten salbuespenak nahitaezkoak dira.

Arraragoak dira, eta horregatik ez ditugu euskara baturako gomendatzen, predikatua kasu adlatiboan edo inesiboan daramatenak, hor goiko azken lauetan bezala. "\*Piztia gizonan" edo "\*gizona munstro batean" edo "\*ametsa topiko batean bihurtu" bezalako perpauak dira bereziki baztertzen ditugunak, eta hori Mitxelenaren lehengo hitzek honetara bultzatzen bide gaituztelako: batasun zurrean maizenik bete beharko genukeen eredura, mugagabearen erabilera.

**Hortaz, hau da Euskaltzaindiaren erabakia: perpaua baten barnean bi nor-sintagma agertzen direnean, eta horietako bat bestea-  
 ren predikatu osagarria denean, *bihurtu* aditzak mugagabean es-  
 katzen du predikatu osagarri hori: *ura ardo bihurtu zuten*. Hala  
 ere, sintagma izen soil batek osatu beharrean beste ingurukariz  
 janzten denean, izenondoak, izenlagunak, adjektibo komparati-  
 boak, perpaua erlatiboak, e.a. erabiliz, orduan artikulua eskatzen  
 du askotan. Kasua, berriz, beti absolutiboa erabiliko da: *emaku-  
 merik ederrena bihurtu zen*.**

(Euskaltzaindiak, Donostian, 1995.eko uztailaren 28an onartua)

## 41

## EGITEKO ASMOZ

Asko zabaldu da azken urteetan “partizipio burutua + *asmoz*” egitura:

— *Ama ikusi asmoz joan nintzen hara.*

Autore gehienek, ordea, *-tzeko asmoz, asmoan, asmoarekin...* idatzi dute:

- *Joan zen andik beste gauzarik Erroman ekusi bage bere errira itzultzeko asmoan* (Mendiburu).
- *Kontu andijagaz ibilteko asmoz, duanak alango danzeetara, pekatu loijari gorroto deusala, librau leite pekatuti* (Mogel).
- *Otsoa ta Bildotsa eldu ziran bakoitza bere aldetik Ibai batera ura edateko asmoz* (V. Mogel).
- *Kupiturik sartzen du /gaisoak kolkoan, /ango beroarekin /pizteko asmoan* (Iturriaga).
- *Etxe baten egiteko asmutan* (Duvoisin).
- *Negar santiñak egiñ ondoan asi zan bere ezpataren billan, berearekin Golo josteko asmoz* (Arrue).
- *Izan bere bekatuen damu egiazkoa, bizitza ondotzeko eta Eliza ama sainduak agintzen duenean konfesatzeko asmoarekin* (Legaz).
- *Arratsalde aldera sartu omen zan basamortu batera, emen arkitzen zan koba zulo batean gaua igarotzeko asmoan* (A. Zavala).
- *Jesusen gorputza igortzitzeko asmotan joan ziran illobia zegoan baratzerara* (Inza).
- *Zarautzerat joan nintzan Patxi Barberoren omenaldian kantatzeko amotan* (Xalbador).
- *Multzo-teoria, batez ere, zelatan dago beti, alde eta aldi oro, linguistika osoaren oinarri bihurtzeko asmotan edo* (Mitxelena).

Hala ere, badira “partizipioa + *asmoz, asmotan*” egitura erabili dutenak ere. Gutxi dira, ordea, goikoeekin alderatuz gero. Hona hemen adibide batzuk:

- *Mun egin gogoz ta asmoz Jesusen llagaren bat* (Añibarro).
- *Ortan jarraitu asmotan bada /lan txarrak eman lezazke* (Basarri).
- *Bueltatu nitzan atzera, kale aldera jetxi asmuian lengo biria artzera* (A. Zavala).

Badirudi bi egituren arteko desberdintasuna, bataren ugaritasuna eta bestearen urritasuna, beste bikote bati loturik azal daitekeela:

- a) *etortzeko asmoa dut*
- b) *etorri asmo dut.*

Izan ere badira zenbait izen —*asmo, gura, gogo, nahi* edo *behar*— *izan (\*edun)* aditzarekin perifrasiya osa dezaketenak eta, horrenbestez, aurretik partizipioa har dezaketenak:

- a) *etorri asmo du*

- b) *etorri gura du*
- c) *etorri gogo du*
- d) *etorri nahi du*
- e) *etorri behar du.*

Aditz perifrasi horien ondoan, "partzipioa + izena" egiturako izen elkartuak ere osa daitezke, hala nola:

- a) *etorri asmoa*
- b) *etorri gura*
- c) *etorri gogoa*
- d) *etorri nahia*
- e) *etorri beharra.*

Aldi berean, perifrasi guztiak ez dira emankortasun-maila berekoak. *Behar nahi* eta *gura* izenekin egunorokoak ditugu; ez, ostera, *gogo* eta *asmo* izenekin. Azken bi hauekin, askoz maizago esan eta idatziko dugu *etortzeko gogoa / asmoa dut*, *etorri gogo / asmo dut* baino (nahiz badiren literaturan halako perifrasiaren lekukotasunak, Lardizabal, Etxaide edo Mitxelenaenak, besteak beste). Eta hortaz, *etorri gogoa* eta *etorri asmoa* ere askoz bakanago aurkituko ditugu, *etortzeko gogoa* edo *etortzeko asmoa* maizenak izanik.

**Hortaz, hau da Euskaltzaindiaren erabakia: erabil bitez *egiteko asmoz, joateko asmoz, eztabaidatzeko asmoz*, e.a., tradizioa duten egiturez baliatuz, eta ez *\*joan asmoz, \*egin asmoz, \*eztabaidatu asmoz*.**

(Euskaltzaindiak, Usurbilen, 1995.eko irailaren 29an onartua)

## LEHENAGO ETORRIKO ZEN; LEHENAGO ASMATUKO ZUEN

Bi esaldi hauek ontzat ematen ditu Euskaltzaindiak:

- *Garaiz esan bagenio, lehenago etorriko zatekeen.*
- *Garaiz esan bagenio, lehenago etorriko zen.*

Bigarren moldea, zalantzarik gabe, lehena baino maizago aurkitzen da edozein euskalkitan edo erreregistro mailatan. Hortaz, ez da ikusten erabilpen hori gaitzesteko edo ez bultzatzeko arrazoirik.

Zenbait gramatikarik normalizat jo izan dute *etorriko zen* forma ezinezko ondorio direlakoetan, hala nola Lafittek (*Grammaire*, 376-7) eta Gramatika batzordeak (*EGLU II*, 431). Bestalde, esan behar da Altube (*Erderismos*, 230) eta Txillardegi (*Oinarri bila*, 143), besteak beste, hemen ontzat emandako formaren, adiera horretan noski, baztertzearen alde egon izan direla.

Iragan-geroa delakoa (adibidez, *etorriko zen*), hemen interesatzen zaigun erabileran (besteak baiditu eta: ikus *EGLU II*, 425), baldintzako ondorioetan ez ezik, baldintzarik aipatzen ez den zenbait perpaus motatan ere erabili ohi da, hala nola: *Oso gustora geldituko nintzen berarekin egun hartan; nork esango zuen hau gerta zitekeela?; Beharbada berriro saiatu beharko genuen*. Beti gertatu ez zen ekintza edo egoera hipotetiko batez ari gara, hau da, mundu irreal bateko gertakariak aipatzen ditugu forma hauen bidez (egiazko munduan, ostera, *ez nintzela berarekin gelditu; inork ez zuela esan, eta berriro saiatu ez ginela* presuposatzen dute perpaus hauek).

Haatik, beste modu-nozio bat adierazteko, gertakari hipotetikoak baina gerta litezkeenak aipatzen dituen, alegia, iragan-geroaz baliatzea onartezina da goi-mailako euskaran: beraz gaitzetsi behar dugu:

- *\*orain bertan txuleta eder bat jango nuen,*  
esan nahi delarik:
- *orain bertan txuleta eder bat jango nuke.*

**Hortaz, hau da Euskaltzaindiaren erabakia: *Hau jakin (izan) banu, etorriko nintzatekeen; berehala esango niokeen, etab. nahiz hau jakin (izan) banu, etorriko nintzen; berehala esango nion, etab. biak, ontzat ematen dira.***

(Euskaltzaindiak, Usurbilen, 1995.eko irailaren 29an onartua)

## 43

## ARAZI ADITZAREN ERREGIMENA

*Arazi* aditz arazlea izanik beste aditz batekin batean agertzen ohi da, biek bat egiten dutela adizkera kausatiboa moldatuz (1).

*Arazi* ergatiboa manatzen duen aditza da eta, ondorioz, arazlea adierazten duen sintagmari marka ergatiboa lotzen zaio. Ez da horretan arazorik:

— *Jonek jakinarazi du.*

Buruhauste batzuk agertzen dira, ordea, zenbaitetan, *arazi*-rekin batean, honi eratzekirik agertzen den aditzaren erregimenak sortuak: zein kasu eman behar zaie perpaus kausatiboetan, bigarren aditz honen osagarri gramatikalei (esan nahi baitu gramatikazko kasua dakartenci)?:

— *Jonek Mireni etorrarazi dio*

edo

— *Jonek Miren etorrarazi du*

esan behar da? Edo biak dira ontzat ematekoak?

Gehienetan euskalki guztiak jokabide bera baldin badute ere puntu horretan, batzuetan ez da horrela gertatzen eta dudak izan ditzake batek osagarri horietarik batzuk kausatiboetan nola agertu behar diren finkatzerakoan.

1. Lehenik kezkarik sortzen ez duten elementuak laburki bederen aipa ditzagun.

1.1. Aditz eratzekiaren objektuen kasuan, euskalki guztiak bat datoz: objektu zuzenak —3. pertsonakoak dira beti perpaus kausatiboetan— absolutiboan agertzen dira:

— *Sagarra<sup>k</sup> janarazi dizkidazu*

— *Liburua irakurrarazi dizut.*

Goiko bi adibideetan *sagarra*k eta *liburua*, *jan* eta *irakurri* aditzei dagozkien bi objektuak, absolutiboan dira. Izen sintagma objektua biziduna denean berdin gertatzen da:

— *Haur sortu berria medikuari ikerrarazi zioten*

— *Haur guztiak elkarretararazi zizkieten irakasleari.*

(1) Hala ere, bizkaieraz *erazo* aditza bakarrik ere agertzen da batzuetan, orduan *eragin* edo *eginarazi* esan nahi duenarik: *Erazo eikiozuz zeure biotzari iru gauza onek* (Añibarro).

Aditz eratekiaren zeharkako objektuen kasua piska bat desberdina da, zeren arras gutitan agertzen baitira hauek perpaus kausatiboetan. Halere, bazterreko aukera izanagatik, badirudi testuinguru egokietan onartzeokoak direla (ikus *EGLU* 1: 216, 106 adibidea).

1.2. Aditz eratekiari dagokion subjektuarekin ere arazorik ez da agertzen, aditz eratekia iragankorra denean. Datibo gisa agertzen da orduan beti haren subjektua perpaus kausatiboetan:

— *Niri irakurrarazi zizkidaten amaren gutunak.*

Adibide horretan *aitari* sintagma *irakurri* aditzaren subjektua da, baina sintagma datiboa da perpaus kausatiboan.

2. Arazoak ororen buru aditz eratekiaren subjektua absolutiboan denean, edo aditz eratekiak subjektu ergatiboa izanik objekturik ez duenean agertzen zaizkigu. Bi egoera hauek aldizka azter ditzagun:

### 2.1. Aditz eratekiaren subjektua absolutiboan denean

Tradizio nagusiaren arabera, aditz eratekiaren subjektua NOR sintagma denean, absolutiboan gelditzen da perpaus kausatiboan:

- *Etorri zara etorrarazi zaitudalalako*
- *Mintzaraziko zaitugu*
- *Langileak lanari jarraikiarazi zituzten.*

Mendealdeko zenbait euskalkitan datiboa erabiltzeko joera agertzen da holakoetan, aditz eratekiari dagokion NOR sintagma biziduna edo pertsona denean:

- *Alakoari alde eragin eta erbestean bizi-erazi bear genioke* (J. Zaitegi, *Platoneneko atarian*)
- *Gizon bat da, okerreko bidetik abiatu dena, eta zuzeneko bidera itzul erazi behar dioguna* (G. Aresti, *Tobera*)
- *Atean Meltxor'eri lenengo igaro arazi nai dio* (A. Labayen, *Euskal eguna*).

Bigarren bide hau euskara batuarentzat ez bide da gomendatzekoa, euskalki horietan ere absolutiboaren atxikitzea izan baita joera nagusia, hala bizigabeekin, nola bizidunekin eta pertsonekin:

- *Joxe lanean jarri arazi nai du* (A. Labayen, *Su emailleak*)
- *Etzaitut gogait arazi nai* (A. Labayen, *Su emailleak*)
- *Ezmezean dagoenaren aziak ernerazi udaberriko giro ongarrian* (J. Zaitegi, *Platoneneko atarian*)
- *Lagun batzuek alkartu arazi, mendia erosi ta piñuz josi zuten* (I. Munika, *Gure mendi ta oianak*)
- *Orrek, Maritxok nai ez arren moja sartu arazi dik* (T. Alzaga, *Ramuntxo*)
- *Jenarorekin ezkondu arazi nai nautelako* (T. Alzaga, *Burruntziya*).

Esan gabe doa azken jokabide hau dela Iparraldean kausitzen den bakarra, ondoko adibide hauek erakusten duten bezala:

### 2.2. Aditz eratekiak subjektu ergatiboa izanik objekturik ez duenean.

Hiru egoeratan agertzen ahal da aditz ergatiboduna ondoan objekturik izan gabe: aditz deponente delakoekin (*iraun*, *irakin*, *urten* (mendebalcan), ...), objektu zehaztugabeco ezabatua izan dezaketen aditzekin (*jan*, *edan*, *kantatu*, ...), eta objektua lokuzio batean aditzarekin bat egina duten aditzekin (*irri egin*, *hitz egin*, *min hartu*, ...).

2.2.1. Objektu zehatzgabea ezabatua duten aditzekin, edo objektua aditzari lotua duten aditzekin, subjektu ergatiboa datiboan agertzen ohi da perpaus kausatiboetan. Hori da, bederen, joera nagusia:

- *Gizon horrek irri eginarazten dit*
- *Euskaraz hitz eginarazi ziguten*
- *Haurrei ongi janarazi behar genieke.*

Iparraldean beste joera bat ere kausitzen da batzuetan, subjektua absolutiboan emanik: *irri eginarazten nauzu, behiak edanarazi ditugu*. Badirudi joera berria dela hau, eta ez osoki zabaldua. Batasuna zen tokian zatiketa ekartzen duenez gero, bide hau ez da gomendatzekoa euskara batuan.

2.2.2. Sekula objekturik hartzen ez duten aditz deponenteen kasuan gauzak are nahasiagoak dira, eta baitezpadakoa da, aditzaren izaera semantikoa edo haren subjektuarena kontuan hartzea. Aditzak subjektu biziduna eskatzen duenean, datiboan agertzen ohi da hura perpaus kausatiboetan. Alderantziz, subjektu bizigabea eskatzen duenean, absolutiboan ematen ohi da. Horrela *irakin* eta *sofritu* aditzen subjektuak, adibidez, molde desberdinetan agertzen ohi dira perpaus kausatiboetan:

- *Ura irakinarazi behar da lehenik*
- *Inori ez diogu de baldetan sofriarazi behar.*

*Ura* sintagma *irakin* aditz deponentearen subjektua da eta absolutiboan agertzen da perpaus kausatiboan. Ondoko adibidean, berriz, *inori* sintagma datiboa dagokio *sofritu* aditzaren subjektuari. Erregimen desberdinak dituzte, beraz, perpaus kausatiboetan, subjektu mota desberdinak eskatzen dituzten objekturik gabeko aditz ergatibodun horiek.

Mendealdean aditz deponenteen subjektu bizigabeak ere datiboan agertzen dira batzuetan:

- *Baña gi onezkoak ere aita izan nai du ta onela bere biziari irauin erazi ondorengoen birtartez* (M. Atxaga, *Gaztetxo*).

Hala ere, ez da joera hori aldebat zabaldua, eta badirudi euskara batzerakoan beste joera hoberena dela:

- *Gerardoren aburuz, aipatzen diranetako koplak batzuk galdu baziran, egilleak (...) paperean irauin arazi etzitulako galdu ziran* (Gaztelu, *Musika ixilla*)
- *Orrelako erriek gaur arte irauin izan dute (...) eta pentsatzekoa da Jainkoak irauin arazi dituala* (L. Villasante, *Kristau fedearen sustraiak*).

Alderantziz, Iparraldeko zenbait mintzamoldetan joera nabaria da aditz deponenteen subjektu bizidunak bizigabeak bezala absolutiboan uzteko:

- *Sofriarazi ninduten.*

Holakoetan ere batasunaren bidea hausten baita, hobe da beti datiboan uztea aditz deponenteen subjektu bizidunak.

Aditz deponenteez ari baikara, gogorarazi behar da, bestalde, euskalki guztiak ez datozela bat aditz deponenteen finkatzeko orduan. Adibidez *bazkaldu* edo *afaldu* aditzak NORK aditzak dira mendealdean, eta NOR aditzak berriz ekialdean. Halaber, *irten* / *urten* aditza ergatiboduna da toki batzuetan eta ergatiborik gabea beste batzuetan. Erran gabe doa, arabera aldatzen direla aditz horiek perpaus kausatiboetan dituzten erregimenak.

*Bazkaldu* NOR aditz gisa darabilten euskalkietan absolutiboan agertzen da haren subjektua perpaus kausatiboetan. Aitzitik, aditz hori NORK aditz gisa darabilten euskalkietan, datiboan ematen ohi da:



- *Bazkaldu ez bazara, orain bazkalaraziko zaitut*
- *Bazkaldu ez baduzu, orain bazkalaraziko dizut.*

Hau da, horrenbestez, Euskaltzaindiaren erabakia *arazi* aditz arazlearen erregimenaz:

1. *Arazi*-ren subjektua beti ergatiboan doa: *Koldok etorrarazi du Mikel.*

2. Oin aditzaren objektua beti absolutiboan: *Sagararak salarazi ditugu.*

3. Oin aditza iragankorra denean, subjektua datiboan darama: *Niri liburua irakurrarazi zidaten.*

4. Oin aditzaren subjektua absolutiboan doanean, absolutiboan ageri da perpaus kausatiboan ere: *Mikel jararazi dute.*

5. Oin aditzaren subjektua ergatiboa baldin bada eta agerian objekturik ez badu, bi egoera bereizi behar dira:

a) Objektua ezabatua edo aditzari atxikia duten aditzekin datiboa eskatzen du subjektuak: *Mikeli janarazi diote; Mikeli irri eginarazi diote.*

b) Sekula objekturik hartzen ez duten aditz deponentekin, aditzaren izaera semantikoa kontuan hartu behar da. Aditzak subjektu biziduna eskatzen duenean, datiboan ageri da (*Inori ez diogu pairarazi behar*), baina subjektua bizigabea bada, absolutiboa (*Ura irakinarazi dute*).

Ikus Euskaltzaindiak 1994ko abenduan gai honi buruz harturiko bestelako erabakiak: ikus ARAU bilduma honetako 125. or.

(Euskaltzaindiak, Usurbilen, 1995.eko irailaren 29an onartua)

## 44

## HIZTEGI BATUA

## Laburdura-zeinuak

anton.	antonimoa
e.	<i>erabil</i> : aurreko (edo sarrerako) forma izartxoaz markatu da: Euskaltzaindiaren ustez, baztertzekoa da (ez derrigor forma okerra), eta ondotik ematen dena da ordezko egokia.
h.	<i>hobe</i> : aurreko forma baino egokiagoa da ondotik ematen dena (aurrekoa ere onartzekoa da, baina bigarren mailan onartzekoa: erabileremu mugatuagokoa, maila apalagokoa, etab.).
=	sarrerakoaren "pareko" formak eskaintzen dira ondoren (ez dira beti sinonimoak; gerora finduko dira nabardurak).
pl.	plurala adierazteko
zah.	hitz zaharkitua

## 1. Hiztegi Batuko iturriak

Euskaltzaindiak oraindainokoa eman dituen hiztegitzako zerrendak, hasi 1968ko *Batasunerako Hiztegia*-tik, 1978ko *H letraren ortografi arauak*, 1975eko *Zortzi Urte arteko ikastola Hiztegia*, bi ediziotan (1974, 1984) argitaratu zuten *Merkatalgo Izendegia*, *Matematika Hiztegia* (1978), eta beste zerrenda laburrago batzuen ondoan, 1986an emaniko *Maileguzko hitz berriei buruz Euskaltzaindiaren Erabakiak*.

Zerrenda hauek guztiak berrikusi nahi izan dira, izan duten onarpen maila neurtu, eta, gaur duzun informazio zabalagoaren argitan, berretsi nahiz beste formaren bat proposatuz.

Azkenik, oinarriko euskal hiztegi bat lortu nahian, mende honetan maizen erabiltzen diren formak erantsi zaizkio batetik, eta tradizioan ongi oinarrituak bestetik; baita forma berriagoak ere, osaera zuzeneko izanik, premia bati erantzuteko egokitzat jo direnean.

Hauek izan dira, beraz, iturriak eta horrexegatik gertatzen da zenbait forma falta izatea eta beste batzuk, ostera, gaur hainbesteko erabilerarik ez dutenak egotea. Hurrengo pasaldietan osatzekoa da, hortaz, orain eskaintzen den zerrenda. Honek ez du esan nahi, bestalde, zerrendan azaltzen ez diren hitzak batasunerako egokiak ez direnik; aipatu iturrietan etorri ez direlako ez daude hemen.

## 2. Irizpideak

Forma bat edo beste erabakitzeko orduan, irizpide nagusiak hauek izan dira:

- Tradizio idatzia, gaur modu oso eta erosoagoan eskuan duguna.
- Alde bateko eta besteko euskaldunak batzen gaituzten formak hobetsi dira. Mailegucetan, esaterako, arreta handiz begiratu da inguruko bi erdarak gutxienez bat datozen. Forma bakarrera iris-

teko oinarrirek edo indarririk ikusi ez denean, forma lehiakideak eskaini dira kasuan kasuko oharrak eginez. *Azkalaz, atzazal, azazkal* izan daiteke horrelako kasuen adibide.

### 3. Emaiza

Landu den zerrenda, FORMA batuena da nagusi-nagusiki. Formaz gain, informazio osagarriak ere badira tarteka, dela erabileremuaz (Ipar. / Heg., lagunartekoa, jasoa...), dela erabilera sintaktikoaz, erregimenaz, adieraz, etab. Ohar hauek, esan gabe doa, ez dira erabatekoak, edo, nahiago bada, oso maila apalekoak dira eta maizenik forma bera ulertzeko beharrezkotzat jo direnak.

Aditzetan, partizipio burutuaz gain aditzoinaren eta partizipio burutugabearen forma ere ematen da. Hau dela eta, zenbaitetan ageri diren aukera bikoitzak (*ahuldu, ahul(du), ahultzen* bezalakoak), Euskaltzaindiak bere garaian harturiko erabakiaren ondorio dira; alegia, izen, izenondo nahiz aditzondoetarik eratorritako aditzetan, *ahuldu dadin* nahiz *ahul dadin* onartu direla adierazi nahi da.

Sarrera nagusien ondoan, tradizioan ongi errotutako hitz eratorri, esapide, etab., azpisarrera moduan jaso dira.

Beharrezko ikusi denean, hitzen erabilera zuzenez ere egin dira oharrak, dela zuzenean —*afixa* (eta ez *\*afitxa*)—, dela zeharka —*akabatu* ‘hil’ adierakoa dela esaten da eta, horrenbestez, erabiltzaile zuhurrak ulertzen du ez dela ‘amaitu’ adieran erabiltzekoa—. Ildo beretik, landare eta animalien zientzia izena adierazi da, argigarri gerta zitekeela uste izan denean.

## a-alkohol

a ‘a!’

**ababor**

**abade** 1 monasterioko burua 2 *Bizk.* apaiza

**abadesa**

**abadetu**, **abade(tu)**, **abadetzen**

**abadia**

**abagune**

**abaildu**, **abail**, **abailtzen**

**abakando** (*Homarus gammarus*)

**abandonatu**, **abandona**, **abandonatzen** h. **utzi**; **alde batera utzi**, **bertan behera utzi**

**abangoardia**

**abantaila**

**abantaila eraman**

**abao** = **abaraska**

**abar** adar txikia

eta **abar** (badu ohiko laburdura: *etab* ; honen parekoa da *etc / eta abar luze bat* eraikuntza desegokia da)

**abaraska** = **abao**

**abartz** (*Quercus coccifera*)

**abarka**

**abarkadun** ‘baserritarra’

**abarketa** ‘espartina’

**abaro**

**abaro egin**

**abaroan egon**

**abarrakitu**, **abarraki**, **abarrakitzen** = **suntsitu**

**abarrots\*** e. **harrabots**

**abatz**

**abegi**  
**abel xehe\* e. abere xehe**  
**abelazkuntza**  
**abelera**  
**abeletxe**  
**abelgorri**  
**abeltegi**  
**abeltzain**  
**abeltzaintza**  
**abeltzantza\* e. abeltzaintza**  
**abemaria = agurmaria hiru abemaria errezatu zituen; abemarietan geratu dadila danbolina**  
**abemarietako dorreko kanpaiak abemarietakoa jo zuenean**  
**abendu**  
**abeniko**  
**abenka**  
**abentura**  
**aberasbide**  
**aberasgarri**  
**aberasasun**  
**aberastu, aberats/aberastu, aberasten**  
**aberats**  
**abere**  
**abere xehe**  
**abere-hiltzaile**  
**aberria 1 h. matxura 2 'kalte handia'**  
**aberri**  
**aberrigabe**  
**aberriratu, aberrira, aberrirutzen**  
**abertzale**  
**abertzaletasun**  
**abesbatza**  
**abeslari**  
**abestalde**  
**abesti**  
**abestu, abes, abesten**  
**abiaburu**  
**abiada**  
**abiadore\* e. pilotu, hegazkilari**  
**abiadura 1 Ipar hastapena 2 Heg lastertasuna**  
**abiagune**  
**abian lan hau abian jarri zen eguna; joateko abian da**  
**abiapuntu**  
**abiarazi, abiaraz, abiarazten**  
**abiatu, abia, abiatzen**  
**abiatze**  
**abiazio**  
**abil**  
**abilezia**  
**abilki**  
**abio**  
**abioi h. hegazkin, aireko (cf aireplano)**  
**abisatu, abisa, abisatzen Ipar du aditza, Heg dio aditza**  
**abisu**  
**abitu**  
**abizari**  
**abizen = deitura**  
**ablatibo**  
**abokatu = legelari, legegizon**

**abonamendu**  
**abortatu**, aborta, abortatzen  
**abortatze**  
**abortu**  
**abortza**  
 abots\* e. **ahots**  
**abside**  
**absente**  
**absentzia**  
**absolbitu**, absolbi, absolbitzen  
**absolutu**  
**absoluzio**  
**abstraktu**  
**abstrakzio**  
**absurdu**  
**aburu**  
**aburumenka** 'iritzira'  
**abusatu**, abusa, abusatzen  
**abuztu**  
**abzisa**  
**adabaki**  
**adabatu**, adaba, adabatzen  
**adabegi**  
**adaburu**  
**adaje**  
**adaki**  
**adar** 1 'animalien bezur luzakina' *akerrak adarrak okerrak ditu* 2 'zuhaitzen enborretik ateratzen den besoa' *pagoaren adarrak moztu* 3 'musika tresna' *adar hotsa entzun* 4 'bidearen, zientzien, etab.en zatia'  
**adarra jo**  
**adarbakar**  
**adardun**  
**adareta** golde mota  
**adargabe**  
**adarka**  
**adarkada**  
**adarkadura**  
**adarkatu**, adarka(tu), adarkatzen  
**adarra jo** *niri behintzak ez didazu adarrik joko!*  
**adartsu**  
**adasdun**  
**adats**  
**adausi**  
**adaxka**  
**adberbio**  
**adei**  
**adeitasun**  
**adeitsu**  
**adelatu**, adela, adelatzen *Batez ere Zub* 'prestatu, apailatu'  
**adi egon**  
**adia**  
**adiakatu**, adiaika, adiakatzen  
**adibide**  
**adibidez**  
**adiera**  
**adierazgarri** 1 *iz besoa zeraman taldearen adierazgarria* 2 *izond adibide adierazgarriak aipatu ditu*  
**adierazi**, adieraz, adierazten  
**adierazkor** *hitz adierazkorren ortografia*  
**adierazle**  
**adierazpen**

**adierazpide**  
**adierraz**  
**adigai**  
**adigaitz**  
**adikatu, adika, adikatzen**  
**adimen**  
**adimendu h. adimen**  
**adin 1 'edadea' 2 Bizk zah 'adimena'**  
**adina**  
**adinako**  
**adinbat 'hainbat, adina, beste'**  
**adindun anton. adingabe(ko)**  
**adineko**  
**adingabe(ko) anton. adindun**  
**adinon**  
**adintsu**  
**adio**  
**adiskidantza**  
**adiskide**  
**adiskidetasun**  
**adiskidetu, adiskide(tu), adiskidetzen**  
**aditu 1: aditu, adi, aditzen ad 1 'entzun' 2 'ulertu' 3 'usaimenaz sumatu'**  
**elkar aditu**  
**ez aditu(arena) egin**  
**aditu 2 izond eta iz lege kontuetan adituek diotenez**  
**aditz**  
**aditzaile aditzaile onari, hitz gutxi**  
**aditze**  
**(zerbaiten) aditzea izan: badut horren aditzea**  
**aditzera eman (korritzen duen jakitera eman baino egokiagoa da)**  
**aditzondo**  
**adizkera**  
**adizki**  
**adizlagun**  
**adjektibo**  
**adjudikatu, adjudika, adjudikatzen**  
**administrari 'administrazioko langilea' administrariak, administrari laguntzaileak**  
**administratzaile 'administratzen duen' ik administrari**  
**administrazio**  
**adoratu, adora, adoratzen**  
**adore**  
**adoretsu**  
**ados**  
**ados egon**  
**ados etorri = bat etorri**  
**ados izan**  
**ados jarri**  
**adreilu**  
**aduan**  
**aduanazain**  
**aerodromo**  
**aeronautika**  
**afaldu, afal, afaltzen**  
**afari**  
**afera**  
**afixa (ez afitxa\*)**  
**ageri izond leku ageria cf agiri**  
**ageri izan, ageri, ageriko garbi ageri da horren bihotz ona**

**agerian**

ageri-agerian (eduki, egon, jarri)

agerian (eduki, egon, jarri)

ageriko = jendaurreko, publiko *politikarien ageriko bizitza; ageriko aurrezkoa*

agerkari

agerpen

agerraldi

agerrarazi

agertu, ager, agertzen *da-du* ad

agertze

agian 1 'beharbada, apika' 2 (adiera berria, *Ipar*) 'oxala'

agindu 1 iz

agindu 2, agin, agintzen *du* ad

aginpide

agintarazi, agintaraz, agintarazten

agintari

agintaritza

aginte

agintza h. agintzari, promes

agintzari

agiraka

agiraka egin

agiri iz 'dokumentua, izkribua, adierazpena' cf ageri

agiriko\* c. ageriko

agonia

agor

agorraldi = agorte

agorri h. abuztu

agorte = agorraldi

agortu, agor(tu) agortzen *da-du* ad

agotz\* c. ahotz

agudo 1 *Heg* adlag 'laster' 2 *Ipar* izond 'trebea'agur 1 'diosal hitza' *entzuleok, agur!* 2 'agurtzea' *bere agurra helarazi digu errektoreak*

agur egin

agure (hitz markatua da, gutxiespen balioa du eskuarki, eta ezin erabil daiteke *adineko*-ren sinonimo oso balitz bezala)

agurgarri

agurmaria = abemaria

agurtu, agur(tu), agurtzen *du* ad

ahabia

ahago

ahaide

ahaidego h. ahaidetasun

ahaidetasun

ahaire

ahakar = aharra

ahal

ahalaz

ahal izan, ahal izan, ahal izaten, ahalko / ahal izango *ekarri ahal izateko; etortzen ahal da; ahal dela; ahal den sailik handiena; ezin konta ahal*

ahal adina(ko)

ahal bezain

ahal bezainbat

ahal bezala

ahal izate

ahala *iritisi ahala eseri dira; esan ahalak esan dizkiote elkarri, etab*ahalaz L BN 'ahal den neurrian' *euskara ahalaz garbia darabil; saiatzen dira ahalaz gordetzen lehengo ohiturak*

ahalbait\* c. albait  
 ahalbide  
 ahaldun  
 ahaldundi\* c. aldundi, diputazio  
 ahalegin = eginahal  
 ahalegindu, ahalegin(du), ahalegintzen *da ad -t (z) en (esaten, bukatzen, etab) ahalegindu*  
 ahalge\* e. ahalke  
 ahalguztidun  
 ahalik (*ahalik -en(a)*): lege zaharra *-a* eta guzti egitea zen: *ahalik maizena, sarriena, etab*; ahalik gar-  
 biena, osoena, ederrena, etab)  
 ahalke  
 ahalkeizun  
 ahalmen  
 ahaltu  
 ahamen  
 ahantzi, ahantz, ahantzen *da-du ad*  
 ahanzkor  
 ahantzte  
 ahapaldi  
 ahardi  
 ahari  
 aharra = ahakar  
 aharrausi  
 ahate  
 ahats *zah. h. zikin*  
 ahazkor  
 ahazte  
 ahaztu, ahatz, ahazten *da-du ad / zaio ad* (Cf *euskaraz hitz egiTEN ahaztu zaio / bigarren galderari erantzuteA ahaztu zaio*)  
 ahi  
 ahiazi, ahiaza, ahiazaizten  
 ahitu, ahi(tu), ahitzen *da ad* 'agortu, bukatu'  
 ahizpa  
 aho  
     aho batez  
     aho betean  
     aho zabalik  
     aho zabalka  
     ahotan  
     ahotik ahora  
     ahoz  
     ahoz aho  
     ahoz behera  
     ahoz gora  
     ahozko  
 aholkatu, aholka, aholkatzen *du ad* = aholku eman *Norbaitek norbait zerbait egitera aholkatu; ahol-  
 katu zuen Adan hark ere har zezan sagar hartarik*  
 aholku  
     aholku eman  
 aholkularitza  
 ahoskatu, ahoska, ahoskatzen  
 ahots  
 ahoz  
 ahozko  
 ahuku  
 ahul  
 ahularazi, ahularaz, ahularazten  
 ahuldade



**ahuldu**, ahul(du), ahultzen  
**ahuleria**  
**ahulezia** h. ahuldade, ahuleria, ahulkeria, ahultasun  
**ahulkeria**  
**ahultasun**  
**ahuntz**  
 ahuña\* e. antxume, ahuña  
 ahuña *Zub* h. antxume  
**ahur** 1) 'eskuaren barrualdea' 2) Mat eta Fis.etan izond *poligono ahur edo konkaboa* ik **konkabo**  
**ahutz**  
**ai = aiei**  
**aiduru** (**aiduru** (egon, gelditu) esapidcetan agertzen da batez ere)  
**aiei = ai**  
**aienatu**, aiena, aienatzen *du ad*  
**aicne**  
**aieru**  
**aihen**  
**aiher**  
     **aiher izan**  
**aiherkunde**  
**aiher**tu, aiher(tu), aiheretzen  
**aihotz**  
**ailegatu**, ailega, ailegatzten h. iritsi, heldu  
 aina\* e. adina  
**ainara** h. enara  
 ainbat\* e. adinbat, hainbat  
**aingeru**  
**aingira**  
**aingura**  
 ainitz\* e. anitz  
**aintza**  
**aintzakotzat**  
**aintzat = aintzakotzat**  
     aintzat eduki  
     aintzat eman  
     aintzat hartu  
 aintzin\* e. aitzin  
**aintzira**  
**aio**  
**aipagarri**  
**aipamen**  
**aipatu**, aipa, aipatzen *du ad*  
**aipu**  
**airatu**, aira, airatzen *da-du ad*  
**aire**  
     **aire girotu** *aire girotua jarri dute*  
**aireberritu**, aireberri, aireberritzen  
**aireberritze**  
**airebide**  
**aireko** h. hegazkin  
**aireontzi** edo **aireuntzi**  
**aireplano** *zah* h. hegazkin, aireko  
**aireportu**  
**aireratu**, airera, aireratzen  
**aisa** h. aise  
**aise**  
**aita**  
     **aita ponteko**

**aitabitxi**  
**aitaginarreba**  
**aitaita**  
**aitajaun** 1 'aitona' 2 'aita pontekoa'  
**aitaren**  
     **aitaren egin**  
     **aitaren batean**  
     **aitarenka**  
**aitarenka**  
**aitatu** 1 'aita egin' 2 h. **aipatu**  
**aitatxi**  
**aitona**  
**aitor**  
     **aitor egin**  
     **aitor eman**  
     **aitor-entzule**  
**aitor izan**  
**aitoren alaba**  
**aitoren seme**  
**aitorle**  
**aitormen**  
**aitorpen**  
**aitorrazazi, aitorraraz, aitorrarazten**  
**aitortu, aitor, aitortzen**  
**aitortza**  
**aitzaki\*** e. **aitzakia**  
**aitzakia**  
**aitziko** 'aurkakoa'  
**aitzin**  
     **aitzina**  
     **aitzinean**  
     **aitzineko**  
     **aitzinetik**  
**aitzina**  
**aitzinalde**  
**aitzinatu, aitzina(tu), aitzinatzen**  
**aitzindari**  
**aitzinean**  
**aitzineko** (badu izen erabilera, 'arbaso', 'aitzindari' adieretan)  
**aitzinetik**  
**aitzitik**  
**aitzur**  
**aitzurdin\*** e. **haitzurdin**  
**aiurri**  
**aiuta**  
**aiutu** izond *Bizk*  
**aizkora**  
**aizipa\*** e. **ahizpa**  
**aiyto**  
**aitzur = guraize = artazi** (pl)  
**akabantza**  
**akabatu, akaba, akabatzen** 'hil'  
**akabera**  
**akabo**  
**akabu**  
**akademia**  
**akats**  
**akeita\*** (bartzertua 'kafe' esanahiarekin)

**akazia**  
**akelarre**  
**aker**  
**aketz**  
**akitu**, aki, akitzen, 'asko nekatu'  
**akorazatu\*** e. **korazatu**  
**akordeoi** = esku soinu  
**akordio**  
**akort**  
     **akort izan**  
**akta**  
**aktibo**  
**akto**  
**aktore**  
**akuarela** = urmargo  
**akuario**  
**akuilu**  
**akura**  
**akuratu**  
**akusatzaille**  
**akusatu**  
**akusazio**  
**akzio** (cf **azio**)  
**al** 'galde partikula'  
**ala 1** *txantxetan ari zara, ala?*  
**ala 2** *alafede!, alajainkoa!* (bereiz idaztekoa da esapide berri fosildu gabeetan, adib *ala Tutatis!, ala Zeus!, etab*)  
**ala 3** 'gabarra mota'  
**ala 4\*** e. **alha**  
**alaba**  
**alabaina** 1 'hala ere' 2 'izan ere'  
**alafede**  
**alai**  
**alaitasun**  
**alaitu**, alai(tu), alaitzen *da-du* ad  
**alajaina**  
**alajainkoa**  
**alanbre**  
**alargun**  
**alarma**  
**alatu**, ala(tu), alatzten *du* ad *Bizk* 'sufritu'  
**albaindu**, albain, albaintzen  
**albait** *ukaldia albait zuzentzen dute begira eta sudurrera; albait merkeen ipini dituzte salgai beren uztak; albait lasterren etortzeko eskatu digu*  
**albaitari**  
**albaitero** h. **albaitari**  
**albiriste**  
**albistari**  
**albiste**  
**albo**  
**alboratu**, albora, alboratzen  
**alborengo**  
**album**  
**aldaera**  
**aldagai**  
**aldagailu** (ez da 'aldatzeko tresna')  
**aldagela**  
**aldaketa**

aldaki  
aldakor  
aldakuntza  
aldamen  
aldamio  
aldapa

aldaratu, aldera, aldaratzen 'urrundu' (anton. **alderatu** 'hurbildu') *-ik* aldaratu (*aldara hadi ene bi-detik*); *-ra* aldaratu (*maiz aldera zaitez zure bihotzaren bakar-tokira*); *-z* aldaratu (*neu ere tokiz aldaratu naiz frankotan*)

aldarazi, aldaraz, aldarazten

aldare  
aldarrikatu, aldarrika, aldarrikatzen *du* ad

aldats  
aldatu, alda, aldatzen *da-du* ad  
aldatze

aldaxka = kimu

alde 1 *alde handia dago batetik bestera*

alde 2 *mendiaren alde honetan*

aldean eduki

aldean eraman

alde egin (eta alde hemendik!)

*-en* alde egin (norbaiten alde atera (jokatu, mintzatu, etab) )

aldean beste

alde bat

alde batera

alde bat utzi

alde batera utzi

alde guztiz

aldera (ik beherago)

alderako

alderen alde = alderik alde

aldetik

aldez (ik beherago)

alde 3 = talde

aldeko

aldu, alden, aldentzen

aldera *karitatea behar da guztien aldera; bere hartzekoaren aldera izan ditu ehun libera; adibide batzuk jarriko ditugu, lana errazte aldera*

alderantziz

alderantzizko

alderatu, aldera, alderatzen 'hurbildu' (anton. **alderatu** 'urrundu')

alderdi

aldez

aldez alde

aldez aurreko

aldez aurretik

aldez beste(ko)

aldez edo moldez

aldi

aldian behin

aldiriko tren

aldiz lokailua ('berriz, ostera') *gutxi hiltzen ditu goseak; anitz, aldiz, aseak*

aldizka

aldizkako

aldizkari

aldrebes izond (*ume aldrebesa, arrazoi aldrebesak*); adlag (*dena aldrebes, dena atzekoz aurrera*)

aldundi

ale 1 'bihia, garaua' (*arto-alea, gari-alea*; cf kafe-bihi, gatz-garâua; *ez da ikaslerik agertu, ezta alerik ere*); 2 'batekoa, unitatea' (*liburu berriaren ale bana eskaini digu*); 3 hitz-elkarketaren bigarren osagai gisa 'handia, ezustekoa' (*Hura gizon-alea!*) = **bihi, garau**

aleazio

alegera

alegia 1 'partikula' 2 'ipuina'

aleluisa

alfabetatu, alfabeta, alfabetatzen

alfabetatze

alfabeto

alfer

alferlan cf alper

alferkeria

alferrik

alferrik galdu

alferrrikako

alfonbra = tapiz

algara

algoritmo

alha

alhapide

alharazi, alharaz, alharazten

alhatu, alha(tu), alhatzen 1 *da ad* "bazkatu, larratu" *behiak eta behorrak han alhatzen dira*; 2 *du ad* "alharazi" *bazka gurietan alhatuko ditut neure ardiak*

aliketa

alimale izond *Alimale(ko) liburua*; *bizar alimaleko batekin*; *mutil alimale traste bat*

alkandora

alkar\* e. elkar

alkate = auzapez

alki\* e. aulki

alkohol

(Euskaltzaindiak, Usurbilen, 1995.eko irailaren 29an onartua)

## 45

## GURE EGITURA POLITIKO BATZUEN EUSKAL IZENEZ

Euskaltzaindiari aspalditik egin zaizkio galderak eguneroko inhardueran asko erabiltzen ditugun zenbait hitzi buruz. Horien artean sartzen dira izen ofizial batzuk, hala nola, *Nafarroako Foru Komunitatea*, *Euskal Herriko Autonomi Elkartea*, *Europako Ekonomi Elkartea*, e.a. Hitz hauekin behin baino gehiagotan sortu izan dira kezkak idazlecn eta kazetarien artean ere.

Oro har, bada zerbait harrigarria Nafarroako eta mendebaldeko hiru herrialde historikoetako euskaldunak kontu hauetan bat ez gatozenez: gauza bakarra adierazi nahi denean, bi izen erabiltzen dira inolako premiarik gabe, batean *komunitate* deitzen zaion bitartean (*Nafarroako Foru Komunitatea*), bestean *elkarte* esaten baitzaio (*Euskal Herriko* —edo *Euskadiko*— *Autonomi Elkartea*). Bada hemen, Euskaltzaindiaren ustez, zerbait zuzentzekoa.

*Elkarte* hitza da azken urteotan gehien erabili izan dena *komunitate* erdal hitzaren ordainez, XIX. mendean Europan sortu zen *komunitate* kontzeptua adierazteko; baina *komunitate* hitza, erdal hitza baldin bada, *elkarte* hitza, ostera, orokorregia da eta zabalegia, parean jartzen baititu, azken batean, “muslarien elkarteak”, “Europako elkarteak” eta “Euskadiko elkarteak” ere, horiek ezin direlarik, inola ere, maila berean jarri. Bistan da kantari batzuen elkarteak maila apalagoa duela Euskadikoak edo Europakoak baino.

Batasuna nahi badugu, eta Euskaltzaindia hizkuntzaren ikuspuntutik bakarrik mintzo da, hitz bakarra bultzatu behar dela dirudi. Eta hitza bilatzeko orduan, badirudi, euskarak duen altxor aberastean bilatu beharko dela.

Bada hor oso ongi egokitzen den tradizio handiko hirugarren hitz bat, erdarazko *komunitate* eta zabalegia den *elkarte* hitzez bestelakoa: *erkidego* da hitz hori, Espainiako Konstituzioaren itzulpenean ere esanahi honekin erabili izan dena (*komunitate politikoa* adierazteko) eta arazoa konpon lezakeena. Hitz honek bereiziko litzuzke eguneroko *elkarte* arruntak eta politika mailakoak. Hortaz, hitz hau erabili beharko litzateke *elkarte* hitzaren ordez *komunitate politikoa* oro har adierazteko.

Bestetik, Euskaltzaindiak aukeran utzi bazuen ere *autonomi* nahiz *autonomia* erabiltzea hitz elkartetan, kasu honetarako *autonomia* hobetsi du. Aldi berean, *Euskal Herri* eta *Euskadi* baino egokiago ikusten du *Euskal* hitza erabiltzea. Proposamen honek, bere osotasunean harturik, gainera, ez litzuzke egungo siglak aldatuko EAE-ren kasuan.

Beraz, hauek dira Euskaltzaindiak gomendatzen dituen izen ofizialak, hitz hauek Euskal Herriko hiru eremu politikoetan oinarritzen direlako eta bi erkidegoen arteko hizkuntzaren batasuna bultzatzen dutelako:

Nafarroako Foru Erkidegoa

Euskal Autonomia Erkidegoa.

(Euskaltzaindiak, Usurbilen, 1995.eko irailaren 29an onartua)

## 46

## HIZTEGI BATUA

## almendra - arratsalde

almendra *Heg* = arbendol  
 almendrondo *Heg* = arbeldondo  
 almute  
 aloger  
 alokairu  
 alor  
 alper iz 'nekazaritzako tresna'  
 alpinismo  
 alpinista  
 alta lokailua, *Ipar* 'hala ere; beraz; izan ere'  
 alterno  
 altu = garai, gora  
 altuera *Heg* = goratasun, garaiera  
 alturako arrantza  
 altxagarri 1 'legamia' 2 'zerbait altxatzeko, jasotzeko gauza'  
 altxatu, altxa, altxatzen  
 altxor  
 altzairu  
 altzari  
 altzaridenda\* e. altzari denda, altzari-denda  
 altzo  
 alu  
 aluminio  
 alleluia\* e. aleluia  
 ama  
     Ama Birjina  
     ama ponteko  
     ama hizkuntza, ama-hizkuntza  
 amabitxi  
 amaginarreba  
 amai  
 amaiera  
 amaigabe(ko)  
 amaitu, amai(tu), amaitzen  
 amama  
 amanda *Ipar* h. isun

**amandre**  
 amankomun\* e. **komun**  
**amaorde**  
**amaraun**  
**amarra** 1 (animalia) ik **karramarro** 2 'lotura'  
**amarru**  
**amatxi**  
**amen**  
     **amen batean**  
     **amen egin**  
     **amen esan**  
**amerikano** 'Ameriketatik (aberasturik) itzuli den euskal herritarra'  
**amestu**, **amets/amestu**, **amesten**  
**ametrailadora**\* e. **metrailandore**  
**amets**  
     **amets egin**  
     **amets izan** (*askatasuna dute amets*)  
     **ametsetan**  
**ametz**  
**amianto**  
**amildegi**  
**amildu**, **amil**, **amiltzen**  
**amnistia**  
**amodio**  
**amona**  
**amore eman**  
**amorio**\* e. **amodio**  
**amorragarri**  
**amorra**\* e. **amuarrain**  
**amorratu**, **amorra**, **amorratzen**  
**amorrazio** *Heg*  
**amorru**  
**amu**  
**amuarrain**  
**amuts**\* e. **kamuts**  
**anaia**  
**anaiarte**  
**anaidi**  
**anaitasun**  
**analisi**  
**analitiko**  
**analizatu**, **analiza**, **analizatzen**  
**anatomia**  
**anatomiko**  
**anbulantza**\* e. **anbulantzia**  
**anbulantzia**  
**andana**  
**andare**\* e. **panpina**  
**anddere**\* e. **panpina**  
**andere** *Ipar* h. **andre**  
**andereño**  
**andrakila** = **panpina**  
**andrazko batez ere** *Bizk*  
**andre**  
**andregai**  
**andura** (*Sambucus ebulus*)  
**anestesia**  
**anfibio** = **urlehortar**



**anfotero**  
**angelu**  
**angeluar** *Mat*  
**angeluberdin** *Mat*  
**angula** = txitxardin  
**animalia**  
**animatu**, anima, animatzen  
**anitz** izond bezala, *askotariko* da hobestekoa \*industria anitza e. *askotariko industria*)  
**anizkoitz**  
**anizkun**  
**aniztasun**  
**anker**  
**ankerkeria**  
**antena**  
**antibiotiko**  
**antidoto**  
**antigoaleko**  
**antiseptiko**  
**antolaketa** = antolakuntza  
**antolakunde**, 'organizazioa'  
**antolakuntza** = antolakunde  
**antolamendu**  
**antolatu**, antola, antolatzen  
**antolatzaile**  
**antropologia**  
**antsia** (ez da gaztelaniazko 'ansia', baizik 'ardura, kezka, arreta')  
**antsia izan**  
     **antsika**  
**antsiatu**, antsia(tu), antsiatzen  
**antsika**  
**antxume**  
**antz**  
     **antza denez**  
     **antzean**  
**antza** 'dirudienez' *asmoren bat bururatu zitzaien, antza, eta zirt-zart bururatu eta egin*  
**antzaldatu**, antzalda, antzaldatzen  
**antzaldatze**  
**antzara**  
**antze** 'trebetasuna'  
**antzean**  
**antzeko**  
**antzekotasun**  
**antzeman**, antzeman, antzematen (*ez diot antzik eman eta ez diot antzeman, biak onartzen ditu*)  
**antzera\*** (hegaztia) e. **antzara**  
**antzera** gisara (-en antzera)  
**antzerki**  
     **antzerki lan**, antzerki-lan  
**antzetsu**  
**antzele**  
**antzeztu**, antzez, antzezten  
**antzina** 'aspaldi'  
**antzinako**  
**antzinaro**  
**antzinatasun** *euskararen antzinatasuna; lanpostuko antzinatasuna*  
**antzinate**  
**antzo** *gazteak antzo behar du bizi; basakatu zauritua (edo zaurituaren) antzo*  
**antzoki** = teatro (tokia)  
**antzu**

antzutu, antzu(tu), antzutzen  
 apailatu, apaila, apailatzen  
 apain  
 apaindu, apain(du), apaintzen  
 apaindura  
 apaingarri  
 apaintzaille  
 apaintze  
 apaiz  
 apaizgai  
 apaizgaitegi  
 apaiztu, apaiz(tu), apaizten  
 apal 1 izond *persona apala; boz apala;*  
 apal 2 iz *apal berriak jarri ditugu paretan*  
 apaldu, apal(du), apaltzen  
 apalki  
 apaltasun  
 aparailu, 'arrantza tresneria', 'zamarien tresneria'  
 aparatu *arnas aparatu* cf arnas  
 aparkaleku  
 apart\* e. aparte  
 aparta *trebetasun aparta du neska horrek*  
 apartamentu  
 apartatu, aparta, apartatzen (behe mailan erabiltzen da 1 G-B 'aukeratu' 2 'bereizi')  
 aparte h. bereiz, urruti  
 aparteko  
 apenas 'ez dirudi' (aditzean *n* darama ondoren)  
 apeta  
 apez h. apaiz  
 apezpiku  
 apika  
 apiril  
 aplikatu, aplika, aplikatzen  
 aplikazio  
 apo harmatu\* e. apoarmatu  
 apo  
 apoarmatu  
 apostolu  
 apostu\* e. apustu  
 apostura h. apustu  
 apote  
 apotema  
 apendiz batez ere *Ipar*  
 aprobetxatu, aprobetxa, aprobetxatzen  
 apropos 1 adlag 'berriaz' 2 izond 'egokia'  
 apuko aitzakia, estakurua  
 apuntatu *Heg*  
 apur  
 apurka  
 apurkeria  
 apurkor  
 apurtu, apur(tu), apurtzen  
 apustu (bigarren mailakoak dira *apostura, postura*)  
 aquarium\* e. akuario  
 ar  
 arabera  
 araberako  
 arakatu, araka, arakatzen

**aran** (*Prunus domestica*)  
**arantza**  
**ararteko**  
**arasa**  
**aratxe**  
**aratz**  
**arau** 1 iz 2 adlag a) 'ahala' sartu arau hiltzen zituen; b) '-en arabera' leku arau sortzen dira landareak  
**araudi**  
**araupetu**, araupe, araupetzen  
**arautegi**  
**arautu**, arau(tu), arautzen  
**arazle**  
**arazo** iz  
**araztasun**  
**araztegi**  
**araztu**, aratz/araztu, arazten  
**arbaso**  
**arbel**  
**arbendol**  
**arbendolondo**  
**arbi** 1 (*Brassica napus*) 2 'arraba'  
**arbola**  
**arbolazaintza**  
**arbuiagarri**  
**arbuiatu**, arbuia, arbuiaitzen  
**arbuio**  
**ardagai**  
**ardandegi**  
**ardangela**  
**ardantze** = mahasti  
**ardatz**  
**ardazketa**  
**ardazle**  
**ardi**  
     **ardi esne**, ardi-esne  
     **ardi gazta**, ardi-gasna  
     **ardi larru**, ardi-larru  
**ardit**  
**ardo**  
**ardura** 1 iz 'axola, arreta' 2 adlag *Ipar* 'maiz'  
     **ardura izan** 'axola izan'  
**arduradun**  
**arduragabe**  
**ardurape**  
**arduratsu**  
**arduratu**, ardura(tu), arduratzen *da-du* ad  
**are** 1  
     **are ...ago**  
     **are gehiago**  
     **are ere**  
     **are gutxiago**  
**are** 2 'laborantza tresna'  
**area** 'neurria'  
**areago**  
**areagotu**, areago(tu), areagotzen  
**arean**  
     **arean bai** 'zerbait'  
     **arean ez** 'deus ez'

**arerio**  
**arestian**  
**areto**  
     **areto girotua**  
**aretze\* e. aratxe**  
**argal**  
**argazki**  
**argazkilari**  
**argazkilaritza**  
**argi**  
**argibide**  
**argiketari**  
**argiontzi**  
**argiro**  
**argitaletxe**  
**argitalpen**  
**argitara eman**  
**argitaraldi**  
**argitaratu, argitara, argitaratzen**  
**argitaratzaile**  
**argitasun**  
**argiteria**  
**argitsu**  
**argitu, argi(tu), argitzen** I ad 1 'argi egin' 2 'eguna zabaldu' 3 'argiagi bihurtu' 4 'ikusmena bihurtu'  
     II izond ' (persona) aditu, ikasia'  
**argizagi = astro**  
**argizari**  
**argudiatu, argudia, argudiatzen**  
**argudio**  
**argumentu**  
**argurio\* e. argudio**  
**arhe\* e. are** 2  
**ari izan, ari, ariko**  
**ariketa**  
**arima**  
**arin**  
     **erre-arin**  
     **jan-arin(ean)**  
**arin-arin**  
**arindu, arin(du), arintzen**  
**arineketan**  
**aringarri**  
**arinka**  
     **arin-arinka**  
**arinkeria**  
**arinki**  
**arintasun**  
**aristokrazia**  
**arismetika**  
**arismetiko**  
**aritu, ari, aritzen, ari(tu)ko**  
**arizale** *Zub* 'aktorea (pastoraletan)'  
**arka**  
**arkabuz**  
**arkakuso**  
**arkanjelu**  
**arkatz = lapitz**  
**arkeologia**

**arkitekto**  
**arkitektura**  
**arkitu\*** e. **aurkitu**  
**arku**  
**arkume**  
**arkupe**  
**arlo**  
**arlot**  
**arma**  
**armada** = **gudaroste** *itsas armada, aire armada* (ez da, gaztelaniaz bezala, itsasokoa bakarrik)  
**armadura**  
**armagin**  
**armagintza**  
**armairu**  
**armarri**  
**armategi**  
**armatu, arma(tu), armatzen**  
**armiarma**  
     **armiarma sare, armiarma-sare**  
**arnasa** = **hats**  
     **arnasa hartu** (*arnas* forman erabiltzen da hitz elkarketako lehen osagai denean: *arnas apara-tua*)  
**arnasbide**  
**arnasbotatze**  
**arnasestu**  
     **arnasestuka**  
**arnegari**  
**arnegatu, arnega, arnegatzen** 'uko egin'  
**arnegu**  
**arno** *lpar* h. ardo  
**aro 1** 'garaia, sasoia'  
**aro 2** 'eguraldia'  
**arotz**  
**arotzeria** = **zurgintza**  
**aroztegi**  
**arpoi**  
**arra**  
     **arra bete**  
**arraba**  
**arrabio**  
**arrabita** 'biolin mota'  
**arrabota**  
**arrabots\*** e. **harrabots**  
**arrada 1** 'betea, baina ez gainezka'  
**arrada 2** 'badia, portu naturala'  
**arragoa**  
**arrai** L-BN, 'alai, amultsu'  
**arraiki** L-BN  
**arraildu, arrail, arraitzen**  
     **ogi arraila**  
**arraileria**  
**arrain**  
     **arrain saltzaile, arrain-saltzaile**  
**arraindun**  
**arraingorri** (*Fam Triglidae*)  
**arraio**  
**arraitasun** L-BN  
**arraitu, arrai(tu), arraitzen** L-BN

**arrakala** *Bizk*  
**arrakalatu**, arrakala(tu), arrakalatzen *Bizk*  
**arrakasta**  
**arrandegi**  
**arrandia**  
**arranditsu**  
**arrangura**  
**arrano** (*Aquila sp* etab)  
**arranpa** = **karranpa**  
**arrantza 1** 'arrain harrapatzea'  
**arrantza 2** 'astoarena'  
**arrantzale**  
**arrantzari** *Ipar* eta *naf* = **arrantzale**  
**arrantzu**  
**arrapaladan**  
**arrapo**  
**arrapostu** iz 'erantzuna, ihardespena'  
**arraro**  
**arras**  
**arraspa**  
**arrastada**  
**arrastaka**  
**arrastegi**  
**arrastelu**  
**arrasti** *Bizk*  
**arrastiri**  
**arrasto**  
**arratoi** (*Rattus sp*)  
**arrats**  
**arratsalde**

(Euskaltzaindiak, Bilbon, 1995.eko urriaren 27an onartua)

## 47

**HIZKUNTZA HILAK ETA KLASIKOAK**

Akadiera (Mesopotamia)

Akitaniera

Avestera (Pertsia zaharrekoa)

Dalmaziera (Kroazia)

Egiptoera

Eskoziako gaeliko (*eskoziera*, aldiz, gaur egun han egiten den ingeles dialektala da)

Etrusko

Feniziera

Gotiko

Greziera / Greko

Hatiera (= Aurrehitiera)

Hitiera

Hurriera (Mesopotamia)

Iberiera

Indoeuropera / Indoeuropar hizkuntza

Koptoera (Egiptoko kristauen erlijio hizkuntza)

Kornubiera \*

Latin

Lidiera (Anatolia zaharrekoa)

Likiera (Asia Txikia)

Luvitera (Anatolia)

Manxera (Manx uharteko gaelikoa)

Meroera (Nubiakoa)

Paliera (Indiakoa)

Pehleviera (Pertsia)

Prakrito (India)

---

\* Kornubia edo Kornualles-ekoa

Sanskrito

Sumeriera (Mesopotamia)

Tokhariera (Pamir, Txina aldean)

Tximuera (Peru)

Ugaritera (Siria)

Urtuera (Mesopotamia)

Vediko (India zaharra)

Volapük

Zeltiberiera

(Euskaltzaindiak, Bilbon, 1995.eko urriaren 27an onartua)



## 48

## HIZTEGI BATUA

## arraun - azuzena

**arraun**  
     **arrauncan** (ari, ibili,...)  
**arraunketa**  
**arraunlari**  
**arrautza**  
     **arrautzopil**  
**arraxin** *Ipar* = erretxina  
**arraza**  
**arrazional**  
**arrazoi** Egokiago *arrazoi duzu* cdo *arrazoia duzu*, *arrazoia daukazu* baino  
**arrazoibide**  
**arrazoiketa**  
**arrazoimen**  
**arrazoinamendu** *Ipar* = arrazoibide  
**arrazoitu**, arrazoi(tu), arrazoizten  
**arrazoizko**  
**arre 1** 'kolorca'  
**arre 2** agindu hitza  
**arriba**  
**arregaketa\*** e. ureztapen  
**arren**  
     **arren egin**  
     **arrenka**  
**arrenka**  
**arrenkura\*** e. arrangura  
**arreta**  
     **arretaz**  
     **arretazko**  
**arretatsu**  
**arretaz**  
**arrimatu**, arrima, arrimatzen  
**arrimu 1** *Heg* 'laguntza' 2 *Ipar Zah* 'ordena, moldaketa'  
**arriskatu**, arriska, arriskatzen  
**arrisku**  
**arriskugarri**  
**arriskutsu**  
**arro** *Deba* ibaiaren *arroa*  
**arroa** pisu neurria *hamabi arroako zerria*  
**arroila**

**arroka** (ez da itsasokoa edo itsasertzekoa bakarrik)  
**arront\***, e. **arrunt**  
**arroltze** h. **arrautza**  
     **arroltzopil** h. **arrautzopil**  
**arropa**  
**arrosa**  
**arrosario**  
**arrosel**  
**arrotz**  
**arroz**  
**arroztegi** 'Etxegabeentzat eta izan ohi den ostatu doakoa'  
**arroztu**, **arrotz/arroztu**, **arrozten**  
**arrubi\***, e. **arrabio**  
**arrubio\***, e. **arrabio**  
**arrunt**  
     **arruntean** 'eskuarki, gehienetan'  
**arta** 'arreta, ardura'  
**artaburu**  
**artajorra**  
**artalde**  
**artale**  
**artatu**, **arta(tu)**, **artatzen**  
**artatxiki**  
**artatzaile**  
**artazi** = **aiztur** = **guraize** (pl)  
**artazuriketa**  
**artazuritze**  
**arte** 1 posposizioa (*bihar arte*; *zu isildu arte*)  
**arte** 2 tartea, bitartea (*etxetik lantegirako arte horretan gertatua*)  
**arte** 3 1 'amarrua'; 2 'trebetasuna'; 3 'ertia'; 4 'animaliak harrapatzeko tresna'  
**arte** 4 zuhaitz mota (*Quercus ilex*)  
**artean**  
**artega**  
**artegai\*** e. **artelan**  
**artegatasun**  
**artegatu**, **artega(tu)**, **artegatzen**  
**artegi**  
**artegintza**  
**arteka**  
**arteko**  
**artelan**  
**artelatz** *Quercus suber*  
**artelazki** = **kortxo**  
**arteria**  
**artetsu**  
**artez**  
**artezkari**  
**artezkaritza**  
**artezki** 'trebeki'  
**arteztasun** 'zuzentasuna'  
**arteztu**, **artez(tu)**, **artezten** 'zuzendu'  
**artifizial**  
**artikulazio**  
**artikulu**  
**artile**  
**artileria\*** e. **artilleria**  
**artilleria**  
**artisau** = **eskulangile** ('artisau' hitza berriki asmatua da)

**artisautila** = eskulana, eskulangintza (cf 'eskuzko lanak')

**artista**

**artistiko**

**artizar**

**artizki**

**arto**

arto bizar, arto-bizar

arto buru, arto-buru

arto irin, arto-irin

arto jorra, arto-jorra

arto landa, arto-landa

arto zuritze, arto-zuritze

artxibari\* e. artxibozain

artxibatu, artxiba, artxibatzen

artxibo

artxibozain

artxiduke

artzain

artzaingo

artzaintza

artzapezpiku

asaba

asaldatu, asalda, asaldatzen

asaldu

asaldura h. asaldu

asaskaldi

asaskatu, asaska, asaskatzen

ase, ase, asetzen, aseko

asebete, asebete, asebetetzen

aseezin

asegarri

aseguratu

aseguru

asetasun

assignatura\* e. ikasgai, irakasgai

asimilazio

aska

askari

askatasun

askatu, aska, askatzen

aske

aski

aski izan

asko

askotan, askoz... ago

askojakin

askotan

askotxo

askoz (ere)... ago

askozaz (ere)... ago

asmakari 'asmakizuna, aurkikundea'

asmaketa

asmakizun

asmatu, asma, asmatzen

asmatzaile

asmo

asmotan

asmotan

asots *Naf*

aspaldi

aspaldian

aspaldidanik

aspaldiko

aspalditik

aspalditxo

aspaldixko

aspektu

aspergarri

aspertu, asper, aspertzen 1 *Heg* da du ad gogaitu, nekatu *aspertu* naiz *oraintxe etxe honetan*; *ez zaitut gehiago aspertuko horrekin*; 2 *Ipar zah* zaio ad mendekatu *aspertu* *natzaio odoleraino*

aspil\* e. azpil

astakeria

astakilo

astakume

astaña

astapotro

aste

astearte

asteazken

astekari

astelehen

astero

asti

astigar *Acer* sp

astinaldi

astindu, astin, astintzen ad (eta iz *gaurko guraso askok ere merezi dute astindu ederra*)

astiro

astitsu *Bizk*

asto

astro = argizagi

astrologia

astronomia

astun

astundu, astun(du), astuntzen

astuntasun

asuin\* e. asun

asun *Urtica*

asurantz *Ipar*

asurantz *hartu*

aszensore\* e. igogailu

aszetika

at

atabal

ataburu\* e. ateburu

ataka

atal

atari

atarramentu

atarte

ate 1

ate 2 *Zub* meta, pila

ateburu

atera, atera, ateratzen

aterabide

ateraldi

aterbe\* h. aterpe

**atergabe****atergabeko****ateri****aterki****aterpe****aterrune****atertu**, ater, atertzen**atezain****atezaindegi****atezantza\*** e. **atezaintza****atlantiko**, 'Ozeano Atlantikoa' (\*Atlantiko Ozeanoa')**atlas****atleta****atletismo****atmosfera**

atoc\* c. atoi

**atoi****atoian eraman****atomiko** *bonba atomikoa***atomo** *atomo bonba, atomo egitura***atondo****atundu**, aton, atontzen**atorra****atotsi**, atots(i), atosten**atrapatu** *Bizk* (berria) h. **harrapatu****atrebentzia****atrebitu**, atrebi, atrebitzen Lgart (lagunartekoa)**atributu****atrizio** = **beldur damu, beldur-damu****atseden** 1 iz, 2 ad bezala (*atsedeten (egon,...)*) bezalako esapideetan erabiltzen da. Gutxi erabilia)**atseden hartu****atsedenaldi****atsedendu**, atsedendu(du), atsedentzen**atsedenleku****atsedentoki****atsegin** izond eta iz**atsegin hartu****atsegin egin****atsegin eman****atsegin izan** (*du* eta *zaio* ad)**atsegindu**, atsegin(du), atsegintzen da du ad**atsegingarri****atsegintasun****atsekabe****atsekabe(a) hartu****atsekabe(a) eman****atsekabetu**, atsekabe(tu), atsekabetzen**atsitu** *Bizk* = kirastu batez ere izond**atso** (hitz markatua da, gutxiespen balioa du eskuarki, eta ezin erabil daiteke *adineko*-ren sinonimo oso balitz bezala)**atsotitz** = **errefrau, esaera zahar****atsotu**, atso(tu), atsozten**atun** *Thunnus***atungorri****atunzuri****atuntxiki****atuneta****atunketa**

**atunketari**  
**atx!** 'harridura, ezustea, mina' adierazteko interjekzioa  
**atxakia\*** e. **aitzakia**  
**atxeki\*** e. **atxiki**  
**atxiki**, **atxiki**, **atxikitzen**, **atxikiko**  
**atxikiarazi**, **atxikiaraz**, **atxikiarazten**  
**atxikimendu**  
**atxilo**  
**atxiloketa**  
**atxilotu**, **atxilot(u)**, **atxilotzen**  
**atxilotze**  
**atximur**  
     **atximur egin**  
**atximurka**  
     **atximurka egin**  
**atximurkatu**  
**atxitu\*** e. **atzitu**  
**atxurdin\*** e. **haitzurdin**  
**atzamar** *Bizk* batez ere h. **atzapar**  
**atzapar**  
**atzaparka**  
**atzaparkada**  
**atzaparkatu**, **atzaparka(tu)**, **atzaparkatzen**  
**atzarri** gaur izond eta ad  
**atzartasun**  
**atzartu**, **atzar**, **atzartzen** gaur bakarrik ad  
**atzazal** *Bizk* batez ere h. **azazkal**  
**atze** 1 iz, 2 izond  
**atzealde**  
**atzekari** Matematikan, filosofian, hizkuntzalaritzan erabiltzeko  
**atzelari** 'kiroletan atzean jokatzeko duen jokalaria'  
**atzeman**, **atzeman**, **atzematen**, **atzemanean/atzemango**  
**atzen** B-G h. **azken**  
**atzendu**, **atzen(du)**, **atzentzen**  
**atzera** 'berriro, ostera'  
**atzeraka**  
**atzerakada**  
**atzerakarga**  
**atzerakoi**  
**atzerakuntza**  
**atzerapen**  
**atzeratu**, **atzera(tu)**, **atzeratzen**  
**atzerarazi**, **atzeraraz**, **atzerarazten**  
**atzerri**  
**atzerrialdi** = **erbestealdi**  
**atzerriaratu**, **atzerriara**, **atzerriaritzen**  
**atzerritar**  
**atzesku**  
**atzi**pe egin\* e. **atzipetu**  
**atzipetu**, **atzi**pe, **atzipetzen**  
**atzi**tu, **atzi**, **atzitzen** (joskera hau da: *bi erbi atzitu dituzte oihanean*)  
**atzizki**  
**atzo**  
**auhen**  
**auhendagarri**  
**auhendatu**, **auhenda**, **auhendatzen**  
**aukera**  
     **aukeran**

**aukerako**  
**aukeratu**, aukera(tu), aukeratzten  
**aulki**  
**auma** *Bizk* h. *antxume*  
**aunatu\*** e. *unatu*  
**aunitz** h. *anitz*  
**aupa**  
**aupada**  
**aupatu**, aupa(tu), aupatzen  
**aurizki**, aurizki, aurizkitzen *Zah* ('oinkatu, zapaldu')  
**aurka**  
     **aurka egin**  
     **aurkako**  
**aurkako**  
**aurkari**  
**aurkezle**  
**aurkezpen**  
**aurkeztu**, aurkez, aurkezten  
**aurki 1** iz *infrentzu*-ren aurkakoa  
**aurki 2** adlag 'laster'  
**aurkibide**  
**aurkikunde**  
**aurkikuntza**  
**aurkintza**  
**aurkitu**, aurki, aurkitzen  
**aurkitzaile**  
**aurpegi**  
     **aurpegi(a) eman**  
     **aurpegira bota**  
     **aurpegira eman**  
**aurpegiara**  
**aurpegiratu**, aurpegira(tu), aurpegiratzen  
**aurre**  
**aurrealde**  
**aurrekalde\*** e. *aurrealde*  
**aurreikus**, aurreikus, aurreikusten h. *aurrez ikusi*  
**aurreikuspen**  
**aurreiritzi**  
**aurrekari** Matematikan, filosofian, hizkuntzalaritzan erabiltzeko  
**aurreko**  
**aurrekontu**  
**aurrelari**  
**aurren** 'lehen'  
**aurrena** adlag 'lehenik'  
**aurreneko**  
**aurrenik** 'aurrena, lehenik'  
**aurrera**  
**aurrerabide**  
**aurrerago**  
**aurrerakada**  
**aurrerakarga**  
**aurrerako**  
**aurrerakoi**  
**aurrerakuntza**  
**aurrerantzean**  
**aurrerapen**  
**aurreratu**, aurrera(tu), aurreratzen  
**aurreratze**

**aurreku**  
**aurrekulari**  
**aurretiaz**  
**aurretiko**  
**aurrez**  
**aurrezki**  
**aurrezki kutxa**  
**aurrezki-kutxa**  
**aurreztu**, aurrez(tu), aurrezten  
**aurrizki**  
**aurten**  
**aurtiki**, aurtiki, aurtikitzen (*lpar*) h. **jaurtiki**  
**aurtikiarazi**, aurtikiaraz, aurtikiarazten  
**aurtikika** *birao aurtikika ibili; ostiko aurtikika hasi*  
**aurtikitzaile**  
**ausardia**  
**ausarditsu**  
**ausarkeria**  
**ausarki** 1 ausardiaz 2 ugari  
**ausart**  
**ausartasun**  
**ausartu**, ausart(u), ausartzen  
**ausartzia** h. **ausardia**, **ausartasun**  
**ausaz**  
**ausente** e. **absente**  
**ausentzia** e. **absentzia**  
**ausiabar** h. **ausiabantza**  
**ausiabantza**  
**ausiki** 1: ausiki, ausikitzen ad *erleak inor ausikitzen duenean, ausikitzenago du bere burua*  
**ausiki** 2 iz *zakur horrek erausi gutxi, baina ausikia prest; kontzientziaren ausikia*  
**ausiki egin**  
**ausikika**  
**ausikilari**  
**ausin\*** e. **asun**  
**auska** *Bizk*  
**auskan egin**: borrokan egin  
**auskalo**  
**ausnar\*** e. **hausnar**  
**autarkia**  
**auto** = **automobil**, **beribil**  
**autoargi\*** e. **auto argi**, **auto-argi**  
**autobia** ('Espainiako *autoviak* oraingoz izendatzeko')  
**autobide**  
**autobus**  
**autobus geltoki**, **autobus-geltoki**  
**autoeskola**  
**autogidari\*** e. **gidari**  
**autokar**  
**autokrata**  
**automata**  
**automatiko**  
**automatikoki**  
**automobil** = **auto**, **beribil**  
**autonomia**  
**autonomo**  
**autore**  
**autoretza**  
**autoritate**



autorizatu, autoriza, autorizatzen h. baimena eman

autozerbitzu

autu, *Bizk* 'solasa'

autuan

auzapez L-BN

auzi

auzilari

auzitegi

auzo 1 = 'auzotegi'

auzo 2 = 'auzokoa'

auzo lan\* e. auzolan

auzoko

auzolan

auzotar

auzotegi = auzo

auzune

axal adierazkorra; ik azal

axanpa

axola

axola izan *Ez dut horren axolarik*

axolazko

axola izan

axolagabe

axolagabekeria

axolagabetu, axolagabe(tu), axolagabetzen

axolatu, axola(tu), axolatzen

axolazko

axuant *Ipar* 'alkate ordea, alkate ordea'

axuri

aza

azaburu

azafrai

azal

azaldu, azal(du), azaltzen

azaleko

azalera Geom neurria adierazteko erabiltzen da soilik - bestetarako, *azal* (leun, zakar ...), *gainazal*, *eremu* (lurralde batena, adib), etc. daude; ik *area*

azaleratu, azalera(tu), azaleratzen

azalore

azalpen

azaluskeria

azantz

azao

azarkeria

azaro

azartasun *Bizk* batez ere h. ausartasun, ausardia

azartu, azar, azartzen *Bizk* batez ere h. ausartu

azazkal

azazkatu\* e. asaskatu

azeituna\* e. oliba

azeleragailu

azelerazio

azelga\* e. zerba

azenario

azentu

azeri

azerikeria

azido

**azidotasun****azienda**, 'ganadua'

azienda beltz

azienda gorri

azienda larri

azienda xehe

azienda zuri

**azieta** *lpar* = plater Heg**azkar 1** indartsu**azkar 2** laster, arin, buruargi**azkarkeria****azkarki****azkartasun****azkartu**, azkar(tu), azkartzen**azkazal** h. azazkal**azken**

azken batean

azken buruan

azken finean

azkenean

azkeneko

azkenekoz

azkenez

azkenik

**azken nahi** = hilburuko, testamentu**azken-nahi** = hilburuko, testamentu**azkenaldi****azkendu**, azken(du), azkentzen

azkenean

azkeneko

azkenekoz

azkenez

**azkengabe** izond

azkenik

azkenki

azkentze

**azkon 1** gezi txikia; 2 azkonarra**azkonar** *Meles meles***azkordin** ospela**azkortu**, azkor(tu), azkortzen**azkura****azoka****azote** = zigor**azpantar****azpi 1**, aziendarekin erabiltzen dena

azpiak egin

azpiak atera

**azpi 2**

azpiko arropa

azpiko gona

azpiak jan

azpian hartu

azpikoz gora

azpitik eduki

**azpialde****azpibide****azpiegitura****azpigarri**

azpijale  
 azpijan  
 azpijoko  
 azpikeria  
 azpiki  
 azpiko  
 azpil  
 azpilan  
 azpildu, azpil(du), azpiltzen  
 azpildura  
 azpimarkatu\* e. azpimarratu  
 azpimarratu  
 azpimultzo  
 azpiratu, azpira(tu), azpiratzen  
 azpizun  
 aztal  
 aztalka  
 aztapar h. atzapar  
 aztarna  
 aztarnategi  
 aztarren h. aztarna  
 aztarrika  
 azterbide  
 aztergai  
 azterketa  
 azterkizun  
 azterkuntza\* e. indusketa ('excavaciones' adierakoaz)  
 aztermakina\* e. indusmakina ('excavadoras' adierakoaz)  
 azterren\* e. aztarren  
 aztertu, azter, aztertzen  
 aztertzaile  
 azti  
 aztiatu, aztia, aztiatzen  
 aztikeria  
 aztoramen  
 aztoratu, aztora, aztoratzen  
 aztore *Accipiter gentilis*  
 aztura  
 azufre\* e. sofre  
 azükre  
 azukre ontzi  
 azukre-ontzi  
 azukreztatu, azukrezta, azukreztatzen  
 azuzena h. zitori

(Euskaltzaindiak, Gasteizen, 1995.eko azaroaren 24an onartua)

## 49

**-ARI (-LARI) ATZIZKIAZ**

Bi puntu dira atzizki honen inguruan arautu beharrekoak: formari dagokiona bata —noiz *-ari* eta noiz *-lari*—, eta oinarriaren kategoriari buruzkoa bestea —nola behar du: *ikerlari* ala *ikertzaille*?—.

1. *-ari* eta *-ari* formen arteko banaketa:

Gaur egun auzia *-ari* eta *-lari* formen arteko banaketan dugu, *-lari* aldaera nagusitzen ari baita: *segari* forma zaharrenean ondoan *segalari* nagusitu zaigu; *jokari* eta *jokalari* ere hor ditugu lehian, e.a. Hitz berriak eratzeko orain arteko jokabidea eredu hartzen badugu, gomendioa hau izango litzateke:

*-a* + *-ari*: izen oinarria *-a* bokalaz amaitzen denean, eta batez ere bi silaba edo gehiagoko oinarrietan:

*dantzari, tabernari, pilotari, dendari, errotari*

e.a. bezala, berrietan ere. Hortaz:

*fisikari, politikari, gramatikari, kritikari.*

Halakoa izan da azken urteetako jokabidea ere. Honek ez du esan nahi, jakina, oso sartuak dauden *hizkuntzalari, pentsalari* bezalakoak aldatzen hasi behar denik.

*-ia* bukaerako oinarrietan *-a* galdu gabe emango da:

*ekonomialari, zientzialari, historialari...*

Gainerakoetan ez dirudi gomendio orokorrik eman daitekeenik, baina oro har *-lari* da nagusitzen ari den forma: *txotxongilolari...*

## 2. Oinarriaren kategoria:

*-ari* atzizkiaren oinarria izen kategoriakoa izan da, eta aditzoin kategoriako oinarriari *-le* edo *-tzaille* erantsi izan zaio. Izena izateaz gainera, arrunta eta bizigabea tasunak izaten ditu *-ari*-ren oinarriak. Hala ere, honek ez du esan nahi edozein izen arrunt, bizigabek har dezakeenik *-ari*: guztiok baitakigu *\*mahaia*ri edo *\*ardolari* bezalakorik ez dela sortzen. Bidezko dirudi, beraz, hala egitea aurrerantzean ere eta *ikertzaille, hezle* edo *hezitzaille* esatea, ez *ikerlari* edo *hezilari*. *Aurkezle* hobe, *aurkezleri* baino, etab. Erabat sartua dugun *gidari, pentsalari* eta besteren bat ere bere horretan utz daitezke, noski.

Dena dela, badira aditzoin berari bi atzizkiak, *-le* eta *-ari*, erantsiz sortutako izen bikoteak ere, esanahi diferentea dutenak:

*zuzendari / zuzentzaille, zaindari / zaintzaille, idazkari / idazle...*

Erabat zuzen eta onargarri diren bikote horietan *zuzendu* aditzaren bi adiera desberdin daude oinarrian, edo *idatzi* ekintzarekin loturiko bi lanbide desberdin. Horrelako kasuetan zilegi da, beraz, aditzoin berari *-le* edo *-tzaille* eta *-ari*, biak eranstea.

Oharra: txosten honetan eztabaidatzen dena *-ari* eta *-lari* atzizkien erabilera da, ez besterik. Horrela eraturiko izenak dira eztabaidagai. Badira beste hitz asko beste modu batera ere sor daitezkeenak: *filosofo, teologo, biologo, kritikari, politikari, pianista, kritikagile, historiagile, armagin, musikagile*, etab. Hitz hauek guztiak Euskaltzaindiko Hitzegi Batuko batzordeak aztertuko ditu eta ikusiko batasunerako onargarri diren ala ez.

Hau guztia kontuan izanik, hauxe erabakitzen du Euskaltzaindiak:

1. Erabil bedi *-ari* forma, *-a* bokalaz amaitzen diren izen oinarrirei eransteko, batez ere bi silabatik gorakoak direnean. Berez, *gramatikari* edo *politikari* erabil bitez batasunerako (eta ez *gramatikalari* edo *politikolari*).

*-ia* amaierako izenekin, *-ialari* hobesten da: *historialari*, *zientzialari*.

2. Era berean, erants bekio *-ari* atzizkia izenari, eta *-le* edo *-tzaile* atzizkiak, berriz, aditzei. Hortaz, *hezle*, *hezitzaile* edo *ikertzaile* dira batasunerako formak, *hezi* eta *iker(tu)* aditzak baitira.

Aditz batek adiera bat baino gehiago izan dezakeenean, zilegi izan daiteke adiera batean *-le* edo *-tzaile* eranstea, eta *-ari* beste adieran: *idazle* / *idazkari*, *zuzentzaile* / *zuzendari*.

(Euskaltzaindiak, Bilbon, 1995.eko abenduaren 29an onartua)

## 50

**-ARI / -ARIO**

Joera nabarmena izan da azken urteetan, lanbidea adierazten duten erdal maileguak (batez ere erdaraz atzizkia dutenak direnean), *-ari* amaieraren bidez egokitzeko. Behin baino gehiagotan entzun eta irakurri ditugu: *enpresari, komisari, tripulari, unibertsitari, funtzionari*, etab. Ez da erabateko jokabidea izan ordea, *unibertsitario, funtzionario* edo *mertzenario* ere ez dira-eta zeharo arrotzak.

Bestalde, erdaraz *-ario* atzizkiaz izenak eta izenondoak sor daitezke: goiko adibideen ondoan, *humanitario, hipotecario, (grupo) parlamentario...* ere badira. Izenondo hauekin ere jokabide bikoitza izan da, bietara entzuten baitugu *talde parlamentario* nahiz *talde parlamentari*. Egia da *-ari*-rekin osatzen ditugun hitzak behin baino gehiagotan izenondo modura-edo erabiltzen ditugula; aspaldikoak dira, gainera, halako adibideak (ikus Axularren *esku trabailari* eta *hiz jokolari*). Erdal *-ario* izenondoak, ordea, izenondo erreferentzialak direnez, urrun samar geratzen dira (askotan behintzat) euskal *-ari* atzizkiaren esanahitik. Zer zentzu dute *borroka proletari* edo *sistema planetari-k?* "Proletan ari den borroka" eta "planetan ari den sistema"? Betiko erabileretan, aldiz, *gizon bertsolari* "bertsotan ari dena", *hiz jokolari* "jokotan ari dena", *zakur zaunkari* "zaunka ari dena", etab. bezala uler daitezke.

***-ario / -aire* atzizkiez osatutako izenondoen mailegatzeaz:**

*-ari / -ario* auzian, beraz, hau litzateke lehen gomendioa: erdal *-ario/-aire* atzizkiez osatutako izenondoak *-ario* forman mailegatu:

*autoritario, estatutario, finantzario, frakzionario, hipotekario, humanitario, komunitario, monetario, parlamentario, primario, sektario, sekundario, solidario, unitario...*

Nolanahi ere, ahal denean, maileguz hartutako erdal izenondoen ordez, hobe euskal egituraren araberako ordainak erabiltzea: *talde parlamentario* esan beharrean, *parlamentu(ko) talde*, edo *kreditu hipotekario* esan beharrean, *hipoteka-kreditu; aldizkari unibertsitario* baino, hobe *unibertsitate(ko) aldizkari*.

***-ario / -aire* atzizkiez osatutako izenen mailegatzeaz:**

Datuen azterketa:

Horrelako erdal maileguak euskal literatura tradizioan nola ageri diren aztertuz gero, OEHko eta EEBSko (Egungo Euskararen Bilketa-lan Sistematikoko) corpusek erakusten dute *-ario* forma dela ia bakarra Hegoaldean (azken urteak kenduaz, jakina). Iparraldean ere ez da ezezaguna. Egia da, bestalde, izen gutxi direla —dozenerdi bat inguru— tradizioan ditugunak. Ageri diren formak banan-banan azalduz:

***antikuari: Euskal Hiztegi Modernoan.***

***bikario:*** "Documentado, tanto al norte como al Sur, desde principios del s. XVII. En cuanto a la distribución de variantes, *bikario* es la más utilizada: es prácticamente la única forma que se documenta al Sur (excepto un ej. de Mendiburu) y es también la más general en los autores septentrionales; los suletinos sin embargo sólo usan *bikari*, empleado también por algunos autores bajo-navarros y labortanos, alternando en ocasiones con *bikario*. En *DFrec* hay 9 ejemplos (4 septentrionales) de *bikario*, y 2 (uno septentrional) de *bikari*" (OEH).

EEBSen ere 67 agerraldi ditu (kontuan izan OEHko batzuk ere hemen egongo direla).

*botikario*: "La forma más usada es *botikario*, documentada en autores guipuzcoanos y vizcaínos desde la segunda mitad del s. XVIII hasta nuestros días, y en Barbier y Lafitte. Se encuentra *botikari* en los labortanos Pouvreau, Haraneder y Duhalde y en Mendiburu; *apotikari* en Archu; *potikari* en Duvoisin y *potikario* en Jean Etchepare. En *DFrec* hay un ejemplo de *botikario* y otro de *botikari*" (OEH).

EEBSen 10 agerraldi, horietatik bost Ipar-ekialdekoak eta bi euskara batukoak.

*boluntario*: Forma bakarra, salbuespena Monho-ren *bolontier* izanik.

*funtzionari*: EEBS (68 ager.) euskara batuko testuetan.

*funtzionario*: EEBS (9 ager.) euskara batuko testuetan eta Mitxelenaren adibide bat (gehi beste bat *funtzionariotza*).

*komisari*: Erkiaga, EEBS (31 ager.), Euskal Balada batean.

*komisario*: Ipar eta Hego-aldeetako autoreetan (Hiriart-Urruty, J. Etchepare, Elizanburu, etab.). EEBSen 7 ager.

*kontsignatari*: **Merkatalgo Izendegian**.

*kontzesionari*: **Merkatalgo Izendegian** (baina behar bada izen bizigabetzat hartu beharko genuke, erdal *concesionario* bezalaxe).

*korsari*: EEBS (4 agerraldi obra berean) eta Irakaskuntza Mundua izeneko corpusean adibide bat.

*korsario*: OEH, Arrese Beitiaren adibide bat.

*legionari*: EEBSen agerraldi bat, euskara batuko testu batean.

*legionario*: EEBSen agerraldi bat, gipuzkerazko testu batean.

*millionario* (*millionario*): EEBSen agerraldi bakarra, euskara batuko testu batean. Oskillaso (8 agerraldi).

*milionari*: **Artearen Historia** UBI/2 (eta *miliondun*, Mirande).

*notari*: Iparraldean ia forma bakarra, Orixek ere bai; EEBSen 19 agerraldi.

*notario*: Hegoaldean (Astarloa, F. Bilbao, Eguzkitza, Uriarte), EEBSen 22 agerraldi.

*proletari*: EEBSen 20 agerraldi, euskara batuko testuetan.

*proletario*: EEBSen 29 agerraldi, gehienak euskara batukoak (baina batzuk izenondoak ere izango dira, seguruenik).

*proletalgo*: EEBSen 49 agerraldi, batukoak.

*proletargo*: EEBSen 74 agerraldi, gehienak batukoak.

*sekretari*: Axular, Hiribarren, Iztueta, Mirande, Harriet (*segretari*), Mercy, Constantin.

*sekretario*: Azkue, Arrese Beitia, Akesolo, Añibarro, Arrue, Mitxelena, Labaien, Uztapide, Iztueta, Beovide... *Segretario*: Barbier, Lafitte...

*unibertsitari*: EEBSen 18 agerraldi, horietatik 9 izenondoak izanik. OEH: Mitxelenaren adibide bat.

*unibertsitario*: EEBSen 13 agerraldi, horietatik 11 izenondoak. Saizarbitoriak ere hala darabil *Egunero hasten delako* nobelan.

Datu hauen aurrean, garbi samar ikusten da, *-ario* izan dela Hegoaldeko joera nagusia eta baita Iparraldekoa ere behin baino gehiagotan. Batasunerako gomendioak ematean erabiltzen dugun irizpidea hartuz gero, ez legoke zalantzarik *-ario*-ren aldeko gomendioa emateko.

Orain arte esanak gogoan izanik, honako arau hau ematen du Euskaltzaindiak:

Erdal *-ario/-aire* atzizkiez osatutako izen-izenondoak *-ario* forman, eta ez *-ari* forman, mailega bitez:

— izenen artean *notario, komisario, unibertsitario, funtzionario, kortsario, mertzenario*, etab. (salbuespenik balego, hiztegi batuan zehaztuko dira albuespen hauek bere garaian);

— izenondoetan, (*talde*) *parlamentario, (sistema) planetario, (jokabide) sekretario*, etab. Baina ahal dela, maileguz hartutako erdal izenondoen ordezt, hobe euskal egituraren araberrako ordainak erabiltzea: *talde parlamentario* esan beharrean, *parlamentu(ko) talde*, edo *sistema planetario* esan beharrean, *planeta-sistema* edo *planeta sistema* esatea egoakiagoa da. Gauza bera *aldizkari unibertsitario*-ren kasuan ere, egokiagoa baita *unibertsitate(ko) aldizkari* erabiltzea.

(Euskaltzaindiak, Bilbon, 1995.eko abenduaren 29an onartua)



## 51

## KONTINENTEAK, GEOGRAFIA IZEN NAGUSI BATZUK ETA HERRITARREN IZENAK

Europa:

Ipar Europa  
Hego Europa  
Ekialdeko Europa  
Mendebaldeko Europa  
Erdialdeko Europa.

Asia:

Asia Txikia.

Eurasia.

Afrika.

Amerika (1):

Ipar Amerika  
Hego Amerika  
Erdialdeko Amerika.

Ozeania:

Antartika (baina adjektiboa denean "Antartiko": "Ozeano Antartikoa". Bide beretik "Ozeano Artikoa").

Ekialde Hurbila.

Ekialde Urruna.

europar

asiar

eurasiar

afrikar

amerikar (2)

ozeaniar

(Euskaltzaindiak, Bilbon, 1995.eko abenduaren 29an onartua)

---

(1) Geografia zentzu hertsian kontinenteari Amerika deitu arren, horrek ez du cragozten, hizkuntza mintzatu eta idatzian pluraleko formak ere erabiltzea (*Ameriketara joan nintzen, Ameriketatik etorri da...*) inguruko erdaretan egin ohi den bezala: *Hacer las Américas, Irse a las Américas, Aller aux Amériques, il vient des Amériques...*

(2) *Amerikano* hitza ere bada, noski, eta aspaldian Europatik Ipar Ameriketara bizimodu hobere baten bila joandakoa aipatzeko erabiltzen da: *osaba amerikanoa, euskaldun amerikanoak...* Ameriketara, oro har, joandakoari *indiano* esan ohi zaio.

## 52

**MUNDUKO GEOGRAFIAKO ZENBAIT IZEN  
(MENDIAK, IBAIAK, ITSASOAK)**

**Nazio bat baino gehiago hartzen dutenak:**

**Mendiak:**

Alpeak (Alpe mendiak)  
 Dinarier Alpeak  
 Dolomitak (Dolomita Alpeak)  
 Glarisko Alpeak  
 Hegoaldeko Karpatoak edo Transilvaniako Alpeak  
 Karpatoak (Karpato mendiak)  
 Erdialdeko Mendigunea (Massif Central)  
 Metal mendiak  
 Pirinioak (Pirinio mendiak)  
 Rhetiako Alpeak  
 Transilvaniako Alpeak edo Hegoaldeko Alpeak.

**Ibaiak:**

Amazonas  
 Danubio  
 Ebro  
 Ibai Beltza  
 Ibai Gorria  
 Ibai Horia  
 Ibai Urdina edo Yangzi  
 Miño  
 Mosa  
 Mosela  
 Rhin  
 Rodano  
 Tajo.

(Hauetan guztietan "ibai" hitza jar daiteke atzean: "Amazonas ibaia", "Ebro ibaia", etab.)

**Itsasoak:**

Adriatikoa (Itsaso Adriatikoa)  
 Arabiako Itsasoa edo Omango Itsasoa  
 Ozeano Atlantikoa  
 Ozeano Australa  
 Baltikoa (Itsaso Baltikoa)  
 Ozeano Barea (Ozeano Pazifikoa)  
 Bizkaiko Golkoa  
 Indiako Ozeanoa  
 Ipar Itsasoa  
 Itsaso Beltza

Itsaso Gorria  
Itsaso Hila  
Itsaso Horia  
Itsaso Zuria  
Itsaso Jonikoa  
Kaspiar Itsasoa  
Liongo Golkoa  
Mediterraneo (Mediterraneo itsasoa).

(Euskaltzaindiak, Bilbon, 1995.eko abenduaren 29an onartua)



# **BATZAR AGIRIAK**



**Hileko batzarra eta IX Barne Jardunaldiak**  
**Larrabeen (Legutianon), 1995eko martxoaren 31an eta apirilaren 1ean**

Haritschelhar, J., euskaltzainburua  
Lekuona, J.M., euskaltzainburuordea  
Knörr, E., idazkaria  
Arana, J.A., diruzaina  
Altuna, P.  
Azkarate, M.  
Charritton, P.  
Goenaga, P.  
Irigoyen, A.  
Kintana, X.  
Krutwig, F.  
Oihartzabal, B.  
Ondarra, P.  
Peillen, Tx.  
Salaburu, P.  
Sarasola, I.  
Satrustegi, J.M.  
Villasante, L.  
  
Lizundia, J.L., idazkariordea  
Zearreta, J.J., ekonomi eragilea

Larrabeen (Legutianon), 1995eko martxoaren 31an, goizeko hamarretan, bildu da Euskaltzaindia, aldamenean aipatzen diren euskaltzainak han zirela. Ezin etorria J.L. Davant, X. Diharce, E. Larre eta J. San Martinek bidali dute.

#### **Agiria**

Otsaileko agiria onartu da, zenbait zuzenketa egin ondoren.

#### **Sariak**

Federiko Krutwig euskaltzainari eta Juan J. Pujanari, Greziako Kabala hirian, grezierazko kultura zabaltzeko egiten duten lanagatik, ohorezko diploma bana eman zaiela adierazi du A. Irigoyenek eta agirian horren berri jasotzea eskatu.

#### **Euskaltzain ohorezkoak**

Zuzendaritzak Joan Corominas katalan hizkuntzalari ospetsua eta Pedro Pujana aramaior urgazlea euskaltzain ohorezko izendatzea proposatu du. Bi jaun hauen bizitzaz eta lanez banatu diren izkribuak irakurri ditu idazkariak. Aho batez onartu da proposamena.

#### **Euskaltzaindiaren diru-egoera**

P. Salaburuk eskaturik, beste gaiak oro utzi eta Euskaltzaindiaren diru-egoera aztertzeari ekin diote batzartuek.

Defizitaren gainean hitz egin da lehenik. P. Salabururen ustez, neurriak berahala hartu behar dira, 45 milioi pezetako defizita estaliko bada. I. Sarasolak esan du hausnarketa egiteko garaia dela hau, Akademiaren giza eta diru-baliabideez, Barne Jardu-

naldien gaiaz, hain zuzen ere, eta galdetu du diru publikoa zergatik joaten den beste zenbait elkartetara, Euskaltzaindiari egiten zaion fiskalizazio eta kontrol zorrotzik gabe. A. Irigoyentzat tristea da musu truk lan egin beharra, eta agintariek ezin dute esan Euskaltzaindiak zer ikertu behar duen.

M. Azkaratek idatzirik ekarri duen txostena. "Barne Jardunaldiotarako gogoeta batzuk" izenekoa, irakurri du. Fiskalizalze Txostenean eta Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuaren oraintsuko idazkian ageri diren zenbait puntu aipatu ditu: 1. Administrazio-lan guztiak zuzendu, lotu eta bere gain hartuko dituen norbaiten beharra. 2. Euskaltzaindiko langileei etekin hobea ateratzeko prestakuntza eta egungo tresneriaz hornitzea. 3. Argitalpen politika egokia. 4. Egitasmoei, eta bereziki Atlasari buruzko argibidea eta. hala balegokie, egin litezkeen aldaketak. Akademiaren lan-programaren bat Unibertsitatearekin elkarlanean egitea edo Unibertsitateari egoztea. 1995-96 biurtekorako planak egin baino lenen diru-baliabideak segurtatzea. 6. Corpus ondarea nola erabili eta ikertzaileen esku nola utzi.

E. Knörrek kezka bizia agertu du Herri Aginteez Euskaltzaindiarengana azken urteotan erakutsi duten jokabideagatik. Dirulaguntzak ordaintzean izan diren atzerapenak aipatu ditu bereziki, eta gogorarazi du langileek ezingo dutela martxoko alogera ko-bratu. Barne-jarduerari dagokiola, azken bi urteotan ordezkarien bilkurak egin dira. Hornidura egokia, haatik, oinarritzko bibliografia, posta elektronikoa, e.a., esaterako, diru gabezia dela eta ezin izan da gauzatu, ezta beste zenbait alorretako hobekuntzak ere, hala nola argitalpen politikan eta Etxebarriko biltegian. Corpus ondarearen erabileraz, ongi zehaztu behar da, haren iritziz, hori ez baita *res nullius*, edozeinek edonola har-zetekoa.

J.L. Lizundiak esan du egoerarik larrienean aurkitzen dela Euskaltzaindia aspaldiz gero. Bestalde, alogeretan igoerak egin dira Herri Administrazioan egin direnean, eta 17 urtetan 2 langile gehiago dira soilik Akademian.

J.J. Zearretak esan du Euskaltzaindiarentzako 1995eko dirulaguntza oraindik erabaki ez denez, ezin daitekeela kalkulurik egin. Haren iritziz, Akademiari zor zaion begirunerik eza nabarmena da Herri Aginteengan. Eusko Jaurlaritzako Kultur sailburuak idatzi duena, hots, zorra Euskaltzaindiak behar baino gehiago xahutzeak eragin duela, ez da egia. Azkenik, oroitarazi du langileen alogerak parekatzea aurreko aditegiaren ondorio zela eta Herri Aginteez horren berri zekitela.

P. Salaburuk adierazi du Euskaltzaindiaren etekin hobetzea omen dela Herri Agin-teen kezka. Gainera, langileen homologazioa aipatzen dute. Zernahi gisaz, aurtengo urtea pasatzeko Euskaltzaindiak zer diru duen jakin behar du eta neurriak hartu.

J.A. Arana diruzainak esan du ordainketa batzuk ezin direla atzeratu, gehiketak sor-tzen baitira. Urteoroko aurrekontua aldeztu du ondoren, eta aurkezten diren zenbakiak zehatzak direla adierazi. Beharrezkoa da, haren ustez, Herri Aginteez zenbat diru eman-go duten jakitea, diru bila beste norabait joan baino lehen. Herri Aginteetatik eskatzen den papereria, traba eta denbora-galgarri baizik ez dena, aipatu du berebat. Azkenik, egitasmotan edo batzorde lanetan murrizketak egin baino lehen Euskaltzaindiak kan-poko etxeekin dituen loturak (Mensajero argitaletxea, adibidez) kontuan har daitezen eskatu du.



P. Altunak esan du agintarien ikuspuntua ere ezagutu beharko lukeela batzarrak, eta Herri Aginteen ordezkariekin apirilaren 12an egin behar den bilkurara Pello Salaburu eta Miren Azkarate joan daitezen proposatu du.

I. Sarasolarentzat Akademia ez da inola ere damutan egon behar, Fiskalizatze Txostena lekuko. Herri Aginteez ez diote Euskaltzaindiari zor zaion duintasuna aitortzen. haren iritiz. M. Azkaratek esan du hori hala delarik ere Euskaltzaindiak Txostenaren zenbait gomendio aztertu behar dituela. Ildo beretik hitz egin du P. Goenagak, ordezkartzen lana hobetu beharra azpimarratuz.

Duintasuna zaindu behar da, E. Knörren ustez, zein-nahi ere diren Zuzendaritza-koak eta euskaltzainak. Jakina, Euskaltzaindian gauza asko aldatu behar dira, baina ezin da ahantzi Akademiak bere-berea duen alorra zenbait elkarte hartu nahian dabiltzala. I. Sarasolarentzat, Euskaltzaindiak lan batzuk egiten ez dituelako aitzakiarekin beste batzuek egin nahi dituzte.

Entzunak entzun, P. Salaburuk Herri Aginteei bidaliko litzaiekeen izkribuaren zirriborroa irakurri du. Ondoren, zuzenketak eta emendioak egin zaizkio zirriborroari. Lan horretan beste hainbat iritzi jaulki dira.

Izkribuan diru-egoera larriarengatik eta Herri Aginteen Euskaltzaindiarenganako uste onaren itzaltzearengatik euskaltzainek duten kezka agertzen dute eta zorra kitatu ezik Akademiaren lanean proposatzen duten murrizketa adierazten. Murrizketa hone-tatik kanpo batzorde arauemaileak (Hiztegi Batua, Gramatika, Onomastika eta Euskara Batua) geldituko lirarteke.

Aho batez onartu da testua eta, J.L. Lizundiak horrela iradokirik, hiru epetan helaraziko zaie hartzaileei, hots, lehendabizi Herri Aginteei, gero Parlamentuetako eta Batzar Nagusietako taldeei eta azkenik komunikabideei.

J. Haritschelharrek esan du Herri Aginteen erantzuna, agian apirilaren 12ko bilkuran ezagutuko dena, osoko batzarrean aztertuko dela.

Eta honetan bukatu da batzarra, arratseko 7.30ak zirela.

### **Jarraipena** **1995eko apirilaren 1ean**

Goian aipatu euskaltzainak bildurik. salbu P. Altuna, M. Azkarate, I. Sarasola eta J.M. Satrustegi, ezin etorria adierazi dutenak, gehi Rikardo Badiola eta Pello Telleria, hasiera eman zaio batzarrari, goizeko 9etan.

#### **Batzordeen berriztatzea**

J. Haritschelhar euskaltzainburuak irakurri du batzordeak berriztatzeko Zuzendaritza- proposamena, hots:

##### I. *Iker* Saileko batzordeak

1. *Iker* sailburua: Patxi Altuna.

1.1. Hiztegi Batua batzordeburua: Ibon Sarasola.

OEH lantaldea: Ibon Sarasola.

- 1.2. Gramatika batzordebura: Patxi Altuna.
- 1.3. Dialektologia-Atlasgintza batzordebura: Beñat Oihartzabal.  
EHHA lantaldea: Beñat Oihartzabal.
- 1.4. Onomastika batzordebura: Endrike Knörr.  
Exonomastika azpibatzerdea: Endrike Knörr.
- 1.5. Literatura batzordebura: Juan Mari Lekuona.
  - 1.5.1. Herri Literatura azpibatzerdea: Antonio Zavala.
  - 1.5.2. Literatura Ikerketa azpibatzerdea: Juan Mari Lekuona.
- 1.6. Euskara Batuko batzordebura: Pello Salaburu.  
Ahoskera azpibatzerdea: Lourdes Oñederra.

## II. *Jagon* Saileko batzordea

2. *Jagon* sailburua: Miren Azkarate.

## III. Egiturazko batzordeak

- 3.1. Azkue Biblioteka batzordebura: Jose Antonio Arana.
- 3.2. Argitalpen batzordebura: Jean Haritschelhar.
- 3.3. Lege-Ekonomi Aholku batzordebura: Jean Haritschelhar.

Aho batez onartu da proposamen hau. Apirilaren 20rako bakoitzak zein batzordetan lan egin nahi duen adierazi beharko du, idatziz.

## **Exonomastika**

X. Kintanak oroitarazi du Estatuaren izenen gainean Euskara Batuko eta Onomastika batzordeek aurkezturiko txostenari buruzko oharra apirilaren 20a baino lehen bidali behar direla. Otsaileko batzarrean aurkeztu zen txostena apirilako batzarrean aztertuko da orobat.

## **Hitzarmena**

Euskaltzaindiak Herri Aginteekin duen Hitzarmena berritzatzeko Herri Agintee bialdi zuten testuaz ez da oharrik etorri. Zuzendaritzak proposaturiko aldaketak aztertu dira batzarrean. Orohar, harremanak erraztea eta Akademiaren autonomia zaintzea dute helburu aldaketa horiek. Jarraipen batzordea izenekoari datzekola, bertan Herri Agintee eta Euskaltzaindiak kide kopuru bera izatea proposatzen du Zuzendaritzak, eta berdinean Batzorde Teknikoan.

Ontzat hartu da proposamena. Halaz guztiz, P. Salaburuk esan du gai honek ez duela presarik, ezen Euskaltzaindiari behar duen dirurik ematen ez bazaio alferrikakoa litzateke hitzarmena.

J. Haritschelharrek adierazi du Herri Aginteen erantzuna, 12ko bilkuraren ondoan irits daitekeena, osoko batzarrean aztertuko dela.

### **Arauk**

R. Badiola argitalpen eragileak azaldu du Arauen argitaratzearen egoera, halaber horri buruz dauden aukerak. Aurten bai Fundazioak egin duen eskaintzaz mintzatu da bereziki.

Euskaltzaindiak lan hori egin ahal duen eta Arauek behar duten hedatzea eztabai-datu da gero, baita Euskaltzaindiaren jabegoa eta lanari etekina atera beharra ere.

Azkenean, batzordeño bat sortzea erabaki da, J.A. Arana, P. Salaburu, R. Badiola eta P. Telleriak osatua. Batzordeño honek proposamen bat egingo du eta Zuzendaritzak erabakiko, lege aldetik izan daitezkeen zalantzak argiturik.

Eta beste gairik ez zela, bukatu da batzarra.

Jean Haritschelhar,  
euskaltzainburua

Endrike Knörr,  
idazkaria

**Ageriko batzarra**  
**G. Jauregiren mendeurrenkari**  
**Aramaion, 1995eko apirilaren lean**

Haritschelhar, J., euskaltzainburua  
 Knörr, E., idazkaria  
 Charritton, P.  
 Irigoyen, A.  
 Kintana, X.  
 Krutwig, F.  
 Oihartzabal, B.  
 Ondarra, P.  
 Peillen, Tx.  
 Villasante, L.

P. Pujana

Badiola, R.  
 Lizundia, J.L.  
 Ruiz Urrestarazu, M.M.  
 Uribarren, P.  
 Zearreta, J.J.

Aramaioko udaletxean, 1995eko apirilaren lean, eguerdiko 12ak eta erdietan, egin du Euskaltzaindiak ageriko batzarra, alboan aipatzen diren euskaltzainak han zirela. Ezin etorria adierazi dute P. Altuna, J.A. Arana, M. Azkarate, J.L. Davant, X. Diharce, P. Goenaga, P. Salaburu, I. Sarasola eta J.M. Satrustegik.

Aretoa jendez beterik zegoen. Mahaian jarri dira: Jean Haritschelhar, euskaltzainburua; Jose Ramon Uribe, Aramaioko alkatea; Endrike Knörr, idazkaria; Patxi Ormazabal, Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro sailburua; Jose Maria Zeberio, Hizkuntza Politikarako idazkari nagusia; Julen Urkiza, karmeldar ordenaren buruzagia; Patxi Uribarren, urgazlea; Patxi Salaberri Muñoa, Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea, eta Jose Ramon Etxebarria eta Gotzon Lobera, euskaltzaleak.

Ongi etorritzko hitzak egin ditu lehenik alkate jaunak, aretoan ziren guztiei esker ona agertuaz eta Euskaltzaindiaren lana goraiatuaz batera.

Jean Haritschelharrek Arabaren euskalduntasuna aldarrikatuz hasi du bere mintzaldia. Euskaltzaindia, esan du, ez da behin ere hizkuntza borrokan ariko, baina bai fermuki esango euskarak bere tokia duela zazpi probintzietan. Pedro Pujana herriko semea, atzoko batzarrean euskaltzain ohorezko izendatua, aipatu du eta konpainia ederrean, hots, Joan Corominas lagun, sartu dela esan dio. Une horretan zutitu da P. Pujana jauna, jendea agurtzeko, guztien txaloen erdian. G. Jauregi idazlea aipatu du ondoren, haren euskaltzaleatasuna eta lanak gorestekoko.

Patxi Uribarren mintzatu da ondoren, Gabirel Jauregiren bizitzaz eta lanaz.

Julen Urkizak *Aita Gabirel Jauregi Uribarren (1895-1945)* liburua aurkeztu du. Eusko Jaurlaritzaren eta Arabako Foru Diputazioaren laguntzaz argitaratu den liburu honetan jaun hauek parte hartu dute: J. Urkiza, A. Lobera, P. Uribarren, L. Baraiazarra, J.R. Etxebarria, Jazinto Iturbe, Tx. Preciado, J.R. Elejalde, A. Unzueta. G. Garate, Isaak

Atutxa. P. Salaberri Muñoa, Pedro Pujana, J. Martinez Montoia eta F. Unzueta. Jauregi idazlea, batetik, eta Aramaio, bestetik, dira liburaren gaiak.

Jose R. Etxebarriak Jauregiren *Pisia* (1935) eta *Kimia* (1936) liburuen azterketa egin du. Gai hauen gainean euskaraz egin diren lehenbiziko liburuak direla esan du. Alor horiek euskaraz lantzeko ahalegin haien emaitza azken urteotan nabarmen dela adieraziz amaitu du Etxebarria jaunak.

Gotzon Garate ezin etorririk, A. Loberak irakurri du haren txostena, Aramaioko eta inguruko euskararen eder eta zuzenaz.

P. Salaberri Muñoak Aramaioko euskarari buruz azken hamabost urteotako datuak azaldu ditu. Datu horien arabera, euskararen ezagutzak aurrera egin duen bitartean, gero eta gutxiago erabiltzen da. Egoera kezkagarri hau kontuan harturik behar diren neurriak hartzea eskatu du Salaberri jaunak.

Azken hitzak J. Haritschelhar euskaltzainburuak egin ditu, berriro ere guztiei eskerrak emanez, eta bereziki liburuan parte hartu dutenei.

### Donostian, 1995.eko apirilaren 28an

Haritschelhar, J., euskaltzainburua  
 Lekuona, J.M., euskaltzainburuordea  
 Arana Martija, J.A., diruzaina  
 Altuna, P.  
 Azkarate, M.  
 Charritton, P.  
 Davant, J.L.  
 Diharce, X.  
 Irigoien, A.  
 Kintana, X.  
 Krutwig, F.  
 Larre, E.  
 Oihartzabal, B.  
 Ondarra, F.  
 Peillen, Tx.  
 Salaburu, P.  
 San Martin, J.  
 Sarasola, I.  
 Satrustegi, J.M.  
 Villasante, L.

Lizundia, J.L., idazkariordea  
 Zearreta, J.J., ekonomi eragilea

Donostian, ETB-Miramón, 1995.eko apirilaren 28an, goizeko hamarretan bildu da Euskaltzaindia alboan aipatzen diren ki-deak bertan direla.

Ezin etorria P. Goenagak eta E. Knörrek bidali dute. J.L. Lizundia, idazkariordea, idazkaria ez egonik, honen zereginetan aritu da.

#### Batzar-agiriak

Martxoko hileroko, IX. Barne Jardunaldietako batzar-agiria eta Gabirel Jauregiren mendeurren ospakizun ageriko batzarrenak onartzen dira, J.A. Arana Martija, A. Irigoien, J.M. Satrustegi eta J.L. Lizundiaren zenbait zuzenketa aintzat hartu ondoren.

#### Hil berria

Josu Oregi euskaltzain urgazlearen heriotzearen albistea eman da. Ekaineko bilkuran irakurriko da haren oroimenezko hil berri txostena.

### Euskara Batuko batzordea - Hizkuntz Arauak

P. Salaburuk, Euskara Batuko batzordeburuak, hartzen du hitza eta proposamen hauek aurkezten ditu: *Baiezko perpausetan noiz eta nola* eta *Ekartzea merezi du* arauetz Euskaltzaindiak gomendatzen du partitiborik ez erabiltzea gehiegi baiezko perpausetan (ikus eranskinean xehetasunak). *Ekartzea merezi du* bezalako espasideetan aditz izenak absolutiboan joan behar du (ikus eranskina).

Jarraian *Espainiako erresumako probintzia eta elkarte autonomoen exonomastikako izenak* deritzan zerrendaz Euskara Batuko batzordearen poposamen hau agertzen du P. Salaburuk, Onomastika batzordearena aztertu ondoren, hots, exonimo izen hutsak, alde batetik ikusi behar direla eta bestetik izen arrunt edo generikoak; lehenabizikoak Onomastika batzordeak prestatuz eta besteetan Hiztegi Batukoak ere badutelarik zer esana. Arruntetan “Comunidad autónoma” deritzan izenari buruz Herri-Aginteei pro-

posamen zehatza egin, orain dagoen nahastéa argitzeko. “Balear Irlak” dela eta, **irla** izenaz eztabaida luzea sortzen da, zeinetan parte hartzen duten P. Salaburu batzordeburuaz gain, P. Altuna, Tx. Peillen, I. Sarasola, F. Ondarra, J. San Martin, P. Altuna, A. Irigoien, F. Krutwig, J.M. Satrustegi, X. Kintana, J.A. Arana Martija, J. Haritschellar, P. Charritton euskaltzainek eta J.L. Lizundia Onomastika batzordekideak. J.M. Satrustegik eta J. San Martinek argitzen dute bereziki *irla* jarri zela, Euskaltzaindiak presaturiko *Zortzi urte arteko ikastola hiztegian*. Islaren alde eta *uharte* toponimiako balioa zehatza nabarmentzen dute zenbait euskaltzainek. J.M. Satrustegik galdetzen du ea exonomastikako azpibatzerdea kendu beharko ote den, Onomastika barne, beste baten mesedetan, ezezkoa erantzuten zaiolarik. *Uharte* literaturan azken mendean asko erabili dela ere azpimarratu da. *Izaro* hitza ere erabili dela oroitarazten du J. San Martinek. A. Irigoienek ordena honetan hobesteko proposamena egiten du: *1. isla, 2. irla, 3. uharte*. I. Sarasola, ordea, beste era honetan egiten du proposamena: *1. uharte, 2. isla, 3. irla*. P. Charrittonek: *1. uharte, 2. irla*. Eztabaida luze baten ondoren, I. Sarasolaren proposamena onartzen da, kontrako botorik gabe. Izen soiletan Onomastika batzordetik iritsitako ea izen soil denak beretzat hartzen ditu Euskara Batuko batzordeak, salbu *Aragoa*. Euskara Batuko batzordeak *Aragoi* proposatzen du eta ez *Aragoa*, *Aragoe* aldakia ere aipatzen da. Eztabaida baten ondoren *Aragoi* onartzen da, 17 boto alde eta bi zuri jasotzen dituelarik. *Asturias* eta *Asturiak* izen historikoaz, Onomastika batzordearen proposamen berbera egin arren Euskara Batuko batzordeak, F. Ondarraren oharrak eztabaida sortzen du. Biak, *Asturias* eta *Asturiak* onartzen dira bakoitza bere erabileran eta bigarrenengoan deklinabidea zehazturik. “Principado de Asturias”erako, *Asturiasko Printzerria* onartzen da. A. Irigoienek ohartarazten du berak nahiago duela “Printzipatua”. Gainontzeko herrialdeen izen soil guztiak onartzen dira. Segidan, *Espainiako probintzia* eta *hiriburuen izenak* Onomastika batzordetik Euskara Batuko batzordera pasatu berberak aurkeztzen ditu, salbu gaztelaniaz “La Coruña” dena eta euskarazko zutabea *A Coruña* agertzea. Honetaz erabaki hau hartzen da: *Coruña* euskaraz eta beste zutabean *A Coruña* (*gal.*) eta *La Coruña* (*gazt.*) jarrita. *Las Palmas de Gran Canaria* eta *Santa Cruz de Teneriferen* izenei buruz azkenengo Onomastika batzordeak hemengo beste izen batzuei buruz esandakoaren analogiaz jokatu behar litzatekeela proposatzen du J.M. Satrustegik, alegia (Kanaria Handiko) *Las Palmasen* ordez, *Las Palmas (Kanaria Handiko)* eta (Tenerifeko) “Santa Cruz”en ordez *Santa Cruz (Tenerifeko)*. Onartzen da. *Santander* jartzea erabaki da, nahiz eta gero izen historikoetara pasatu *Sanandere*, alegia, euskal exonimotzat. *Palma de Mallorca* gehitzea ere onartu da eta baita ere *Santiago de Compostela* eta *Donejakue Konpostelako* izen historikoa. Azentua erabiltzea, orohar, libre uztea erabaki da. *Munduko estatu izenen* zerrendaz ez du proposamenik aurkeztu Euskara Batuko batzordeak. Jarraian, P. Salaburuk Euskara Batuko batzordearen udararteko onarpen egutegi hau aurkeztzen du: maiatzean 1. *Frantziako herrialde eta departamenduen izenak*, 2. Gramatikako hiru puntu: *Ongi etorri!*, *Hiru kiloko haurra*, *Lau hankako mahaia* eta *Orduak nola eman*; ekainean: 1. Hiztegi Batuko A letra osoa, 2. *Munduko estatu izenak*, 3. *Comunidad Autónoma* izenaz; uztailean: Hiztegi Batuko B letra eta Gramatikako beste punturen bat.

## Herri-Aginteeikiko II. Hitzarmena eta 1995.eko aurrekontuez

Hasteko X. Kintanaren proposamenez, P. Altunari eskerrak ematea onartu da X. Arzalluzesekin Euskaltzaindiaren egoera ekonomikoa dela eta egin duen gestioagatik.

J.A. Arana Martija diruzainak hartzen du segidan hitza eta 1995.eko aurrekontuen murrizketaz luzez jardun du, zenbait puntutan J.J. Zearreta, ekonomi eragileak laguntzen diolarik. Larrabearen, martxoaren 30ean, osoen bilkuran onartutako murrizketa drastikoak leunduz eta Donostian, apirilaren 12an, Herri-Aginteekin egindako bileran hauek eman-dako irizpideak nolabait kontuan hartuz, Diruzaintzak prestatu duen aurrekontu egokitu-tua, ez Euskaltzaindiak behar duena, egoera ekonomikoak derrigortzen duena baizik, banatu zaie euskaltzainei. Murrizketa aipagarrienak honako hauek dira: bekadunak kentzea, esleipenak ez ordaintzea, langileen igoera ez egitea, batzordeen kideak eta bileren kopuruak gutxitzea eta funtzionamenduko hainbat gastu murriztea. Hau guztia egin ondoren 181.881.438 pezeta geratzen dira aurrekontu arrunterako eta 81.338.260 pezeta egitasmo eta batzordeen aurrekonturako. Esleipenak ordaintzearen alde agertzen da P. Salaburu, baina Aditegiek gomendatutakoak bete behar direla dio. A. Irigoienek azaltzen du ikerketa lanentzat dirulaguntza gehiago sartu behar dela aurrekontuan. P. Charrittonek dio ikertokia dela Euskaltzaindia eta Azkue Biblioteka egun osoz, gaueko 10ak arte, adibidez, zabalik egon beharko lukeela ikertzaileei zerbitzu hobea emateko. Azken proposamen hau ezin dela onartu dio bibliotekariak pertsona gehiago hartu beharko liritekeelako bi txanda jarritz, atezain eta guzti. Beste proposamenak, eta beste euskaltzain batzuk egiten dituztenak kontuan hartuko direla dio diruzainak maiatzeko osoen bilkuran behin betiko onartu beharko direnak.

II. Hitzarmenaz eztabaida zabal bat hasten da. Aipamen ugari egiten dira, batzordekide hauek, orde honetan, parte haritzen dutelarik: P. Salaburu, P. Charritton, A. Irigoien, J. Haritschelhar, P. Salaburu, F. Krutwig, P. Salaburu, I. Sarasola, J. San Martin, M. Azkarate, J.J. Zearreta, X. Kintana, F. Krutwig, A. Irigoien, J. San Martin, P. Salaburu, J.L. Lizundia, J. Haritschelhar, J.A. Arana Martija, M. Azkarate, F. Ondarra, B. Oihartzabal, P. Charritton, B. Oihartzabal, J.L. Lizundia, J. Haritschelhar, P. Salaburu, J. San Martin, M. Azkarate, J. Haritschelhar, J.A. Arana Martija, P. Charritton.

Azkenik, euskaltzainburuak asteazkenerako bakoitzak II. Hitzarmenari buruzko oharra egoitzara idatziz bidaltzeko, horiek bakarrik kontuan izan ahalko baitira, Zuzendaritzak ikusi ondoren, maiatzeko batzarrera onartzeko moduan aurkezteko.

### **Batzordeen horniketa**

J.L. Lizundia idazkariordeak idatziz bidalitako eskaintzak irakurtzen ditu, hots, L. Villasantek, Euskara Baturako; F. Ondarrak, Gramatika batzordearako; Miren Azkarate Jagon sailburuak, orain arte dagoen batzordeetarako; P. Altuna Iker sailburuak, Gramatika, Euskara Batua eta Argitalpen batzordeetarako; X. Kintanak Euskara Baturako eta Exonomastikarako; eta Andolin Eguzkitza euskaltzain urgazleak, Onomastika, Exonomastika barne. Euskaltzainburuak batzordeburuei datorren maiatzaren 20rako idazkarien eta kideen proposamenak igortzeko eskatzen die, gero hileroko batzarrean hornitzeko.

### **Barneko eta kanpoko ordezkarien izendapena**

Euskaltzainburuak, atzoko Zuzendaritzan aurkeztu eta onartutako proposamen hau dakar: Gipuzkoako ordezkari, Juan Mari Lekuona; Arabako ordezkari, Patxi Goenaga;



Nafarroako ordezkari, Jose Mari Satrustegi; Iparraldeko ordezkari, Pierre Charritton, eta HABEko patronatoko Akademiaren ordezkari, Miren Azkarate, Jagon sailburua. Guztiok birresten dira.

### **Eskuarteko eta azken ordukoak**

J.A. Arana Martija, bibliotekariak, Azkue Bibliotekak katalogatu berri dituen zerrenda bi banatzen ditu, hots, “Odon Apraiz liburutegia” eta “Luis Ibarra Elizondo «Itarco»ren liburuak”.

J.M. Lekuona, buruordeak, honako hau adierazten du: jendaurrean aditzera eman da “Vianako Printzea Saria, VI. edizioa” dela eta Julio Caro Baroja aurkeztu dutela irabazletzat, hala nola “Ateneo de Navarra”k. Eta berandu denez Don Julioren alde eskabidea egin dutenekin, Euskaltzaindiak atxekimendua ager dezala, kontuan izanik, besteak beste, euskaltzain ohorezkoa dela. Onartzen da.

Ondoren, P. Charritton, Iparraldeko ordezkariak, maiatzeko bilkuren egitaraua azaltzen du. Nafarroa Behereko Heletako Udaletxean izango dira 26an, goizeko 10etan hilerokoa eta arratsalde 15,30-16etan Anai Innocentius Elizanbururen mendeurreneko biltzar irekia. Bi hitzaldi izango lirateke, bata, Martin Lasa lasalletarrarena, eta bestea, Xipri Arbelbide euskaltzain urgazlearena.

Azkenik, X. Kintana, euskaltzainak, hemen, ETBn berton, “Toma y Daca” izeneko telebista saioan gertatutakoaz bere kezka bizia agertzen du, hots, euskararekiko eta Euskal Herriarekiko, orohar, sortzen ari den errebisionismoaz. Horretaz Eusko Ikaskuntzako Gregorio Monreal eta Joseba Agirreazkuenaga buruzagiekin hitz egin duela aitortu du. Euskaltzaindiak bere garaian *Liburu Zuria* prestatu eta argitaratu zuela esan da, baina horrek ez duela kentzen arazoa berriz sakondu behar denik. Dena dela, gai hau Jagon Sailekoa dela ikusi da.

Besterik gabe, amaitu da bilkura.

Jean Haritschelhar,  
euskaltzainburua

Endrike Knörr,  
idazkaria

### Heletan, 1995eko maiatzaren 26an

Haritschelhar, J., euskaltzainburua  
 Lekuona, J.M., euskaltzainburuordea  
 Knörr, E., idazkaria  
 Arana, J.A., diruzaina  
 Altuna, P.  
 Azkarate, M.  
 Charriton, P.  
 Davant, J.L.  
 Diharce, X.  
 Goenaga, P.  
 Irigoyen, A.  
 Kintana, X.  
 Larre, E.  
 Oihartzabal, B.  
 Peillen, Tx.  
 Salaburu, P.  
 San Martin, J.  
 Sarasola, I.  
 Villasante, L.

Lizundia, J.L., idazkariordea  
 Zearreta, J.J., ekonomi eragilea

Heletan Herriko Etxean, 1995eko maiatzaren 26an, goizeko 10etan, bildu da Euskaltzaindia, aldamenean aipatzen diren lagunak han zirela. Egungo batzarrerako ezin etorria F. Krutwig, P. Ondarra eta P. Zabaletak adierazi dute.

#### Agiria

Apirileko batzar agiria oharrik gabe onartu da.

#### Hizkuntz arauak

Frantziako departamendu eta herrialde izenen azterketa izan da lehen puntua. Onomastika batzordeak Euskara Batuko batzordearen bidez aurkezturiko proposamena banan-banan ikusi dute batzartuek. Zenbait izen eztabaidagai gertatu cira, hala nola *Bourgogne*, *Ardennes* eta *Provence*-ren ordainak. Ñ letraren tokiaz ere mintzatu da. Bozketaren ondorioz, *Borgoina* eta *Midi-Pyrénées* erabaki da. Izenen batzuetan bi forma onartu dira, *Proventza/Provence*, *Rodano/Rhône*, adibidez. *Atlantiar* ala *Atlantiko* (*Pyrénées* departamenduaren izenerako) formen gainean ere iritzia agertu dira. Denbora faltaz, hurrengo batzarrean bukatuko da azterketa.

#### Hitzarmena

Euskaltzaindiak Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako Herri Aginteekin sinatuko duen 2. Hitzarmena ikertu da gero. Testu zirriborroari buruzko oharrak M. Azkarate, A. Irigoien eta P. Salaburuk bidali dituzte epe barruan. Hauetariko gehienak Herri Aginteei aurkeztuko zaien testuan sartu dira. Hauek dira, besteak beste: Euskaltzaindia Erakunde bakarra dela; batzorde teknikoa kentzea, eta horren ordez, izatekotan, aldian-aldiko begiraleak izendatzea; Euskaltzaindiaren lanak ordainduko dira, non ez

diren eskabide arruntak; dirulaguntzetan atzerapenak gertatuo balira korrituak Herri Aginteek ordainduko lituzkete; kontrol batzordeari egotzi zaizkion eginkizunak kentzea; bi parteen artean auzibiderik sortuko balitz epailea kanpokoan izan dadila (Euskal Herriko Unibertsitatekoa nahiz Deustukoa edo Nafarroako Unibertsitate Publikokoa).

Egungo batzarraren ondorioz, erabakitako testua Herri Aginteei helaraziko die Zuzendaritzak hurrengo astean. Horrela onartu da, B. Oihartzabalen absten tzioarekin. Nolanahi ere den, zenbait euskaltzainek aditzera eman dute Hitzarmen zirriborro hau ez zaiela gogobetegarri, ez baita bermatzen Euskaltzaindiak bere eginbideak betetzeko behar duen burujabetasuna ez diru kopuru nahikorik.

### **Batzordeen izendapena**

Batzordeen osakera izan da hurrengo gaia. Batzordeen iritzia entzun ondoren Zuzendaritzak egindako proposamena irakurri du J. Haritschelhar jaunak. Proposamenari aldaketa bakarra egin zaio: X. Kintana eta Tx. Peillen Euskara Batuko batzordekide izango dira, bozketaren ondorioz.

Lege-ekonomia batzordea hurrengo batzarrean osatuko da, ekonomilari batzuekin mintzatu ondoren.

Ahoskera lantaldea ere osatu gabe gelditu da, Lourdes Oñederra lantaldeburuaren iritzia jasorik.

### **Aurrekontua**

Euskaltzaindiaren diru egoera larria aztertu ondoren eta apirileko batzarrean entzun direnak aintzat harturik, Zuzendaritzak bere proposamena aurkeztu du egun. Horren araber, bereziki, 9.000.000 pezeta gehiago izango dira batzordeentzat. Proposamena onetsi da.

P. Salaburuk galdetu du ea 1994 urteko kontuak hertsirik dauden. Diruzaintza lan horretan ari dela erantzun dio J.A. Aranak. Salabururen ustez ezin da batzordeentzat gehiketa hori onartu 1994ko kontuak hertsia ez dauden bitartean, ez baita Euskaltzaindiak mentsarik sortuko den. Arana jaunak esan du horrelakorik ez dela gertatuko, haren ustez, baina hala balitz ere arazoak konponbidea izango duela.

Eta honetan bukatu da batzarra.

Jean Haritschelhar,  
euskaltzainbura

Endrike Knörr,  
idazkaria

**Ageriko batzarra**  
**Michel Elizanburu (*Frère Innocentius*) heletarraren mendeurrenkari**  
**Heletan, 1995eko maiatzaren 26an**

Haritschelhar, J., euskaltzainburua  
 Lekuona, J.M., euskaltzainburuordea  
 Knörr, E., idazkaria  
 Arana, J.A., diruzaina  
 Altuna, P.  
 Azkarate, M.  
 Charritton, P.  
 Davant, J.L.  
 Diharce, X.  
 Goenaga, P.  
 Irigoyen, A.  
 Kintana, X.  
 Larre, E.  
 Oihartzabal, B.  
 Peillen, Tx.  
 San Martin, J.  
 Villasante, L.  
 Arbelbide, X.  
 Casenave, J.  
 Carnino, J.  
 Duny Pétre, P.  
 Eguzkitza, A.  
 Goiti, B.  
 Idiart, R.  
 Lizundia, J.L.  
 Ruiz Urrestarazu, M.  
 Videgain, X.  
 Zearreta, J.J.

Heletako Herriko etxean, 1995eko maiatzaren 26an, arratsaldeko 4etan, bildu da Euskaltzaindia, aldamenean aipatzen diren kideak han zirela.

Michel Elizanburu (1826-1895) heletarraren heriotzearen mendeurrenkari egin da egungo batzar ospakizuna.

Mahaian jarri dira: Andrée Arbelbide auzapez anderea; Jean Haritschelhar euskaltzainburua; E. Knörr idazkaria; Xipri Arbelbide urgazlea eta Martin Lasa lasalletarra. Aretoa guztiz beterik zegoen. Euskaltzain oso eta urgazleez gainera, herriko jende asko bertaratu da.

Hasierako hitz batzuk egin ditu Arbelbide auzapez andereak, bere eta herriaren esker ona agertzeko. Ondoren, J. Haritschelharrek Heletak eman dituen idazleak aipatu ditu, besteak beste, Etienne Salaberri. *So egile* (1903-1981). Egungo omenduaren lehengusua zen Jean Baptiste Elizanburu saratarra ere aipatu du.

Xipri Arbelbide E. Salaberriren emaitza oparoaz mintzatu da lehenik. Gero, Arnaud Agirre (1850-1932), ezizenez *Frère Juvenal Martyr*, lasalletarraz hitz egin du, haren *Vocabulaire trilingue français-espagnol-basque* (1899) goraiapatuz. 19. mende hondarreko politika-giroa azaldu du mintzaldiaren azken aldean.

Martin Lasa jaunak Michel Elizanbururen bizitza eta lanaz argibide asko eman ditu bere hitzaldian.

Bukaeran, Euskal Idazkeen Elkarteko burua den Juan Garziak merezimenduzko domina bana eman die Jean Haritschelhar, Pierre Duny Pêtre, Xabier Diharce, Junes Casenave eta Juan San Martin jaunei, Elkartearen urteko batzarrean ezin emanik.

Azkenik, euskaltzainburuak Akademiaren esker ona adierazi die berriro etorritako guztiei, udalak eskaini ahamenerako gonbidapena eginaz batera.

Jean Haritschelhar,  
euskaltzainbura

Endrike Knörr,  
idazkaria

### Bilbon, 1995eko ekainaren 30ean

Haritschelhar, J., euskaltzainburua  
 Lekuona, J.M., euskaltzainburuordea  
 Knörr, E., idazkaria  
 Arana, J.A., diruzaina  
 Altuna, P.  
 Azkarate, M.  
 Charritton, P.  
 Diharce, X.  
 Goenaga, P.  
 Irigoyen, A.  
 Kintana, X.  
 Krutwig, F.  
 Oihartzabal, B.  
 Ondarra, P.  
 Salaburu, P.  
 San Martin, J.  
 Satrustegi, J.M.  
 Villasante, L.

Lizundia, J.L., idazkariordea

Bilbon, egoitzan, 1995eko ekainaren 30ean, goizeko 10etan, bildu da Euskaltzaindia, aldamenean aipatzen diren ki-deak han zirela. Ezin etorria adierazi dute J.L. Davant, E. Larre, Tx. Peillen eta I. Sarasolak. M. Azkarate, P. Ondarra eta J.M. Satrustegi ez dira arratsaldean izan.

#### Agiria

Maiatzeko agiriak onartu dira, zenbait zuzenketa egin ondoren.

#### Frantziako Errepublikako departamendu eta herrialdeen izenak

*Frantziako Errepublikako departamendu eta herrialdeen izenak* deritzan erabaki proposamena, Onomastika batzordeak ondu eta Euskara Batuko batzordeak aurkeztua, izan da egun lehenbiziko aztergaia, maiatzeko batzarrean ezin izan baitzen bukatu. Hiriburuak ere ikertu dira, Heletako batzarrean bezala.

Hasierako proposamenetik zenbait aldaketa egin dira batzarrean. Besteak beste, *Paue* izango da euskarazko forma arautua, *Pabe* eta *Paube*-ren kaltetan. Halaber, ekarri diren lekukotasunak (Euskara Batuko batzordearen eta A. Irigoyenen txostenak) kontuan harturik *Pirinio Atlantikoak* erabaki da, ez *Atlantiar*. Gainerakoan, departamenduen izen gehienetan frantsesez duten forma onartu da: *Meuse*, *Alpes-de-Haut-Provence*, *Rhône* eta abar. *Estrasburgo* formaren ondoan *Strasbourg* ere zilegi izango da; era berean, *Edinburgh*, *Fribourg*, *Hamburg*, *Luxembourg* eta *Salzburg* forma jatorrizkoak onartzen dira, euskal itxuradunen ondoan (*Edinburgo* eta abar). *Burgu* eta *burgo* hitzak mintzagai izan dira, puntu honi datxekola.

Aldiz, *Tolosa* erabaki da forma bakartzat, behar denean *Okzitaniako* ezarririk. *Auch*-en ondoan *Auski* ere erabili ahalko da, idazlea edo esataria antzinateaz ari denean.

P. Goenagaren galderari erantzunez, erabaki hau argitaratzerakoan, irizpide-orri bat erantsiko dela esan du P. Salaburuk, izenon deklinabideaz sor daitezkeen zalantzak argitzeko.

### **Ongi etorri**

Inolako aldaketarik gabe onartu da txosten hau. Azken urteotan zabaldu den *Ongi etorria(k)* forma baztertzeko asmoz egin da. Zer esanik ez, *Ongi etorria eman digute, Zarela ongi etorria!* edota *Ongi etorriak izango dira* perpausak guztiz zuzenak dira.

### **Hiru kiloko haurra, lau hankako mahaia**

*Zazpi orritako txostena, Bost liberatako aldizkaria* eta antzeko perpausak arrunt hedatu dira orobat azken urteotan. Areago, askok erabilera hori bakarrik zuzenetsi dute. Gauzak beren neurrira itzultzeko egin da txostena, idazle gehienek erabili duten *hiru laguneko taldea, bost urteko haurra* eta besteren egokitasuna adieraziz.

A. Irigoyenek eta P. Goenagak zalantzak agertu dituzte arazo honi buruz, nahiz funtsean testua onartu. Luzaz eztabaidatu ondoren aho batez onetsi da erabakia, hots, nongo galderari erantzuten ez zaionean: *hiru etxetako haurrak, hiru etxeetako haurrak, \*hiru etxeko haurrak*, ez dela *-(e)tako* behar. Guztiz zilegi dira. hortaz, tradizioak erakutsi bezala, *adineko pertsona, hiru kilometroko bidea, sei asteo egonaldia* eta abar.

### **Orduak nola esan**

Txosten honi dagokiola, *ordu* (eta *oren*) *bata, ordu biak, ordu batean, hiruretan* eta gisako esapideetan ez da zalantzarik agertu, salbu zenbait euskaltzainek proposaturiko *ordu batean/ordu batetan* bereizketa, ontzat eman ez dena. Laurdena eta erdia adierazteaz, P. Goenagak oroitarazi du *eta* osorik idaztea eskatu zuela E. Knörrek Leioako Biltzarrean. Sintagma nola eman eztabaidatu da: *ordu bat eta laurdena, ordu bata eta laurden* eta antzekoak. Azkenean hau erabaki da: *ordu bat eta erdiak, hiru eta erdiak, ordu bat eta laurdenak* eta abar. Besteak honela hobetsi dira: *bostak laurden gutxi(ago), hamarrek hamar gutxi(ago), hirurak eta hemezortzian* eta abar.

Zifrak ematerakoan, inguruko hizkuntzetan bezala, 00:12, 14:10 eta antzekoak erabiliko dira; deklinatzean ordua pluralean ezarriko da eta minutuak singularrean: *15:03ean*, adibidez, nahiz irakurtzeko *hirurak eta hiruan* esan. Horrekin batera zilegi izango da egitarau, kartel eta horrelakoetan erdiko bidea hartzea: *arratsaldeko Setan, gaueko 12ak arte*.

### **Azken ordukoak**

J.M. Satrustegik, arratsaldeko batzarrean ezin geldituz, aditzera eman du *Errenteria* izena dela eta K. Mitxelenaaren alargunak agertu dion kezka. Izan ere, arazoa alderdikeriaz azaltzen dute zenbaitek, Mitxelenaaren, Bozas Urrutiaren eta beste batzuen izena erabiliaz.

E. Knörrek Onomastika batzordeak puntu honen gainean iaztik egin duena azaldu du. Batzordeak ekainaren 23ko bilkuran horrela erabakirik, izkribu bat prestatuko da,

*Erreneria* izenaren egokitasuna aldeztuz. Zirriborroa zenbait batzordekidek aztertu ondoren, herriko *Oarso* aldizkarira bidaliko da. Ildo beretik, J. San Martinek *Egan* aldizkarian berak idatzitako artikulua aipatu du.

### **Hurrengo erabaki proposamenak**

Arratsaldeko lehen puntu gisa, *Data nola adierazi. Munduko estatu izenak, hiriburuak eta jentilizioak, Zenbait aditzen erregimena* eta *Topiko bihurtu* izeneko txostenak aurkeztu dira. Ohi bezala, idatziz igorriko dira oharrak hilaren 20a baino lehen.

Aldiz, Hiztegi Batuko A letra ezin izan da aurkeztu. Uztaileko batzarrean ekarriko da.

### **Batzordeak**

Ahoskera azpibatzerdearen osakera uztaileko batzarrean egingo dela esan du J. Haritschelhar euskaltzainburuak. Ekonomi azpibatzerdea horrela osatzea onartu da: Jon Castañares, Alberto Elorriaga, Sebastian García Trujillo eta Jose M.<sup>a</sup> Makua Goienetxe. Gainera, beste zenbait aholkulari izango ditu azpibatzerde honek.

### **Eskuarteakoak**

X. Diharceren gutuna irakurri du J. Haritschelharrek. Euskaltzaindiaren Erregelaren 39. artikulua dioena kontuan hartuz, euskaltzain oso izatea utzi nahi du, gazteago baten faboretan.

Euskaltzainburuak esan du lehen aldikoz gertatzen dela kasu hau Erregelaren testu berria onartzu gero, eta hirugarrenez egiten duela Diharce jaunak eskari bera. Artikulua irakurri du eta egutegia eta prozedura azaldu. X. Kintanak goraipatu du X. Diharceren jokabide jatorra. Hutsune larria litzateke, erantsi du, eta eskatu du X. Diharcek, bere tokia utzi arren, ahal dela, ateak zabalik izan ditzan, beti ere norberaren nahia eta iritzia errespetatuz. J. A. Aranak azaldu du 1920an jaioa dela X. Diharce. Euskaltzainetan zaharrena da, beraz, adinez. 1962an izendatu zen euskaltzain.

Diharce jaunak esan du ez duela hiru hilabeteko epea behar bere arrazoiak azaltzeko; adina eta gazteagoak Euskaltzaindian sartzea dira arrazoiak.

P. Altunaren iritziz, Euskaltzaindiak esan dezake arrazoi horiek ez direla pisuzkoak. L. Villasanterentzat, urrats larriaren aurrean aurkitzen da Akademia. Erregelak berriztatzean erabaki zena Arautegiaren aurka ez ote doan galdetu du, ezen betiko hautatu dira euskaltzainak. F. Krutwigen ustez, betikoa da euskaltzaintasuna agian.

Euskaltzainburuak bozketa egin eta horrela onartu zela erantzun du, eta ohorezkoetan bi kategoria izango zirela, hots, euskaltzain ohiak eta gainerakoak, oroitarazi.

Iritziak entzun ondoren, X. Iratzederrek erretiratu du bere eskaria.



**Kultura ministerioa**

Espainiako Kultura ministerioak urteoro antolatzen dituen sarietarako Euskaltzaindiaren ordezkariak proposatu ditu Zuzendaritzak. Aho batez onartu dute batzartuek proposamena. Honako hau da:

Espainako Letren saria: Juan San Martin.

Poesia saria: Jon Kortazar.

Kontaera saria: Ibon Sarasola.

Saiakera saria: Andolin Eguzkitza.

Antzerki saria: Patri Urkizu.

Haur eta gazte literatura saria: Pakita Arregi.

Itzulpen saria: Xabier Mendiguren Bereziartu.

**Kudeatzailea**

Euskaltzaindiaren kudeatzaileaz Zuzendaritzak egin duen erabaki proposamena irakurri du J. Haritschelharrek, J.L. Lizundia idazkariordeak batzar gela utzi ondoren. Izkribuan idazkariordea dena kudeatzailea izatea proposatzen da. Euskaltzainburuak hitz batzuk erantsi ditu, testua hobeki azaltzeko.

P. Salaburuk galdetu du proposamena ontzat hartuz gero zertan aldatzen diren gauzak. Bestalde, langile guztien eginkizunak ezagutzeko nahia agertu du. J. Haritschelharrek erantzun du aurrerantzean lotura gehiago izango duela kudeatzaileak euskaltzainburuarekin, eta langileen eginkizunei buruzko txostena hurrengo batzarrean ekar daitekeela. Bitartean, gehitu du, aldaketak izan dira barnean, Euskaltzaindiaren giza-baliabideei etekin gehiago ateratzeko.

P. Goenagaren iritziz, agian idazkariordearen alor akademikoa eta kudeatzaileari dagokiona ez dira erraz ezkontzen. J. San Martinek, berriz, esan du sei urte dela horrelako eginkizunaren beharra ikusi zela.

Gaia uztailleko batzarrean erabakiko da.

Diruzainak Akademiak behar dituen maileguak bideratzeko ahala eskatu du. Ontzat hartu da eskaria. P. Salaburuk galdetu du ez denentz hobe kontu guztiak banku bakar batean izatea. Ekonomi azpibatzaordeak aztertuko du puntu hori.

Eta arratsaldeko bost eta erdiak direla, bukatu da batzarra.

Jean Haritschelhar,  
euskaltzainburua

Endrike Knörr,  
idezkaria

**Ageriko batzarra**  
**Bilbon, 1995eko ekainaren 30ean**

Haritschelhar, J., euskaltzainburua  
Lekuona, J.M., euskaltzainburuordea  
Knörr, E., idazkaria  
Arana, J.A., diruzaina  
Goenaga, P.  
Irigoyen, A.  
Kintana, X.  
Krutwig, F.  
Oihartzabal, B.  
San Martin, J.  
Villasante, L.  
  
Pujana, P.  
  
Badiola, R.  
Barrenengoa, F.  
Etxebarria, J.A.  
Gereño, X.  
Kortazar, J.  
Lizundia, J.L.  
Oleaga, J.  
Rotaetxe, K.  
Uribarren, P.

Bilbon, egoitzan, 1995eko ekainaren 30ean, arratsaldeko bost eta erdietan, bildu da Euskaltzaindia, aldamenean aipatzen diren euskaltzain oso, ohorezko eta urgazleak han zirela. Ezin etorria adierazi dute M. Azkarate, J.L. Davant, E. Larre, P. Ondarra, Tx. Peillen, I. Sarasola eta J.M. Satrustegik.

Lehen errenkadan jarri dira Corominas jaunaren izenean etorri den Xavier Terrado, Lleidako Unibertsitateko irakaslea, eta Eneko Oregi, Hezkuntza sailburuordea, Josu Oregi zenaren semea. Bizkaiko euskaltzale batzuk ere etorri dira ospakizunera.

Lehendabizi, E. Knörr idazkariak egungo batzar arruntaren berri eman du.

Ondoren, Juan San Martinek Josu Oregi urgazlearen hilberria irakurri du. euskara eta euskal kulturarentzako debeku eta eragozpen denboran Oregi jaunak egin lana gogoratuz bereziki.

Gero, martxoko batzarrean izendaturiko bi euskaltzain ohorezkoei, Joan Corominas eta Pedro Pujanari, diploma ematea egin da. Lehenik, Pujanaren bitzitza eta lanak azaldu ditu labor euskaltzainburu jaunak. Ondoren, Pujana jaunaren hitzaldi bat irakurri du Patxi Uribarren urgazleak. Esker onezko hitzen ondoren, Oletako eta inguruko herrietako aditzaz jardun du. Bukaeran, euskal aditzaz ohar mintzatu da.

P. Pujana mahaira hurbildu da gero eta J. Haritschelharrek diploma eman dio.

J. Corominas-ez hitz batzuk esan ditu halaber euskaltzainburuak, haren merezimenduak goraiatzeko.

Gero, E. Knörrek hitzaldi bat irakurri du katalanez, Corominas jaunaren izendapenaren arrazoiak azalduz, batetik, eta, bestetik, euskaltzain ohorezko berriaren giza alderdi batzuk agertuz. Xavier Terradok artikulua batean esandako Corominasen lau dohaiak aipatu ditu E. Knörrek: katalanzaletasuna, iraupena, prestutasuna eta gizatasuna. Corominasek izendapenaren berri jakin zuenean telefonoz adierazitakoa kontatu du idazkariak: Sorbonako *honoris causa* doktoradutzaren pare zela harentzat Euskaltzain-

diko izendapen hau, eta galdetu du euskara eta Akaderniarenganako estimuaren adierazgarri hoberik izan ote daitekeen. Euskaltzaindia esker onez betea dela esan du ondoren, Corominas jaunak egindako ikerlan oparoagatik eca izendapena onartzeagatik. X. Terradori euskaltzain guztien besarkada anaikorra Corominasi ematea eskatuz bukatu du mintzaldia.

Ondoren, Terrado jaunak maisuaren ezin etorria adierazi du eta haren esker ona agertu. Egungo ekitaldirako J. Corominasek lau hizkuntzatan idatzitako mezua irakurri du bukatzeko. Honela dio: “Ohore handi honegatik eskerrik asko bihotzez. Moltes gràcies cordialment, savis col.legues. Grand merci, savants amis. Sumamente agradecido a tantos maestros. Gora Europa bat, Auñemendiko alaba!”.

Azkenik, Jean Haritschelharrek euskaltzain ohorezkoaren diploma luzatu dio Xavier Terradori Corominas jaunarentzat.

Jean Haritschelhar,  
euskaltzainburua

Endrike Knörr,  
idazkaria

### Donostian, 1995eko uztailaren 28an

Haritschelhar, J., euskaltzainburua  
 Lekuona, J.M., euskaltzainburuordea  
 Knörr, E., idazkaria  
 Arana, J.A., diruzaina  
 Altuna, P.  
 Azkarate, M.  
 Charritton, P.  
 Davant, J.L.  
 Diharce, X.  
 Kintana, X.  
 Krutwig, F.  
 Oihartzabal, B.  
 Ondarra, P.  
 Salaburu, P.  
 San Martin, J.  
 Sarasola, I.  
 Satrustegi, J.M.  
 Villasante, L.  
 Zabaleta, P.

Lizundia, J. L., idazkariorde-kudeatzailea  
 Zearreta, J. J., ekonomi eragilea

Donostian, Gipuzkoako Diputazioaren jauregian, 1995eko uztailaren 28an, goizeko 10etan, bildu da Euskaltzaindia alboko lerrokadan aipatzen diren kideak han zirela. E. Larre, A. Irigoyen eta Tx. Peillenek beren ezin etorria adierazi dute.

#### Agiriak

Ekaineko batzar agiriak onartu dira.

#### Euskara Batua

Lau izan dira batzarrean ontzat hartu diren txostenak: *Datak nola adierazi*, *Munduko estatu izenak*, *hiriburuak eta herritarrak*, *Zenbait aditzen erregimena eta Topiko(a) bihurtu izenekoak*. Pello Salaburuk azaldu du batzordearen iritzia, bidali diren oharrez eta.

Lehenbiziko txostena zegoen-zegoenean onartu da; bakar-bakarrik, hilabetea eman erromatar zenbakiak ere erabiltzea zilegi izango da, 1993.III.23, adibidez.

Bigarrenari dagokiola, zenbait proposamen erabakira pasa dira, Kasuren batean, bozketa egin da, hala nola *Djibuti* onesteko, *Jibuti*-ren kaltetan, *Mozambique* eta *Zambia* izenetan, —m— idatziko da. *Zipre* onartu da, orobat, A. Irigoyenen oharraren arabera.

*Zenbait aditzen erregimena* deritzan txostenean aldaketa txiki batzuk egin dira. *Itxoin / itxaron* aditzari nork-nori ala nor-nori-nork saila dagokion eztabaidatu da. Aditz horrek nor ez duenez, nork-nori sailekotzat joko da. Euskara jasoan *ama deitu / lagundu dut*, hots, nor-nork erara erabiltzeko E. Knörr-ek egindako proposamenari batzordeak ez dio ongi iritzi. *Deitu / lagundu dut / diot* maila berean izango dira, hortaz.

Azkenik, *Topiko(a) bihurtu* txostena ia deus aldatu gabe onartu da.

Hurrengo batzarre(t)an aztertzeko honako txosten hauek zabaldu dira: *Egiteko asmoz*, *Lehenago etorriko zen*, eta *Arazi aditzaren erregimena*.

*Comunidad (Autonoma eta Foral)* izenaren gainean zenbait dokumentazio banatu da. Euskal ordaina iraileko batzarrean erabakiko da.

## Hiztegi Batua

Hiztegi Batuaren lehen emaitza, *a-tik alkohol*-era hartzen duena, jaso dute batzar-tuek egun. Hiztegi osoa hilez hil onartzea da helburua. P. Salaburuk, I. Sarasolak eta P. Altunak egiteko zail eta luze honetaz hitz egin dute. Guztien arreta berezia eskatzen da, oharrak idazteko tenorean, eta eskura dagoen informazioa kontuan izan, *Orotariko Euskal Hiztegia*, oroz gain. Batzordeak idatzitako oharrak bakarrik aztertuko ditu. Prozeduraz ere mintzatu da J. L. Lizundia idazkariordea, lagungarri gerta daitekeen beste erakundeetako jardupidea iradokirik.

## Ahoskera azpibatzerdea eta lantaldea

Aurreko batzarrean agindu bezala, Ahoskera azpibatzerdea eratu da. Buru Lourdes Oñederra izango da; idazkari Iñaki Gaminde, eta kideak Jose Luis Alvarez Enparantza, Jean-Louis Davant, Pello Esnal, Juan M. Etxebarria, Pilartxo Etxeberria, Jose Ignacio Hualde, Bernard Hurch, Rosa M. Pagola, Xarles Videgain eta Koldo Zuazo. Horrez gainera, lan-talde bat osatuko da laster. Lourdes Oñederraren zuzendaritzapean, Pilartxo Etxeberria eta EITBko, IRALEko eta IBiko kide batzuk arituko dira lantalde horretan.

## Kudeatzailea

Ekaineko batzarrean mahai gainean gelditu zen kudeatzailei buruzko erabakia egun hartu da. Lehendabizi, J. Haritschelharrek oroitarazi du Zuzendaritzaren proposamena, hots, aurrerantzean idazkariordea izan dadila kudeatzailea, eta beronen alorra, Euskaltzaindiaren ibilera egokiarentzat garrantzitsua, zehaztu du. Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren eta Nafarroako Kontu Ganbararen txostenak horretaz, Ekonomi batzordeaz eta kontulariaz egin gomendioa ere gogorarazi du. Aurreko proposamenak, alde batetik, eta, bestetik, kudeatzaileak izango duen jardun-esparrua kontuan harturik organigrama bat zabaldu du euskaltzainburuak. Beharren arabera langileen eginkizunak aldatuko edota egokituko direla erantsi du Haritschelhar jaunak.

P. Salaburuk galdetu du ordezkari-tzetako langileak eta atezaina noren menpean egongo diren, eta atezainari telefonoaren ardura eman izanak ez dakarrenentz kategoria aldaketa. Eskatu du, orobat, Euskaltzaindiak behar dituen langileen katalogoa Zuzendaritzak aurkeztea, eta esan du dirua Zuzendaritzak bilatu behar duela, ekonomi eragileak eta Ekonomi batzordeak baino areago.

J. Haritschelharrek esan du diru eskariak egin baino lehen materiala prestatu behar dela, eta aipatu du Zuzendaritzak François Bayrou Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorreko buruari berriki egin dion ikustaldia. J.L. Lizundiak erantzun du ordezkari-tzetako langileak ordezkari bakoitzaren eta idazkariordearen menpean daudela, eta atezaina idazkariordearen azpian dagoela halaber. Iritzi bera agertu du P. Zabaletak; ka-

tegoria aldaketari dagokiola, esan du, gainera, enpresa txikietan maila subalternu direlakoek ez dutela hain lan-esparru finkorik. P. Salaburu esan du langile zerrenda gehitu behar dela. Gainera, kezkatu agertu da azken hamabi hilabeteetan diru bila enpresa pribatuetara inor ere joan ez izanagatik. J. Haritschelharren iritziz, langileen kopurua gehitu gabe badela bideratzeko modua. P. Charritonek uste du Euskaltzaindiak ez duela kontularirik behar. J. San Martinek ekaineko batzarrean esandakoa berritu du, hots, kudeatzailearekikoaz bat datorrela, baina horrek ez duela kentzen plangintzaren premia.

Bozketa egin da organigramaz eta kudeatzailearen proposamenaz. Organigrama aho batez onartu da. Kudeatzailearen proposamenak honako emaitza hau izan du: bai 17k; ez batek; zuri batek.

### **1994ko kontu errendapena eta 1996ko aurrekontua**

J.A. Arana diruzainak eta J.J. Zearreta ekonomi eragileak 1994ko balantzea eta 1996ko aurrekontua (arrunta eta batzorde eta egitasmoena) aurkeztu dituzte. Biak onartu dira aho batez.

Diruzainak oraingo egoera larriaz hitz egin du ondoren. Dirulaguntzen ordainketan Herri Aginteen atzerapenetik datorren kaltea azpimarratu du bereziki.

Zamudioko Udalak aurtengo ekainean egindako gutuna irakurri da gero. Izkribuan Euskaltzaindiak emandako laguntza ordaintzeko prest ageri da Udala eta bideagatik galdetzen du, hots, dirulaguntza ala zerbitzuengatik kopuru bat. P. Salaburuk proposatu du erantzutea, bi puntu hauekin: orain arteko zerbitzuengatik faktura bidaliz eta datorren urteko aurrekontuan Udalak dirulaguntza eman dezan eskatuz.

### **Eskuartekoak**

J. Haritschelhar euskaltzainburuak goresmenak eman dizkio Jean-Louis Davant jaunari, oraintsu aurkeztu den *Aguirre presidentea* deritzan pastoralagatik.

Eta beste gairik ez zela bukatu da batzarra.

### Donostian, 1995eko uztailaren 28an

Haritschelhar, J., euskaltzainburua  
 Lekuona, J.M., euskaltzainburoordea  
 Knörr, E., idazkaria  
 Arana, J.A., diruzaina  
 Altuna, P.  
 Azkarate, M.  
 Charritton, P.  
 Davant, J.L.  
 Diharce, X.  
 Kintana, X.  
 Krutwig, F.  
 Ondarra, P.  
 San Martin, J.  
 Villasante, L.  
 Aduriz, J.A.  
 Aranalde, J.M.  
 Etxebarria, J.M.  
 Gandiaga, B.  
 Laspiur, I.  
 Loidi, J.A.  
 Ruiz Urrestarazu, M.M.  
 Zearreta, J.J.

Donostian, Gipuzkoako Diputazioaren jauregian, 1995eko uztailaren 28an. arratsaldeko 4.30etan, bildu da Euskaltzaindia, aldamenean aipatzen diren lagunak han zirela.

Lehendabizi, euskaltzainburuak goresmenak eman dizkio J.L. Davanti, berriki aurkeztu den *Aguirre presidentia* izeneko pastoralagatik. Arrokiagako herritarrek antzezten dute Davant jaunaren lana. J. Haritschelhar pozik agertu da pastorgintzak azken 25 urteotan erakutsi duen bizitasunagatik.

Goresmenak eman dizkio halaber euskaltzainburu jaunak Xabier Kintanari Benjamin Tuterakoaren bidaiaren liburua argitaratzegatik. Bere esker ona agertu du Kintana jaunak, eta merezimendua Nafarroako Gobernuarena eta, bereziki, Juan Cruz Alli presidente ohiarena dela esan du.

J. Haritschelharrek X. Kintanaren eraginez bidean den beste argitalpen bat alpatu du. Etxepareren liburuaren 450. urteurrenkari, *Linguae Vasconum Primitiae* argitaratu nahi da, gaztelania, frantses, aleman eta ingeles itzulpenekin.

Ondoren, E. Knörr idazkariak goizeko batzarraren berri eman du laburki.

### Ignacio Omaetxebarria (1909-1995)

Luis Villasantek irakurri du gero Ignacio Omaetxebarriari buruzko bere txostena. Gernikan jaioa, Arantzazun eta Alemaniako Fuldan egin zituen ikasketak Omaetxebarria jaunak. 1932an eman zuen mezaberria. Teologia irakasle izan zen Arantzazun, baita *Aránzazu* eta *Misiones franciscanas* aldizkarien zuzendari. Liburu eta artikulua anitz argitaratu ditu gai askoren gainean, baina, zorigaitoz, beste gauza ugari papereratu gabe joan da. Ardura berezi bat izan du Ignacio Omaetxebarriak seroren ordenez, eta gai horretaz liburu batzuk plazaratu ere. Zenbait kargu izan ditu, Arnedoko komentuko bikarioa, Probintzialaren idazkaria eta Defindore generala, besteak beste. Valladoliden

bizi izan da Omaetxebarria azken hogeit urteetan. Zenduaren bibliografia aipatuaz bukatu du Luis Villasantek bere txostena. Euskarari buruzkoetan hauek dira: “El vascuence de Juan de Zumárraga” (1948), “Nombres propios y apellidos en el País Vasco y sus contornos” (1949), “Declinación vasca” (1962), “Vascuence y romance” (1986), *Euskera. Un poco de gramática y algo de morfología del verbo vasco* (1959), e.a.

### **Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa**

J. Haritschelhar euskaltzainburuak hartu du ondoren hitza, B. Oihartzabalen txostenaren zioa azaltzeko. Euskaltzaindiak aurrera daramatzen bi egitasmo nagusien garrantzia adierazi du, bai eta euskaltzainek horretaz lehen eskuko argibidea izatearena ere. Egungo batzarrean Euskal Herriko Hizkuntz Atlasaren txanda dela esan du. Oroitariko Euskal Hiztegiak beste hainbeste egingo du, urtea bukatu aitzin, zuzendaria den Ibon Sarasola jaunak.

B. Oihartzabal Atlasgintzako batzordeburuak egitasmo honen egoera azaldu du. Atlas-ak dituen bi helburuak aipatu ditu: euskararen gordailua izatea eta jendeari informazioa ematea. Lehenbizikoari datxekola, lana egina dago, 2.800 galdera dituen eta 145 herritan buratu den galdekizunaz 4.500 ordutako bandak bete dira, aurtengo udaberriatik CD-ROMera pasatzen ari direnak. Bigarren partea, hau da, liburutan argitaratzeko lana, doi-doi abiatua da. Gauzak ongi joanez gero 1997 urterako plazara daiteke lehen liburukia.

Zenbait euskaltzainek hitz egin dute gero. J.A. Aranak esan du Julio de Urquijo jaunak, Oñatiko Biltzarrean, 1918an, sortzear zegoen Euskaltzaindiaren bi xede nagusiak aipatu zituela: hiztegia aberastea eta atlasa egitea. J. Haritschelhar Gramatikan, Onomastikan eta Literaturan gordetzen den hizkuntz altxorraz mintzatu da.

Eta beste gairik ez zela, bukatu da batzarra.

Jean Haritschelhar,  
euskaltzainburua

Endrike Knörr,  
idazkaria



### Usurbilen, 1995eko, irailaren 29an

Haritschelhar, J., euskaltzainburua  
 Lekuona, J.M., euskaltzainburuordea  
 Knörr, E., idazkaria  
 Arana, J.A., diruzaina  
 Altuna, P.  
 Azkarate, M.  
 Charritton, P.  
 Davant, J.L.  
 Diharce, X.  
 Goenaga, P.  
 Irigoyen, A.  
 Kintana, X.  
 Krutwig, F.  
 Larre, E.  
 Ondarra, P.  
 Peillen, Tx.  
 Salaburu, P.  
 Sarasola, I.  
 Satrustegi, J.M.

Lizundia, J.L., idazkariordea  
 Zearreta, J.J., ekonomi eragilea

Usurbilgo Udaletxean, 1995eko irailaren 29an, goizeko 10etan, bildu da Euskaltzaindia. Aldamenean aipatzen diren ki-deak etorri dira. B. Oihartzabalek eta L.L. Villasantek beren ezin etorria adierazi dute.

#### Agiriak

Uztaileko agiriak ontzat hartu dira, zuzenketa batzuekin.

#### Hiztegi Batua

Hiztegi Batuko lehen zerrenda (*a - alko-hol*) onartu dute euskaltzainek egungo batzar honetan *-ska / -xka* auziak eraman du denbora gehiena. Idatziz X. Kintanak aurkeztu zuen bere iritzia, *-ska* eta *-sko* formen alde, eztabaidarako utzi den *adaxka* hitza dela eta. LEF batzordearen gomendioa oroitaraziz erantzun du M. Azkaratek, hots: *-xka, -xko* hobetsi behar dela salbuespena kontsonante ozenen ondoan egingo litzatekeelarik, *ilunsko, gogorsko*.

A. Irigoyenek esan du Arratian *-ska* dela forma bakarra. Haren aburuz, gainera, hipokoristikoak normalizatzea oso zaila da. J.M. Satrustegik Urdiainen *neska* eta *nexka* ongi bereizten direla adierazi du. E. Knörrek, bere ustea idatziz ez bidaliagatik barkamena eskatu ondoren, *-ska* forma arrunt gisa proposatzea ongi legokeela esan du, beharrik gabeko forma bustiak erabiltzera hain joera nabarmena duen hizkuntzan (*holli, txuri, dittut, e.a.*)

Bozketa egin da gero. Batzordearen proposamenaren alde 14 euskaltzainek eman dute botoa, eta 5ek kontra. Hortaz, *adaxka* idatziko da.

*Ahalge/ahalke* bikotea ere eztabaidarako utzi zuen batzordeak, Kintana jaunak *ahalke* forma defendatu du bere izkribuan. P. Charrittonek iritzi bera agertu duenez, Iparraldeko gehienak alde zituela, batzordeak onartu du eta batzarrak berretsi *ahalke* izango dela forma arautua.

*Aintzat* berbak hatxea eramatea eskatu zuen orobat X. Kintanak. I. Sarasolak Bergarako Biltzarraren ondoko *h*-zerrendaren aurka jokatzeko litzateke esan du. J.L. Davant

ere etimologikerian erortzeko arriskuaz mintzatu da. Batzordearen proposamenak 13 boto bildu ditu eta zuzenketa-eskeak 6.

Zenbait puntu aztertu dira ondoren: salbuetsi diren kontsonante ondoko hatxeak (*alha, erhi*); *akabu* hitza sartzea, *akabo*-z gainera, A. Irigoyenek iradokirik, eta *akeita*-ren esanahia zehaztu beharra.

Azkenik, tratatuko den hitz-saila aldioro ekartzea eskatu dute batzordekideek.

## Euskara Batuko batzardea

Hiru txosten onartu dira batzarrean: *Egiteko asmoz*, *Lehenago etorriko zen* eta *Arazi aditzaren erregimena* izenekoak.

Lehenbizikoa zegoen zegoenean onetsi da. *Lehenago etorriko zen* deritzanaz A. Irigoyenek gai horri buruz idatzi zuen artikulua oroitarazi du. E. Knörren ustez, *lehenago etorriko zen* eta *lehenago etorriko zatekeen* bi perpausak zuzenak direla esateaz gainera, euskara jasoan bigarrena erabili beharko litzatekeela esan liteke. Hori dela eta P. Altunak *zukeen* formaren erabilera aski hedatuaz hitz egin du, eta A. Irigoyenek *zatekeen* eta antzeko formak hizkuntza jasoan agertzen direla gaineratu du. Azkenean, zenbait adibide ezarri dira testuan, aditz iragankorrekin, eta horrela onartu da txostena.

*Arazi aditzaren erregimena* izeneko txostena azken zazpi lerroak kendurik onartu da.

## Erkidego

Uztaileko batzarraz gero mahai gainean zegoen gaia, *Comunidad Foral* eta *Comunidad Autónoma*-ren euskal ordainak, egun erabaki da, hots: *Foru Erkidegoa* eta *Autonomia Erkidegoa*.

Eztabaidan, I. Sarasolak, B. Oihartzabalen iritzia ekarri du, *Erkidego Forala*-ren aldekoa. Batzartuen artean, hala ere, *Foru Erkidegoa* hobetsi da. Bestalde, *Autonomi Erkidegoa* jo dute egokiagotzat. A. Irigoyenek *komunitate* hitza defendatu du. Bozketan, 14k hobetsi dute *Autonomia*; 3k *Autonomi*, eta abstentzio bat izan da.

J.M. Satrustegiren aburuz, Euskaltzaindiak bere diktamena egin behar du, gogan-beharrrik gabe, eta lehenik agintariei helarazi, adeitasunagatik, I. Sarasolarentzat, bigarren urratsa prentsara laster adieraztea da, Akademiaren erabakia zabal dadin, E. Knörrek gogorarazi du inork agindu gabe egin zuela Euskaltzaindiak polizia izen desberdinen gainean bere diktamena.

P. Altunak eskaturik, txostena egun idatzi behar da, urrira arte zain egon gabe. Batzara bukatu baino lehen, P. Salaburuk irakurri du testu zirriborroa eta zenbait zuzenketerakin onartu da. Izena *Gure egitura politiko batzuen izenez* izango du txostenak.

***Munduko akzidente geografikoak eta Munduko hizkuntza nagusien eta dialekto batzuen euskal izenak***

Onomastika batzordetik Euskara Batukora pasa diren bi txosten hauen azalpena egin dute X. Kintana eta J.L. Lizundia batzordekideek. Lehenbizikoan kontinenteen eta kontinenteen parte batzuen izenak ageri dira; bigarrenean hizkuntza hilak soilik. Ohi bezala, urriaren 20rako bidali behar dira oharrak.

**Erribera kaleko etxebizitza**

Bilboko Erribera kalean Euskaltzaindiak zuen egoitza zaharra urtea bukatu baino lehen uztea proposatu du Zuzendaritzak. Hori dela eta, ezer berezirik egingo den eztabaidatu da. X. Kintanaren iritziz, plaka bat ezartzea beharko litzaioke Bilboko Udalari eskatu. Horrela onartu da.

**Eskuartekoak**

J.A. Arana diruzainak Euskaltzaindiaren maileguak kitatzeko egin dena azaldu du. Euskadiko Kutxari bost milioi pezeta ordaindu zaizkio, horrela mailegua 30 miliotatik 25etara jaitsiz. Poliza berri bat sinatu da, mailegu honen amortizazioak hiru urtetara luzatzen dituen. Banco Bilbao Vizcayari 11.600.000 pezeta ordaindu zaizkio; gelditzen den zorra 23.400.000 pezetakoa da. Aurtengo apirilaren 12an Herri Aginteekin sinaturiko akordioan urteoro hiru urtetan 16.250.000 pezeta emango zutela bermatu zuten aipatu amortizazioei aurre egiteko. Baina Bizkaiko Diputazioarena izan ezik, beste Aginteek ez dute ezer eman. Beraz, Euskaltzaindiak bere dirutza erabiliz estali behar izan ditu amortizazioak.

Horrez gain, Banco de Bilbao Vizcayarekin urtebetean amortizatzen sinatu zen poliza urtarrilaren 31an. Baina Herri Aginteen laguntza kontuan izanik, zorretan gelditzen diren 23.400.000 pezeta hiru urtetan ordaintzea proposatu zaio bankuari eta honek onartu. Batzarrean aho batez eman zaio Diruzaintzari poliza berria sinatzeko baimena.

Bestalde, J.A. Arana jauna adierazi du uztailean ordaindu zirela osoen batzar dietak eta bidaiak. Batzordekideei dagozkien kitatze orriak banatu zaizkie; dirua etorri ahala ordainduko dira.

Bestalde, Herri Aginteekiko Hitzarmena laster sinatuko omen dela aditzera eman du.

Euskaltzainburuak Lege-Ekonomia batzordeak bere lehenbiziko bilkura hil honen 28an egin zuela eman du.

J.L. Lizundia idazkariorde-kudeatzaileak datorren hileko batzarrean J. Caro Barojaren omenez J.M.Satrustegiren eta E. Knörren txosten bana irakurriko direla esan du, eta agian I. Sarasolak Orotariko Euskal Hiztegiari buruzkoa aurkeztuko.

P. Altunak oroitarazi du Jose Ignacio Aranaren mendeurrenako ospakizunak pres-tatzen hastea. J.L. Lizundiak erantzun du hori eta beste bi, hots, Betolatzaren dotrinaren eta *Refranes y sentencias* liburuarena gogoan dituela Zuzendaritzak, egingo diren bi Jardunaldiez gainera (Jagon sailarena bata eta Herri-Literaturarena bestea).

J. Haritschelhar jaunak J.J. Zearretaren anaiaren herioaren berri eman du. Dolumina eman dio guztien izenean.

P. Charrittonek eskatu du Euskaltzaindiak bere iritzia agertzea Iparraldean, ezteiak euskaraz egitea debekatua baita, J.M. Satrustegik Iruñeko kasua ere aipatu du. J. Haritschelharrek esan du Alliot-Marie Donibane-Lohizuneko alkatesak izanen duela erantzuna, eta Euskaltzaindiak bere eginbidea beteko. Gainera, Alliot-Marie andereari beste gutun bat, pertsonala, eginen diola esan du, eta gogorarazi du testua berak itzuli zuela lehendabizikoz, Baigorriko alkate zelarik.

Charritton jaunak galdetu du, bestalde, Iparraldeko inor denentz Jagon sailean. M. Azkarate Jagon sailburuak erantzun du E. Baxoc izendatu zela saila berritzean. Dena dela, Jagon sailaren egoeraz eta etorkizunari buruzko asmoez azalpen bat egiteko prest agertu da Azkarate anderea. Azalpen hori urriko batzarrean egingo dela onartu da. Orotariko Euskal Hiztegiak Sarasola jaunaren mintzaldia azarokoan izango da, hortaz.

Eta beste gairik ez zela bukatu da batzarra. Kanpoan, Donostiako Santo Tomas Lizeoko haurrek egindako igarobidetik pasa dira euskaltzainak.

**Usurbilen, 1995eko irailaren 29an  
Udarregi bertsolariaren mendeurrenkari**

Haritschelhar, J., euskaltzainburua  
Lekuona, J.M., euskaltzainburuordea  
Knörr, E., idazkaria  
Arana, J.A., diruzaina  
Azkarate, M.  
Davant, J.L.  
Goenaga, P.  
Irigoyen, A.  
Kintana, X.  
Krutwig, F.  
Peillen, Tx.

Lizundia, J.L.  
Mujika, J.A.  
Sancristoval, P.  
Sagarna, A.  
Zearreta, J.J.

Usurbilgo Udaletxean, 1995eko irailaren 29an, arratseko 6etan, bildu da Euskaltzaindia. Aldamenean aipatzen diren ki-deak etorri dira. Ezin etorria B. Oihartzabalek eta L. Villasantek adierazi dute. Udaletxeko batzarregia beterik zegoen. Mahaian jarri dira: Jose Antonio Altuna alkatea: Jean Haritschelhar euskaltzainburua: Juan M. Lekuona euskaltzainburuordea eta egungo txostengilea, eta Garikoitz Udabe mendeurren batzordekidea.

Batzarrari hasiera emanez, Juan M. Lekuonak egin du bere hitzaldia, "Udarregiren bertsogintza baliapide erretoriko-poetikoak" tituluduna. Idazten ez irakurtzen ez zekien bertsolari honengan aurkitzen diren tropeak, ironia eta umorea azaldu ditu Lekuona jaunak bere jardunean.

Ondoren, Garikoitz Udabek mendeurren osoko programaz hitz egin du, parte hartu duten guztiei, eta batez ere, Euskaltzaindiari, Udalaren esker ona agertuz.

J. Haritschelhar mintzatu da gero. Bi ardatz nagusi izan ditu haren hitzaldiak: baretik, arbasoak goraiatu beharra, guri utzitako literaturan, bereziki, eta, bestetik, Euskaltzaindiak bertsolaritzaren alde egin eta egiten duen lana.

Azkenik, Jose Antonio Altuna Usurbilgo alkateak amaitutzat eman ditu mendeurreneko ospakizunak eta eskultura bat eskaini dio euskaltzainburuari, herriaren esker onaren erakusgarri.

Jean Haritschelhar,  
euskaltzainburua

Endrike Knörr,  
idazkaria

### Bilbon, 1995eko urriaren 27an

Haritschelhar, J., euskaltzainburua  
 Lekuona, J.M., euskaltzainburuordea  
 Knörr, E., idazkaria  
 Arana, J.A., diruzaina  
 Altuna, P.  
 Azkarate, M.  
 Davant, J.L.  
 Goenaga, P.  
 Diharce, X.  
 Goenaga, P.  
 Krutwig, F.  
 Larre, E.  
 Oihartzabal, B.  
 Ondarra, P.  
 Peillen, Tx.  
 Salaburu, P.  
 Sarasola, I.  
 Satrustegi, J.M.  
 Villasante, L.

Lizundia, J.L., idazkariorde-kudeatzailea

Bilbon, Plaza Barriko egoitzan, 1995eko urriaren 27an, goizeko hamarretan, bildu da Euskaltzaindia. Aldamenean aipatzen diren kideak etorri dira. P. Charritton, A. Irigoyen eta X. Kintanak beren ezin etorria adierazi dute.

#### Agiriak

Irailako bi agiriak onartu dira, zenbait zuzenketa eginik. I. Sarasolak hitza eskatu du, "isilpeko agiriak" deitu dituenengatik bere kezka agertzeko. Izan ere, A. Irigoyenek Usurbilen tratatu zena zabaldu du, izkribu baten bitartez, *erkidego* hitzaz harturiko erabakia dela eta. Kezka bera agertu dute P. Altunak eta J.M. Satrustegik. Euskaltzaindiaren pareko erakundeetan lege edo ohitura da esanak eta erabakiak gordean edukitzea, batzartuen iritziz. E. Knörrek eskatu du epe bat irekitzea eta gai horren gainean datozkeen proposamenak hurrengo batzar batean eztabaidatzea. Horrela onartu da.

#### Hiztegi Batua. Euskara Batua

*Almendra-arratsalde* hitz saila (47. zenbakiduna) onartu da egungo batzarrean. X. Kintanaren oharrak P. Salaburuk azaldu ditu.

*Apai* / *apez* auzian, forma biak onartu dira, baina *apai*-i lehenasuna emanaz. *Apartamentu* onetsi da, ez -du. *Apostu* / *apustu* bikoteaz eztabaidatu da eta gehiengoz *apustu* forma onartu, halaber *akuario*, ez *aquarium*, eta *arrangura*, *arrenkura* aldaeraren kaltetan.

I. Sarasolak *arazi* ez dela hiztegian agertuko esan du, beti loturik idatzi behar baita. Beste zenbait hitz (*aldarri*, *aparkatu*, adib.) zerrendan zergatik ez diren sartu galdetu du P. Goenagak. Batzordekideek honako hau lehen zerrenda dela erantzun dute.

Hurrengo batzarrerako orriak (*arraultza-azuzena*) banatu dira. Orobat -*ari* atzizkiari buruzko erabakizuna, eta -*ari* / -*ario* arazoaren gainekoa.

*Erkidego* hitzaz Usurbilgo batzarrean onartu txostenari azken ukituak eginik aginteei helarazi zaiela aditzera eman da. Nafarroako presidenteari eskuz eman zitzaion, Zuzendaritzak eta Nafarroako ordezkariak hilaren 18an egindako bisitan.

*Kontinenteen, geografia izen nagusi batzuk eta herritarren izenak* deritzan txostena (49.a) aztertu da halaber egungo batzarrean. Zenbait zuzenketarekin onartu da testua. Besteak beste, *ozeaniar* gehitu da eta *Antartika*, ez *Antarktika*, onetsi da, eztabaidaren ondoan; Exonomastika batzordeak proposatzen zuen *-k* -dun formaren aldeko botoak 5 izan dira, 7 aurka eta 4 zuri. Erabaki horrek *Artika* ekarriko luke, berebat *t*-aren ondoan *k*-rik gabe. Hala ere, Onomastika batzordera itzuliko da puntu hau, tokiaz, herritarraz eta adjetiboaz (*Itsaso Artikoa? Itsaso Antartikoa ?*) argibidea eman dezan.

*Hizkuntza hilak eta klasikoak* izeneko txostena (50.a) aztertu da gero. P. Ondarrak horrela iradokirik, akitanieraren gainean ez da inolako azalpenik erantsiko. Onomastika batzordearen proposamenetik beste bi gauza aldatu dira: *zelta* onartu da, ez *kelta*, bozketaren emaitza honako hau izan delarik: *zelta*-ren alde 8 boto, *kelta*-ren alde 4, eta 4 zuri, eta *greko* / *greziera*-ren ondoan *klasikoa* kendu da.

Azaroko batzarrean aztertuko diren *Estatuetako hizkuntza ofizialen izenak* eta *Nazio bat baino gehiago hartzen duten akzidente geografikoen izenak* tituludun txostenak banatu dira.

## Caro Baroja

Hurrena, J.M. Satrustegik eta E. Knörr-ek txosten bana irakurri dute joan den abuztuan hil zen Julio Caro Baroja euskaltzain ohorezkoari buruz. Satrustegi jaunak Caro Barojaren antropologia eta etnografia alorrak ukitu ditu, eta E. Knörrrek, berriz, hizkuntzen, eta batez ere, euskararen ikerketan Caro Barojaren ekarpenak.

## Jagon saila

Miren Azkarate Jagon sailburuak aurkeztu du gero *Jagon sailaren egitasmoaz* deritzan txostena. Azken urteotako lana aipatu du Azkarate andereak lehen partean. Bigarrenean euskal erakunde eta lantaldeekin harremanak sortzeko premia eta asmoa azaldu du. Hezkuntzan, komunikabideetan eta administrazioan egin beharreko lanak adierazi ondoren, Euskaltzaindiaren corpusaren gizarteratzeaz eta Jagon sailaren beselako eginkizunez eta osaeaz mintzaturik bukatu du Azkarate andereak bere txostena.

P. Goenagak, txostenagatik goresmenak eman ondoren, Euskal Herriko Unibertsitateko Euskararen Institutua ez dela aipatzen esan du. M. Azkarateren iritziz, Euskal Herriko Unibertsitatearekiko harremanek bi aldetako batzordea dute bide egokia. Bestalde, P. Goenagak Euskaltzaindiaren Arabako ordezkaritzara bidaltzen diren itzulpenagatik kezka bizia agertu du. J.L. Lizundiak eginkizun horren historia kontatu du. Testu ofizialek, eta, batez ere, Espainiako Gobernuaren Euskal Herriko Ordezkaritzatik etortzen direnek, itzulpen bakarra izateko premiagatik Gasteizen berrikusi izan dira azken urteotan. Kudeatzailearen ustez, baliabideak ezarri ezik lan hori utzi beharko du, tamalez, Euskaltzaindiak.

J.A. Aranak ere goraiatu du txostena. Testuan hainbat proposamen egiten direnez, Zuzendaritza sailburuekin bil dadin eskatu du. Hala onartu da.

Gero, ezteiak euskaraz egin ahal izateaz Donibane Lohizuneko alkatesari idatziko zaion gutunaren zirriborroa aurkeztu du Jagon sailburuak. Iparraldeko euskaltzainek sinatuko duten gutun horrek bi puntu ditu. Lehenbizikoan aitortzen da legeari dagokiola Alliot-Marie andereak arrazoi duela. Bigarrenean, berriz, Euskaltzaindiak 1994ko ekainean Miarritzen onartu zuen adierazpena, ofizialkidetasuna eskatuaz, gogorazten zaio, honako hau parada ona dela horri buruzko urratsak egiteko esanez. Aho batez onartu da testua.

### Eskuartekoak

J.A. Aranak nota labur bat irakurri du Gabriel Ramos Urangari buruz. Berriki hil den pintore eta grabatzaile honek Euskaltzaindiarentzat egin lana aipatu du bereziki, hots, egoitza nagusian diren bi beirateak.

Euskaltzaindiak Bilbao Bizkaia Kutzaren laguntzaz urteoro antolatzen dituen literatur sariak direla eta, epaimahaiak izendatu dira. Iazko berberak izango dira, hots.

Txomin Agirre eleberri sarian: X. Gereño, Tx. Peillen, Ana Toledo.

Toribio Alzaga teatro sarian: E. Arozena, D. Landart, P. Urkizu.

Felipe Arrese Beitia olerki sarian: J. Kortazar. M. Lasa, J.M. Lekuona.

Mikel Zarate saiakera sarian: A. Arejita, A. Eguzkitza, A. Irigoyen.

Usurbilgo Udaletik Udarregi bertsolariaren mendeurren batzordeak bidali duen esker onezko gutuna irakurri da.

Valentzian bihar, hilaren 28an, izango den ekitaldia aipatu du gero J.L. Lizundia jaunak. Institut d'Estudis Catalans-ek argitaratu berri duen *Diccionari de la llengua catalana* -ren aurkezpena dela eta, katalan eremuko 14 unibertsitate-errektore gonbidatu dira, orobat Europa eta Ameriketako berrogeita hamartsu katalan sailetako irakasle eta hizkuntza erromanikoen akademia buru guztiak. Gonbidapena Euskaltzaindiari ere iritsi zaio. J. Haritschelhar eta J.L. Lizundia joango dira.

Txomin Peillenek argitaratu berri duen *Parlons euskara* liburua (Paris, L'Harmattan. 1995) aurkeztu du. Goresmenak eman dizkiote batzarkideek.

J.A. Arana diruzainak 1995eko balantzea, (ekaina artekoa), azaldu du ondoren. Onartu da. Madrileko Gobernutik Euskaltzaindira datorren dirua BBV-n, mailegua lortzeko baldintza gisa, sartu beharraz P. Goenaga zalantzak agertu ditu.

*Erreneria* izenez Onomastika batzordeak onaturiko txostena irakurri du batzordeburuak, auziaren ingurukoak azaltzeaz batera. Batzarrak birretsi du txostena.

*Euskaldunon Egunkaria*-n kazetolari den Patxi Petrirenak orain arte egin duen atala utzi berri duela eta, E. Knörr-ek proposatu du Euskaltzaindiak bere esker ona agertzea, Akademiaren erabakiak hain trebeki eta leialki zabaldu dituelako. Onartu da.

Eta beste gairik ez zela, amaitu da batzarra.

Jean Haritschelhar,  
euskaltzainburua

Endrike Knörr,  
idazkaria



### Gasteizen, 1995eko azaroaren 24an

Haritschelhar, J., euskaltzainburua  
 Lekuona, J.M., euskaltzainburuordea  
 Knörr, E., idazkaria  
 Arana, J.A., diruzaina  
 Altuna, P.  
 Azkarate, M.  
 Charritton, P.  
 Davant, J.L.  
 Goenaga, P.  
 Irigoyen, A.  
 Kintana, X.  
 Krutwig, F.  
 Larre, E.  
 Oihartzabal, B.  
 Ondarra, P.  
 Peillen, Tx.  
 Salaburu, P.  
 Sarasola, I.  
 Satrustegi, J.M.  
 Villasante, L.

Lizundia, J.L., idazkariorde  
 Zearreta, J.J., ekonomia eragilea

Arabako Foru Diputazioaren jauregian, 1995eko azaroaren 24an, goizeko 10etan bildu da Euskaltzaindia. Aldamenean aipatzen diren kideak etorri dira. Bere ezin etorria adierazi du X. Diharcek, ahala J. Haritschelharri utzi diolarik.

#### Agiriak

Urriko batzar agiria onartu da.

#### Hiztegi Batua

Hiztegi Batuko bigarren zerrenda aztertu eta onartu dute euskaltzainek egungo batzarrean. Zenbait hitzen gainean eztabaida eta, kasuren batzuetan, bozketa izan da. *Arrautza ez, arraultza* proposatu du X. Kintana epe barruan igorritako bere izkribuan. E. Knörr proposamen horren alde mintzatu da, forma zaharek lehentsauna izan behar zutela gehituaz. Batzordearen proposamena bozkatu da eta emaitza honako hau izan da:

Bai	9
Ez	10
Abstentzioa	2

Bigarren bozketa egin da gero, *-l-* sartu ala ez. Hau izan da emaitza:

Bai	4
Ez	11
Abstentzioa	6

Orduan, M. Azkarate batzordekideak proposatu du forma nagusitzat *arrautza* harzea eta bigarren aukeratzat, Iparralderako, batez ere, *arroltze*. Emaitza hau izan da:

Bai	9
Ez	7
Abstentzioa	5

*Artilleria* baino X. Kintanak forma bustigabea nahiago zuen (*artileria*). Batzartu

gehienek, ordea, forma bustia onetsi dute. Hori dela eta, A. Irigoyenek esan du beste zenbait arazo berrikusi behar direla (*isil/ixil*, e.a.). *Arto irin* onartu da, halaber.

*Artxibo* baino *arkibo* nahiago lukeela adierazi du A. Irigoyenek ahoz. *Aterpe* / *aterbe* bikoteaz ere luzaz hitz egin da. Batzordearen ustez, familia bereko eta atzizki hori duten hitzak eduki behar dira gogoan (*aterpetu*, esate batera, eta *ilunpe*). Bozketak emaitza hau izan du:

<i>aterpe</i> -ren alde	12
<i>aterbe</i> -ren alde	8
Abstentzioa	1

X. Kintanaren proposamena onarturik, *atungorri*, *atunzuri* eta *atuntxiki* idatziko da, hirurak lotuak. *Azazkal* / *azkazal* auzia mahai gainean utzi da.

*Aurreiritzi*, *aurr(e)ikusi* eta antzeko izen eta aditzez ere eztabaidatu da. B. Oihartzabalen aburuz, *aurre*-ren pisua ez da berdina izenetan eta aditzetan. Aditzetan hedatzearen aurka agertu dira euskaltzain batzuk, *aurreikusi* euskara ez dela esanez. M. Azkaratek, aldiz, euskararen premiak kontuan har daitezken eskatu du. Azkenean, *aurreikusi* onartu da, baina ondoan "*hobe aurrez ikusi*" ezarriko da.

*Absente* / *ausente* arazoan hau izan da erabakia:

<i>absente</i>	9
<i>ausente</i>	6
Abstentzioa	4

*Autarki* hitza zerrendatik kendu da. *Autobia* hitzari dagokiola, zenbait euskaltzain, hala nola Kintana, Satrustegi, Peillen eta Knörr, hitz hori zerrendan sartzearen aurka mintzatu dira. Erdaraz bereizten den oro euskaraz bereizi behar denentz galdetu du idazkariak. M. Azkaratek gogorarazi du *autobia* onartu zela Eusko Jaurlaritzak, Euskaltzaindiaren partaidetzarekin, bideseinaleez egindako liburuan. Beste hitz batzuk mahai-gaineratu dira, eta J.L. Lizundiak esan du Espainiari datxekon adigai hau laster desagertuko dela. Azkenean, bozketa eginik, *autobia* zerrendan sartzea erabaki da, baina ohar baten bitartez Espainiako erabilera hori adieraziko da.

*Auzolan* onartu da, ez *auzalan*. *Aterki* eta *euritako* hitzen hedadura eta lekukotasunak berrikusiko dituzte batzordekideek. Xehetasun horiek salbu, *a* letra bukatu da.

Batzar deian ageri ziren beste erabakizunak abendura pasa dira, denbora faltaz.

## 1996ko batzar egutegia

J.L. Lizundia idazkariorde-kudeatzaileak datorren urteko batzar egutegiaren proposamena, Zuzendaritzak azken bilkuran onartua, banatu du, azalpen laburra eginik. Abenduaren 20a baino lehen egin dakizkioke zuzenketak.

## Eskuartekoak

*Palacio de justicia*-ren euskal ordaina zein den galdetu du idatziz Nafarroako Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusiak. *Justizia jauregia* erabaki da bozketaren bidez (19 boto alde; 0 aurka, eta abstentzio bat). Erantzunean Akademiaren esker ona ere agertuko zaio Jose Maria Rodriguez Ochoa jaunari.

**Gasteizen, 1995eko azaroaren 24an  
Ageriko batzarra**

Haritschelhar, J., euskaltzainburua  
Lekuona, J.M., euskaltzainburuordea  
Knörr, E., idazkaria  
Arana, J.A., diruzaina  
Altuna, P.  
Azkarate, M.  
Charriton, P.  
Davant, J.L.  
Goenaga, P.  
Irigoyen, A.  
Kintana, X.  
Krutwig, F.  
Larre, E.  
Oihartzabal, B.  
Ondarra, P.  
Peillen, Tx.  
Salaburu, P.  
Sarasola, I.  
Saturstegi, J.M.  
Villasante, L.

Aduriz, J.A.  
Aranburu, X.  
Arbelbide, X.  
Atxaga, M.  
Eguzkitza, A.  
Lakarra, J.A.  
Larrarte, J.M.  
Lasarte, M.P.  
Lizundia, J.L.  
Rotaetxe, K.  
Urrestarazu, M.M.  
Sancristoval, P.  
Uribarren, P.  
Zearreta, J.J.

Arabako Foru Diputazioaren jauregian, Batzar Nagusien aretoan, 1995eko azaroaren 24an, arratsaldeko 5etan, bildu da Euskaltzaindia. Alboko zerrendan aipatzen diren euskaltzain oso eta urgazleak etorri dira. Egungo bi batzarretarako bere ezin etorria adierazi du X. Diharce jaunak.

P. Goenagaren sarrera zen ageriko batzarren zioa. Mahaian jarri dira F. Ormazabal Arabako diputatu nagusia; J.M. Lopez de Juan Abad Batzar Nagusietako burua; J. Haritschelhar euskaltzainburua eta E. Knörr idazkaria. Aurreko tokietan ziren jaun-andere hauek: M. Karmen Garmendia Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua; X. Markiegi arartekoa; Mikel Mintegi, Arabako Kultura foru diputatua; J. Maria Zeberio Hizkuntza Politikarako sailburuordea; Juan Jose Goirienea Euskal Herriko Unibertsitateko errektorea, eta Alberto Lopez Basaguren, Unibertsitate bereko idazkari nagusia. Aretoa jendez beterik zegoen. P. Goenaga jaunaren senide eta adiskideez gain euskaltzale ugari etorri dira ageriko batzar honetara, hainbeste non batzuek zutik egon behar izan baitute.

Euskaltzainburuak egin ditu lehenbiziko hitzak, Akademiaren eginkizunaz eta egungo ekitaldiaren esanahiaz. Ondoren, P. Altuna eta X. Kintana euskaltzain berriaren bila joan dira. Txalo beroaren artean sartu da Goenaga jauna aretoan, eta "Euskararen batasunaz eta duintasunaz" izeneko bere hitzaldia irakurri du.

Ohiturari jarraiki, lehen partean Antonio M. Labaienen bizitza eta lanak izan ditu hizlariak mintzagai, eta bereziki Tolosako idazleak batasunaz zituen iritziak. *Batasuna. Mala letra y peor espíritu de una pseudo unificación* (1972) eta *Alternativas para una factible unificación y desarrollo del euskera* (1984) liburuek erakusten dituzten ikusmolde arras desberdinak aztertu ditu Goenaga jaunak lehen atal honetan. Bigarrena euskararen egoerari, irakaskuntzan, batez ere, eskaini dio: onarpena, erabilpena eta kalitatea izan dira bigarren parte honen ardatzak.

Hurrena, euskaltzain berriaren biografia eta lanak azaldu ditu bere erantzunean Miren Azkarate andereak. Lanerako beti prest izatea eta batzordeetako haren ekarria nabarmendu ditu. Ondoren, euskara batuaren egungo premia nagusiak zerrendatu ditu: *euskara gordina* deitu izan dena saihestea, hizkuntza mailak bereiztea eta hiztegi batua osatzea, oroz gain.

Gero, Jean Haritschelharrek euskaltzain domina eta diploma eman dizkio P. Goenagari, eta euskaltzainkide guztiak iragan dira Euskaltzaindian sartu berria besarkatzeko.

Araba koruak eskaini du, Sabin Salaberriren zuzendaritzapean, kantaldi eder laburra, F. Ormazabal jaunaren amaiera hitzak baino lehen.

Jean Haritschelhar,  
euskaltzainburua

Endrike Knörr,  
idazkaria

### Bilbon, 1995eko abenduaren 29an

Haritschelhar, J., euskaltzainburua  
 Lekuona, J.M., euskaltzainburuordea  
 Knörr, E., idazkaria  
 Arana, J.A., diruzaina  
 Altuna, P.  
 Azkarate, M.  
 Charritton, P.  
 Davant, J.L.  
 Diharce, X.  
 Goenaga, P.  
 Irigoyen, A.  
 Kintana, X.  
 Krutwig, F.  
 Larre, E.  
 Oihartzabal, B.  
 Ondarra, P.  
 Peillen, Tx.  
 Salaburu, P.  
 San Martin, J.  
 Sarasola, I.  
 Satrustegi, J.M.  
 Villasante, L.  
 Lizundia, J.L., idazkariorde-kudeatzailea

Bilbon, Plaza Barriko egoitzan, 1995eko abenduaren 29an, goizeko hamarretan, bildu da Euskaltzaindia. Aldamenean aipatzen diren kideak etorri dira. P. Zabaletak ezin etorria adierazi du.

#### Agiriak

Azaroko bi agiriak onartu dira, goizekoan zerbait zuzendurik eta gehiturik.

#### Goresmenak

Gaietan sartu baino lehen, euskaltzainburuak goresmenak eman dizkie honako jaun-andereei: Pello Salabururi, Euskal Herriko Unibertsitateko errektore izendatu berri baita, eta Miren Azkarateri, unibertsitate bereko errektoreorde; Endrike Knörr, Euskal Herriko Unibertsitatean katedra lortu duelako, eta Karlos Otegi Literaturatu batzordekideari, irakasle titular irakastokia eskuratzeagatik, halaber Euskal Herri Unibertsitatean.

#### Hiztegi batua

Azaroko batzarrean erabaki gabe gelditu ziren zenbait hitz, *a* letraz hasten direnak, aztertu dira lehenik. *Azazkal* / (*h*)*atzazal* / *azkazal* / *atzazkal* formetarik zein proposa daitekeen eztabaidatu da. *Azazkal* formak bildu ditu bozketan 15 boto. Bigarren mailan ezarriko dira *atzazal* eta *azkazal*.

*Aterki* hitzaz ekarri du argibide gehiago I. Sarasolak batzordekideak, eta zenbait euskaltzainek hitz horrek duen hedadura berretsi. Hiztegi honetan sartuko da, eta *e* letra aztertzean *euritako* hitzak izan behar duen tokiaz eztabaidatuko da. X. Kintanak oroitara du *Merkatalgo izendegia*-n *euritako* eta *euritakodenda* ageri direla. Orduko idazkaria zen Juan San Martinek esan du hiztegi hura oso bestelakoa zela.

A. Irigoyenek berri du *arkibo* formaren aldeko bere iritzia. Forma horren alde mintzatu da X. Kintana ere. J. Haritschelharren ustez, gaztelania eta frantsesa batera

datozelarik, euskaraz ere artxibo proposatu behar da. Bozketa egln da eta 16 boto jizan ditu artxibo formak.

Zenbait aldaketarekin onartu da gero *-Ari (-lari) atzizkiaz* deritzan txostena, 45.a. Besteak beste, zazpi lerro kendu ditu batzordeak berak. X. Kintanak proposaturik, *hezle* ere aipatuko da, *hezitzaille*-ren ondoan. A. Irigoyenek esan du berrekailuen kontua ez dela hain estua: *politiko, ekonomista* e.a. esaten baita. I. Sarasolak erantzun du pianista, kritiko eta halakoak ezin direla baztertu. X. Kintanak eta E. Larrek *ekonomialari* eta antzekoak defendatu dituzte. P. Salabururen iritziz, espreski aipatu behar da *ekonomista* eta *politiko* zilegi direla. B. Oihartzabarek adierazi du ez dela erraza jakitea hitza nazioartekoa den ala ez, maiz aski inguruko hizkuntzetan bide bera hartu ez delako (*gramático, grammarien, Grammatiker...*). A. Irigoyenek iradokirik, *\*elizari* kenduko da, *-iri* atzizkiarekin ez nahasteko (cf. *Elizari* deitura), eta *\*ardolari* ezarriko. J.M. Satrustegik *-gile* atzizkia ere badela oroitarazi du.

Ondoren, *-Ari / -ario atzizkiez*, 46. zenbakia daramana, eztabaldatu da. X. Kintanak eta E. Knörrek horren gaineko beren oharrak irakurri dituzte, *-ari* formaren alde. X. Kintanaren ustez, *-ario* izenatarako onetsiz gero (*enpresario, enpresari-* ren kaltetan) gaztelaniarekiko morrontza aitortuko luke euskarak. Gainera, Mitxelena-ren Iritzia gogoraz du, *Eskola Unibertsitaria* deitura egokietsiz. Bestalde, *-ario (notario, e.a.)* onartzean genero-marka adierazten da neurri batean. E. Knörrek esan du oso garbi dagoela izenatarako *-ari* atzizkiak azken 25 urte honetan izan duen hedatzea, baita idazle hoberenetan ere. I. Sarasolak erantzun du *enpresari enpresario* bezain erdarakada dela, eta *-ario* ez dela maskulinoa ez femeninoa. A. Irigoyenen ustez, *-ario* oso sustraitua dago. B. Oihartzabarek proposamenaren oinarria azaldu du, hots, forma hedatuenei baia eman zaie. Tx. Peillenek eskatu du argiago oharataraztea erdarazko *-ario* horri ez dagoekiola beti euskarazkoa (adib., *problema sanitario = osasun arazoa* edo). Horrela egingo da. E. Larrek galdetu du ezin denentz ezarri *-ari* forma euskaldunagoa dela. Eztabaida luzatzen zela ikusirik, euskaltzainburuak gaia urtarrileko batzarrean erabakitzea proposatu du. M. Azkaratek, aldiz, testua urtarrilean ekartzea eskatu du, baina egungo batzarrean erabakirik. Azkenean, testuan aldaketa handiak eginik eta proposamena puntu bakarrera bildurik bozketa egin da, emaitza honekin:

Bai	18
Ez	2
Zuri	2

X. Kintanak eta E. Knörrek kontrako botoa haiena izan dela adierazi dute.

49. txostenean zintzilik gelditu ziren bi puntu erabaki dira ondoren: *Antartika* eta *Itsaso Antartikoa*.

Hurrena, *Munduko geografiako zenbait izen (mendiak, ibaiak, itsasoak)* izeneko txostena, 52.a. aztertu da. Garaiz eta idatziz iritsi diren oharrak irakurri dituzte X. Kintanak eta E. Knörrek. Kintana jaunak *mendigune* proposatu du, erdarazko *massif/macizo*-ren ordain; izen bereziaren ondoan *mendia(k), ibaia*, e.a. ezartzea, komeni denean (*Karpatoak / Karpato mendiak*, adibidez); *Bizkaiko Golkoa* sartzea; *itsaso* eta beste beti letra larriz idaztea. E. Knörrek *Erdialdeko mendiak* proposatu du, *Massif central* delakoa itzultzeko. *Massif central* eta *Erdialdeko mendigunea* erabaki da azkenean. Izenotako letra larrien arazoa xehekiro ikertuko da beste batzar batean.

A. Irigoyenek *Pirineoak* eta *Mediterraneo* formak defendatu ditu; haren ustez, *Pirinio* eta *Biarno* berrikeriak dira; gaskoinek *Bearno* esaten dutela kontuan hartu behar da. *Ozeano Pazifikoa*-ren alde mintzatu da berebat, *Barea kentzea* proposatuz, eta *Kaspiar* izena dela eta, aditzera eman du *-(t)ar* atzizkia pertsoneri bakarrik egotz dakiekeela. E. Knörrek erantzun du *Pirinio* forma hirurehun urteko berrikeria dela gutxienez Tx. Peillenek esan du gaskoieraz *Beàrn* dela forma arrunta, eta E. Larrek euskaraz beti *Biarno* erabiltzen dela esan du. Bestalde, E. Knörrek el a P. Salaburuk beren kexa agertu dute idatzizko oharrek batzarrean onartzeagatik. I. Sarasolak, A. Irigoyeni erantzunez, esan du ez dela egia -ar forma pertsoneri bakarrik egotz dakiekeela. Ildo beretik, X. Kintanak esan du errusieraz eta georgieraz -ar atzizkiaren parekoak erabiltzen direla. B. Oihartzabalek *Meuse*, *Moselle* eta abar nahiago luke, ezen ez *Mosa*, *Mosela* eta antzekoak, gaztelaniatikoak. haren ustez, eta galdetu du ingelesez nola deitzen diren. E. Knörrek forma horien euskararen aldetikako egokitasuna aldeztu du (azkeneko -a, batez ere), eta Ausonioren *Mosella* ezaguna oroitarazi. Gainera, Europako toponimiari datxekolarik ingelesaren bidea azaldu du, hots, gehienetan frantsesetik dagoen-dagoenean hartzea (*Meuse*, *Bruges* eta beste). Aipatu du, azkenik, orain arteko irizpide nagusia, departamenduen izenetan bertako forma gordetzea (*Rhône*), baina eskualde. ibai eta antzeko izenetan ez (*Rodano*, *Lorrena*).

Bozketan batzordearen proposamena ontzat hartu da, *Mediterranio* eta *Itsaso Barea* izan ezik, *Mediterraneo* eta *Pazifiko* onartu baita gehiengoz. Azken izen honetaz Kintana jaunak erabakia berrikustea eskatu du. Ondorioz, bi formak onetsi dira (*Barea eta Pazifikoa*).

### 1996ko batzar egutegia

1996ko batzar egutegi proposamenaz iritsi diren bi oharrek, M. Azkaraterena eta P. Salabururena, aztertu ditu Zuzendaritzak azken bilkuran. Proposamen berria irakurri du J.L. Lizundia idazkariorde-kudeatzaileak eta aho batez onartu da.

### Eskuartekoak

Euskaltzainburuak euskaltzain urgazleak aurkezteko epea otsailaren 20a arte irekia izango dela aditzera eman du. P. Charrittonen aburuz, literaturazale gehiago behar ditu Akademiak. J. Haritschelharrek esan du batzordeetan lanean ari diren batzuk gogoan izan behar direla, idazleez gain. E. Knörrek oroitarazi du oso komeni dela urgazlegaiak aurkeztu eta izendatzean dituzten eginbideak adieraztea.

Euskaltzaindiak Bilbao Bizkaia Kutxaren laguntzaz urteoro antolatzen dituen literatura sarien epaiaren berri eman da. Txomin Agirre saria L.M. Mujikak irabazi du, *Hiru egun Larburun* deritzan eleberriaz. Toribio Alzaga saria Juan Jose Olasagarrek eskuratu du. Hegazti errariak teatro-lanaz. Felipe Arrese Beitia sarian Jose Felix Azkona gertatu da irabazle, *Artius* olerki bildumaz. Mikel Zarate saria Pako Sudupek eraman du, *Nemesio Etxaniz biografia* saiakeraz.

Denborarik ezagatik, X. Kintanak ekarririko bi proposamenak, *epaizinekoak* izenez bata eta euskal gizarteko arazoz bestea, mahai gainean gelditu dira, urtarrileko batzarrera arte.

Jean Haritschelhar,  
euskaltzainburua

Endrike Knörr,  
idazkaria





## **EUSKALTZAINDIAREN BARNE-JARDUNALDIAK: LARRABEA, EUSKALTZAINDIAREN ADIERAZPENA**

Euskaltzaindiak, orain berriki bere 75. urteurrena ospatu ondoren, eta azken asteotan, 1995eko aurrekontuak direla eta, sortu diren arazoak bideratzeko asmoz, adierazpen hau egiten du:

1. Gertatuak gertatu, irudi luke Euskaltzaindiak zenbait Herri-Aginterengandik urte luzeetan izan duen konfiantza, bihotzez eskertzen duguna hemen, oro har bederen itzaltzen hasi dela orain. Egun dituen arazoak ez ditu izan aspaldiko urteetan.

2. Egia da defizit eta eskasia handia duela aurrekontuetan. Defizit hau 1993ko aurrekontuan sortu zen lehenbiziko aldiz, urte hartan hartu zuen diru kopurua baino 45 milioi gehiago gastatu behar izan baitzuen. Defizit honen arrazoia asko izan dira, hauen artean garrantzizkoenak honako hauek:

a) Sistematikoki zenbait Herri-Agintek aginduriko aurrekontuetako diruak ia beti berandu hartu izan ditu. Lekuko, aurtengo aurrekontuei dagokienez eskuratu gabe dituen urtarrilean hartu behar zituen diruak eta hortaz, martxoko hilabete honetan ez du ezin atzeratuzko ordainketei (soldatak, gizarte asegurantzak, e.a.) aurre egiterik izango.

b) Herri-Agintek ongi zekiten moduan, Euskaltzaindiko langileen egoera bideratzeko zuzemenak jarri ziren 1992an Price Waterhouse etxeak egin auditoriaren ondoren. Horren ondorioz ezinbesteko soldata egokitze batzuk gertatu ziren eta, nahiz eta Herri-Agintek prozesu honen jabe izan diren, ez dute inolako baliabiderik jarri garaiz hornitzeko sortu izan diren behar berriak.

c) Gure dokumentazioak ongi erakusten duenez, zenbait erakundek alde aurretik idatziz emandako hitza ez dute bete eta Euskaltzaindiak jarri behar izan ditu zuzenean bere aurrekontutik gero inoiz ere eskuratu ez dituen aginduriko diruak. Horretan, batez ere zenbait argitalpenetan, milioi pezeta asko galdu ditu Euskaltzaindiak.

d) Sortuz joan den zuloa estaltzeko asmoz, eta batez ere ordainketak garaiz egiteko, mailegu bereziak eskatu behar izan ditu banku etxeetan, luzera begira horrekin zuloa areagotuz.

e) Bestetik, kontuan izan behar da 1994az geroztik Herri-Agintek murrizketa nabarmenak ezarri dizkiotela Euskaltzaindiari (urte horretan % 16an beheratu zen dirulaguntzaren kopurua).

3. Batez ere arrazoi horiengatik iritsi da Euskaltzaindia iritsi den egoerara. Zinez aitortzen du lehen aipaturiko konfiantza galtze hau mingarria izan dela, batez ere Euskaltzaindiak argi ikusi baitu dirua erraz aurkitu izan dela hizkuntzaren inguruko beste zenbait proiektutarako. Egoera larri hau nozitzen du Euskaltzaindiak, nahiz eta jakina den euskaltzainek orohar musutruk lan egiten dutela.

4. Euskaltzaindiak gogorarazi nahi du erakunde hau dela bakarra Autonomia Estatutuan espreski aipatzen dena hizkuntza kontuetarako, eta orain dela 75 urte izan zela sortua, eta zuzenean sortu zutela orain baliabideak murrizten ari zaizkion agintek. Oroitarazi nahi du, halaber, erakunde honek egiten duen lana ezin dela parekatu, ez bere historiaz, ez bere prestijioaz, ez eta hizkuntzaren batasunerako eta euskal gizartearen kohesiorako izan duen eginkizunaz, han-hemenka azken urteotan sortu izan diren zenbait elkarterekin. Herri-Agintek emandako dirua nola xahutzen den guztiek jakitea guztiz bidezkoa dela ukatu gabe ere, gogorarazi nahi du, aldi berean, azken urteotan kontrol burokratikoak, aspergarriak eta denbora galtze galantak ekarri dizkigutenak jasan behar zan dituela, Espainiako Gobernuak ematen dizkion dirulaguntzekin (eta milioi asko dira) gertatzen ez dena.

5. Baina hau da errealitatea eta konponbidean jarri behar dugu. Hori dela eta, honako neurri hauek proposatzen ditu Euskaltzaindiak Herri-Aginteen eztabaida daitezkeenak:

5.1. Defizitari dagokionez, badugu uste onez onean konponbidea aurkituko den defizit hori estaltzeko, 1993. urteari dagokion Fiskalizatze Txosten ofizialak zuzenean gomendatu duen bezala. Hori gertatzen ez bada, neurri hauek hartu beharko ditugu:

a) *Orotariko Euskal Hiztegia*-ren erredakzioa geldiarazi.

b) Euskaltzaindiko langileen lan erregulazioa. Horrek ordezkartzak eta egoitza nagusia ixtea ekar dezake.

Honekin kitatuko litzateke aurten maileguaren zorra.

5.2. Egoera berriari aurre egiteko:

a) Euskal Herriko Atlasa gelditu.

b) Batzordeak murriztu eta arau emaile ez diren batzordeak kendu.

c) Euskaltzainek eta batzordekideek ez dute kobratuko dietarik. Euskaltzaindiarentzat egiten diren lanak ere ez dira ordainduko, 1994tik aurrera gertatzen den bezala. Zuzendaritzakoek eta ordezkariak ere ez dute ezer kobratuko. Hotelik ez da erabiliko eta gehienez ere 2.000 pta. ordainduko da otordu bakoitzeko.

Horretaz gain beste zenbait neurri hartuko ditu:

1) Bestelako diru iturriak aurkitu, orain gelditzen diren proiektuekin aurrera segitzeko, ahal den neurrian, horiek ere Euskaltzaindiarenak baitira. Fundazioa sortzeko oinarriak aztertuko ditu.

2) Euskaltzaindiaren langileen lanaren kudeaketa eta azterketa egin, ahalik eta etekinik handiena ateratzeko. Orobat lan moldeak gaurkotu.

3) Auditoriek zehaztu dituzten gomendioen artean bete ez direnak bideratzen saiatu.

Badakigu honek guztiak Euskaltzaindiaren lanaren abiada motelduko duela, baina aldi berean uste dugu oinarri onak izan daitezkeela hauek Euskaltzaindia berriz ere bere bidean maila apalagoan jakina, jartzeko.

Larrabea, Legutiano, 1995eko martxoaren 31n.

Ahobatez onartua

Jean Haritschelhar,  
euskaltzainburua



# EUSKALKIEN ERABILERA ADMINISTRAZIOKO

## 1. ETA 2. HIZKUNTZ ESKAKIZUNETAN

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusitik zuzendutako eskariari erantzunez, Euskaltzaindia proposamen hauetara iritsi da:

### 1. AITZIN-OHARRAK

1.1. Euskaltzaindiari ez dagokio euskalkiak bai ala ezko iritzia ematea. Hori Administrazioak erabakia du. Hala ageri da Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak Euskaltzaindiari txostena eskatuz egindako idazkian: “lehenengo eta bigarren hizkuntza eskakizunetara aurkeztuko diren herri-langileek azterketa egiterakoak euskalkiren bat aukeratuko balute, zer-nolako hizkuntza arauak gorde beharko lituzketen ortografia eta morfosintaxiaren alorrean zehaztea”. Beraz, euskalkiren bat aukera dezakete azterketa egileek.

Eta hori, abuztuaren 3ko 238/1993 Dekretuak dioenean oinarritzen da. Hala baitio dekretu horren hirugarren atalak: “Aldi berean, lehenengo eta bigarren hizkuntza eskaizunei dagokienez, saio horietarako, egun bizirik dauden euskalki guztiak hartuko dira kontuan, Euskaltzaindiaren txostena jaso ondoren, HPINk honi buruz emandako erabakiaren arabera”.

1.2. Eduki zehaztea ere ez da Akademiaren zeregina. Ezen euskalkiari egokitua izan arren, 1. eta 2. mailako hizkuntza eskakizunerako eskatzen den programa berbera eskatuko balitzateke. Egitarau hori, urriaren 17ko 224/1989 Dekretuak, Euskal Autonomi Elkarteko Herri-Administrazioetan Euskararen Erabilera Normaltzeko Plangintza arautzen duenak, bere eranskinean egiten duen hizkuntza eskakizunen zehaztapena kontuan hartuz egin da, eta Erabakia, HPINrena, 1. eta 2. (3. eta 4.) hizkuntz eskakizunei dagozkien egitarauak ezartzen dituena, 1990eko uztailaren 5koa da.

1.3. Adierazitako baieztapenak oinarritzerakoan, Euskaltzaindiak 1979ko martxoaren 30ean egin zuen “Euskara Batua, euskalkiak eta tokian tokiko hizkerak” izeneko adierazpenean eskatzen zuenera jo da (Ikus *Euskera* XXIX (2. aldia), 103-106 orr.).

a) Ortografia: guztiz zehatza da Euskaltzaindiaren adierazpena kontu honetan: ortografia bakarra erabili behar da bai batuan bai euskalkietan. Honako hau da, hitzez hitz, aipatu adierazpenak dioena:

“Ortografia bakarra: Ortografia zaintzearen ohar horrek ez du esplikazio handirik behar. Euskara hizkuntza bat da, eta ez hizkuntza asko. Hizkuntza osoaren ortografia bat onartu denez gero, begien bistan da ortografia bakar hori erabili beharra dela bai euskalkietan eta bai euskara batuan ere”.

Ez dira, bada, arrazoizko inoiz entzun ohi diren argudioak: «Euskalkietan idazten denean H letra ez da erabili behar; hori baturako da». Edo, «Euskara batuan bustiduren grafiak ez dira jartzen, baina euskalkian bai», etab.

Hizkuntzaren barnean ortografia bat baino gehiago erabiltzeari kaltegarri deritza Euskaltzaindiak. Hori da, gainera, euskalkiak eta euskara batua hizkuntza desberdinak bezala jotzea.”

Beraz, euskalkiz edo tokian tokiko hizkeraz idatzitako testuetan ere bete behar dira baturako —eta, orohar, euskararako— emandako ortografia arauak, hala nola, esate baterako, txistukarien berezketa (*s/z*, *ts/tz*), *h*-a eta *in* batetik eta *ll*, *ñ* adierazkorrek bestetik, *ba-*, *bait-*, ez eta horrelakoen idazkera, maileguei, hitz elkartuei eta zenbatzaileei dagokiena e.a. Hitz batean, Euskaltzaindiak ortografiaren batasunerako eskaini dituen erabaki eta proposamen guztiak.

Hor dago, beraz, lehen muga, idatziari lotua. Euskalkiak erabiltzen badira ere, batasunerako erabakitako ortografia zaintzea nahitaezkoa da.

b) “Hizkuntzaren azpiegitura edo euskararen oinarri batua”.

Bigarren hau ahozkoari nahiz idatziari dagokio.

Euskararen muinari dagozkion puntuak bilduko lirateke hemen. Egia da zail samarra dela hau erabat zehaztea. Halere, Euskaltzaindiaren adierazpenean aurki dezakegu argibideren bat edo beste: “deklinabide mugagabea; *a* organikaz bukatutako hitzak; euskalki guztietan legezko den aditz jokoa eta euskal hitzurrena”.

Azken batean erabili nahi duen euskalki hori ondo ezagutzen badu, eta ondo erabiltzen, bigarren puntu honek ez luke arazorik sortu beharko.

## 2. HIZKUNTZ ESKAKIZUNAK

Euskaltzaindiaren adierazpena hizkuntz eskakizun bakoitzean eskatzen diren gaitasunekin lotzen bada:

### 2.1. *Lehen hizkuntz eskakizunak:*

Ulermena: bertako euskalkia eta batua. Euskalkia bai, baina euskara batuko testu edo mezuak (ahoz nahiz izkribuz jasoak) ulertzeko gai izan beharko luke.

Mintzamina: bere euskalkia ere arruntean —kontrakzioak barne— eta landuxeagoan jakitea, administrazioko edozein langilek bere herriko barietatean

trankil eta lasai mintzatzeko eskubidea onarturik ere, izan dezala, neurri batean bederen, euskara eredu zabalagoetara jotzeko gaitasuna.

Irakurmena: bere euskalkian eta batuan. Administrazioak ohiko idatzietan euskara batua erabiltzen duela jakinik, bidezko dirudi administrazio testuen ulermena hizkuntza eskakizun guztietan behar dela, bakoitzean dagokion maila eta neurrian.

Idazmena: bere euskalkian era landuan. Alfabetatua dagoela erakutsi behar du. Behar bada, administraziooko terminologia ez ezagutzea barka dakiok. Ulertzeko gai bada, poliki-poliki ikasiko du.

Maila honetan, beraz, batua, ulermen mailan eskatuko litzateke batik bat.

### 2.2. *Bigarren hizkuntz eskakizunak:*

Ulermena: bertako euskalkia eta batua.

Mintzamina: bere euskalkian era arruntean eta euskara batura hurbiltzen jakitea.

Irakurmena: bere euskalkian eta batuan.

Idazmena: bere euskalkian eta batura hurbiltzen jakitea.

Lehen mailakoarekin bereizkuntza, batez ere idazmenean egingo genuke. Onar daiteke bere euskalkian bakarrik berba egitea, ahoskera zainduago eskatu arren (oso laburdura gogorrik ez egitea...). Idatziz, ordea, euskara batuan egin ahal izatea ere eska dakiok. Bi maila ere berezi daitezke: idazmena hobea izatea euskalkian diharduenean, batuan ari denean baino. Dena den, erakusleen forma batuak, aditz laguntzailearenak (ohikoenak behintzat) menderatu behar-ko litzuzke.

## 3. ERANSKINA

Aztertzaile, ikasle nahiz material prestatzaileei begira honako irizpide orokor hauek jarri dira eredu gisara. Idatzian kontuan hartu beharrekoak:

3.1. Ahozkoan eta lagunarteko hizketan ohikoak diren laburtzapenak ez dira idatzian onartzekoak: *zer egin behar dozu, nahi badezu, gura dot, ez dakit bada, amonaren etxean*, e.a. idatziko da, esate baterako, *ez zeinbiozu, nabezu, gurot, eztaipa, amonan etxin* e.a.

3.2. Tokian tokiko fonetismo bereziak ere ez dira idatzian eman behar: *egia, dio, burua* eta *maitea, gogoa* idatziko da, esate baterako, *ez egiya, diyo, buruba* eta *maitia, gogua*, hurrenez hurren.

3.3. Euskalkian forma bi edo gehiago erabiltzen direnean, batuarekin bat datorrena hobetsiko da: *diet* esate baterako, *ez diotet, lagunai, ez, lagunairi...*

Bestalde, tradizio idatzi gabeko bariante lokalistegiak ez erabiltzea da jokatibide egokia: *ikisi, duzti, etorri ezteko (ez etortzeko)*...

### 3.4. Deklinabideari dagokionez:

Deklinabide mugagabea eskatuko da, hori ahaztutxea duten tokietan ere: *zenbait laguni, zein etxetan*, esate baterako, ez, *zenbait lagunei, zein etxean*...

Berezko *-a* gorde egin behar da, horretan nahasi samar dabilzan tokietan ere: *gauza bat, anaia horri*, esate baterako, ez *gauz bat, anai horri*...

Baturako arautu den deklinabidea eskatuko da, oro har, euskalkien berezitasun sistematikoak ontzat hartuz hala ere *-ak* ergatibo plurala eta absolutua ez bereiztea (*Gizonak etorri dira. Gizonak egin dabe*), *ai* (*lagunai*, beraz, ez *lagunairi, lagunaidi* e.a.), *-akin*...

Bizkaierazko forma bereziak ontzat ematen dira: *-arekin* amaitzen diren hitzak absolutuan *-ea* egitea (*neskea*, *logurea*, *errotea*, *euskerea*...). *-gaz/kaz*, *-kin*. Oraindino, horregaitino, *-rentzat* eta *-rentzako/-rendako* berdin onestea. Izenordainak: *zeredozer, noredonor, edonor*... Ez dira ontzat emango, ordea, laburdurak, *aitana* eta *amana*. *Antonion semea, gizonana da* (= *gizonarena*), *gizonaz etorri da* (= *gizonagaz*)...

3.5. Aditz jokoan, berriz, baturako onartu diren formen ordain sistematikoak eta euskalkiko forma batutzat har daitezkeenak emango dira ontzat, ez bestelakoak: *esan nau, diotet, eman zidazun, genekigun* eta horrelakoak ez, alegia.

Bizkaieraz, bai aditz laguntzaileak eta bai sintetikoak, tradiziozko literatur eraz ematea da egokia, modu idatzian laburdurarik egin gabe: *etorri ginan, etorri zaree* edo *zarie, emango deutso, erosi geuntsazan, badaroe, hor dakarre, egin ditu* edo *dauz, gorde doguz* edo *ditugu, esan lei* edo *leike, emon geinke* edo *ginei*... Hortaz, era idatzian *ekarrikotsozu, esateban, ingogu* modukoak ez lirateke onartu behar. Aditzetan bokal elkarketak gertatzen direnean: *dan, dala; direnean; leiken; geinkean*. Aspektuan: *etorri zaite, kontatu lei* (ahoz kontatu onartu arren). Aspektu *burutugabe*an marka *burutuaren* gainean: *garbituten, berotuten*. Era berean, aspektu *burutugabe*an ontzat ematekoak dira *ipinten, etorten*, etab. Iraganeko aditz laguntzaileen bukaeran: *genduan, zan, ziran*. Ahalezko adizkietan *-ke* gabe ere bai: *berak ekarri lei*.

### 3.6. Sintaxian:

*-ala* eta *-an* atzizkiak onartzen dira.

*eta* juntagailuaren ordez *ta* ere onar daiteke.

Horrez gainera, sintaxiari dagokionean, ez dugu uste ezer berezirik aipatu behar denik, euskara baturako eta euskalkietako sintaxi-zuzentasuna bat bera delako. Gainera Euskaltzaindiak ez du orain arte sintaxi-mailako gomendiorik



eman euskara baturako. Hortaz, zuzenak baldin badira, egitura guztiak dira onartzekoak.

Bizkaieraz ezer aipatzekotan:

Erakuslea mugatzaile gisa ez beti atzean: *Hau mutil hau* (edo *hau mutilau*).

Denborazko perpasusetan: *-(e)an* atzizkiaren ordezt *-(k)eran*: *zeredozer erosikeran*.

Helburuzko jokatu gabekoak, *-t(z)eraren* ordezt *ten*: *gauza batzuk ikusten noa*.

3.7. Morfologian era dialektal tradiziodunak ontzat emango dira: Bokal alternantzietan: *barri, alkar, agiri, burruka, gitxi, emon, eroan...* Kontsonanteak: leherkariak: *parkatu, kerexa, denbora, ebaki, jagi*. Bustidura: *hatxa, bakotxa... elexa*. Kontsonante alternantziak: *edur, bedar, idar, narru, nasai...*

#### 4. AZKEN OHARRAK

4.1. Azken ohar gisa, zerbait erantsi beharra ikusi da. Izan ere, 224/1989 dekretuaren arabera osatu da txostena eta horren arabera eman gomendioak; hau da, ahozko eta idatzizko trebetasunak neurtzeko lan probak kontuan izanik.

4.2. Euskaltzaindiak, ordea, bere kezka azaldu nahi du:

1. hizkuntz eskakizunean idatzizko probak garrantzi eta pisu handiegia izan ohi duela uste baitu. Maila horretako hizkuntz eskakizuna zein lanposturi (lanpostu-motari) ezartzen zaion kontuan harturik, halako lanetan ari direnak, noizbehinka ohar labur bat edo beste idatzi beharra izaten dute. Askotan ez eta hori ere, hizkuntza mintzatua dute langai behinena. Horregatik, 1. eta 2. hizkuntz eskakizunetan, eta batez ere 1. mailakoan, ahozko trebetasunari eman behar litzaioke erabateko lehentasuna Euskaltzaindiaren iritziz. Eta epaimahai-koei gogorarazi erabateko zilegi dela azterkariak beren azpieuskalkian aritzea. Areago, horretara bultzatu beharko litzuzke eta "euskara batua"an egin nahi eta ezinean dabilzanak. Idazmena, gero benetan zertarako eta zein neurritan behar izango duten kontuan harrurik neurtu beharko litzateke. Bestela, arrisku latza legoke, hizkuntzari dagokionez, eskatzen zaien lana euskaraz bikain egin dezakeen, baina eskolatzeo aukera handiegirik izan ez duen euskaldun zahar bat baino gehiago baztertzeko.

#### 5. BIBLIOGRAFIA

Arestian aipaturiko irizpideok areago zehazteko, honako iturri hauetara jo dezakete hizkuntza eskakizunen saioretako aztertzaileek:

1. Ortografiari dagokionez, Euskaltzaindiaren agiriak (*Euskera* agerkaria eta berariaz eginiko liburuxkak) eta horien dibulgaziorako eginiko bildumak (Eusko Jaurlaritzak argitara emandako *Euskaltzaindiak batasunerako eskaini dituen erabakiak*, esate baterako).
2. Gramatika orokorrari dagokionez, Euskaltzaindiaren *Euskal gramatika laburra: perpaus bakuna* (Bilbo, 1993).
3. Bizkaierarako, Hezkuntza Sailak argitaratutako *Bizkaieraren idatzizko arauak. Deklinabidea eta aditza* (Gasteiz, 1983).
4. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak argitaraturiko *Euskararen Erabilera Bizkaiko Irakaskuntzan* (Gasteiz, 1982ko urriak 22).

(Bilbon, 1994eko maiatzaren 27an hileroko osoko bilkuran onartua).

## ERREENTERIA ETA ORERETA IZENEZ

*Erreenteria* eta *Orereta* izenak hizpide izan dira azken hilabeteetan. Bazuengan ezbai eta zalantza sortu da agian. Aipatu behar da, oroz gain. Luis Elberdin jaunaren artikulua, herriko jaietan agerturiko *Oarso* aldizkarian, halaber jaun beraren liburua, *Orereta izena* eta *izana*, Mikel Hoyos jaunak euskaraz jarria. Honen guztiaren aurrean beharrezko dirudi berriro ere Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeak bere hitza adieraztea, labur bada ere.

1. Ez gara arituko hemen, ez baita gure eginkizuna, Elberdin jaunaren ideologia ikuspegiez eta filologia ezagupenez. Hauxe bakarrik esango dugu: nabarmena dela lan horietan, agirien bilketa eskertzekoa izanik ere, gertaera historikoak eta linguistikoak ez direla beren osotasunean hartu. Besteak beste, ezin dira eraman XIV. mendera askoz gerokoak diren politika jarrerak. Ezin da esan, halaber, lekuizen batzuen euskal akdaerak, *Erreenteria* bera, haien artean, XVIII. mendean hasi zirela erabiltzen, edota Euskal Herriko hiriek euskal toponimia zutela jatorriz. Azterketak agerian uzten du Euskal Herriko hizkuntz egoera oso ñabarra dela mendeetan zehar. Euskara nagusi da lurraldez, agerian denez, baina gure herrien izenez hizkuntza batzuen aztarna erakusten dute, mailguak —zaharrak eta berriagoak—, tradizio bikoitzeko lekuizenak (euskal-erromanikoak), e.a., guztiz ugari direlarik.

2. Horrelako iritziak eta aurreiritziak alde batera uzten baditugu, garbi esan behar da, berriz ere, *Erreenteria* euskal hitza dela. Mailegua da, hots, beste hizkuntza batetik hartua da, gure hizkuntzaren ehunka hitzak eta izen bereziak —giza nahiz lekuizenak— bezala. Bestalde, seguru aski (*er*)*reenteria* gaztelaniatik dator. Hala ere, hitza ez omen da erabili gaztelania orokorrean, eta bai Euskal Herrian bakarrik. Aipa dezakegu, adibide gisa, *Ensayo de la Sociedad Bascongada de los Amigos del País* liburua (Gasteiz, 1768), non “lonjas y renterías de Vizcaya y Guipúzcoa” esaten baita (17. orr.). Hitza ez da ageri gaztelaniazko hiztegiatan, ezta Erdal Akademiarenean ere. Bazetorren, bai, 1737ko argitaraldian: ordea, oso esanahi diferentearekin. Baina, gaztelaniatik etorri arren, horregatik ote da baztertzekoa?

Aldiz, normala denez, euskal hiztegi gehien-gehienetan ikusten da hitza, Azkueren *Diccionario vasco-español-francés* deritzanetik (1905) berriagoetaraino. Literatura lekukotasunen artean, aipagarria da Mogelek erabiltzen duela, *Peru Abarka* eleberrian, ezaguna den esanahian, hau da, “barne aduana”. Gogoraziko dugu, berebat, axola baitu, Euskal Herrian bakarrik erabilia izan dela giza eta lekuizen bezala. Gauza jakina da horrela deitzen direla zenbait

leku: honetaz gain, Orion, Deban, Ondarroan, Gernikan, Plentzian eta Bilbon. Hau ere gehituko dugu: *Rentería* deitura, gaztelaniazko grafia honekin, XV. mendez gero, behintzat, aurkitzen dela, forma soilean edo konposatuan (v.g., *Ibañez de la Rentería*).

3. Gauza hauek nahita edo nahigabe ahaztea baino larriagoa da Euskaltzaindiaren esanei ez lotzea. Elberdin jaunak, izan ere, honako hau idatzi du hitzez hitz: “1994-05-20an Euskaltzaindiak *Orereta* izena eta *oreretar*, aurrekoaren aldakia ofizialki onartu eta *Euskal Herriko Udalen Izendegia*-n sartzeko erabakia hartu zuen”. Hau ez da egia. Euskaltzaindiak egun horretan Alfonso Irigoyen euskaltzain oso, Onomastika batzordekide eta Deustuko Unibertsitateko katedradunaren txostenari onikusia eman zion. Txosten horretan esaten da *Orereta* izen historiko bat dela, oraingo udalerrriaren erdian dagoen lekuari dagokiona. Bestalde, Akademiaren egitekoa ez da inondik ere izenak ofizialtzea. Hori herri aginteei datzeko. Euskaltzaindiak irizpenak egiten ditu, eta hau oso bestelako gauza da, jakina.

4. Gainerakoan, ezaguna da Euskaltzaindiak, *Orereta* izenaren aldekoek txosten horri emandako interpretazioaren aurrean, prentsako ohar bat argitaratu behar izan zuela, 1994ko ekainaren 21ean.

5. Jakina denez, *Orereta* izena ugari erabili da, mende honen hasieratik, batez ere, *Erreneria*-ren ordain. Baina erabilera hori, zenbait alorretara mugatua, garai hartako garbizalekeriarekin eta hemen aipatzen diren gertaerak ez ezagutzearekin dago lotua, neurri handi batean.

6. Deitoragarri deritzagu orobat euskalari gailen batzuen izenaz eta irudiaz baliatzeari, gai honetan, haien iritziak gaizki erabilirik. Koldo Mitxelena euskaltzainaren irudiaz baliatzea, izkribuetan (aipatzen dugun liburuan, besteak beste) bai eta kale agerpenetan, gaitzesten dugu bereziki. 1980ko maiatzaren 28an, Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeak, Mitxelena jauna batzordeburu zelarik, *Erreneria* izenari buruzko irizpena onartu zuen, aho batez onartu ere, izenaren egokitasuna eta zuzentasuna berretsiz, eta Mitxelenak iritzi berbera azaldu zuen zenbait alditan, ahoz eta idatziz, jakina den bezala. Ikus daiteke, adibidez, *Euskera* agerkaria, XXXI:2, 1986, 537. orr., Juan San Martin euskaltzainkidearen artikulua baten gainean ari zela (*Egan*, XLVI:3-4, 1985, 187-189 orr.).

\* \* \*

Euskaltzaindiaren osoko batzarrean, Bilbon, 1995eko urriaren 27an, aho batez onaturiko testua.

\* \* \*

## SOBRE ERRETERIA Y ORERETA

En los últimos meses se han producido diversas declaraciones acerca del nombre de esta villa, que han podido originar duda y confusión en algunas personas. Hay que mencionar especialmente el artículo de Luis Elberdin en la revista *Oarso*, publicada con motivo de las fiestas patronales, y el libro del mismo autor, *Orereta izena eta izana*, con traducción de Mikel Hoyos. Ante todo ello, parece necesario que la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia salga al paso con algunas puntualizaciones.

Dakizuen bezala, hasi zen lanean Euskaltzaindia Arantzazuko biltzarretik landa. Ez ditut hemen aipatuko xede horri buruz agertu dituen liburuak. Igaz bere sorrerako 75. urtemuga eta Arantzazuko biltzarraren 25. urtemugaren ospatzeko landu du gai asko batzorde guzietan, lan horiek eztabaidatu Hegoaldean eta Iparraldean egin dituen jardunaldietan eta azkenik 400 bat entzuleren aurrean aurkeztu Euskal Herriko Unibertsitateko areto nagusian, entzuten zituelarik batzuk eta bertzeek eginikako oharrak.

Horiek guziak bildurik, Euskara Batuko batzordeak apaindu ditu *Arauak*, euskaltzain osoek onartu beren bilkuretan, orotara 152 orrialde euskaraz eta euskal kulturaz arduratzen diren guzien eskuetara joanen direnak. Ez ezazuela pentsa horrekin bukatua dela lana. Segituko du Euskaltzaindiak hasi duen ildotik, bilkuraz-bilkura eztabaidatuz eta gero agertuz erabakitzen dituen *Arauak*.



## **EUSKALTZAINDIAREN ARAUAK**

### **AURKEZPENA**

*Bilbo, 1995-05-04*

*Pello Salaburu,  
Euskara Batuko batzordeburua*

Euskaltzaindiak Leioan 1994ko irailean egin zuen Biltzarrean adierazi zuen hurrengo hilabeteetan argitara emango zituela batasun bidean hartzeko ziren hainbeste erabaki. Orain da orduan esandakoa betetzeko garaia eta horixe da Euskaltzaindiak egiten duena gaur *Arauak* izeneko lehenbiziko liburuki hau jendearen esku jartzzen duenean. Hemen ageri diren 29 erabaki hauek —badira beste batzuk ere hauen ondotik hartu izan direnak eta horiek ere berehala emango dira argitara— lan handiaren fruitu dira, bere laburrean. Eztabaida luze eta kontsulta askoren ondorio.

Orain dela bost urte edo, sortu zen Euskara Batuko batzordea eta egun P. Altunak, M. Azkaratek, B. Oiartzabalek, P. Salaburuk, I. Sarasolak eta L. Villasantek jaun-andreak osatzen dugu. Ikusten denez, denak euskaltzain osoak eta euskalki diferenteetakoak. Gainera, espezializazio aldetik ere esparru desberdinetan lan egiten dutenak. Horixe hartu baitzuen kontuan bere garaian Euskaltzaindiak: bultzatu behar dugun batasuna ahalik eta osoena izan dadin, euskalkiek erakusten duten aberastasuna bil dezan. Batzorde honi dagokio kontu hauetan gainerako batzordeek egin dezaketen lana koordinatzea eta hartu behar diren erabakiei buruzko nolabaiteko kalendario eta programazioa antolatzea. Hartarako, prozedura hau segitzen du lanean: behin proposamena egin ondoren, proposamen hau 80 bat lagunengatik esku jartzen da, nahi dituzten oharrak egin ditzaten. Lagun hauek guztiak gaur egun euskara indarrean dagoen eremuetako ordezkariak har daitezke: administrazioa, irakaskuntza, itzulpena, komunikabideak, argitaletxeak, e.a. Horiek guztiak bere eguneroko jardunean esperientzia handia dute eta haien iritzia ezinbestekoa dela uste du Euskaltzaindiak, gero hartu behar diren erabakiak ongi oinarriturik egon daitezken. Behin iritzia hartu ondoren elkarren artean erabakiak, esaten dena aztertu eta azkenean azken proposamena egiten du batzordeak berehala osoko bilkuran euskaltzain oso guztien artean eztabaidatzen dena. Horrela hartzen da erabakia.

Proposamenak anitzetan labur-laburrak diren arren, azpian dagoen informazio handi batean oinarritzen dira: Euskaltzaindia egiten ari den *Orotariko Euskal Hiztegia* idazteko erabiltzen den informazio informatizatua, alegia. Eta ohar bat egin nahi nuke auzi honetaz: urteak eta urteak egon gara euskalgintzan neketan gure lanetan, beti ere informazio ez genuela, edo informazio aski ez genuela, kexu. Urliak honela esaten duela, sendiak horrela eta berendiak hala, eta hori kontuan hartu behar litzatekeela. Eta orain informazioa eskura dugula, askoz ere informazio osoago eta fidagarriagoa kontsultatzeko moduan dugula, gure urlia, sendia eta berendia guztiak kontrolpean ditugula,

ez digute bada batzuek esaten sistema honekin Euskaltzaindia estatistika egiten ari dela! Literatura informazio hau kontuan ez hartzea izugarritzko hanka sartzea izango litzateke, gure erantzukizuna baita hori guztia kontsultatzea. Erabakiak ez dira, jakina, liturararen tradizioan bakarrik oinarritzen, gaur egungo erabilera ere kontuan hartzen baita. Toki guztietako erabilera, jakina, ez leku batzuetakoa bakarrik, proposatu nahi dugun eredu horrek eredu nazionala behar baitu izan, eta ez erregionala.

Zenbait kasutan, hasierako proposamenak ez ditu Euskara Batuko batzordeak egiten, lanean ari diren gainerako batzordeen arteko besteren batek baizik (Onomastika, Gramatika, Hiztegia, e.a.). Halakoetan, batzordekideek hurrenkeran jartzen dituzte, bere iritzia ematen dute eta proposamenaren punturen batekin bat ez baldin badatoz halaxe adierazten diote Euskaltzaindiari, azkeneko erabakia hartu aurretik.

Mahai gainean dagoen liburuki hau dela eta, baten batek esan izan du Euskaltzaindiak munta txikiko puntuei buruzko erabakiak hartzen dituela. Neurri batean egia da, nahiz hori leporatzen digunak erraz ahazten duen, antza, *dot*, *det* eta *dut*-en artean dagoen diferentzia baino txikiagorik nekez aurkituko dugun. Kontuan izan behar da, ordea, horrekin batera, erabaki nimiño hauek sekulako eragina dutela idazlearen egunero ihardueran. Esan behar da, halaber, erabakizun ziren gaiak aztertzen hasi ginenean mahai gainean izan genituela azkeneko hamar-hamabi urte honetan Euskaltzaindiari handik eta hemendik egin izan zaizkion kontsultak, hauen arteko asko idatziz gainera. Beraz, puntu txiki horiei buruzko informazioa nahi du jendeak eta hori ere eman behar zaio. Ez hori bakarrik, jakina: berehala hasiko gara hiztegiarekin eta onomastikako beste gai handiagoekin. Eta erabaki direnen artean ere badira beste puntu batzuk, adizki alokutiboen formari dagozkionak adibidez, aski zabalak. Hortaz, gure ustez, puntu hauek guztiak aurrerapauso handia dira hizkuntzaren batasunaren normalizazioan.

Ikusten denez, arau hauetan bere horretan onartzen dira alde aurretik emandako gomendioak, eta kasu batzuetan aldatu egiten dira gomendio hauek. Egia esan, Euskaltzaindiak kontu handia izan behar du erabakia ematen duen aurretik. Segur naiz ni Euskara Batuko batzordeak banan-banan hartuz askoz ere askatasun handiagoa erakutsiko genukeela erabaki bat proposatzean edo proposamen bat egitean. Baina euskaltzain gisa mintzo garenean gauzak behin, bi eta hiru aldiz pentsatu behar dira eta ez nolana hartu erabakiak.

Hemen da, hortaz, aspaldisko agindu genuena. Batasunak urrats handiak eman zituenean, baina azken aldi honetan geldirik zegoen eta jendeak, batez ere irakaskuntzan dabilenak, erabaki eta arau gehiago, errezeta gehiago azken batean, eskatzen zuen. Laguntza handikoa izango da hau eta Euskaltzaindiak aurrera egin behar du honekin. Ez nuke ixildu nahi, azkenik, beste zerbait ere esan gabe: lan hauek gure lanorduetatik kanpo egiten ditugu, gauzez edo aste hondarretan, gu ez baikara hemendik bizi. Gure agintariek kontuan izan beharko lukete hau iturrien beharra zalantzan jartzen dutenean. Horixe zen aipatu nahi nuena. Besterik ez, eskerrik asko denei.

**EUSKALTZAINDIAREN  
XIII. BILTZARRA**

*Euskera*  
*agerkaria 1994,3*





## EUSKALTZAINDIAREN XIII. BILTZARRA. AGIRIAK

**(Euskera-ren 1994.eko 3. liburukiaren aurkezpenaren karietara)**

*Bilbo, 1995-X-10*

*Jean Haritschelhar,  
euskaltzainburua*

Kasetari jaun-andereak, egun on!

Gaur aurkezten dugu *Euskera*, gure aldizkariaren 1994.eko 3. liburukia, 1000 orrialde dauzkan liburu gotorra.

Oroit baldin bazarete, igaz, urriaren 3-tik 7-ra arte, bildu zen Euskal Herriko Unibertsitatean, Leioako campusean, Euskaltzaindiaren XIII. Biltzar Nagusia. Aste osoa pasatu genuen egitarauak eskaintzen zituen gaiak eztabaidatuz. Orduko mintzaldiak, txostenak, eztabaidak agertzen dira mila orrialdeko liburu honetan.

Orotara, 61 ikerlek parte hartu zuten 400 jenderen aitzinean, horrek erakusten duela zein arrakasta handia ukan zuen Biltzar Nagusi horrek. 61 ikerle, gehienak unibertsitateko irakasleak, ez baita nehoiz horrelakorik gertatu Euskaltzaindiaren kongresuetan. Ikerle horien artean azpimarratu nahi nuke badirela 13 emazte, horiek ere gure unibertsitateko irakasleak. Ez ote da hori berria, Euskal Herriaren aldakuntza nabaritzen duena? Gero eta gehiago sartuak dira emakumeak euskal istudioetan, egiten dituzten ikerketa sakonak eskaintzen dizkiotela Euskaltzaindiari. Ikerle guzian lanak publikatzen dira liburu gotor eta mamitsu honetan.

Ene eskerrik bizienak bihurtzen dizkiet ikerle guziei, ahandzi gabe batzordeburuak, Ibon Sarasola, Miren Azkarate, Patxi Altuna, Endrike Knörr, Juan Mari Lekuona eta Pello Salaburu. Nola ez aipa hemen, haiei ere eskerrak emanez, batzorde akademikoan eta batzorde eragilean parte hartu duten guziak, Rikardo Badiola izan delarik liburuaren agerpena paratu duena.

Bertzerik ez. Ikusiko duzue kasetari jaun-andereak, lan egiten dela Euskaltzaindian eta harekin bat egiten duten ikerle guziei esker etekin paregabekoa jalgitzen dela kanpora.

\* \* \*

Un pequeño resumen para los que entre vosotros no comprenden el euskara.

Hace un año estábamos reunidos en el campus de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibersitatea, en Leioa, para debatir durante una semana entera, del 3 al 7 de octubre de 1994, cuestiones varias delante de unas 400 personas. Hasta en-

tonces nunca se habían reunido tantas personas alrededor de un tema como el euskara; me complazco en subrayarlo. Era el XIII Congreso de Euskaltzaindia en que 61 investigadores, la mayor parte universitarios, tomaron parte para dar, sea una conferencia, sea una comunicación. Entre éstos, 61 investigadores, 13 era de sexo femenino; universitarias ellas también, que hicieron, como sus colegas masculinos, unas aportaciones de gran valor. Estas conferencias y comunicaciones están reunidas en este tercer número de 1994 de la revista de Euskaltzaindia, *Euskera*, volumen enorme, de unas mil páginas.

# E U S K E R A

Euskaltzaindiaren lan eta agiriak  
Trabajos y actos de la Real Academia de la Lengua Vasca  
Travaux et actes de l'Académie de la Langue Basque



## EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA  
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

### EUSKALTZAINDIAREN XIII. BILTZARRA

Leioa, 1994.10.03-07

1994, 3  
39. liburukia (2. aldia)  
BILBO

Quiero agradecer a todos estos investigadores que ofrecieron a Euskaltzaindia el fruto de sus trabajos; agradezco también a los responsables de comisiones de Euskaltzaindia, Ibon Sarasola, Miren Azkarate, Patxi Altuna, Enrique Knörr, Juan Mari Lekuona y Pello Salaburu, sin olvidar los miembros de la comisión académica y la co-

misión organizadora., con mención especial a Ricardo Badiola, que, desde luego, ha trabajado mucho para la publicación de este volumen.

Esta obra de mil páginas demuestra efectivamente el trabajo que está haciendo Euskaltzaindia en este momento importante de la historia de nuestra lengua. En este 75 aniversario de la fundación de Euskaltzaindia y el 25 aniversario del Congreso de Aránzazu, el camino emprendido hacia la unificación del euskara permite dar más fuerza al euskara batua, ofrecerle la posibilidad no sólo de sobrevivir, sino de ser un punto de referencia para la comunidad vascofona cara al siglo XXI.



**DICCIONARI DE LA LLENGUA CATALANAREN  
AURKEZPENA VALENCIAKO  
UNIBERTSITATEAREN PARANINFOAN**

1995-10-28

Jose Luis Lizundia,  
idazkariorde-kudeatzailea

Paraninfoa bete-beterik. Lehendabizi hitza hartzen du Joan Francesc Mira jaunak, hots, Edicions 3 i 4, Edicions 62, Editorial Moll eta Enciclopedia Catalana-ren izenean. Bertan bildurako agintari, akademiko eta erakundeen ordezkariak eta bildutako guztiak agurtuz. Jarraian, Albert Hauf Valenciako Unibertsitateko irakasleak hitz egiten du *Diplomatarium Regni Valentiae* liburukiaren aurkezpena eginaz, ondoren, beronen paratzaile izan den Rober I. Burns Los Angeleseko Unibertsitateko historiagileak hitz egiten duelarik.

Hurrengo sailean Joan Francesc Mirak egiten du *Diccionari de la Llengua Catalanaren* aurkezpenaren lehen mintzaldia, gero, Aina Moll, Balear irltako filologa eta Hizkuntza Normalizazioko ardurakdunak, Antoni Maria Badia i Margarit Institut d'Estudis Catalaneko sail-lehendakariohiak eta Andoni Ferrandok Valenciako Unibertsitateko irakasleak eta Institut Interuniversitari de Filologiako presidentearik.

Hirugarren partean Joao Maura Instituto Camones-eko ordezkariak, Mario Sala Errumanieraren Akademiaren ordezkariak, Arcadio Lopez Casanovas Real Academia Galegaren ordezkariak eta Jean Haritschelhar euskaltzainburuak. Segidan, Emili Giralt eta Manuel Castelletek hitz egiten dute, lehendabizikoa, Institut d'Estudis Catalansen orain arteko lehendakaria eta bigarrena, oraingo lehendakariak hitz egiten dute. Ekin-tzaren amaiera Pedro Ruiz Valenciako Unibertsitateko errektoreak ematen du.

Esan behar da ekintza hau oso interesgarria izan dela alderdi askotatik, bereziki, kontuan izanik, Valencian azken bolada honetan, katalanak jasaten ari den erasoak kontuan izanik, agintari, politiko zenbaitegandik, batez ere herrialdeko Gorteen lehendakari den Lizondogandik. Bestalde, Euskaltzaindiaren presentzia interesgarria izan zen Mila jaunak aipatu genituelarik, bai Jean Haritschelhar euskaltzainburua eta ni neu, idazkariorde bezala. Euskaltzainburuaren hitzaldi laburra, euskaraz lehendabizi, eta gero gaztelaniaz, txalotugarrienetarikoa izan zela azpimarratu behar dut.



**BIZKAIKO FORU ALDUNDIA –EUSKALTZAINDIA:  
EUSKAL HERRIKO HIZKUNTZ ATLASA CD-ROM.  
*HITZARMENA***





**BIZKAIKO FORU DIPUTAZIOA-EUSKALTZAINDIA**  
**EUSKAL HERRIKO HIZKUNTZ ATLASA**  
**CD-ROM DELAKORA PASATZEA (II)**

*Ignacio Javier Etxebarria Etxeita*

Laburra izan gura dot nire solasalditxo honetan. Zortzi urte daroadaz Al-dundian Lehendakaritza Sailaren ardura dodala.

Nahiz eta kultur arloak, funtzionarien arteko hizkuntz normalkuntzari bu-ruzkoak izan ezik, Sail honetatik kanpo egon, beti izan ditut hartu-emon estuak Euskaltzaindiarekin eta bertako hainbat euskaltzain eta langilerekin.

Bestalde, HABEko patronatoan 10 bat urte daroadaz eta han bere sarri egin dot topo euskaltzainekin. Eta ezin ahaztu Durango eta Zornotza aldeko jendea dogula bertan lanean, Lizundia eta Zearreta, besteak beste, eta eurokaz beti izan ditudala hartu-emonak. Horretaz gainera, euskalduntze eta alfabetatze kan-painetan ere ibilia naz.

Behin, etxe honen inaugurazio ekintza ofiziala pasatu eta handik egun ba-tzutara etxe hau ikustera etorri nintzenean, Jose Antonio Arana Martijarekin liburutegia ikusten nebilela harriturik utzi ninduen horrenbeste zinta ikusteak. Eta Jose Antoniori zertzuk ziren harako zintak itaundu neutson. Eta honela izan neban Atlas Lingüistikoaren berri.

Euskaltzainburu jaunak esan dauen moduan, Atlas Lingüistikoaren atzean 145 herritan egindako bi milatik gora itaunketa dagoz eta orain dela denbora gitxi *Euskera* aldizkarian herriz herri itauntzen edo galdetzen ibili den hainbat jenderen lana agertu da.

Eta lan hau altxor haundi eta berezia da ze, ez dira itaunak bakarrik, itau-nen ostean erantzuleak dagoz eta seguruenik euretariko batzuk gaur egun ez dira, dagoeneko, gure artean aurkituko. Gainera, dena ahoz burutzerakoan euskara bizia jasotzen da bertan, hau da, esakerak, esamoldeak, tokian tokiko berezitasunak eta abar isladatzen dira horrelako grabaketetan.

Eta horretan ari ginela kezka eta ardura handia somatu neban grabaketen iraupenez, ze, momentuz, horrelako zinten grabazioa ondo entzun arren jen-dearen eskuetan ipintzean, erabileraren erabileraz, apurtzeko edo galtzeko arris-kua egoela ikusten zen.

Eta hortik, proiektu berezi bat moduan sortu zen, Kultura Saitetik bideratzen den ohizko finantziatze kanpo, aitatu dogun altxorraren artapena.

Une honetan dagozan aukeren artean, direla sei hilabete Durangon izenpetu genduen hitzarmenean, zinta guztien edukina CD-ROM euskarri informatikoan jasotzea jo zen aukerarik egokientzat.

Hitzarmen horrek ahalbideratu eban merkatuan dagoen kalitaterik haundienarekin, kopia bakarra, "masterra" hain zuzen ere, egitea.

Gaur sinatzen dogun hitzarmen berriak ahalbideratuko dau, aldiz, jendeak, batez ere, euskararen ikertzaileak, material hau erabiltzeko aukera izatea, kopia atarata horren kalitate ona ez badabe ere, masterra gordeta eta babestuta geldituko dela.

Horrela, ba, arazo horri konponbide bat topatu deusagu, betirako ez bada, betirako Jainkoa bakarrik da, bai hainbat urterako.

Diputatuaren kargua laster itxiko dauen honek, batetik Euskaltzaindiarekin izan ditudan harremanetan oso gustora izan nazela esan behar dot eta, bestetik, Euskaltzaindiak, Aldundiaren laguntza beti izan dauela jakin izan dauen arren, beti zuhertasun handiaz jokatu dauela, gauzak une eta egoera bakoitzean nola bideratu eta noraino eskatu eitekezan beti neurtuz.

Maila pertsonalean, herriko euskalduna nazen adinean, oso atseginak izan dira, Erakunde honekin izan ditudan hartu-emonak, erakunde mailakoez aparte, maila pertsonalean ere etxe honetako jendea ezagutzen dodalako, beti ondo baino hobeto hartu izan nabela.

Aldundiaren aldetik eskertzen dogu Euskaltzaindiak lankidetzarako beti agertu izan dauen jarrera ona.

Beraz, gaur hemen egiten diharduguna ez da geure buruak goratzeko edo bihar-etzi gogoratuak izateko, Herri-proiektu baten partaide sentitzen garelako baino; gizarte horri eta berorren hizkuntzari laguntza emotea, euskaldun legez, gure erantzukizunari aurre egitea da.

Azkenez, Aldundiaren izenean eta, batez ere, gure Sailarenean, eskerrak emon nahi deusadaz Euskaltzaindiari, lankidetzarako agertu izan dauen jokatibide zabalagatik eta etxe honetan beti gure etxean moduan sentiduarazo gaituelako.

Eta beste barik hitzarmena sinatuko dogu.

**BIZKAIKO FORU ALDUNDIA ETA  
EUSKALTZAINDIA EUSKAL HERRIKO  
HIZKUNTZ ATLASA DELA ETA**

*Hitzarmena / Convenio*

En Bilbao, a 15 de junio de 1995.

Por una parte, Ignacio Javier Etxebarria Etxeita, Diputado del Departamento de Presidencia de la Diputación Foral de Bizkaia.

Y por otra, Jean Haritschelhar, Presidente de Euskaltzaindia.

El Sr. Ignacio Javier Etxebarria Etxeita, participa como diputado del Departamento de Presidencia de la Diputación Foral de Bizkaia y el Sr. Jean Haritschelhar como representante de Euskaltzaindia.

Ambas partes se reconocen capacidad para firmar el presente Acuerdo y a tal fin

Bilbo, 1995eko ekainaren 15ean.

Batetik, Ignacio Javier Etxebarria Etxeita, Bizkaiko Foru Aldundiko Lehendakaritza Saileko diputatua.

Eta bestetik, Jean Haritschelhar, euskaltzainburua.

Ignacio Javier Etxebarria Etxeita jaunak, Bizkaiko Foru Aldundiko Lehendakaritza Saileko diputatu lege hartzen du parte, eta Jean Haritschelhar jaunak Euskaltzaindiaren izen eta ordezkari lege.

Alderdi biek Hitzarmen hau izenpetzeko ahalmena aitortzen diote elkarri, eta honako hau dute

**EXPONEN**

1.º Que Euskaltzaindia es una entidad con personalidad jurídica y sin ánimo de lucro, siendo su finalidad básica la investigación, corrección y promoción del euskara y el promover, organizar y programar todas las acciones necesarias para dicha finalidad.

2.º Que en los últimos años, Euskaltzaindia, con la finalidad de hacer el Atlas Lingüístico de Euskal Herria, ha realizado infinidad de grabaciones en 145 localidades y que dichas grabaciones están guardadas en base informática CD-ROM.

**ADIERAZI**

1. Euskaltzaindia nortasun juridikodun erakundea dela eta irabazasmo gabekoa gainera, bere helburu orokorra euskara aztertu, zuzendu eta bultzatzea dela eta horretarako beharrezko diren ekintza guztiak sustatu, antolatatu eta eratztea.

2. Azken urteotan Euskaltzaindiak, Euskal Herriko Atlas Linguistikoa egin ahal izateko, 145 herritan hainbat galdeketa grabatu egin dituela, eta grabaketa hauek CD-ROM euskarri informatikoan gordeta daudela.

3.º Que dichas 3.500 horas grabadas son un tesoro incalculable para conocer el idioma y de modo especial los dialectos, puesto que en ellos se fundamentarán en adelante todas las investigaciones del uso oral.

4.º Que es conveniente poner todo ese tesoro incalculable que posee Euskaltzaindia, en la medida de lo posible, a disposición de Euskal Herria y de modo especial en manos de los investigadores del euskera, en la Biblioteca de la Academia.

5.º Para poder realizar este servicio es necesario realizar copias complementarias, aunque sean de una calidad algo inferior al original.

6.º Que la Diputación Foral de Bizkaia manifiesta que desde la fundación de Euskaltzaindia en 1918 en su sede, ha tenido el deseo de promocionar el euskera y esta Entidad.

7.º Que la Diputación Foral de Bizkaia ha tenido un miramiento particular en guardar y proteger el tesoro de los dialectos, y que acepta plenamente la importancia de las cintas que posee Euskaltzaindia para asegurar para el futuro la información referente a los dialectos.

3. Grabatuta dauden 3.500 ordu horiek hizkuntza, eta batez ere euskalkiak ezagutzeko altxor paregabea dela, horretan oinarrituko baitira aurrerantzean ahozko erabileraren ikerketa guztiak.

4. Euskaltzaindiak duen altxor paregabe hori, bere balioa areagotzeko, ahal den neurrian, Euskal Herriko euskararen ikertzaileen esku Azkue bibliotekan ipintzea komeni dela.

5. Zerbitzu hau eskaini ahal izateko, kontsultarako kopia osagarriak egin behar direla, originala baino kopia arruntagoak izango badira ere.

6. Bizkaiko Foru Aldundiak, Euskaltzaindia 1918. urtean bere egoitzan sortu zenetik, euskara eta Erakunde hau bultzatzeko guraria izan duela agertzen du.

7. Bizkaiko Foru Aldundiak begirune berezia izan duela euskalkien altxorra zaindu eta gordetzeko, eta erabat onartzen duela Euskaltzaindiak dituen zinta horien garrantzia etorkizunean euskalkiei buruzko informazioa bermatzeko.

## PARTES DEL ACUERDO

**Primera.**—Todas las copias del Atlas Lingüístico de Euskal Herria en base informática CD-ROM serán en formato de 11 kilohercios y 16 bytes.

**Segunda.**—En todos los CD-ROM que se usen para ese trabajo se pondrán en serigrafía los escudos de la Diputación Foral de Bizkaia y Euskaltzaindia.

**Tercera.**—La Diputación Foral de Bizkaia dará una subvención de 2.000.000 de pesetas para realizar ese trabajo.

## ERABAKI ATALAK

**Lehena.**—Euskal Herriko Hizkuntz Atlaseko CD-ROM euskarri informatikoan egindako kopiak 11 kilohertzio eta 16 byteko formatoan izango dira.

**Bigarrena.**—Lan hori egiteko erabiliko diren CD-ROM guztietan Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Euskaltzaindiaren ikurrak serigrafiatuko dira.


**Hirugarrena.**—Bizkaiko Foru Aldundiak 2.000.000 pezetako dirulaguntza emango dio Euskaltzaindiari lan hori gauza dezan.

**Cuarta.**—Euskaltzaindia deberá finalizar dicho trabajo para finales del 31 de diciembre de 1995.


Y en conformidad con lo arriba expuesto, firman en cuatro copias en el lugar y días mencionados.

**Laugarrena.**—Lan hau 1995eko abenduaren 31a baino lehen amaitu behar du Euskaltzaindiak.

Eta goian esandakoaren adostasunez, laukoiztuta izenpetzen dute esandako leku eta egunean.



LEHENDAKARITZAKO  
DIPUTATUAK,  
EL DIPUTADO DE PRESIDENCIA



EUSKALTZAINBURUAK,  
EL PRESIDENTE DE  
EUSKALTZAINDIA



# **OMENALDIAK**





## JOSE MARIA MAKUA ZARANDONAREN OROIMENEZ

*Bilbo, 1995-VII-10*

*Jean Haritschelhar,  
Euskaltzainburua*

Josu Bergara, Bizkaiko diputatu nagusi jauna,  
Tomas Uribetxeberria, kulturako diputatu jauna,  
Mertxe Goienetxe anderea,  
Euskaltzainkideak,  
Jaun-Andereak. Agur.

Zuri, diputatu nagusi jauna, nire lehen hitzak zorionen eskaintzeko berrikitan hartu duzun karguarengatik. Nire zorionak ere Bizkaiko kulturarako diputatu jaunari; aspaldian ezagutzen dugu elgar, aspaldian elgarrekin ari gara lanean eta pentsatzen dut berdin segituko dugula.

Anitz zor dio Euskaltzaindiak Bizkaiko Diputazioari. Izan da, duela orain 77 urte gure Erakundearen sortzaileetarik lehena; ez dezakegu ahantz Kosme Elgezabal eta Felix Landaburu diputatuek egin zuten proposamena 1918-ko urtarrilaren 25-ean: beharrezkoa zela “Bazkunde bat euzkeria eta bere izkelgi oro adiratu, garbitu, obetu, orobatu ta zabaltzeko”.

Sortu zen, beraz, Euskaltzaindia eta orduz gero beti ukan du Bizkaiko Diputazioaren laguntza... Gehiago dena, duela orain hamar urte, etxe hau erosirik, Jose Maria Makua, orduko Bizkaiko diputatu nagusiak Bizkaiko Diputazioaren izenean sinatu zuen Aita Luis Villasante orduko euskaltzainburuarekin *hitzarmen* bat etxe hau eskainiz Euskaltzaindiari, ukan zezan merezi zuen egoitza egokia.

Hori zen 1985-eko uztailaren 10-ean, hain zuzen duela hamar urte, egun berean bilduak baikara sinadura horretaz oroituz. Hortakotz, deitu dugu ere Mertxe Goienetxe anderea, Jose Maria Makua-ren alarguna, bere hiru haurrekin, Yolanda, Txema eta Beatriz, nahi baitugu jakin dezaten gure ondotik etorriko direnek nork eta noiz eskaini eta zertako dagoen hemen gure egoitza.

Egoitza eder bat daukagu, Bizkaiko Diputazioaren etxea izana XIX.mendean. Bizkaiko Diputazioak erositua, gero berriztatua Alberto Pradera diputatu nagusi zelarik eta apaindua bi Gobernuen eta hiru Foru Aldundien artean. Etxe hau da Euskaltzaindiaren bihotza, bere bulego, gela nagusi, batzorde gela, artxibo eta liburutegiarekin.

Horiek guziak pozik hartu ditu Euskaltzaindiak etxe sartzea eginik duela orain lau urte, 1991-n. Baina... beti baita baina bat, etxe honen mantenuak, lehenago ez genituen eguneroko gastuak ordaindu behar ditugu. Ez nagoke zure aitzinean hori erran gabe, pentsatzen baitut ez diguzula ukatuko laguntza berezi bat, gastu horien ordaintzeko,

jakirik agintarienganik ukaiten duguna gastatzen dugula gure lanen aurreratzeko, euskararen “obetzeko, orobatzeko eta zabaltzeko” Kosme Elgezabal eta Felix Landaburuk zioten bezala.

Erranak erran, eta gaizki erranak barkatu, Mertxe Goienetxe andereari galdeginen diot agert dezan orain, haren senar zenari eskaintzen diogun oroimenenezko plaka, zuen aintzinean, Bizkaiko agintari jaunak, hemen dela lekuko Aita Luis Villasante orduko sinatzailea eta euskaltzainburua.

**JOSE MARIA MAKUA ZARANDONA  
JAUNARI EUSKALTZAINDIAK  
OROITARRIA**

*Egoitza, Bilbo, 1995-07-10*

*Jose Maria Makua Goienetxe*

Jaun-Andreok,

Agur guztioi.

1. Nire Amaren eta familia osoaren izenean ondorengo hitz laburrak, eskertzeko Euskaltzaindiak bere egoitzan, *oroitarria* jartzeko onartu duen erabakia.

2. Dakigun lez, nire Aitak benetan maite zuen Euskaltzaindia, euskal erakunde bat bezala, gure Euskal Herriko Iparra eta Hegoa eta zazpi herrialdeak elkartzen duen Erakundea.



**EUSKALTZAINDIAK,  
JOSE MARIA MAKUA ZARANDONA,  
BIZKAIKO DIPUTATU NAGUSI JAUNARI,  
EGOITZA HAU LAGATZEA SINATU ZUEN  
10.URTEURRENEAN, ESKER ONEZ.**

1995.7.10

3. Euskaltzaindia beharrean egoela ikusirik, behar bezalako egoitza prestatzen abiatu zen. Baita konpromisua hartu ere. Aita Villasante dago lekuko.
4. Guri eta euskaldun guztioi behar den bidea markatuz, ikasbidea eskainiz, batez ere gugandik baztertzeko hain hedatuak dauden, zoritxarrez, gutxietzeko, erdeinatzeko eta ahultzeko ohitura maltzurak kritikatzekoan gure funtsezko erakundeak.
5. Familia osoaren izenean eskertzen dut, Berak- gure Aitak- eginikoa aintzat hartu duzuelako.

**BI EUSKALTZAIN  
OHOREZKO BERRIAK**



## BI EUSKALTZAIN OHOREZKO BERRI

*Egoitza, Bilbo, 1995-06-30*

*Jean Haritschelhar,  
euskaltzaiburua*

Hezkuntza Sailburu ordea, Eneko Oregi jauna,  
Andereak,  
Jaunak. Agur.

### 1. ARABAR EUSKALTZAIN OHOREZKOA

PEDRO PUJANA AGIRREGABIRIA, 1915.eko ekainaren 29an Arabako Oletan sortua.

Ikasketak Gasteizko seminarioan.

Meza berria: 1944.eko uztailaren 2an Muxika-Oletako Andra Maria parrokian eman zuen.

Apaiz karguak: Eskoriatzan, Angiozarren, Morgan eta Gautegiz Arteagan izan ditu.

Euskaltzain urgazle 1970.eko abenduaren 20tik.

1970ean, Bilbon, *Euskal Aditza bizkaieraz/Flexiones del verbo vasco vizcaino* liburu argitaratu zuen. 1972an Bilbon argitaratu zuen *Aitortu zer dela eta?* 1973an, Bilbon bertan, baita ere aurrekoa bezala, D. Borobioren laguntzaz, *Bateoa* izeneko lana argitaratu zuen.

Beste lan batzuk: *Ahalezko lan batzuk* 1979, *Oletako euskal aditza / El verbo vasco de Oleta, Flexiones Hika del valle de Leintz (Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate), Del Valle de Anguiozar Bergara, de Zeanuri y de la zona de Vitoria*, Vitoria 1979, Diputación Foral de Alava, Consejo de Cultura. *Oletako euskal aditza, hikako jokabidea*, Vitoria 1977.

Mikel Zarateri lagundu zion *Euskara batua eta euskalkiak* Euskaltziandiaren Bergaran egindako VIII. Biltzarrean.

Pedro Pujana izan da Bizkaiko Forua euskaratu duena eta baita ere Gernikako Bazar Etxeko areto nagusian dauden esaldiak ere.

\* \* \*

Pedro Pujana Agirregabiria, nacido en Olaeta (Alava) el 22 de junio de 1915.

Realizó sus estudios en el Seminario de Vitoria, celebrando su primera misa en la parroquia de Santa María de Olaeta de Mugica el 2 de julio de 1944.

Ha tenido cargos eclesiásticos en: Eskoriatza, Angiozar, Morga, Gautegiz de Artega, hallándose en este momento en situación de jubilado.

Obras más importantes: *Euskal Aditza bizkaieraz / Flexiones del vasco vizcaíno* Bilbao 1970, *Aitortu zer dela eta*, la traducción de la obra de D. Brobio Bilbao 1972, *Bateoa*, también en colaboración con D. Borobio Bilbao 1973, *Ahalezko aditz jo-koak/Flexiones verbales en potencial* 1979, *Oletako euskal aditza/Verbo vasco de Olaeta (Alava)*, *Flexiones hika del valle de Lenitz (Gatzaga/Salinas, Eskoriatza, Aretxabaleta, y Arrasate/Mondragón)*, *del valle de Anguiozar Bergara, de Ceanuri, de la zona de Vitoria*, Diputación Foral de Alava, Consejo de Cultura, Vitoria 1979, *Oletako euskal aditza hikako deklinabidea*, Vitoria 1979.

Colaboró en la ponencia presentada por Mikel Zarate *Euskara batua eta euskalkiak/Euskera unificado y dialectos*, con motivo del VIII Congreso de Euskaltzaindia, Bergara 1978.

Ha realizado la traducción al euskara del *Fuero de Bizkaia*, siendo suyas también las frases euskéricas de la sala de plenos de la Casa de Juntas de Gernika.

## 2. JOAN COROMINES i VIGNEAUX

Joan Coromines i Vigneaux Bartzelonan sortu zen 1905an. Pere Coromines i Montanya (1870-1939) idazle, politikari eta ekonomistaren semea da.

Goi-ikasketak Bartzelonako Unibertsitatean egin zituen, halaber Estudis Universitaris Catalans eta Fundació Bernat Metge erakundeetan. Joaquim Balcells, Nicolau d'Olwer eta Carles Ribarekin, besteak beste. Gero, 1927an, Montpellier-en izan zen, Maurice Grammont eta Georges Millardet irakasle zituela, eta Madrilén, 1928an, Ramón Menéndez Pidal eta Américo Castrorekin. Hurrengo urtean, 1929an, Zürich-en egon zen, Louis Gauchat, Arnald Steiger eta Jakob Jud-en eskoletara eta mintegietara joateko, eta 1930ean Parisen, Oscar Bloch, Mario Roques eta Antoine Meillet-enetara. Madrilén lortu zuen doktore maila, *Vocabulari aranès* bere lanaz, 1931an.

Pompeu Fabraren eskutik sartu zen 1930ean Institut d'Estudis Catalans delakoaren hiztegi gintza sailean eta gerra bukatu arte (1939) irakatsi zuen Bartzelonako Unibertsitatean.

Erbestaldiko lehen bizitokia Paris izan zuen. Gero Cuyoko Unibertsitatean, Mendozan, irakatsi zuen, eta ondoren Chicagon, zaharsaritu arte. Bartzelonan bizi da geroztik.

Institut d'Estudis Catalanseko kide da Joan Coromines 1950az gero. Katalana ez ezik, okzitaniera eta gaztelania ezagutzen ditu oso ongi, hizkuntzaren historiaren aldetik eta dialektologiarenetik, eta erromanista bikaina da. Hiztegi gintza, etimologia eta onomastika alorrak landu ditu, batez ere.



Gutziz ugariak dira haren lanetan euskarari buruz egin dituen azterketak, bere bi hiztegieta, batez ere, baina gure hizkuntzaren gainean burutu dituen aurkikundeak bestelako artikulua eta liburuetan ere anitz dira. Emaitza horien aitortpena Mitxelenak egin zuen lehendabizikoz, gaztelenaiazko hiztegiak argitaratu zuen artikuluan, *BAP* 10, 1954. 373-378, eta geroztik beti eduki da kontuan Corominas jaunaren ekarpen aberatsa euskarari artean.

### **Bibliografia laburra**

- *Diccionario crítico etimológico de la lengua castellana* (1954-1957. Gero, José Antonio Pascualekin batera, *Diccionario crítico etimológico castellano e hispánico* (1980-1991).
- *Diccionari etimològic i complementari de la llengua catalana* (1980-1991).
- *Estudis de toponímia catalana* (1965-1970).
- *Tópica hespérica* (1972).
- *Onomasticon Cataloniae* (1992-).
- *El que s'ha de saber sobre la llengua catalana* (1954).
- *Lleures i converses d'un filòleg* (1971).
- “Hurgando en los nombres de parentesco” (1970).
- “De toponimia vasca y vasco-románica en los Bajos-Pirineos” (1972).
- “Dos notas epigráficas” (1973).



## PEDRO PUJANA AGIRREGABIRIA EUSKALTZAIN OHOREZKOA

*Egoitza, Bilbo, 1995-06-30*

*Pedro Pujana (\*)*

Adiskideok:

Arabako leku baten, Aramaioko elizate edo auzo baten, Oletan, egin izan dan eta gaur ere egiten dan berbakuntza izango da, zuen baimenaz, ekitaldi honetara ekarriko dodana. Oletako euskera, herriko mailan egiten dana, apur bat landua eta txukundua.

Lehenengoz, hauxe adierazo gura dausuet: eskerrik gartsuenak emoten dautsuedazala egin daustazuen *ohore haundi* honegaitik. Amesetan ere ez jatan bururatuko honelango izendapenik. Nire eskerrik bihotzetikoena, beraz, zuon guztiontzat.

Aurrera egin baino lehen, zerbait zehaztu gura neuke. Nik ez daukadala euskeraren arloan horrenbesteko merezimendurik. Ez neban nik inongo ikastetxetan, ez unibertsitatetan euskararik ikasi. Gehien-gehien ere, "Basarteko Unibertsitatean", Juan Antonio Mogel, eibartar idazle ospetsuak esango leukenez, hau da, baserrian. Nik ez daukat jakite horretan ezertariko titulurik, horrezegaitik. Gure gaztearoan ez genduan horretarako aukerarik izan. Hau dala eta, euskeraren barrutian nahiko ez-ikasiaz naz. Ez dinot hau neure buruari harrika egitearren, ezta guzurrezko apaltasunak, hobeto, apalkeriak eraginda, ez, bene-benetan baino. Nire bizitzaldian zehar ikasi dodan euskera apurra, neure jaiotetxean eta herrian ikasi nebanaz gain, neuk neuretara ahalegin eta ahalegin eginda neureganatu izan dot. Gehiagorik ez. Ez titulurik, ez ezer.

Berbaldi honetan zer esango ete dautsuedan eta gauzatxo bi, besterik ez. Eta hau ez zuoi, Euskaltzaindiko jakintsuoi, ezer irakasteko asmoz —nik zuoi zer irakatsi?—, zerbait agertzeko era zeuok emoten daustazuelako baino.

Gauzatxo bi: nire bizitzaldi luze honetan —atzo bertan egin nituan larogei urte astun— euskera dala eta izan ditudan bizikizunak zeintzuk izan diran edo egin dodan bidaldia zein izan dan labur-labur azaldu, lehenengo, eta gure egunotan bizkaierazko eta gipuzkoerazko aditza dala eta, zerbait kezkatu eta urduri nagoela adierazo, bigarren-go. Guzti hau berba bitan.

Euskera ikasi, txiki-txikitan, ume-ume nintzala, ikasi neban. Eta nire lehenengo maixua euskera ikasteko neure aita izan nebala esan behar dausuet. Berau izan zan euskera irakurten eta idazten ikusi neban aurrengo gizona mundu honetan. Oraindino ikusten nago gure aita, mutiko txikia nintzala —etxeko txikiena neu izan nintzan eta— gure eskaratzeko sutondoan, bertako sugarraren argitara, liburu lodi xamar bat eskuetan

---

(\*) Hitzaldia Patxi Uribarrenek, euskaltzain urgazleak, irakurri du.

ebala —Zaldibiko Lardizabal idazlearen *Testamentu Zarreko eta Berriko Kontaira* eritzana—, irakurten eta irakurten, askotan ahots zoliz, eskaratzean gengozan guztiok entzun gengian. Zaharraren zaharraz eta erabiliaren erabiliuz, orriak loituta eta orituta eukazan liburua. Negu-aldian, batez ere, irakurten eban, gaba luzea izaten dan horretan.

Eta gero bertso-paperak. Gure aita bertsozale eta kantazale amorratua izan zan. Gure etxean bertso-paperak ostikopean ikusten genduzan askotan, eta inoiz katuak eurakaz olgetan eta olgetan ere bai. Bertso-paperak eta bertso-paperak. Irakurri eta entzun. Entzun eta kantau. Euskeraren etenbagako entzunbide eta ikasbide izan ziran bertsoak gurean, besteak beste.

Irakurri eta idatzi euskeraz, esan dot. Idatzi ere bai. Ez askorik. Euskaldunok ez ei gara irakurzale eta idatz-zale, dinoenez. Entzunzale bai, ostera. Orduak eta orduak egingo ei gendukez bertsolari on bati entzuten. Eta pozez gainezka, gainera. Halan ere, gure aitak irakurri, eta euskeraz, apur bat baino gehitxoago egiten ebala autor egin dot. Eta idatzi zerbait. Etxetik kanpora arrea bi eukazan, eta noz-edo-noz kartatxoren bat idazten eutsen. Eskutitzaren hasieran hauxe idazten eban beti letra haunditan: GEURE EUSKERA EDERRIEN. Eta gero dana euskeraz idatzi.

Herriko giroa euskera huts-hutsezkoa izan genduan guztiotzat. Aramaiotik noizean behin etorten ziran guardia zibilak izan ezik, han ez eban inork gaztelera hitzik egiten. Halan izanda ere, herriko eskolan ez genduan berbatxo bat euskeraz ikasi. Ez irakurten, ez idazten. Ezer ez! Gaztelera hutsez eskolatu ginduezan. Eta hori, nire lehenengo urteetan eskola-maixua euskalduna izan genduala. Ikastaldietatik kanpora euskeraz berba egiten euskun, bai berak eta bai beraren familiak. Eskola-barruan, barriz, beti gaztelera eta gaztelera hutsez. Eskerrak kristinau-dotrinea euskeraz ikasi genduen! Nik neure bizitzaldian irakurri neban euskerazko lehenengo liburuxoa kristinau-ikasbidea izan zan. Elizan ere berbaldiak beti euskeraz. Kantuak latineraz, orduan ohitura zanez, eta euskeraz, bietara.

Gasteizko seminarioa joan nintzanean, izen haundiko maixu bikain bat aurkitu neban euskeraren arloan: Manuel Lekuona jauna. Berak biztu eta sutu eustan nire bihotzean etxetik neroan euskerarenganako grina, egundo gehiago ez amatauko, ez gitxituko ez jatana. Nire barruan ez-eze, ikasketetan kide nituan hainbeste eta hainbeste gazterengan ere bai. Hau ez eban egiten gure maixu honek hitzaldi sutu-gartsu-luzeak euskeraren alde eginez. Ez, ez. Goxo-goxo, guztiz goxo eta bigun-bigun lan egitera eta euskeraz idaztera bultz eginda baino. Irakasle atsegin-atsegina izan genduan D. Manuel eta euskera zala eta, jakitun-jakituna. Haregaz emoten genduan denporaldia minututxo bat bailitzan igaroten jakun. Zorigaitzoko gerrate galgarri ha uste-uste bagarik etorri jakun, bai?, eta horra gure ames eta asmo guztiak edo gehienak gorengo hodeietan galdu.

1950-garren urtean, Eskoriatzan bizi nintzala, jesuiten artera joan nintzan. Garai haretan jesuitak Burgosko Oñan euken ikastetxe nagusia. Hantxe egin nituan nik hiru urte. Zorionez, egin ere. Patxi Altuna, oraingo euskaltzaina, Salamankara joanik zan bere ikasketak biribiltzeko asmoz. Oñako ikasle nagusien artean taldetxo bat eukan euskera irakasten eutsana, eta Salamankara joakeran, neuk hartu neban berak Oñan itxi eban euskal zuzia.

Eskoriatzan bizi nintzala, ez neban nik astirik, ez libururik euskera ikasteko, eta horra uste-uste bagarik Oñako jesuiten artean biak aurkitu. Talde harek aditza azaltzeko

eskatu eustan, gipuzkoerazko aditza, guztiak giputzak ziran eta. Aditza neuk ere ez nekian besteai irakasteko beste. Baiña Oñako jesuiten liburutegi aberatsean euskerari buruzko liburu oso onak eta ugari aurkitu nituan. Ha izan zan, ha, nire poza eta gozamina!! Hantxe asetu ahal izan neban aspalditik nekarren euskal egarria. Non eta Burgos-en! Neuk neuretara lan eginda, jakina. Aditza aztertzeo eta bertan sakontzeo, beste liburu baliotsu batzuen artean, Luis Eleizalderen *Conjugación vasca sintética* izeneko liburua guztiz argigarri eta mesedegarri izan neban. Oñako jesuiten ikastetxe haretan lortu neban neurri medar baten jakintza hori. Gero urte bitan jardun neban talde euskaltzale hari euskera irakasten, aditza eta beste.

Hurrengo, urte batzuk joanik izanda gero, Oñako ikastetxe haretan aditza ikasten, lantzen eta aztertzen egin neban jardunaldiaren frutu, liburu bi argitaratu ahal izan nituan: bata, 1970-garren urtean, Morgan bizi nintzala, bizkaierazko aditzaren zukako jardunbidea kaleratuz, eta bigarrena, 1979-garren urtean, Oleta, neure herriko aditza oso osorik, zuka eta hika, aztertuz. Ez dira liburu lodiak. Halan ere, ogei urteko edo ekina eta ahalegina, gutxi gora behera, euren orrietan daroetzela autor banengi, ez dot uste guztizko larregikeria izango litzatekenik. Ez liburu bata, ez bestea, ezin izango neukean biribildu Oñako ikastaldi ha izan ez balitz. Horra zergaitik autor dagidan Oñako hiru urte hareek euskeraren arloan guztiz onuragarri izan nituala.

Aitatu ditudan liburu biotaz hainbat jakingarri.

1970-garren urtean agertu zan *Euskal aditza-bizkaiera* liburua, esan dodanez. Urte bi lehenago, 1968-garrenean, Isidor Baztarrika beneditarrak (G.B.) aditza zala eta liburu bat argitara ekarri eban. Beronen izena hauxe: *aditza. Método nor-nori-nork o el secreto del verbo vasco* (Lazkaoko beneditarrak, 1968). Liburu beronen hitzaurrean honantxe dino egileak: “Lan ontan euskal aditza bere barnetik aztertzen saiatu naiz. Bere estruktura, jokabide eta tankerak billatzen. Eta atera dutana emen eskeintzen dizut. Aditza euskal metoduz azaldu nai nizuke, ez erdal metoduz. Aditzaren oiñari eta ardatz bezela NOR-NORI-NORK izkiak artzen ditut. Metodu oni NOR-NORI-NORK metodu ederki deritzaiokoe”.

Begi-zorrotz irakurri eta aztertu neban liburua. Eta baliagarria iruditu jatan aditza azaltzeko eta irakasteko.

Bizkaierazko aditza zala eta, liburuxka bat prestatzen niarduan ezkerro, aditza azaltzeko irakaspide edo metodu horixe erabiltea guztiz ondo etorriko litzakidakela bururatu jatan. Gaur euskaltzain dogun Patxi Altunak ere bere *Euskal aditza-Batua Baturakoa* liburuan (Bilbo, 1971), Isidor Baztarrikaren antzera hitz dagisku: “Hiru zutabe hauen gainean eraikia duzu, esaterako, euskal aditza: NOR zutabea, NORI zutabea, NORK zutabea” (11 orr.).

Ondorenez, hauxe:

Zutabe baktxaren inguruan berari egokiozan adizkiak sailkatuz, bizkaierazko aditz guztia, iragangaitz zein iragankor, laguntzaile zein sintetiko, azaltzen saiatu nintzan, Isidor Baztarrikaren irakaspidea berari ezarririk eta egokiturik.

Geroko urteetan zehar irakaspide berau bazter guztietara edo gehienetara zabaldu zan, Euskaltzaindiak berak ere onartzen ebala.

Guzti hau dala eta, aditzaren NOR-NORI-NORK irakaseraren sortzailatzat Isidor Baztarrika beneditarra iragar ete daiteke? Berak bere liburuari ezarri eutsan izenburua-

ren eta hitzaurrean dinoaren arabera, baietz dirudi, hau da, 1968garren urtearen aurretik beste inork ez ebalira irakaspide edo metodu hori liburu baten argitara ekarri, Isidor Bazterrika bera izan zala lehenengoa. Ni-neu ere horretan nago, nik dakidala. Hitzak berak asmatu zituan ala ez, ez dakit. Baina hitz horreetaz baliaturik, aditza irakasteko bide edo era barri hori aditzaren irakaskuntzara ekarri ebana Isidor Bazterrika izan zala esango neuke. Egia zordun gaiakoz, ezta? Egia horixe da, ba, nire ustez, neu oker ezpago.

1979 garren urtean agertu zan *Oletako euskal aditza* izentzat daroan liburari buruz ere, berbatxo bi.

Endrike Knörr euskaltzainak bidea errezturik etorri zan plazara liburu hau, Arabako Diputazioak lagunduz eta Alfontso Irigoien euskaltzainak zuzenketa batzuk ezarritz.

Niretzat gogokoen eta begikoen dodan euskal egintza hauxe da. Oletan, neure herrian, Arabako bazter baten entzun izan dan eta gaur ere entzuten dan aditzaren azterketa, zukateta hika, dalako. Bide batez, Aramaioko leku horretan erabili ohi diran adizkeren argibidea eta lekukotasuna hortxe gelditzen dira etorkizunerako.

Oletako aditz horrek badauko aitagarririk eta ohargarririk. Hikako jokaerari gago-kiozala, aparte-aparteko adizkiak darabilez bertan, ez Aramaioko haranean, ez beste inon entzuten ez diran langoak. Nafarroako ez dakit zein lekutan antzekoak erabiltzen dirala, dirausku Azkue jaunak. Baina beste inongo lekutan, ez, nik dakidala, Otxandion eta ingurumarian izan ezik.

Hona argibide bat:

Bizkaierazko barrutian, hikako jokoak lehenaldian honangook ditugu: (etorri) *nin-zoan/nintzonan, hintzan/hintzanan, zoan/zonan, gintzoazan/gintzonazan, zoazan/zonazan*. Oletakoak, barriz, honetarikook: (etorri) *nintzá/mitzá, hitzá/hitzá, záz/zá, giñá/giñá, zi(r)á/zir(r)á*. Hots: lehenaldian agertzen dan -N ezaugarria galdu egiten da, eta adizki bera daukagu gizonetikiko eta emakumerekiko, azentoa indartsu jausten dala. Jokaera berau dakusgu hikako berbakera guztian, iragangaitzean era iragankorrean, laguntzaillean eta sintetikoan.

Hasieran aitatu dodan bigarren zatia emongo dautsagu orain begirakunetxo bat. Bizkaierazko eta gipuzkoerazko aditzaren egoera dala eta, neure eritxia doakizue.

Bizkaian eta Gipuzkoan aditza sail batzuetan larri xamar ikusten dodala esango neuke, eta aditz batua ere arrisku berean aurkitu daiteke. Euskera bera dago egoera larrian, ez aditza soilik, erantzun legike norbaitek. Bai, egia da. Guk Oletan erabilten dogun esakera bat aitatu, norbaitek edo norbaitzuk “zaputzetik oratuta” itto beharrean edo erre kara jaurti aginean dauke gure euskera gaixoa. Oraingo honetan, halan ere, aditzaz dihardut.

Azkenengo bosteun urteotan zehar, gutxi gora behera, hiru aldakuntza nabarmen izan dira bizkaierazko aditzaren alorrean, eta gipuzkoerazkoan ere bai, agian, eta laugarrena bidean datorkigula emoten dau. Gaur darabilguzan NOR-NORI adizkiak hamaiseigarren mendearen azken aldera gutxienez eta hamazazpigarren lehenengo erdi aldian edo nagusitu zirala esan daiteke, Azkuek irakatsia egia izatekotan. Lehenago herrian entzuten ziran adizkera jatorrak (etorri) *dakit, kakik, dakin, dakio, dakigu* eta abar izan ei ziran, ez orain herri guztian entzuten diran ustelak, hots, (etorri) *jat, jak,*

*jan jako, jaku* eta abar langoak. “Solo en un rincón paradisíaco de nuestra hermosa Navarra —Azkuek dirauskunez— y en zonas limitadas de Bizkaia, como Bakio, Leimoniz y Barrika, se oyen flexiones de verbo auxiliar de indicativo en que figura el reflexivo *ki*. Doce o catorce años atrás oí hacia Etxarri-Aranaz, con una fruición que sin duda asomé al semblante, estas lindísimas flexiones: *etorri dakit* se me ha venido, *etorri dakik* se te ha venido, *etorri dakin* se te ha venido, mujer, *etorri dakio* se le ha venido, *dakigu, dakizu, dakizue, dakioe*” (*Morf. vasca*, 575. orr.-Ikus baita 638. orr.).

Garai haretan barriak ziran adizkerak, hau da (etorri) *jat, jak, jako, jaku ... gatxakoz ... zatxataz, zatxataze ... natxatzu ... natxako* eta abar, Seber Altuberen arabera, bizkaieraz idatzi eben idazlerik zaharrenak eta onenak erabili ei zituen: Kapanagak, Mogelek, A. Bartolomek, Añibarrok ... Kapanaga hamazazpigarren mendean bizi izan zanez gero, adizkera barriok ordurako herrian zabal-zabal ebizan, antza, honango aldakuntza bat aditzean ez da gabetik goizera edo urte gutxiren barruan osotzen eta. Urteak eta urteak behar horretarako (*Observaciones al tratado de Morfología Vasca*, 182. orr.).

Hamazortzigarren gizaldian beste aldaketa itzel bat etorri zan hizkuntzaren esparrura bizkaierazko eta gipuzkoerazko aditz iragangaitzean eta iragankorrean, Azkuek dakarrenez. Subjuntibozko adizkerak edo, Azkue beraren hitzak aitatzuz, “flexiones hipotéticas de subjuntivo próximo” ziranen lekuan, indikatibozkoak nagusitu ziran herriaren erabileran, hau da (etor) *banadi, bahadi, badadi, bagadiz, bazadiz, bazadize, badadiz* adizki jatorren ordeztu, (etorten) *banaz, bahaz, bada, bagara, bazara, bazaree, badira* iragangaitzeko aditz laguntzailean, eta (ekar) *badagit, badagik/ badagin, badagi, badagigu, badagizu, badagizue, badagie* lehenagoko adizkien lekuan, (ekarten) *badot, badok/ badon, badau, badogu, badozu, badozue, badabe* iragankorrean. Hau bizkaieraz. Eta gipuzkoeraz: (ekar) *badezat, badezak/ badezan, badeza, badezagu, badezazu, badezazute, badezate* taiuzko adizkerak baztertuz, (ekarten) *badet, badek/ baden, badu, badegu, badezu, badezute, badute* adizkiak onartu ziran.

Hemeretzigarren gizaldian zehar ere galtze nabarmena jausi zan bizkaierazko aditz sintetikora, NOR-NORI-NORK adizkietan.

Argibidez:

	Adizki zaharrak	Adizki barriak
	Hari	Hari
	<b>Egitera: Orainaldia</b>	
(nik gauza bat)	DAKARKOT	DAKARTSOT
(hik gauza bat)	DAKARKOK/N	DAKARTSOK/N
(harek gauza bat)	DAKARKO	DAKARTSO
(guk gauza bat)	DAKARKOGU	DAKARTSOGU
(zuk gauza bat)	DAKARKOZU	DAKARTSOZU
(zuek gauza bat)	DAKARKOZUE	DAKARTSOZUE
(hareek gauza bat)	DAKARKOE	DAKARTSOE

**Egitera: Lehenaldia**

(nik gauza bat)	NENKARKON	NENKARTSON
(hik gauza bat)	HENKARKON/AN	HENKARTSON/AN
(harek gauza bat)	EKARKON	EKARTSON
(guk gauza bat)	GENKARKON	GENKARTSON
(zuk gauza bat)	ZENKARKON	ZENKARTSON
(zuek gauza bat)	ZENKARKOEN	ZENKARTSOEN
(hareek gauza bat)	EKARKOEN	EKARTSOEN

Hau ere egundoko aldakuntza izan zan bizkaierazko aditzaren barrutian. Hamazortzigarren gizaldiaren azkenerantza eta hemeretzigarren lehenengoetan idatzi eben idazle ospetsuak —Mogelek, Añibarrok ...— adizkera zaharrak dakarrez euren idazkietan, eta horregatik antxinatik etorkun tradizioa guztiz etenda gelditu zan. Badira gaur lenengo adizkiak bir-eskuratu egin behar gendukezala dinoenak, eta Euskaltzaindiak berak ere adizkera zaharrak, “forma klasikoak”, hobetsi egin dituala eta nago. Baina zelan alden-du herriaren bidetik? Hemeretzigarren mende guztian zehar burrukan eta burrukan jardun ei eben idazleak alde batetik eta herria beste aldetik, eta azkenean hogeigarren gizaldi honen hasieran idazleak herriaren bideari makurtu ei jakozan, eta harrezkero batera doakiguz. Herria irabazle orain ere!

Azkenik, bai amaituko, ez amaituko edo azkenetan daukagun hogeigarren mende honetan zehar bizkaierazko eta gipuzkoerazko aditzaren arloan beste barrikuntza nabarmen bat mamintzen daukagula emoten dau. NOR-NORK adizki txairo-txairoak arriskutan ikusten ditudala esango neuke herriari dagokionez, eta horreen lekuan NOR-NORI-NORK sailekoak herrian geroago eta gehiago zabalduz eta nagusituz doakiguzala, dirudi.

Hau da:

“Nik zu ikusi ZAITUT/ZAITUT”, “zuk ni ikusi NOZU/NAUZU” eta abar esan beharrean, “nik zuri ikusi DAUTSUT/DIZUT”, “zuk niri ikusi DAUSTAZU/DIDAZU” eta abar adizkiak jabetu dirala edo jabetzen dagozala herriaz.

Hau jazo baledi, euskal aditzaren eremura itzelezko galtzea letorkela, nik uste. Herriak darabiltzan adizkien eta idazleak, irakasleak eta Euskaltzaindiak berak irakasten daukuezan artean burruka eta burruka ikusten dogula esan ete ledi? Bizkaierazko aditza zala eta, 1970 garren urtean —hogetabost urte dira— plazazaratu neban liburuan salatu neban nik zeinen oker eta oker erabilten zan aditza Bizkaiko herri batzuetan. Aldi hartan Lino Akesolo karmeldarra (G. B.) Donostian bizi zan, eta *Zeruko Argia* aldizkarian nire liburuaren kritika egikeran, zerau aditzen emoten eban: “Bizkaian aditza hondatuz eta zarpilduz bajoakun, Gipuzkoan ez zala bape hobeto ikusten”.

Aita Linok esanaren agergarri, jazoera hauxe dakarket: Morgara joan aurretik, Angiozar-en (Bergaran) bizi izan nintzan urte batzuetan. Nigaz batera Zumaiako gazte jator-jator bat bizi zan bertan, euskera guztiz errez eta dotore egiten ebana. Harek ere, baina, aditza guztiz txarki eta negargarriro. “Ikusi dizut”, “zure amari gaur goizean Bergaran ikusi diot”, eta honango esaldi traketsak eta ganorabakoak entzun eta entzun egiten neuntsazan. Eta nik berari esan eta esan:



—“Adiskide, aditza oso gaizki erabiltzen dezu”. “Ikusi dizut”, ez, “ikusi zaitut” esaten da euskeraz jator hitz egiteko. “Zure amari gaur goizean Bergaran ikusi diot”, ez, “zure ama gaur goizean Bergaran ikusi det”, baizik.

Eta berak erantzun:

—“Bai, zuk diozun bezela izango da, baina nere herrian, Zumaian, erdiak baino gehiagok horrelaxe hitz egiten degu”. Hogetamar urte inguru badira hau gertatu zala.

Azkenengo bosteun urteotatik honantza historiak irakasten dauskunez, herriaren eta irakasle-idazleen artean izan diran batak bestearen aurkako jokaeretan, herria izan da orain arte irabazle eta garaile, gorago ziurtatu dogunez. Guzti hau dala eta, hemendik urte batzuetara, berrogetamar edo ehun urtera —euskera bizi arren ere— bizkaierazko eta gipuzkoerazko aditza —eta aditz batuaz ere hauxe berau iragar daitekela dirudit— guztia bestelakoa izatea badaiteke, NOR-NORK adizkiak sail haunditan galdu egin diralako, eta horreen ordeztu NOR-NORI-NORK erakoak herriaz jabetu eta bertan nagusitu diralako. Ipar Euskal Herrian zein egoeratan daukagun aditza ez dakit. Hego Euskal Herriaz dihardut.

Hau neure eritxia besterik ez da. Eta, jakina, guzti hau etorkizun eta jazokizun daukagu oraindik, eta etorriko dan ala ez zigur ez dakigu, horrexegaitik. Halan ere, historian zehar gertatutakoari begira bagakioz, aldakuntza hau izan daitekela agiri-agirian dakusgu, ene ustez.

Besterik ez, adiskideok. Eskerrik asko barriro ere. Honenbestez amaitu da nire berbaldia. Berau entzuteko begiramena eta adeitasuna izan dituzuelako era, eskerrik asko!



## JOAN COROMINAS I VIGNEAUX

Joan Corominas i Vigneaux nació en Barcelona en 1905. Es hijo de Pere Corominas i Montanya (1870-1939), escritor, político y economista, y de Celestina Vigneaux, pedagoga, una de las personas que introdujeron el método Montessori en Cataluña.

Hizo sus estudios universitarios en la Universidad de Barcelona, compaginándolos con los cursos recibidos en las instituciones Estudis Universitaris Catalans y Fundació Bernat Metge, con Joaquim Balcells, Nicolau d'Olwer y Carles Riba. Después, en 1927, estuvo en Montpellier para estudiar con Maurice Grammont y Georges Millardet, y en Madrid, con Ramón Menéndez Pidal y Américo Castro. En 1920-1930 residió en Zurich y París, ampliando estudios con Louis Gauchat, Arnald Steiger, Jakob Jud, Oscar Bloch, Mario Roques y Antoine Meillet. En 1931 presentó su tesis doctoral en Madrid, con el título de *Vocabulari aranès*.

Para entonces ya había iniciado su colaboración en el Institut d'Estudis Catalans, en el ámbito de la Lexicografía. Hasta 1939 enseñó en la Universidad de Barcelona.

En su exilio recaló en París, Cuyo, Mendoza (ambas en Argentina) y Chicago, en cuya Universidad se jubiló en 1967. Desde entonces vive en Calaluña.

Joan Corominas es miembro de número del Institut d'Estudis Catalans desde 1950. Corominas es un reconocido especialista de esta lengua, a cuyo conocimiento hay que añadir el de otras muchas lenguas. Sus campos preferidos de investigación han sido la lexicografía, la onomástica, la etimología y los textos antiguos.

Es importante la contribución de Corominas a los estudios vascos, principalmente a través de los dos diccionarios (del español y del catalán). También son relevantes las aportaciones al euskara de Corominas en otros libros y artículos. Puede mencionarse la amistad con vascólogos, principalmente con Koldo Mitxelena, el cual dedicó su primer comentario a Corominas en 1954. Todos los lingüistas reconocen la obra vascológica de Corominas. En la carta que la Academia de la Lengua Vasca comunicaba su nombramiento su presidente decía: "Con este nombramiento Euskaltzaindia quiere rendir justicia a su persona como insigne vascólogo y romanista, autor de una obra inmensa e imprescindible para el conocimiento de las lenguas de nuestro entorno".

Por su avanzada edad (90 años), el diploma del señor Corominas lo ha recogido su discípulo Xavier Terrado, profesor de la Universidad de Lleida.

### BIBLIOGRAFIA

— *Diccionario crítico etimológico de la lengua castellana* (1954-1957). Juntamente con José Antonio Pascual, *Diccionario crítico etimológico castellano e hispánico* (1980-1991).

- *Diccionari etimològic i complementari de la llengua catalana* (1980-1991).
- *Estudis de tiponímia catalana* (1965-1970).
- *Tópica hespérica* (1972).
- *Onomasticon Cataloniae* (1992- ).
- *El que s'ha de saber sobre la llengua catalana* (1954).
- *Lleures i converses d'un filòleg* (1971).
- “Hurgando en los nombres de parentesco” (1970).
- “De toponimia vasca y vasco-románica en los Bajos-Pirineos” (1972).
- “Dos notas epigráficas” (1973).

**JUAN ANTONIO MOGEL:**  
**250. URTEURRENA**



## JUAN ANTONIO MOGEL JAIO ZENETIK 250. URTEURRENA

### ERAKUSKETA

*Eibar, 1995-XII-05*

*José Antonio Arana Martija*

Bihar, abenduaren 6an, Durangoko Azoka inauguratzen den egunean, Juan Antonio Mogel Urkiza Eibarren jaio zenetik 250 urte beteko dira eta Bizkaiko idazle honek gure euskalkian izan zuen eta duen eragina ahaztu ezinik, Azokaren egitarauan sartu du Gerediaga Elkartek Mogelek merezi duen aipamena. Gogora dezagun bestalde, Mogelen idazlanik garrantzitsuena, *Peru Abarka* hain zuzen, liburuia izatera iritsi zela lehendabizi Durangoko Elizalderen moldiztegian, Bilboko *Beti Bat* aldizkariak zatika urte bete lehenago argitaratu arren.

Baina jaiotzaren urteurrenari zegokionez, hemen gaude jaioterrian, Eibarren, jaiotzaren bezperak kantatzen. Euskaltzaintziaren Zuzendaritzak ohiko bilera egin du gaur arratsaldean Udaletxean, non une honetan Mogelen lanen erakusketa inauguratzen den. Eskuizkribu eta liburuen erakusketaz gain, Mogelen garaiari zegoen bizimoduaren agerpen etnologikoaz ere apaindu da erakusketa ikusgarri hau. Abenduaren 19ra arte egongo da zabalik hemen eta abenduaren 22tik urtarrilaren 6ra arte Mogel abade eta parroko izan zen herrian, Bizkaiko Markinan.

Xehetasunetan sartzea bada ere, erakusketaren historiari txoaz eta antolamenduaz zer-bait esatea bidezkoa eta zilegi dela deritzat. Eibarko Udalak, aurtengo uztailaren 26an eskatu zion Euskaltzaindiari erakusketa hau prestatzea eta baiezeko erantzuna eman zuen Zuzendaritzak hurrengo egunean egin zuen bileran, nire ardurapean antolamendua utziz. Egia esan, Begoña Azpiri andereak eraman du lanaren zama eta ardurarik handiena. Eibarko Udalak, irailaren 11an, Euskaltzaindiaren onarpenari ateak zabaldu ondoren, Bilbon egin genuen lehen bilera irailaren 21ean: erakusketarako gaien bilketari ekin genion, gehien bat, Azkue Bibliotekan zeudenetatik zeintzuk izango ziren erakusketara eramatekoak zerrendatuz. Ordurako beste toki batzuetan zeudenak ere ikusiak zituen Azpiri andereak eta erakusketa ikusgarria antolatzeke haina zeudela frogatu genuen.

Erakusketa eta Mogelen ipuin eta alegien bilduma argitaratzeko liburuaren prestatetaz beste bilera bat egin genuen Eibarko Udaletxe honetan, bertan zeudelarik Markinako alkate jauna, Eibarko kultura zinegotzia, Euskaltzaindia, Labayru Ikastegia, “Eta kitto” euskara elkarte, Juan Antonio Mogel ikastolako gurasoak, Xabier Altxibar, liburuaren paratzailea, Luis Alberto Aranberri “Amatiño” eta beste. Urteurrenerako hainbat ildo nagusi markatu ziren bilera horretan eta gero bizpahiru bilera mugatuetan bi-

deratu ditugu Azpiri andereak eta Azkue Bibliotekakook erakus-gaien aukera eta katalogoa.

Atzera jo behar dut, nahita ez, historia laburtxo honetan Eibar eta Markinako udalek Euskaltzaindiari antalamendurako babesa eskatzeak badu arrazoirik. 1959. urteko azaroaren 6, 7 eta 8 egunetan Mogeli buruzko Euskalzaleen Biltzarra antolatu zuen Euskal Herri osoan hedatuta dagoen gure Erakundeak, non eta hemen Eibarren. Gero, 1982an, mogeldarrak direla eta, Azkoitian eskaini zion omenaldi bat Bizenta Mogeli ekainaren 12an. Orain Gipuzkoako diputatu nagusia den Roman Sudupe jauna zen orduan Azkoitiko alkatea. Eta Euskaltzaindiaren ospakizun hau aipatzeaz batera esan behar dut Xabier Altzibarrek eman zigula orduan Bizenta Mogeli buruzko hitzaldia. Ez zebilen beraz oker Euskaltzaindia Juan Antonio Mogelen ipuin eta alegiak biltzen dituen liburua prestatzeko Altzibar jauna proposatu zuenean. Euskaltzainburuaren "Berba aurrekoa" daraman liburu hau, Eibar eta Markinako udalek eta Labayru Ikastegiak argitaratunikoa, abenduaren 8an aurkeztuko da Durangoko Azokan.

Erakusketara berriz itzuliz, Juan Antonio Mogelen edo idazle honekin zerikusirik duten eskuizkribu, liburu eta artikulua agertzen dira, guztira 58 ale. Erdiak, 30, Euskaltzaindiarenak dira eta besteak, sakabanaturik zeudenak Begoña Azpirik bildu dituenak: 9 sermoi Markinako parrokiatik, frantziskotarren Zarautz eta Arantzauzuko komentuetatik 9 ale, Eibarko Udaletxetik 3 ale, Labayru Ikastegitik 3 ale, Loiolako artxibotik 2 ale eta azkenik, Markinako karmeldarren komentutik bat. Eibarren jaio eta Gernikan arma-fabrika eraiki zuen Rufino Unzeta-Barrenetxearen Eduardo ilobak utzi du Ipuinen liburua prestatzeko eskuizkribu originala.

Egitaraua, Mogelen biografia laburra eta Erakusketaren katalogoa biltzen dituen liburuskan azaltzen da eskerrona eman behar zaienen zerrenda. Ez noa irakurtzen, luzea baita, baina bai zuoi orori txalo beroa eskatzen dizuet beraien eta zerrendan agertzen ez den *Astixa* taldearen laguntza barik ezinezkoa izango zelako erakusketa hau eta beste eginkizunak prestatzea. Besterik ez.



## J. A. MOGELI OMENALDIA

*Markina, 1995-XII-22*

*M. Karmen Garmendia Laso,  
Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailburua*

Markinako alkate jauna,  
Eibarko alkate jauna,  
Euskaltzainburua,  
jaun-andreok.

Markina eta Tolosa aldeko euskarari aitorpen berezia egin izan zaio euskaldunon artean: euskararik onenaren gordailutzat jo izan baitira. Eta hain zuzen ere, orain dela 250 urte jaiotako bi idazle ohoratzen dira, han eta hemen: Felix eta Maria Samaniego eta Juan Antonio Mogel, biak ere errioxarrak jatorriz, hura Tolosako alkate izana, hau Markinako erretore.

Biak ere etxe onekoak, ikasiak, aberatsak. Biak ere Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País-eko bazkideak. Biak ere Peñafiorida kondearekin lotura eta harreman haundiak zituztenak: Samaniego Peñafioridaren iloba bilakatu zen: Juan Inazio Mogel, gaur ohoratzen dugun Juan Antonioren aita, berriz, Peñafioridaren mediku. Eta Munibetarrekin adiskidetasun handia zutelako eskaini zizkion Bizenta Mogelek bere "Ipui onak" Victor Munibe Aranguren, Peñafiorida kondearen bilobari.

Baina gaur Mogeldarrez mintzatuko gara, nahiz eta Andres Domingo, Juan Antonioren aitona, mediku, Markinara etorri zenetik, Markina izan baita Mogeldarren sorterrri edo bizileku, beste herriren batean jaio baziren ere gehienak, medikuren baten seme-alabak zirenez.

Juan Inazio Mogel Almazaran, Juan Antonio Mogel Urkizaren aita eta Bizenta Antonia Mogel Elgezabal eta Juan Jose Mogel Elgezabalen aitona da Markinan jaio zen eta ondorengoentzat ere kabia egin zuen lehen Mogeldarra.

Medikuntzari buruzko liburuska baten egilea da Juan Inazio. Medikuntzan eta albaitaritzan ezezik, baserrietako gaitzak eta izurriteak sendatzen eta uzta ugaltzeko esperimentuak egiten ere saiatu zen. Izen bereko semeak, Juan Inazio Mogel Urkizak, Juan Jose eta Bizentaren aitak jarraitu zion mediku eta Adiskideen Elkarteko lanetan.

Xemeingo Gabriela Urkizarekin ezkondurik Eibarra aldatu zen Juan Inazio eta Maria Josefa neba-arrebak ere Eibarren jaio ziren. Beste bi, berriz, Debako mediku zela jaio zitzaizkion: Juan Inazio (Juan Jose eta Bizenta idazleen aita) eta Maria Juana Bautista.

Baina 1753rako Markinan da berriro Mogel familia, Juan Antonio, gaur ohoratzen ari garen Markinako erretore idazleak 8 urte zituenerako. Eta hementxe jaio zitzaion seigarren senidea: Manuela Bizenta.

### Juan Antonio Mogel

Geroztik, ikasketa aldian ezik, Markinan bizi zen Juan Antonio: kapellau lehenik, Markinan; abade gero, Markina Etxeberrin; erretore azkenik, Xemeingo elizan. 1804eko maiatzaren 1 In hil zen, izurriteaz gaixoen artean kutsaturik. Eta bere iloba Bizenta eta Juan Jose ere berak hazi eta babestu behar izan zituen, nahiz eta bata Azkoitian eta bestea Deban jaiok izan, aitarik gabe gelditu zirelako haurtzaroan.

Juan Antonio Mogel Urkiza, Markinako erretore eta euskal idazleak liburu asko burutu eta argitaratu zituen eliz-gaiez, Aitortza eta Jaunartzeko sakramentuei buruz. Zizeron, Salustio, Tito Livio eta abarren lanak ere euskaratu zituen latinetik, Baita Pascalen *gogoetak* ere. Euskarari buruzkorik ere idatzi zuen, jakina. Baina Juan Antonioren obrarik famatuena eta ezagunena *Peru Abarka* da. Laurogei urte geroago argitaratu bazen ere, bere garaian eskuz-esku egindako kopiak asko zabaldu baitziren.

Larramendi, Garibay, Astarloa eta abarren antzera, Mogel ere euskararen aldeko apologista sutua zen. Baita erdaraz ere. Baina erdaraz idazten zuena euskaraz idatziz nahi izana zuen egiaztatu. Horregatik idatzi zuen *Peru Abarka*, euskara gai zela erdaraz ikasitako guztia adierazteko erakustearren.

Izan ere, Foruen aurkako eta euskararen kontrako erasoek oldartu eta berotu egin zuten Juan Antonio Mogel. Eta etxeko hizkuntzari Euskal Herriaren ikur politiko kulturallean lehen tokia eman nahi izan zion.

Horretarako bi pertsonaia asmatu zituen: Peru eta Maisu Juan.

Peru da arbasoen bertute eta altxorren gordairua, euskararen, erlijioaren eta ohitura onen gordairua. Gizon hori aurkitzeko, kulturak hondatu ez duen Rousseuren *Basagizon Ona* aurkitzeko, Koldo Mitxelenak dioen bezala, "Mogelek ez zuen urrutiko Indietara joan beharrik. Aldamenean baitzeukan, Bizkaiko basetxe batean, Peru jatorra, Basarteko Unibertsitatean ikasia, mendiak hazi eta basoak hezia".

Maisu Juan, gizon ikasia (barberua eta zirujaua), euskara erbestean trakestu eta atzendua (beste elizgizon eta eskolatu askoren antzera) eta ohigura onak

nahiko utziak dituena ere, erraz aurkitu zuen Mogelek. Mitxelenak dioen bezala, “Erraz jo zuen begiz, kaletar asko-jakinen artean, Maisu Juan barberua. Eta biek elkar topatuz gero, berez bezala dator elkar hizketa bizia. Baita gainerako lagunak ere: andre ostalaria eta bere mirabea, orduko baserritarrak, linuzpatariak, ola-gizonak, baita azkenik —paradisu ederreko suge beltza— iskribau-aguazilak ere. Aspaldi aldendu zen Euskal Herri zaharraren oroigarri berdingabea”.

Maisu Juan poliki-poliki ohartzen da uste baino gutxiago dakiela. Peruk ere piskana-piskana erakusten dizkio Maisu Juani euskara eta euskararen birtartez beste gauza asko. “Oso eta bizirik daude Peru eta Maisu Juan eta inguruko guztiak, (...) Ez dugu biziagorik euskal literaturan. Eta horien ezpainenatik darion hizketaren gatza, Bizkaiko hizkerak berez duen gatz larri xamar hori da” dio Mitxelenak.

*Peru Abarka* oso interesgarria da euskararen aldetik, hitz zahar eta teknikoak jasotzen dituelako eta literatur jenero eta molde desberdinez ontzen duelako, herriko euskararen oinarriturik. Bizkaiera literarioaren sortzailatzat jotzen da Mogel. Baina bizkaieraz adina idatzi zuen gipuzkeraz ere. Lapurteraz ere egin zuen ahaleginik, “Izan ere —Xabier Altzibarrek dioen bezala— euskalkien arteko aldeek eta euskaldunek elkar ulertzeko zituzten eragozpenek kezkatzen zuten” Mogel.

Euskara lantzeko ezezik, garai hartako pentsaera, bizimodua, ohiturak eta abar jakiteko ere liburu aberatsa da, jakina.

Baina Juan Antonio Mogelen merezimenduak ez dira hor bukatzen. Bi iloba euskaltzale eta idazle utzi zizkigun: Juan Jose eta Bizenta Antonia. Eta lehen esan bezala, aitarik gabe umezurtz geratu zirelako, osabaren ondoan haziak eta heziak izan baitziren.

### Bi iloba idazle

Juan Jose Deban jaio zen 1781ean. Eta osaba bezala Markina-Xemeingo abade eta erretore izan zen. Bizkaiko Diputatu Nagusi ere izan zen Lehen Karlistadan. Bizkaieraz idatzi zituen liburu guztiak. Eliz-liburuez gainera, *Baserritar nequazaleentzako escolia* argitaratu zuen 1816an.

Juan Jose gutxietsi gabe, beronen arreba Bizenta Mogel nahi nuke luzezabalagoan aipatu une honetan, euskal literatura idatzia landu duen lehen emakumea delako, Xabier Kaltzakortak dioen bezala.

Azkoitian jaio zen Bizenta, 1782an, eta Abandon hil, 1854an. Baina azkoitiarrek ez daukate Bizenta saltzeko: urtero antolatzen dute herritar ospetsu honen ohoretan Literatur Lehiaketa.

Garai hartan gaizki ikusia zen neskak eskolatzea. Baina Juan Antonio Mar-kinako osaba erretoreak ez zion hala iritzi: garai hartako ohituren kontra latina eta humanitateak irakatsi baitzizkion iloba neskatoari.

Hala kontatzen digu Bizentak berak: “Zortzi urte nituenean ekusirik nere neba edo anaia ikasten ari zala gure osabarekin latíñezko izkera, jarri zitzatan buruan ikasi bear nuela nik ere. Ala, Buruari neke gogorrik eman gabe, loari bere orduak emanda, ta zigor zaurigarriaren beldurrik ez nuela, jolasez bezala irten nuen nere asmoarekin”.

Oso gazterik ipuin eta liburu zaletu zen Bizenta, osabaren ondoan. 22 urte besterik ez zituela argitaratu zuen bere lehen liburua ere, osaba hil zen urte berean, 1804an. Esopogandik hartutako 50 alegia itzuli zituen Gipuzkoako euskarara. Gazte eta nekazarientzat idatzitako *Ipui Onak* liburu hori, lehen esan bezala, Victor Munibe Arangureni eskaini zion.

Harrera ona izan zuen liburu honek, han eta hemen, eta behin eta berriz argitaratua izan denez, baina ez da Bizenta Mogelek ondu zuen euskarazko lan bakarra. Besteak beste, hor daude lehen aipatu ditugun foruen aldeko bertsoak. Baita Bizkai aldean kantatu izan diren Gabon Kantak ere.

*Gaboneko cantia vizkaitar guztientzat, euscaldun emakume batec ateria 1819ko urtian Abandoco elextian* izenez argitaratu zituen. Hor ikusten dira Bizentaren fedea, zuzentasuna, foruzaletasuna eta euslaltzalatasuna. Eta gogoan ditu horien alde euskaldunek jasandako nekeak:

“Zergatik derichazu  
ainbeste neque lan  
gure erri onetan  
orduban artu zan?  
Gordetearren zintzoro  
Jesusen leguia,  
gure Foru garbijac,  
eta eusqueria.”

Ez nuke gehiago luzatu nahi nire jardun hau. Errioxatik Markinaratu ziren Mogeldarrek gauza asko erakutsi dizkigute: Euskal Herriarenganako, bere nor-tasun, burujabetza eta hizkuntzaganako atxikimendua eta maitasuna. Haien on-dorengo eta fruitu gara gaurko euskaldunok. Gogora ditzagun eta eredutzat har.

Eta hitzaldi honetan hainbeste aldiz aipatu dudana Koldo Mitxelenarekin amaitzen dut: “Maite dugu Peru, bai, baina ez barberua baztertzeko adina. Ka-letarra da, gure antzera; gu bezalako euskaldun kaxkarra, gu bezalako sasi ja-kintsu erdi ikasia; gure gisa, hitzen burrundari gehiago begiratzen diona gauzen muin gordeari baino. Horrexegatik agian, ahoz zabalka gagozkio, ispilu harri-garriari begira. Eguzkiak badu denentzat argi, onentzat eta gaiztoentzat, eta Mogelen irrifarre gozoa ere, Cervantesena bezala, guztiongana heltzen da, Peru jatorragana beste Maisu Juanengana”.

**ROSA MARI ARZA AZUETAREN  
“ZILARREZKO EZTIAK”  
LANEAN**

*Bilbo, 1995-XII-4*

*Jose Luis Lizundia,  
idazakiorde-kudeatzailea*

Maria Pilar Lasarle eta bion ondoren, Rosa Mari Arza Azueta da Euskaltzaindiak duen langilerik antzinakoena. Berau 1970ean hasi zen lanean, lehendabizi tarteka, bi eginkizun baitzituen Bilbon: bata, Elizaren mugimendu batean, “Baserri Gaztedia” lehenbizi eta “Herri Gaztedi” geroago deitu zenean lan egitea. Bera zen Bilboko elizbarrutiko “liberatua” deitzen zena, garai hartan Mari Karmen Garmendia Donostian zen bezalaxe. Orduetik izan zituen baita ere Jean Hiriart-Urruty euskaltzain izango zenarekin harremanak.



Jean Haritschelhar, euskaltzainburua  
Rosa Maria Arzari *domina* ematean.

Beste lana Euskaltzaindian niri laguntzea izan zen, zeren eta une hartan erdi idazkaririk gabe bainengoen, Begoña Zelaia, lehenagotik —Alfonso Irigoien idazkariorde zenetik— zegoena erdizka baitzegoen, leku seguruago batean, Telefonikarako oposaketak egiten ziharduelako. Beraz, hasieran batean, egun erdiz lan egiten zuen; gero, Begoña Zelaiak alde egin zuenean, egun osoz.

Zenbait urtez, Rosa Mari, Maria Pilar eta hirurok izan ginen Euskaltzaindiko langile plantila osoa. Ondorioz, egoitza zaharrean, Erribera kalekoan, denetik egin beharra suertatu zitzaion Rosa Mariri: idazmakina erabiltzea, eskulana egitea, kontularitza urrian laguntzea, inprimategira nahiz Arantzazura materiala eramatea, eta abar. Lehendik ere ezagutzen bainuen, biok eskualdekide izanik, hasieratik nuen berarekin konfidantza.

Urte batzuk geroago, Juanjo, Nere, Bego, Xabier Gereño, Rikardo, Josune, Jose Antonio, Resu eta Lutxi, lanean hasi ahala, Rosa Mariren lana, nolabait esatearren, espezializatzen joan zen, azkenik orohar gaurkora mugatuz, hots, argitalpenen salmenta eta banaketa lanera, eta gordailuaren ardura, eta baita Euskaltzaindiaren bulegoetako papereria, inpreseria eta materialaren kudeaketa ere.

Urterik txarrenak igaro ditu Rosa Mari Euskaltzaindian, alegia, Erakunde honetan miseria baten truk lan egin behar zenean, aseguruik ere ez genuenean, hitz baten esateko, euskaltzale izatea eta agertzea errentagarria ez zenean. Horregatik Euskal Herrian geunden guztiok elkar ezagutzen genuen. Hitz baten laburbilduz, hain entzutetsu izaten ez den idazkari lana zintzoki eginez, euskalgintza kopuruz eta diruz urri baina emaitzaz aberats zen garai horretako langilea eta lankidea dugu Rosa Mari.

Horregatik bada, lankideok hil honen 15ean, Kirikiño euskal idazlearen herrian, Mañarian, omenaldi bazkari bat antolatzen diogu. Ildo beretik, eta Euskaltzainburuak berehala onartu bezala, hil honen 29an, hileroko bilkuraren bukaeran tarte bat eginez, Iruñean iazko martxoan Maria Pilar eta niri eman bezala, Rosa Mari Arzari *Euskaltzaindiaren zilarrezko domina* ematea litzateke asmoa.

**BESTE BERRI BATZUK**





## **FEDERICO KRUTWIG Y JUAN JOSE PUJANA, MEDALLAS DE HONOR DE LA CIUDAD DE CABALA**

*11-04-1995*

*Alfonso Irigoien*

La ciudad griega de Cabala ha concedido a Federico Krutwig y a Juan José Pujana, de la *Jakintza Bai* de Bilbao, Diplomas de Honor con su Medalla correspondiente por los excepcionales servicios que prestan a la expansión de la Cultura griega y por sus sentimientos filo-helénicos. Los diplomas y medallas le fueron entregados a Juan José Pujana por el alcalde de la ciudad de Cabala Leuthens Athanasiadis el 25 de Marzo de 1995, ya que Krutwig no pudo asistir por motivos de salud, debido a una indisposición. Pudo recoger también las actas publicadas del Congreso anterior por la Asociación de Cabala para la internacionalización de la lengua helénica, donde tanto Krutwig como Pujana publican sus ponencias en griego clásico.

## **FEDERIKO KRUTWIG ETA JUAN JOSE PUIANA OHOREZKO DOMINADUN KABALAN (GREZIAN)**

1995-04-11

*Alfonso Irigoien*

Grezia-ko Kabala hiriak Federiko Krutwig eta Juan Jose Puiana Bilboko *Jakintza Baitha*-ko partaide direnei ohorezko Diploma, bere Domina eta guzti, eskaini die Kultura grekoa hedatzeko eta zabaltzeko egiten ari diren zerbitzu nabarmenengatik, eta bere sentimendu filo-hellenikoengatik. Diplomak eta Dominak Kabala hiriko Leutheris Athanasiadis alkate jaunak entregatu zizkion Juan Jose Puiana-ri 1995-ko Martxoaren 25-ean, zeren Krutwig ezin joan izan baitzen bertara osasunaren momentuko ondoezaz. Denbora berean aurreko Kongressuko akta inprimatuak ere jaso ahal izan zituen, hainzuzen-ere Hizkuntza hellenikoaren internazionalizaziorako Elkartea Kabala-koak argitara emanak, non bai Krutwig-ek eta bai Puiana-k bere ponentziak greko klasikoz emaiten baitituzte.

## OLENTZARO

*Bilbo, egoitza, 1995-XI-30*

*José Antonio Arana Martija*

Gaur Gabonetako usaia datorkigu, bai Haur jaioberriari elizkizunetan eskaintzen zaion intsentsuarena, baita Gabon Gabeko afariena, familia askok gozatu ezin izango dutena, tamalez. Olentzaro jatun eta tripa-zainak gogoratzen digu urtero euskaldunok daukagun zaletasuna, oso berezia baita pertsonaia hau beste kulturetako mitoak ez baitute halako konnotaziorik.

*Olentzaro, Olentzero, Orantzaro...* eta beste izen batzuk azaltzen zaizkigu, sua egiteko ikazkina denarentzat. *Olenzaro* izena aipatzen digu Lopez Isastikoak XVII. mendean. Garai edo une onaren aroa dela esaten dute batzuk, ez beharrez pertsonaia mitologikoarekin lotuta. Baina badaude beste argibide etimologiko batzuk ere ohitura edo ekanduekin zerikusirik dutenak: "Oles" hitzetik omen dator, erronda kantuak baitira olesak. Hemen dugun Bittor Kapanagaren herrian, Otxandion, "olez olez ibili" esaten zen baserriz baseri errondan kantuz zenbiltzanak adierazteko. Azkuek ere badiosku "olesa ate-jotea" dela. Baina badago Olentzaroren izena pertsonaiaekin lotzen duena ere edo hobe esateko kanpoko kulturatik datorkigula baieztatzen duena: "Olen" hitza Frantziako "Noël"en metatesis bat dela diosku Seber Altubek. Gogora dezagun *Noelak* idatzi zituela XVII. mendean Joannes Etxeberrik.\*

Izenaren etimologiatik eta esanguratik at eginda, esan dezagun gure Olentzaroren izaera oso tipikoa dela. Atxekitzen zaizkion hainbat izaerako osagarrietatik bat, ikazkina izatea da. Eta honek bai baduela esangura etnologikoa: sua egiteko egur-ikatza prestatzen ari da ikazkina mendian. Eta suak dauka esangura nabarmena gure etnologian. Gabon aro honetan eguzkia hiltzen doala uste zuten gure arbasoak eta nolabait argiaren ahulezian sua biztu behar zelakoan zeuden. Horregatik sutondoan enborra, subila, sutan jarri behar zen eta hortik dator Gabon aroari subilaroa deitzea. Gabon hitza aipatu dut. Noche Buena-ren kalkoa da gure hitz hau. Ez, ordea, *Eguberri* Navidad azaltzeko erabiltzen dugun hitza. Hau gure-gurea da, "nueva luz" edo antzerako kontzeptu etnologikoa azaltzeko erabili dena. Argi berria bizten zaigu Gabonetan, gehitzen-gehitzen ekainera helduko dena: abenduko solstiziotik udako solstiziora doana. Indargabeko argitik argiaren osotasunera helduko dena. Eguberrian sua hilda geratzen diren txinpartetatik sortuko da su berria, Anbotoko Mariren hauspoak biztua.

---

\* Badaude gaia aztertu duten beste euskaltzain batzuk ere: Manuel Lekuona eta Jose Maria Satrustegi, besteak beste.

Ez noa nire aurkezpentxo hau gehiago luzatzera. Baina ezin dut kolkoan gorde eta esan gabe utzi Euskaltzaindiak pozik uzten duela areto hau Olentzaro eta su berriaren aurkezpena egiteko, eta are gehiago bihotzez eskertzen duela Olentzaro elkarteak eskaintzen dion diruiturria.

Mila esker, eta Eguberri eta Urteberri on bat ospa ditzazuela.

**BBK-EUSKALTZAINDIA  
LITERATURA-SARIAK 1995**



## BILBAO BIZKAIA KUTXA - EUSKALTZAINDIA: LITERATURA-SARIAK

*Egoitza, Bilbo, 1995-06-29*

*Jon Mancisidor,  
Bilbao Bizkaia Kutxako ordezkaria*

Gaur egun badirudi gauza naturala dela euskarazko literatur sariketak egitea, gure hizkuntza normaltzeko bidean dagoelako eta bide honetan jardutea logikoa iruditzen zaigulako. Zorionez, hauxe da gaurko errealitatea.

Baina ez da beti honela izan, ezta gutxiago ere.

Pentsa dezagun, orain dela hogeita hamabost urte, egoera politikoa oso bestelakoa zenean, euskaraz berba egitea ere hain gauza erraza ez zenean, zelako balioa zuen, eus-kara hutsez idatzitako lanentzako sariketa baterako deialdia egiteak. Ba, orain dela hogeita hamabost urte, hasi zen Bilbao Bizkaia Kutxa eta Euskaltzaindiaren arteko elkar-lana, sariketa hauek aurrera ateratzeko.

Sasoi haietan gure izena ez zen BBK, Bizkaiko eta Bilboko Aurrezki Kutxa baino. Dena den, izena aldatu egin bada ere, euskal kulturari laguntza emateko gogoak, berdin irauten eta iraungo du.

Bestalde eta gaurko ekitaldiari dagokionez, esan, alde batetik, iazko lan irabazleak aurkezteko atsegina hartzen dugula, eta bestetik, aurtengo sariketerako deialdia egingo dugula.

Iazkoari dagokionez, hemen ditugu Xabier Mendiguren irabazle bikoitzaren lanak, *Bekatuaren itzala* eta *Hilerrri txikia*, eleberria bata eta antzerkia bestea. Beasaindar gazte honek, liburu mordoan argitaratu du dagoeneko, hogeitik gora, beraz, adinez gaztea bada ere, idazle beteranotzat har dezakegu.

Mirari García de Cortázar donostiarraren poema liburua, *Itzaleko hitzak*, izan zen iaz olerki saileko irabazlea. Ba, ordutik hona ez da urte erdi baino igaro eta beste sari bi lortu ditu jadanik, beraz, etorkizun handiko olerkari baten aurrean gaudela ziurta dai-teke.

Azkenik, aurkeztuko ditugun irabazleen artean, Jon Alonso Fourcade iruinsemearen saio-liburua dago, *Idiaren eraman handia*. Honetaz ere esan beharra dago, ordutik hona beste sari bat irabazi duela, ipuin arlokoa hain zuzen.

Beraz, BBK-k eta Euskaltzaindiak babesten dituzten sariketa hauek, argi dagoenez, idazle eginak sendotzeko eta berriak ezagutarazteko balio dute, aurretiaz jarritako hel-buruak lasai beteaz.

Hau honela izanik eta amaitzeko, euskal kulturak gure babesa izango duela nahi dugu adierazi eta froga moduan, sariketa hauen beste deialdi berri bat gura dugu aurkeztu, bost sail desberdinetan, lau helduentzat eta bat gazteentzat, "Txomin Agirre", "Toribio Alzaga", "Felipe Arrese Beitia", "Mikel Zarate" eta "Resurrección M.<sup>a</sup> Azkue", guztira ia lau milioi pezeta banatuko direlarik, gero, liburuak argitaratzeko konpromezu atsegina ere geure lepoan hartuz.

Beste barik, eskerrik asko gure hizkuntzaren gorengo erakundeari, Euskaltzaindiari, eta zelan ez, euskal idazle saiatuei.



# **HIL BERRIAK**



## JOSU OREGI ARANBURU (1919-1995)

Ustegabeko minbiziaz denbora laburrean eraman digu heriotzak Josu Oregi Aranburu urgazlea aurtengo Ostiral Santu egunez, hau da, apirilaren 13ean, bere sorterri zuen Bergaran. Hiri hortan jaioa bai zen 1919ko abenduaren 18an, Vicente Oregi bergarra eta Victoria Aranburuurretzuaren semea.

Batxiler ikasketak Bergarako dominikoetan eta Lekarozko kaputxinoetan burutu zituen. Gerra aurretxoan, hamazazpi urte zituelarik, Bilbon Injenieri Eskolan sartzeko urtebeteko ikastaroak egin behar zituen, baina zoritxarrez, gerra piztu zenez, guraso eta arrebarekin Mundakara ihesi joan beharra izan zuen armetan jaiki ziren militarrek Bergaran sartu baino lehen. Bizkaia galdu zenean, Donibane-Lohizunera jo zuten. Handik Belgikara bidali zuten ikasketak jarraitzeko asmoz. Liege hirian jesuitek zuten Institut Gramme izeneko eskolan ibili zen injenieritza ikasten 1939 eta 1940. urteetan. Handik ordea, munduko gerratea hasteko zorian alde beharra gertatu zitzaion eta etzituen ikasketok burutu ahal izan.

Euskal Herriko ifarraldera itzuli eta gero, alemanen ihesi, famili guziaz itzuli zen amaren jaioterria zen Urretxura, zeren aita abertzalea izaki eta, adinagatik gerran partetik hartu ez bazuen ere, Bergaratik “desterratua” behar zuen, harik eta “politika-erantzukizuna” garbi jarri arte (“expediente de depuración de responsabilidades políticas” omen zeritzona, alegia). Garbitu zuen aitak “portaera” eta Bergaran gelditutako Domingo osabarekin aita-semeok hasi ziren “Fábrica de Tejidos Oregui y Cía.” zeritzan familiariko oihalgintzan lanean, eta han jarraitu zuen aita hil ondoren ere, 1975era arte.

Nik, Josu Oregi, Yon Etxaideren bidez ezagutu nuen; honek 1950. urtean *Alos Torea* eleberria argitaratzean biok izan bai ginen liburu horren zabalkundez lana egin genuenetarikoak. Urte zail haietan euskararen zabalkunde lanetan ari ginen eta geografiaz elkarregandik hain hurbil bizi ginenez, premiak eraginiko elkar-laguntza hortik zertokigun.

Horregatik, une honetan, izan bedi adiskide zenduaren oroit-aro, hildem dugun lanunaren bizitza adierazteko aukera ez ezik gure hizkuntzaren historiarako ere legezko iruditzen zait isilpean gordetako zenbait oroitzapen azaltzea.

Berrogeita hamarkadako lehen urte haietan, Josu, Bergaran aski bakarti aurkitzen nuen eta Eibarren bildu ginen zortzi euskaltzale hasberrien ekintzak pozgarri zitzaizkion. Etxaidek, bere aldetik, euskalduntze ikastaroak ematen zituen Donostian eta metodo modernoago batera aldakuntza egin berri zuen: “Umandi”ren gramatika, artean inprimatugabekoa eta bide hura gomendatu zigun. Soldadutzan lagun izan nuen Peli Romarategi gasteiztarra “Umandi”ren ikasle zen eta haren bidez Andoni Urrestarazu “Umandi”rekin harreranean jarri ginen. Jakina, hark ere Gasteizen berak sortutako metodo berri horrekin irakaskintzan ari zen. Imanol Laspiur arduratu zen gramatika es-

kuratzeko jestioaz. Metodo berri hori multikopiaturiko orrietan jaso genuen eta don Rafael Artola, Bordari zenaren anaia, Eibarren apaiz zegoena gidari harturik abiatu ginen.

Andoni Urrestarazu "Umandi"ren hil berriaz artikulu polit bat agertu zuen Imanol Laspiur adiskideak 1993ko azaroaren 28an *Egunkaria* kazetan, non zekarren garai hartako eibartarron zerrenda, bera eta ni aipatzeaz gainera, beste honako hauen izenak ematen zituen: Jose Luis Ugarteburu, Paulino Larrañaga, Bittor Kapanaga, Jabier Zubiaurre eta Jose Antonio Eizaguirre. Imanolen memoria, zalantzarik gabe ondo ibili dela esango nuke, hala ere, Felix Azpitarteren izena gehituko nioke.

Etxaideri proposatu genion gramatika hura inprimatzea, gure laguntzarekik, baina ez zen ausartzen asmo horrek diru kopuru handia eskatzen zuelako. Orduan, gure kontura hartu genuen. Itxaropena argitaletxearen jabe zen Patxi Unzurruntzagarekin mintzatu eta sarreratzat beharrezko iruditzen zitzaion diru kopuruaren maila jarri eta horeraino hurbiltzeko adina aurrez ordaintzeko gertu zeuden harpidedunak eginaz osatu. Hori zen asmatu genuena. Helburu hori lortzeko, Donostiako taldea Etxaideren ardurapean, Gasteizkoa Urrestarazu berak, Bilbon Xabier Peña eta zortzi eibartarrok azkar hasi ginen ate joka. Oregik berriz ere euskaraganako jarrera erakutsi zigun sorta ederra bere lepora hartuz. Bestalde, Gipuzkoako Diputazioak, sortu berri zuen Julio Urkixo Mintegia eta bertan burukide ziren A. Irigaray eta K. Mitxelenaarengana jo genuen Mintegiaren babes eske, algitalpenerako baimena lortzeko bide errazagoa iruditu zitzaigunez. Hala izaki, eta hara nondik izan zuen J. Urkixo Mintegiak bere lehen lana argitaratzeko aukera 1955. urtean.

Euskararen alde zerbait egitea zein zaila zen adierazteko beste gertakari bat adieraziko dut lekukotzat eta hemen ere zein beharrezko izan zen Josu Oregiren laguntza. 1955. urte berean, ohi bezala, San Joan jaietako programa argitaratu zuen Eibarko Diana inprimategiak. Jakina, guziaz erdaraz, baina bi artikulu eragingarri zekartzan: "Fidelidad" atariko gisa, non gorai patzen zuen eibartarron jatortasuna, eta orri batzuk barnerago "Eibar y el euskera" euskaldunoi gure hizkuntzaren alde zintzo jokatzeko deia eginaz. Bi idazlanok J. de Urko izenpean zetozten. Egilea, Julio Sarasua zen, kazetaria, gerraondoko urteetan Donibane-Lohizunen erbesteraturik egona, non izan zen Alderdiaren Eusko-Gaztediko buruzagi eta hori zen frankistentzat parka ezinezko pekatu nagusia. Pare bat urte baizik ez zeramazkin Eibarrera itzuli zenetik, eta bere aitaren drogeria dendaz arduratzeaz gainera, biziko bazen, frantses hizkuntzaren irakaskuntzak ematen zituen. Gizon baketsua izanagatik, abertzale ideak zituelako frankistek begitan hartua zuten eta maiz atxilotua. Artikulu biok zirelata, giza-legez, herriko agintariak eskertu beharrezkoak ziren, noski. Baina nork uste berez hain zentzu iluna zuten agintari haiek, zigorrezko zentzualdia eman nahirik edo, neurriz gainerako isuna jarriko ziotenik? Eibartarrik gehienei lotsagarria iruditu zitzaion eta euskal gramatikaz ari ginen taldetxoarentzat, zer esanik ere ez, gehiegizko injustizia! Horregatik, isunaren ordainketa geure lepora hartzea erabaki genuen; zeren garai hartan Eibarko euskaltzaleei berriz diru eske hastea ez zitzaigun ongi iruditu. Betiko zortziok ahal genuena jarri eta gehiagoko gabe, Bergarara jo nuen Josu Oregi adiskidearengana laguntza eske eta berak osatu zuen falta zen guztia. Ez naiz oroitzen zenbat, baina isunaren erdia baino gehiago zen berak eman ziguna. Horrez gainera ateak irekiago utzi zizkidan esanaz, hurrengoan ere holako beharrianetan joateko lasai beragana, baina bere laguntza isilpean gorde nezala.

Hemen uzten ditut bi artikulu horien fotokopiak, Euskaltzaindiko artxibategirako. Gaur egun, horiek irakurtzen dituenak erraz susmatuko du bere Herria eta hizkuntza


maite zituen gizon moderatu baten idazkiak direla eta sineskaitza irudituko zaio horiegatik isuna jaso zuenik. Baina, horrelakoxea zen denbora hartako gizarte giroa eta agiriok lekuko izan bitez.

1957an, martxoko batzarrean, Nazario Oleaga idazkari zenak proposatu zuen: "... egoki litzakela Euskaltzaindiaren Laguntzaileak izenez lenago inarduan Batzordea barriz atondutea eta beronen lana, sail bitan ebakitea: bata Jakintza gaien buruz, ta bestea Txindi (diru) batzearen arduraz" (ikus *Euskera*, 1935-1953. Sendoa, SA argitaldaria-rekin 1982. urtean osagarritz argitara eman genuen alearen 62. orrialdean).

Handik lasterrera, baina 1957ko urte berean, izendatu ninduten urgazle eta Euskaltzaindia diru eskaziaz *Euskera* agerkaria ere argitara ezinik ibiltzen zenez, Oleaga zenaren proposamenari heldu niezaiokeela agertu nion Mitxelena zenari, zeinek proposatu zuen nire asmoa 1959an, ekaineko batzarrean (ikus aipatutako *Euskera*, 1937-1953 ale bereziaren 81. or.). Ondorioz, 1959ko uztaileko batzarrean erabaki zen honako hau: "Bizitu bedi Euskaltzaindiak leengoko denpora batean eukan «Euskaltzaindiaren laguntzaileak» taldea" (Aipatutako ale berezi horren 84. orrialdean datorrenez). Orduan hasi nintzen hileroko batzarretara etortzen eta aldiari aldikotz ekintza horren kontuak ematen. Ekintzaren oinarri nagusia zen: *Euskera*-ren harpidedun gisa, beren borondatez urteko mila pezeta ordaintzeko gertu zeuden euskaltzaleak aurkitu. Garai hartan mila pezeta asko zen, baina agertu zen bi mila emango zuenik ere, eta guzieren artean, bere buruari mailarik altuena jarri ziona Josu Oregi bera izan zen bost mila pezetarekin.

Ekintza honek nahasmendurik ere ekarri zigun, Bizkai aldeko talde batek izen bera erabiliz, baina batzarretan konturik eman gabe, dirua beraiei zeritzoen erara erabiltzen hasi zirelako, askotan gainera ez Euskaltzaindiarekin eta ez euskararekin ezer ikustekorik ez zuten ekintzetan arituz. Horren berri ondo daki A. Irigoyen euskaltzainak, asko sufritu beharra tokatu zitzaionez. Gauzak gehiago ez okertzeko, larritasunetik irtezeko adina lortu genuenean utzi genion bide horri. (Gertakarion berri ikus aipaturiko *Euskera*, 1937-1953 zenbaki berezi hortan honako orrialdeok, 91, 100, 104, 122-124, 129, 132, 134-135, 141 eta 143). Bestalde, nire ardurapean egin zen guztiaren berri emanaz agiriak bildu eta *dossier* bat osatu nuen Euskaltzaindiaren artxibategirako.

Egia esan, poliziaik zaintzen ninduten susmoa nuen eta hortik gertatu zitekeanari begira, gauzak argi eta garbi utzi nahi nituen. Gero ikusi dudanez, ez nembilen hain oker. Garai batean gurekin euskal alfabetatze lanetan ibilia zen Juan Maria Jauregi Gipuzkoako Gobernadore izendatu zutenean Ararteko bisita egin nion eta berak luzatu zidan polizietan nuen fitxaren kopia, baita ere irribarrez esan: "Zu aingeru bat izan zara nere fitxarekin konparatuz". Eman zidan paper hartan, nere "pekatuagatik nagusia" honela idatzirik dator: "... fue presidente de enseñanza en reuniones de los que ayudan a EUSKALTZAINDI, cuya última reunión conocida tuvo lugar en San Sebastian el 31 de enero de 1960, en la que actuó como presidente, y en ella se acordó enviar noticias sobre actos vascos para que se publicaran en las revistas «Karmel», «Zeruko», «Argia», y «Goiz Argi», y otras, y hacerlo saber al huido político Jose Luis Alvarez Emparanza". Agiri bitxi hau ere hemen uzten dut gure artxibategirako, zeren gure mende honetako euskararen historiarako ez ezik Euskaltzaindiarekin ere badu zer ikusirik.



Josu Oregi Aranburu  
Bergara, 1919-12-19—1995-04-14

Berrogeita hamargarren urteetan, dakizutenez, Euskal Herriko industri haskuntzak biztanlegoaren gorakada handia ekarri zuen eta eskola publikoek ez zuten haskuntza horren heinean eskolarik jarri, ez ethez eta ez maisuz. Une egokia iruditu zitzaigun guraso askorengan nabari zen hutsune horren larria ikastolez hornitzeko. Une hori aprobetxatu nahirik genbiltzan euskaltzale kezkatuok 1959. urtean. Eta, hara hor, Josu Oregik Bergara eta Eibar, elkarren artean baliatuz ikastolak jartzea non proposatu zidan. Horretarako hitz egin omen zen Jose Alberto Amilibia Peyussanne letraduarekin eta pribatu bezaila ahal zela ikusten omen zuen. Holakorik, niretzat ordea, amets eder bat baizik ez zen garai hartan. Urte bereko udaberriz Eibarren egin genuen bilera betiko euskaltzale taldetxoari dei eginaz; Oregi eta Amilibia etorri ziren eta antolakizumetan hasi. Izenez umeen eskola erabiltzea nahiago genuen, Donostian Elbira Zipitriak isil-

pean zeuzkanak eredu hartuz baina ez izen berarekin, elkarrekin nahasigabe segurantz handiagoa izango genuelakotzat. Bestalde, egia esan, gure ustez euskararentzat holako ekintzak isilpetik agerira atera eta klandestino kutsua kentzeko ordua zen. Ikastola horien ekintzaren berri Euskaltzaindiko batzarretan ematea ongi iduritu zitzaidan (ikus *Eusker*a, 1937-1953, aipaturikoa 90 eta 94. orr.).

Bertsolari txapelketak bultzatu genituenean ere laguntzeko gogoaz aldu zigun eta 1962an Debarroakoa Bergaran antolatzen lagundu; eta beste inon izan ez genuen zehazkizun bat eduki zuen Josuk, saioa magnetofoi zintaz grabaturik jaso eta Euskaltzaindiari erregalatu (ikus 1962ko azaroko agiria, *Eusker*a, 1937-1953 ale bereziaren 155. or.).

Oroituko zarete euskaltzaleontzat beste borrokaldi bat izan zela haurrei euskarazko izena jarri ahal izatea. Nik neuk, beti ere izena baino nahiago izan dut izana. Beraz, arreta askorik ez nuen ipini gure lehenbiziko haurra nola deitu kontu horretan, baina nire emaztearen gogokoa zen izen euskalduna jartzea eta horregatik eman nion gure antzinako historian agertzen diren zenbait izenen zerrenda berak hauta zezan. Une hartan, zer pentsa nezakean nik lau urte t'ardi beharko nituenik erregistro zibilean legez jartzeko? Hasieran, Unai bezala gelditu zen apaiz lehengusu batek bataiatu eta erregistro zibilean izen-historikoa zela agertuz, baina urtebetegarrenean familiako liburutik izen hori kentzera behartu nahi ninduten, eta eskerrak alkatearengana jo eta hau nire alde jarri zela, gehiagoko eragozpenik gabe jarraitu nuen. Bigarren urtera orde, 1966an, epaitegitik ofiziozko meatxua jarri zidaten eta lekukoekin juezagana jotzea erabaki nuen. Lekuko bikainak lortu ere bai, urte hartan Eibarren lanean aritu zen Gabriel Aresti adiskide zena, Argentinatik denboradaxo bat hemen igarotzera etorria zen Benito Montoya, Buenos Airesen Euskaltzaleak zeritzan elkarburua, eta telefonoz dei egin orduko laguntzeko gertu jarri zen Josu Oregi bera. Jokaera horren aurrean juezak atzera jo zuen eta, horren arabera, legezatzeko bidean jarri. Baina ez ordea historiako lekukotasunen azterketarik egin gabe: ikus, *Unairi* buruzko lana *Fontes Linguae Vasconum* aldizkaria, 1971, III. urteko 87-94. orrialdeak.

Esan beharra dut politikaz. Josu, izatez EAJ alderdikoa zela nahiz eta geroago alderdi horretan gertatu zen etenduraren ondotik EAKo gertatu. Hala ere, esan nezake, Josu Oregiren idearik eta sentipenik sakonenean Euskal Herriaren nortasuna eta euskaldunon batasunean mugatzen zirela, horren barnean bere euskalari lana: euskal gramatika, zientzia eta historia gogoko zituela. Bere ekintzak eta laguntzak oso onak izan ziren, hizkuntzaren historian aurrerapide urratsen oroigarri edukitzeak, eta 1965. urteko irailaren 24ko batzarrean, euskararen alde egin zituen lanegatik eta aurrerantzean egin zezakeanaren pozgarri, Euskaltzaindian ohi den bezala, euskaltzain urgazle izendatua izan zen. Artean ez zuen asko idatzi, Euskal Herriaren Adiskideak Elkartearen buletinean erdarazko saioen bat edo beste eta *Jakin*-en euskaraz beste zenbait saio baizik. Baina aspalditik eskolak ematen zituen, matematikaz uste dut, bai gatzeleraz eta baitere euskaraz, ikaslearentzat ulergarriena zeritzonean, Bergarako "Escola Elementalean" (Lanbide Institutu) eta han bertan, euskal alfabetatzean ere aritu zen.

1977-1979. urteetan *Deia* egunkariko euskal sailaren arduradun izana. 1980a geroztik Euskal Legebiltzarreko argitalpen eta itzulpen buru aritu zen zazpi urtez. Bertan gaur egun egiten den bat-bateko itzulpenen antolakizuna berari zor diogu. Euskararen Aholku Batzordeko kidea ere izan zen eta EITBko kontseilukide 1981-1985. urteetan.

Nik ez dakit Euskaltzaindiko urgazle izendapenak idazletzara bizkortu zuen ala ez, baina ordutik geroztikoak ditu idatzirik gehienak: gramatika saio, historia aburuak, fisika adierazpenak, berri hedakundez eta abar. Dena dela, ez zen geldirik egoteko jaioa.

Bere idatzietan inoiz “Osirantz” eta “Zubiarte” izenordeak erabili zituen. Idazlanok ordea, aski sakabanaturik aurkituko ditugu honako aldizkari hauetan: *Bol. Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País*, *Jakin*, *Zeruko Argia*, *Fontes Linguae Vasconum*, *Kardaberaz Bazkuna*, **Euskera**, *Elhuyar*, *Deia*, *Ariztondo*, ... Esan bezala, horietako asko euskal gramatikaz dira.

Ez da izango bibliografia ugariaren jabe, baina nire ustez uka ezinezko garrantzia duen lana burutu zuen, bai aldi larrietako ekintza haiekin eta idatzirik utzi zizkigunekin.

Hemen uzten dut Euskaltzaindiko artxibategirako bere seme Enekoren laguntzaz osatu ahal izan dudan zerrenda, ikertzaileek kontuan har dezaten eta bere ekintzak edonork ezagutu ditzan, eta, nola ez, euskaltzale zintzoaren lekuko.

Oroit-aro honetan ez nuke bukatu nahi azpimarratu gabe, parte handi batean lekuko naizenezkero, gure hizkuntzaren berpizkunderako zenbat isileko lan egin zuen euskaragatik inork ezer guti ematen zuen denbora zail haietan. Josuk, bere emaitzarik hoberenak hor agertu zituen bihotzean zeraman hizkuntzaren alde. Ekintza horietan gizon jokatzea inork ezingo dio ukatu. (GB).

## J. Oregi zenaren lanen bibliografia

*Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País*:

“Ojeando viejas revistas”, 1950, VI, 233-236.

“Sobre algunos aspectos de la conjugación vasca”, 1953, IX, 37-60.

“El itinerario de la fuga de César Borgia”, 1964, XX, 317-318.

“Rectificando una fecha, la fundación de Sasiola”, 1974, XXX, 263-264.

Buletin honetako “Revista de revistas” sailaren arduradun 1974-1978. urteetan.

*Jakin*:

“Idazki ezkutua. (Aldapekori)”, 1965, 17. zenb., 22-25.

“Idazki ezkutua II. (Aldapekori)”, 1965, 18. zenb., 57-62.

“Fisikaz eta ...”, 1965, 18. zenb., 78-82.

“Elkarriketa Bergararik”, 1965, 19. zenb., 8-13.

“Noiz? Nun?”, 1965, 19. zenb., 58-63.

“Argiaz zerbait”, 1965, 20. zenb., 47-50.

*Fontes Linguae Vasconum*:

“Aditzeko askargille batzuei buruz”, 1971, III. urtea, 307-310.

“Euskal aditzaz zenbait gogoeta”, 1974, VI. urtea, 265-283.



“Ochoa Arinen Doctrina (1713)”, 1972, IV. urtea, 353-369.

“Júpiter, oste, eta osteantzerakoak”, 1976, VIII. urtea, 171-177.

“Birdeklinaketa. Aditz-fleziioekingo «(e)n» anazko atzizkia”, 1977, IX. urtea, 215-234.

“Berriz ere euskal aditzaz”, 1985, XVII. urtea, 265-231.

“Textos antiguos vascos. Acotaciones”, 1992, XXIV. urtea, 263-270.

*Kardaberaz Bazkuna:*

“Erion aditzaren erabil-arauez”, 1973, II, 59-62.

**Euskera:**

“Leizarragaren aditza dala ta”, XIX, 1974, 233-239.

“Leizarraga. Bonaparte eta beste”, XIX, 1974, 276-278.

“Euskal aditzen sailkaikera jator baten bila”, XX, 1975, 359-372.

“Gramatika-gaiak. Esakune batzuen azterketan lehen-urratsak”, XXI, 1976, 194-203.

“Birraztapen bat: «Hiketa» eta «zuketa»”, XXII, 1977, 685-699.

*Elhuyar:*

“Egungo fisikaz”, 1975, 4. zenb., 27-34.

*Ariztondo:*

“Curiosa descripción de Bergara”, 1976, n.º 1.

“Bergarako euskera”, 1976, n.º 1.

“Bergara eta ostraillika”, 1976, n.º 2.

“1506gneko egun batez”, 1977, n.º 3.

\* \* \*

“Euskal adizkera. (Hitzaurre bat eta hamaika saio. Piarres Lafitte-ren Atari gisakoa)”. Ed. La Gran Enciclopedia Vasca, 1982.

Leandro Silván, *Cerámica del País Vasco*, San Sebastián, 1982. Josu Oregiren “Aintzin-hitzak”.

*Deia* egunkariaren euskal saileko arduradun 1977-1979. urteetan.

1995-07-05

*J. San Martin*



## IGNACIO OMAECHEVARRIA MARTITEGUI (1909-1995)

Ez da erraza Aita Inazioren bizitza eta lanak hitz gutxitan sartzea. Ekainaren 4ean (1995), Pentekoste igandez, hain zuzen, hil zen supituki Valladolidko gure komentuan. Esan behar da bere bizi guztian egon zela gaiso edo makal-antzean, baina hala ere beti batetik bestera ibilki, beti neka ezina, idazten, apostolutzen-lanak egiten, etab.

### 1. BIZI-XEHETASUNAK

Gernikan jaioa zen 1909. urtean. Anai-arreba asko izan ziren. Bat izan ezik, Josefina —hau dirudenez, etxearen iraupenerako edo, gelditu zen beste guztiak fraide, apaiz eta monja izan ziren. Baina, entzun dudanez, etxean denek halako begirune berezi batez ikusten zuten gure Inazio.

Mutikotan Arantzazuko kolejoan sartu eta apaiz izateko ikasketak egiten hasi zen nota guztiz bikainak atereaz. Teologi estudioak egiteko, berriz, Alemaniara, Fuldako komentura, bidalia izan zen, baina osasunik ez, eta ikasketa horiek bukatu gabe itzuli zen. 1932. urtean meza berria ematen du. Teologia ikasleei Elizaren Historia esplikatzeko jartzen dute. Baita *Aránzazu* eta *Misiones Franciscanas* aldizkariaren Zuzendari ere.

Euskal Herriaren historiak, euskeraren egituraz, euskal musikaz, Euskal Herriko kanta zaharrez etab. zituen ikuskerak oso kontuan hartzekoak direla uste dugu. Zoritarrez, gauza horietaz adierazten zituen iritziak idatzi gabe joan zaigu. Nik gogoan dut behin Probintzialak fraide gazte bat eskeini ziola sekretario izateko eta berak esaten zituenak jasotzeko. Uda guztian egon zen sekretario hori haren zain, baina bera ez zen agertu ...

Mixioak, eta batez ere behinolako euskaldun mixiolariak ezagutzera ematea izan zen arduraz aztertu zuen esparru bat. Esan behar da bere anaia D. Cruz izan zela Bilboko eliz barrutiko Mixioen arduradun, eta hark argitaratzen zizkioea hortaz idazten zituen liburuak. Hala argitaratu ahal izan zituen *Rex Gentium*, *Eucaristía y Misiones*, *Reina de las Misiones*, *Misioneros seglares*, *Palestina*, *Fue en Nagasaki*, *Heraldos del gran Rey en California*, *Sangre Vizcaína en los Pantanos de la Florida*, etab. Mixioei buruzko kongresuetan ere parte hartu zuen. Euskal mixiolari askoren bizitzak agertu zituen: Berascola, Mugartegui, Martín de Loyola, Martín de Arbide, José Francisco de Ganzabal, Pedro Pérez de Mezquía, Teresalina Zubiri, San Martín de la Ascensión...

Eta beste kezka edo ardura bat, oso bihotzean zeramana, zera izan zen: emakumezko Ordenena; hau da, monjen alde lan egitea, haiei laguntzea etab. Horiei buruz argitaratu zituen liburuak ere ez dira guti: *Las Clarisas a través de los siglos*, *Orígenes*

*de la Concepción de Toledo, Las monjas Concepcionistas, Escritos de Santa Clara*, etc. (1).

Kargu handiak ere izan ditu: hasteko, Alfaroko komentuko Bikario, gero Probintzialaren Idazkari edo Sekretario, gero Definidore Probintziala, Espainiko frantziskotar Probintzi batzuen Bisitaria, etab. Madrilen ere bera izan zen, 1967an, berriz, Definidore Jenerala izendatua izan zen, eta Erroman bizitzera joan behar izan zuen. Han ere emakumezko Ordenen ardura gomendatu zioten eta *Aggiornamento* izeneko boletinaren zuzendari ere izan zen; *Pro Monialibus, Forma Sororum* eta beste zenbait agerkaritan idazten zuen. *Dizionario degli Istituti de Perfezione* delakoan ere lankide izan zen.

Urteak iragan eta, bere osasuna gaizkituz joan zen. Valladoliden ezkondurik bizi den bere iloba bat joan zen Erromara bere automobilean eta ekarri zuen handik osaba Inazio eta Valladolidko gure komentuan utzi zuen. Erromatik itzultze hau 1983. urtean izan zen. Badakit, gainera, iloba horrek noizean behin eramaten zuela osaba automobilean osteratazuk egitera.

Zergatik gelditu zen Valladoliden eta ez Euskalerrian? Nik hori ez dakit, eta ez nion sekula galdetu ere, han bizi zen urteetan maiztxo ikusi nuenarren. Pentsatzen dut Euskalerriko egoera hain berezia izanik nahiago zuela pixka bat urruti egon.

1982. urtean Aita Inaziok eta bere arreba Josefina Arantzazun ospatu zituzten urrezko eztaiak, hark bere erlijio-profesakoa eta honek bere ezkontzarena.

Bai. Fede handiko gizona zen gure Aita Oma.

Eta biografi zati hau bukatzeko, gainera dezagun Aita Oma 1957. urtean euskaltzain urgazle izendatua izan zela (2).

## 2. BIBLIOGRAFI APURRAK

Aita Omaetxebarriaren bibliografia osoa ematea gaurkoz oso zaila da, eta are ezina, esango nuke. Hainbeste aldizkaritan idatzi izan du! Eta nik dakidala, berak ez du idatzitakoan zerrendarik utzi. Gainera, izenordeekin izenpetzen zituen askotan bere lanak, eta horrek ere zailtzen du, neurri batean behintzat, lan hau.

Dena den, euskara eta Euskal Herriakin zer-ikusi duten lanak aipatuko ditut bereziki, eta, segur aski, horiek ere ez denak.

Alemaniatik etorriberrri zenean, eta segur aski hango liturgi mobimenduaren erakarpenez, atera zuen *Euskal meza*, 1936 (Arantzazuko inprimategian).

Eta zenbait urte geroago, *Abestu errosarioa*, 1956.

“El vascuence de Fr. Juan de Zumárraga”, 1948.

---

(1) Erroman zegoenean Vatikanoko hiriak eskatu zion emakumezko klausura-monjen ardura izateko, eta orain, hil denean, entzun dudanez, hainbeste karta azaldu dira mundu guztitik helduak, monjak berari zuzenduak (ez orain helduak, Erroman zegoenean baizik).

(2) Ikus Euskaltzaindikoko urgazleen izen-lerrokada, *Euskera*-n (1958), 168-170. orrialdeetan.

“Un claustro gótico en Vizcaya. En el 6.º Centenario de la fundación del convento de Bermeo”, *Boletín de Amigos del País* (1957), 453.

“Nombres propios y apellidos en Oñate”, *BAP* (1957), 114.

“Nombres propios y apellidos en el País Vasco y sus contornos”, *Homenaje a Julio de Urquijo*, tomo 2.º, 153; San Sebastián, 1949.

“San Antón de Uquiola”, *BAP* (1958), 107.

“Nuestra misión de Yenánfú” (China), *Homenaje a la Seráfica Provincia de Cantabria en el 75.º año de su Restauración* (1859-1934); Aránzazu, 1935, pp. 382-461.

Euskaltzaindiko *Euskera* aldizkarian agertu dituenak honako hauek dira:

“Declinación vasca”, *Euskera* (1962), 29-42.

“Observaciones al proyecto de gramática del euskera literario por la Academia de la Lengua Vasca”, *Euskera* (1963-1964), 135-142.

“Vascuence y romance”, *Euskera* (1986), 177.

Liburu bat osorik ere badu titulu honekin: *Euskera. Un poco de gramática y algo de morfología del verbo vasco*, editorial Icharopena, Zarauz, 1959. Berak eskaturik, neronek lagundu nion liburu honen argitalpena egiten, probak zuzentzen etab. Bigarren partea, berriz, *Crestomatía* deritzana, neronek egin nuen bere eskariz, baina bigarren parte honen sarrera ere berak egina da; beste guztia, nik (3).

“San Bartolomé de Rocaforte (Navarra) en el camino de Santiago”.

“Rasgos franciscanos en la fisonomía moral de S. Ignacio”.

“Aránzazu. Santuario mariano del siglo XV, lugar de gracia. Ponencia presentada por el autor en el Congreso Mariológico-Mariano de Roma, en el año santo de 1975”, Zamora, 1985 (40 orrialde) (4).

Eta bibliografi kontu hauei amaiera emateko, aipatuko dut nirekin eta Krutwig jaunarekin zer-ikusí duen Omaetxebarria Aitarene beste lan bat. Guk, Kantabriako frantxiskotarrok, badugu aldizkari bat —*Cantabria Franciscana*— gure Probintziko ko-

(3) Liburu honen berria eman zuen Koldo Mitxelenak. Ikus *BAP* (1959), 451-453.

(4) Esan behar da, gainera, musika-gaietan ere oso trebea zela, eta Euskal Herriko kantategitik bide hartuz, elizkizunetan edo erlijio-kutsuko ekitaldietan erabiltzeko, zenbait saio eta kanta moldatu zituela.



Ignacio Omaechevarria eta Luis Villasante (1988-07-31)

mentuetan bakarrik zabaltzen dena. Bertan etxe barruko gaiak azaltzen dira, baina baztutan gaiok bere egitez eta izatez ez dira etxe barrukoak bakarrik izaten. 1951. urtean, bada, errebista horretan agertu nuen nik lan bat “En torno al problema del vascuence” (5). Krutwig jaunaren ezagutza eginberria nuen. Egia esan, hark esaten zituen gauzak niretzat berriak zirena, sekula entzun gabeak, hots, euskerak behar zuela bere burua nazio arteko kultur mundura zabaldu, internazionaliki onarturik dauden kultur hitzak hartu, hitz horiek idazteko grafia erabaki, etab. Hitz batean esateko, Krutwig jaunak nahi zuen nolabait euskera baserri eta etxe-girotik kanpora ere atera, hots, plazara atera, hitz gutxitan esanik.

Eta hurrengo zenbakian, horra non agertzen den, firma gabe, artikulua bat titulu honekin: “¿Esperanto o vascuence?” (6). Aita Omaetxebarriarena da, noski. Eta hurrengo urtean —1952an, alegia— agertzen da ondio nire artikulua koskor bat “Aclaraciones a Esperanto o Vascuence” (7). Bertan esaten diot badirela hemen bi solairu bezala, eta nire ustez bietan behar duela egon euskarak. Nazio arteko kultur hitzak ere behar dituela etxekotu euskarak, neurri batean behintzat. Etxe barruko gaiez eratutako hitzei atea itxi gabe, noski.

(5) Ikus aipatutako aldizkaria, 40-54 orrialdeetan.

(6) Ikus aipatutako aldizkarian, 132-139 orriald.

(7) Aipatutako aldizkarian (1952), 55-66.

Ikusten da Omaetxebarriarentzat euskeraren balio printzipala etxebarruko —nolabait esan— gauzen adierazpide izatean dela. Baina hori ukatu gabe, bestea galerazi behar ote zaio horregatik? (8).

Ez ote du euskarak, beste hizkuntzek bezala, bi solairu horien adierazpide izan behar? —neurri batean behintzat?—.

Nolanahi ere den, gure Aita Omaetxebarria maiteak izan dezala zeruan betiko atsedena.

*Fr. Luis Villasante*

---

(8) Logika honekin munduko hizkuntzarik handi eta zabalduenak esperanto batzuk besterik ez lirake izango ...





## JULIO CARO BAROJA (1914-1995)

### IN MEMORIAM

Gizon ospetsua itzali zen Euskal kulturarentzat 1995eko abuztuaren 18an Julio Caro Barojaren heriotzarekin. Hitz gutxi, begirada hotz eta ahots apaleko jakituna zen Itzeako maisua axalez ikusten zuen edonorentzat; alderantziz haatik, irekia, hiztun goxo eta jardun bizikoa azaltzen zen adiskideekin. Zientzilari mailean zuen errespeto eta itzal handia, benetan herrigizon apalaren giro jatorrean desagertzen zen etxeko bizian. Antzaldatzen zela zirudien.

Madriren jaio zen 1914ko azaroaren 13an. “Beran sortzeko puntuan egon nintzen, idatzi zuen ilunabarreko sentiberatasunaren bihozkadaz, eta ezagutza dudanetik Berako etxea izan da niretzat familia giroko egoitza nagusia”.

Nafarroarekiko lotura estua bi aldetatik zetorkion gizonari: *Itzea* zegoen, alde batetik, bere biziko ametsen txertaturik, eta ama bere bihotzean, bestetik.

Etxea itzal handiko etorkizuna da Barojatarrentzat 1912an Donostiako *Diario Vasco*-n ikusitako iragarki baten bidez jakin zuenetik osaba Piok Xantelerreka bazterrean bazela baserri zaharkitu bat salgai. “Beraganako nere amodioa, amodio fisikoa izaten hasia da”, zioen behin. Baroja familiak han hemenka zituen egoitzei buruz honako sailkapen ešanguratsu hau egin zuen Juliok: “Sentipen zalantzagarririk gabeko ama da Bera; asko maitatzen eta batzutan gorrotatzen ere den ezkont-emaztea da Madrid; Churriana maitalea bezala da, zeinekin ez baita arreta gehiegirik izaten atsegin iturri izan arren, zenbait gataska gora-behera”. Odolez zetorkion haatik Juliori Nafarroaren lotura zuzena. Rafael Caro Reggio bere aita, inprimatzailea, Iruñeko Carmen Nessi-rekin ezkondu zen. Parte zaharrean jaio eta San Nikolas parrokiaren bataiatua zen. Julio zen seme zaharrena, Ricardo zetorren gero (1917), Carmen jaio zen 1922an, eta Pio azkenik 1928an. Hau izan da azken urteotako babesle eta etxegizona.

Amodio bi hauekin estu loturik dago ikerlariaren ekintza. Ordu askotako irakurketa sakon eta zabalaz landutako jakituria nabarmentzen da saioretan. Ibiltari asperkaitza dago bestalde ikuspegi irekiaren begi ninian, eta jatorriko zorroztasun sarkorra egosten da bere luma kritikoan.

Pentsabide hori bizian aske ibilitako maisu bitxiaren dohain pertsonalarekin sinaturik agertzen da, eta arerio boteretsuak sortu zizkion etekin arrunten eta aginte maltzuraren soka dantzatzen diren jauntxoetan, jarraitzaile jatorrekin batera.

Antropologaari dagokionez bide-urratzaile izan da, orohar, aurreko ikerleen bideari uko egin gabe. Herri-jakintzaren lehen eskuko informazioarekin batera, datu idatziaren altxor mugaezina baliatu zuen. Konparaketa lanari ez zion muzin egin eta gizarteko

gertakariaren sintesi bipila plazaratzen ahalegindu zen arrazoimendu zehatzaren ildotik. Zeresanik ez, ondorio eztabaidagarrirek ere bazela bidean.

Etnografia lanetan Joxemiel Barandiaranen ildotik abiatu zen haste-hastetik eta Bidasoa erreka eta Euskal Herri osoko kultura arretaz aztertu zituen, nazioarteko beste herri askoren ikuspegitik begiratzuz. Nirekin Sakanan burututako egonalditxoan sintesiaren ildotik laburtu zuen Piriniotako eta Gaztelako han ematen den lotura “Urdiain pueblo de encrucijada” azterketan. Azpimarra daitezke erraztasunez lanen apaingarri egiten zituen marrazkiak.

Bide urratzaile zela esatean, bilketaz bestalde materialen azterketa eta konparaketa egin zuela esan nahi da. Speranski irakasleak honela azaldua zuen orduko egoera: “Etnografiak bere ikerlanari jarraitzen dio ondorioz ateratzen saiatu gabe, eskuratutako ondarea eraiketa orokorrera iristeko murrizta dela pentsatuz. Zientzia horrela da berriro materialearen bilketara eta ikertzerantz itzuli, etorkizuneko gizaldien mesedetan lan eginez. Hain zuzen, ikasketa orokorrak nola izango diren eta hori egiteko moduan noiz egongo garen, ez dakigu horretaz ezer”.

Atzerriko kultura izkutuetaan aurkitu zuen Julio Caro Barojak azterketarako eremu zabala etekin oparoa lortuz. Espainiako lurralde desberdinak ere sakonki ezagutzen saiatu zen, eta juduak, agoteak, sorginak edo beste edozein talde saihestu sartu izan zituen bere gogoeta emankor eta argitalpenen zerrendan. Seirehun bat izenburu ematen dira argitaratutako lanen artean. Euskal Herriari buruz aipa daitezke honako hauek: *Tres estudios etnográficos relativos al País Vasco* (1934), *La vida rural en Vera de Bidasoa* (1944), *Los pueblos del Norte de la península ibérica* (1943), *Los vascos. Etnología* (1949), *La hora Navarra del XVIII* (1969), *Los vascos y la historia a través de Garibay* (1972), e.a.

Enda eta herri berezien artean aurki daitezke, *Las brujas y su mundo* (1961), *Los moriscos del reino de Granada* (1957), *Los judíos en la España moderna y contemporánea* (1961-1962), *La sociedad criptojudía en la corte de Felipe IV* (1970), *Inquisición, brujería y criptojudaismo* (1970).

Atzerriko estudioetako batzuk, hauek dira: *Estudios saharianos* (1955), *Una visión de Marruecos a mediados del siglo XVI* (1956), *Estudios magrebíes* (1957), *Fragmentos italianos* (1992), e.a.

Herri-jakintza ez ezik, euskara ere ikergai zuen argibide eta zehaztapan baliotsuak emanez hizkuntzalariei, beste txosten batean ikusiko den moduan.

Ohorezko euskaltzain zuen Euskaltzaindiak, jasotako beste izendapen askoren artean.

Ez da gehiegikeria, gure herriaren mezulari eta bitarteko unibertsalena izan dela bere denboran esatea. Baina Antropologian izan da guretzat utzi duen hutsarte nabarmena. Euskal Herriaren jakintzan oinarritzko maisua izaten jarraituko du bere lan opa-roaren bidez.

Jose M. Satrustegi

## IN MEMORIAM JULIO CARO BAROJA (1914-1995)

1995ko abuztuaren 18an itzali zen Berako *Itzea* etxean Julio Caro Baroja jauna, euskaltzain ohorezkoa, 81 urterekin. Hil ezkilak isildu badira ere, deitorea ez, eta munduko hainbat zokotatik iristen ari dira oraindik.

Euskaltzain ohorezkoa, bai, eta merezi onez izendatu zuen Euskaltzaindiak maila honetarako 1979an, 1947an euskaltzain urgazle hautatu zuen gizona. Merezi onez, ezen Caro Barojak zorrotz eta tinko landu du gure kultura, eta oparo eta zabal aberastu.

Historiagilea zen, oroz gain, Julio Caro, eta garbi aitortu zuen hori, behin baino gehiagotan:

“Mi punto de vista es histórico-cultural, tanto o más que lingüístico” (1).

Hala ere, hizkuntzalaritzaren eta euskalaritzaren alorrek ekarpen mukuru zor diote. Ez zitzaizkion laket gramatikaren malkar latzak, ez zuten behin ere kilikatu hizkuntza teoriaren distira aldakorrek. Baina guztiz trebeki ikertu zituen Hispania zaharreko hizkuntzak, iberieraren idazkera —zehazkiago esan, idazkerak—, eta populu eta leinu ba-koitzaren nondik norakoak.

Latinak euskarari utzitako aztarna pisuari buruz egin zuen liburu bikaina Caro Barojak eta harekek eman zion, arrazoï osoz eman ere, ospe handia hizkuntzalarien artean. Liburuak titulu apala zuen: *Materiales para una historia de la lengua vasca en su relación con la latina*, eta Salamancako Unibertsitateak argitaratu zuen 1945ean. Meyer-Lübke, Schuchardt eta beste hizkuntzalari batzuen irakaspenak bere eginez eta hedatuz, erromatarren mintzoaren itzala gure hiztegiari eta gure izen berezietan noraino den nabarmena erakutsi nahi zuen egileak. Zenbaitek beltzuri egin zioten lan horri. Euskalduntasuna, garbitasuna, antzinatasuna eta nik ez dakit beste zenbat tasun galtzen zirela uste zuten, obra hari kasu —eta amore— emanaz gero. Urteak iragan ondoren, ordea, *Materiales...* erpin eta mugarri dela dakusagu, nahiz, gizalan guztiek bezala, denborak higatu. Ikerkuntza franko zuen oinarrian, izan ere, eta dotrina segurua aurkitzen zen orrialde haietan, garai hartan izan zitekeen neurrian. Gero, jakina, Mitxelena jaunak bere emaitza ederra kaleratu zuen, *Fonética histórica vasca*, batez ere, 1961an, eta puntu askotan Caroren ikusmoldea hobetu eta zuzendu.

Carok eta Mitxelenak, zalantzarik gabe, kezka bera zuten, besteak beste: Euskal Herria, bere nortasuna deusetan ere ukatu gabe, inguruko herrieekin lotzea. Hona Caroren hitzak:

---

(1) “Los estudios geográfico-históricos sobre el País Vasco y la dialectología” (1958). Ikus orain Lur argitaletxeak Caro Barojaren lanen argitaraldian, Donostia 1995, II, 345.

“Mi punto de vista es, en esencia, el de no apartar al vasco históricamente de la comunidad de pueblos de la Europa occidental; de no hacerle más Robinson de lo que en realidad es” (2).

Nola ez ekarri gogora Mitxelenaren hitzak, *Apellidos vascos* liburuaren 3. argitaraldian?:

“Además, si he de expresar francamente mi mayor deseo, quería y quiero poner en relación nuestros apellidos y topónimos con los de otras lenguas, ante todo con los de las vecinas” (3).

Zer esanik ez, latinarrekiko lotura horretan, galdera askok ez dute erabateko erantzun garbirik: *-ain*, *-ano*, *-ana* bukaerak, adibidez, arazo eta izkutu dira oraindik, nahiz funtsean Caro Barojaren azalpena onartu.



Julio Caro Baroja Oñatin, 1979ko azaroaren 11an, J. M. Barandiarani  
Eusko Ikaskuntzak antolaturiko omenaldian

Hizkuntzekiko, eta bereziki euskararekiko, interes eta zaletasunak eraginik, beste lan eder bat ondu zuen Julio Carok bizpahiru urte lehenago: “Observaciones sobre la

(2) Ib., 345.

(3) *Apellidos vascos*, 3. argit., Donostia 1973, 238.

hipótesis del vascoiberismo considerado desde el punto de vista histórico”, *Emerita* aldizkarian argitaratua, 1942-1943an. José Vallejos eskatu zion lana, Centro de Estudios Históricos izan zeneko eta orduan Consejo Superior de Investigaciones Científicas zeneko Filología Klasikoaren Sailean harekin mintzatu ondoren. Egia esan, lanaren titularen azken parteak esparrua historiara mugatzen badu ere, hizkuntza ere da hemen ikergai, Schuchardten deklinabidea, tartean. Miresgarria da artikuluan Carok nola arakatu zituen iturri guztiak, eta iritziak oro eztabaidatu (4).

Larramendirenganako joera ere aipatu behar dugu Caroren euskararekiko lanetan. “Una nota al P. Larramendi” 1959koa da. Urte berekoa da Mitxelenaen *La obra del P. Manuel de Larramendi*, askoz ere luzeagoa. Urte batzuen ondoren, Carok beste lan bat argitaratu zuen andoaindarrari buruz, “¿Léxico perdido, léxico recuperado?” (5). Ongi zekien, izan ere, asmakeriez josia dagoela Larramendiren hiztegia, baina, beste askok ez bezala, uste zuen kontuan hartzekoa dela *Diccionario Trilingüe*-ko hainbat hitz jator eta benetako, geroztik desagertu edo zokoratu direnak.

Hitz eta esaeren bila, eta Menéndez Pidalen aspaldiko nahia beteaz, Nafarroako Forua aztertu zuen Julio Carok, eta *azagerriko, ozterate, gailurdiru, On bazendu abaria* ete besteri buruz idatzi, erdarazkoak edota erdaratikoak baztertu gabe, *escuraina*, adibidez. Beste hitz eta izen anitzi buruz eskertzekoa izango da betiko haren ekarpena. Aipa ditzagun hemen, zerrenda ez luzatzearren, gutxi batzuk: \**uasconicus* (> *vascongado*), *uztarkide*, *Aresta*, *Nafarroa*, *Olite*, e.a. Maisu, zinezko maisu, ageri da Caro Baroja, historiaren ezagutza sakonak ematen maisutzaz. Horrek ez du esan nahi, jakina, puntu guztietan zuzen zebilela. Zientzia egiten zuen, eta zientziak, dakigunez, kritika du berekin. *Alava*-ren etimologian, demagun, beste iritzi bat nagusitu da geroztik, hots, < lat. *planum*, eta Picaud-en *blascli / nauarri* bikotean mugaz haraindikoak eta honaindikoak ulertu behar dela garbi dago (6).

Hizkuntza geografia ere landu zuen, neurri batean, ohar eta hausnarketa ugariarekin, beti ere historia lagun. Iduri luke, ordea, Caro Barojak uste zuela euskararen atzerakuntzaren arrazoa euskararen bertan bilatu behar zela, eta ez hizkuntzaz kanpo.

Uzkur genuen, halaber, gure hizkuntzaren batzeaz. Gibelera, antzinako denboretara, beren gazi-gozeekin, begiratzea zuen atseginago, eta ez zeritzon daitekeena ez zuzena euskara batua deitzen dugunari. Bai, gibelerako soa zen Carorena hizkuntzaz denaz bezainbatean, eta Azkuez gero bederen arrunta izan den euskal ortografia ere ez du maiz aski erabiltzen, are gutxiago Arantzazuko Biltzarraren ondorengoa.

Baina erokeria litzateke horretaz, eta bereziki azken urteetan, idatzi zuenari muzin egitea. Bat nator ni, adibidez, eta oso bat, Caro *el vasco ritual* delakoaren aurka mintzatzan zenean, eta bat eskatzen zuenean euskararen suztatzean gizakiak berezkoa duen estetika sena:

“Hay que cargar al vasco del contenido estético en primer término, y de cierta profundidad, en segundo. Pero esto no se hace a base de áridas gramáticas y

(4) Ikus lan hau Lur argitaletxearen argitaraldian, I, 81-120.

(5) Ikus E. Knörr (ed.), *Homenaje a Odón de Apraiz*, Gasteiz 1981, 107-116. Lur-eko argitaraldian, V, 199-204.

(6) Ikus Mitxelena, *Textos arcaicos vascos*, 1. argitaraldia, Madril 1964, 49. Berdin 2.ean, Donostia 1990.

de libritos de ejercicios poco amenos impuestos a los niños. Tampoco de (7) otros que se usan en escuelas empingorrotadas llenos de chascarrillos de taberna y de obscenidades que hace años hubieran escandalizado a todo el elemento nacionalista del país. Esto se hace a base de arte, de poesía, de teatro, de música cantada, de prosa atractiva. Los artistas creadores debían ser los que tuvieran la iniciativa, no los maestros de escuela” (8).

Euskal Herriari atxikia zegoen Caro Baroja, eta zion maitetasuna neurritz gainekoa zen. Madrileko Agrupación de Cultura Vasca-ko kidea izan zen, Odriozola, Busca Isusi, Quadra Salcedo eta besterekin batera. Areago, garai batez euskal politikak erakarri zuen: “Sentí por un momento incluso una veleidad vasquista de orden político”.

Karlistek eta kidekoek Barojatarrekiko izan zuten gorrotoa atzean gelditu edo zen, eta giroa ez zitu. Pentsaezina zen, demagun, Azkuek osaba Pforekin egin zuena egitea, hots, atzerrira joan zedin eskatzea, baita eleberrigilearen erantzuna ere Azkuez, “mosca carnaria del vascuence”. Gerra ondoko lehen urte ilun haietan umorez erantzuten zuen familiako liberaltasuna bekatu gisa leporatzen ziotenean:

“—Conque Baroja, ¿eh?

—Sí, señor, gracias a Dios y a su Divina Providencia.”

Beste aro bat etorri zen gero. Baina haren esperantzak errekaratu ziren, inoiz baikorra ez zen Carorengan. Atsekabez zekusan intolerantzia eta indarkeriaren hedatzea, orain beste kolore batzuekin. Eta tristuraz zekusan askatasuna berreskuratuarren lehengo gaitzek irauten zutela, eta beste zenbait eransten: administrazioaren hazkunde neurri-gabea, bazter ederren hondamendia, e.a. Ez zuen etsitzen, hala ere, eta bere mezua helarazten saiatu zen bizi-arnasa eta buru-argitasuna izan zuen bitartean:

“...hay muchas cosas que salvar en este país en paz, en armonía y en hermandad. Y la única posibilidad de creer en unidades, identidades y cosas por el estilo es cultivar el amor” (9).

Betiko atsedenean gerta dadila Julio Caro Baroja, jakintsua, euskaltzalea, gizona.

*E. Knörr*


(7) “en otros” dio, oker, testuak.

(8) *El laberinto vasco*, Donostia 1984, 116.

(9) *Ib.*, 125.

## MARIA ALDAZABAL ELISBURU (1906-1995)

Hogeita hamabost urtetan Euskaltzaindiaren Erribera kaleko egoitza garbitu zuen Maria Aldazabal Bilbon hil zen 1995.eko azaroaren 18an, 89 urte zituelarik. Eibarren jaioa zen (1906-03-01) aita "Tximinua" ezizeneko pelotaria zela. Francisco Lopez-ekin ezkondua, atzerrira joan ziren gerra denboran eta Clermont-Ferranden alargun geratu zen Maria. Bilbora itzulita, 1947an Akademiako lokalak garbitzeko hartu zuen R. M. Azkuek eta lan horretan jarraitu zuen 1982.eko irailaren 4an istripu baten ondorioz utzi arte.



Pakita Lopez Aldazabal alabak hartu zuen orduan amaren ardura eta Erriberan 1991ko iraila arte eta gero Plaza Barriko egoitza berrian honek, Ramon Hernandez senarraren laguntzarekin, betetzen du garbitzaile lana. Zuzendaritzak, Donostian 1995.eko azaroaren 20an egindako bileran familiari eta bereziki Pakitari doluminak agertzea erabaki zuen.

*1995-11-22*

JAAM





## GABRIEL RAMOS URANGA (1939-1995)

Euskaltzaindiko egoitza honetan gaudenok, gabiltzanok eta datozen bisitari guztiek jakin dezaten, 1991n jarri ziren bi beirateak Gabriel Ramos Uranga pintore eta grabatzaileak eginak direla nonbait konstaraztea komeni dela eta, hil berria den artista honi oroipen eta omenaldi gisa aitortzen diogu gaur. Euskal Herrian arte eta teknika aldetik koloreetan grabatzaile onena zela eta agindu zitzaizkion bi beirate horiek egitea. Proiektua kolorez marraztua ikusi genuenean konturatu ginen aurkeztutakoak zeukan edertasun, indar eta sinbologiaz. Hamazazpi metro karratuko beiran ematen zigun Euskaltzaindiaren sinboloa, arbola, haritza, baina orri solteetan bilakatuta. Gure Instituzioa hilezkorra dela adierazteko, berde desberdin eta aberatsekin asmatu zituen orriak, oraingo euskaltzainen ondoren orri berde freskoak beti etorriko direlakoan. Jose Maria Uzelai izan bazen gure arbola eta belarren berde desberdinak isladatzen ahalegindu zena, beste horrenbeste egin zuen Ramos Urangak gure bi beirateetan.

Gabriel Ramos Uranga, adiskide izatera heldu ginenontzat *Gabi*, Bilbon jaio zen 1939.eko irailaren 4ean eta 56 urtekin hil aurtengo abuztuaren 9an. Madrilen arkitektura ikasketak egiten ari zelarik, Arte Ederretako San Fernando Eskolara joan zen pintura eta grabaua ikastera. Azken bi hauetan eman zituen lanik oparo eta onenak, hainbat erakusketa prestatuz eta sariak irabaziz. Koloreetako grabauaren teknika Cuencan ikasi zuen, 1968an hasita, Henri Dechanet maisu frantsesarekin. Eta Euskaltzaindirako beirateak (eta Urkiolakoak ere) Cuencan beiratu zituen, Vitrea etxeari lana aginduz. Egoitza honen inaugurazio urtean, 1991.eko ekainaren 3an sinatu zen Vitrearekin hitzarmena eta hurbiletiik jarraitu zuen Ramos Urangak bertan lana gure egoitzan beirateak jarri arte. Eskaileraren gailurrean dagoen beirateak 2,9 x 1,7 metro ditu, eta solairu honetan dagoenak 6,15 x 2,6 metro. Ramos Urangari ordaindutakoaz aparte, Vitrea etxeari 3.743.936 pezeta ordaindu zizkion Euskaltzaindiak Aginteengandik jasotako diruarekin.

Gabriel Ramos Urangari eskerrak eta oroimena.

*José Antonio Arana Martija  
Bilbon, 1995-10-27*



## AURKIBIDEA 1995

ANDOLZ, Rafael:	
— Literatura oral en Aragón .....	207
ARANA MARTIJA, José Antonio:	
— Xabier Kintanaren sarrera-hitzaldiari erantzuna .....	37
— Aita Luis Villasanteri omenaldia Gernikan .....	481
— IX. Korrikaren aurkezpena .....	549
— Azkue Biblioteka: Durangoko Azokan erakusketa .....	551
— Gerhard Bähr, euskalaria .....	795
— J.A. Mogel jaio zenetik 250. urteurrena .....	1133
— Olentzaro .....	1145
— Maria Aldazabal .....	1173
— Gabriel Ramos Uranga .....	1175
ARBELBIDE, André:	
— Anai Innocentius Elizanbururen mendeurrena .....	713
ARBELBIDE, Xipri:	
— Heleta eta Elizanburu. Dokumetuak .....	719
ARBIDE ELORZA, Ignacio:	
— Vida de Gerhard Bähr .....	785
AZKARATE, Miren:	
— <i>Euskal Gramatika Lehen Urratsak-IV(Juntagailuak) (EGLU-IV)...</i>	545
— Patxi Goenaga Euskaltzaindian sartzea .....	683
BADIOLA URIARTE, Ricardo:	
— <i>Ipuinak eta bertsoak</i> .....	491
BÄHR, Hans-Peter:	
— Gerhard Bähr, muerte y vida .....	833
BEAUPÉRIN, Yves:	
— Au confluent du style oral et du style écrit, un découvreur, Marcel Jousse: sa vie, son oeuvre, son actualité .....	87
— Les traditions de style oral: Naissance mémorisation et transmission d'après les travaux anthropologiques de Marcel Jousse .....	123
BERASATEGI, Antonio: <i>Olaberría</i> izenaren erabilera dela eta .....	39
CHAPARTEGUI, José Javier: Gipuzkoako Domina ematea Euskaltzaindiari .....	431

ETXEBARRIA AYESTA, Juan Manuel: Etno-ipuín eta esaunden bilketa .....	173
EXEBARRIA ETXEITA, I.J.:	
— E.H.H.A.-CD-ROM: <i>Hitzarmena</i> .....	499
— Bizkaiko Foru Diputazioa-Euskaltzaindia: E.H.H.A.-CD-ROM: delakora pasatzea (II) .....	1103
EUSKALTZAINDIA:	
— III. Herri-Literatura Jardunaldiak: Ondorioak .....	231
— Euskaltzaindiaren ARAUAK .....	239
— <i>Batzar</i> hitza dela eta .....	353
— Euskaltzaindiaren Batzar Agiriak .....	355
— <i>Biarritz/Miarritze</i> .....	385
— Gipuzkoako Aldundiaren Urrezko Domina: Bilera Agiria .....	435
— U.P.V./E.H.U.–R.A.L.V./Euskaltzaindia: <i>Hitzarmena</i> .....	495
— Bizkaiko Foru Aldundia–Euskaltzaindia: <i>Hitzarmena</i> .....	499
— Frantses Gobernuari <i>Euskaltzaindiaren: Adierazpena</i> .....	507
— Oihenarten IV. Mendeurrena. Iker 8 .....	547
— <i>Declaración</i> de la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia acerca de la Resolución Parlamentaria sobre la Ley Foral del Vascuence de Navarra y acerca del Decreto Foral regulador del uso del euskara .....	555
— Nafarroako euskararen Foru Legearen gainean Parlamentuak erabaki duenaz Euskaltzaindiaren <i>Adierazpena</i> .....	557
— <i>Declaración</i> de la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia acerca de la Resolución Parlamentaria sobre la Ley Foral del vascuence en Navarra .....	558
— Eusko Ikaskuntzaren eta Euskaltzaindiaren <i>Adierazpena</i> Iritzi Publikoaren aurrean 1994ko azaroaren 19an Nafarroako Justizia Nagusi T.G.ko Administrazioarekiko Auzi Aretoak emandako epaiari buruz .....	559
— <i>Declaración</i> de Eusko Ikaskuntza/Real Sociedad de Estudios Vascos y Euskaltzaindia/Real Academia de la Lengua Vasca ante la Opinión Pública Navarra en relación con la Sentencia de 19 de noviembre de 1994 de la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Excmo. Tribunal Superior de Justicia de Navarra .....	561
— 1994.urtean, hileroko batzarretan izandakoen zerrenda .....	569
— Karguak eta batzordeburuak .....	573
— Euskaltzaindiaren Aurkitetia eta Organigrama .....	603
— Aurkibidea 1994 .....	629
— Euskaltzaindiak Herri-Agintekin egindako II. <i>Hitzarmena</i> .....	837
— Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua, Foru Aldundiak eta Euskaltzaindiaren arteko <i>Hitzarmena</i> .....	839

— <i>Acuerdo</i> entre el Gobierno Vasco, Gobierno de Navarra, Diputa- ciones Forales y Euskaltzaindia .....	849
— Bilerak Akta .....	867
— Euskaltzaindiaren Agiriak:	
● Euskaltzaindiaren ARAUAK .....	871
● Euskaltzaindiaren Batzar Agiriak .....	971
● Euskaltzaindiaren Barne-Jardunaldiak: Larrabea: Euskal- tzaindiaren <i>Adierazpena</i> .....	1015
● Euskalkien erabilera Administrazioiko 1. eta 2. hizkuntza-es- kakizunetan .....	1019
● <i>Errenteria</i> eta <i>Orereta</i> izenez .....	1025
● <i>Kudeatzaileaz</i> Euskaltzaindiaren Erabakia .....	1029
● Euskaltzaindiaren Organigrama .....	1030
— Onomastika Diktamenak:	
● Zuia, Harana, Urizaharra/Peñacerrada, Santikurutze-Kanpe- zu, Gaintza, Zumarraga .....	1067
— Gramatika:	
● EITB-ko galdera zerrendari Gramatika batzordeak oraingoz ematen dion erantzuna .....	1079
● U.P.V./E.H.U.-R.A.L.V./Euskaltzaindia: <i>Hitzarmena</i> .....	495
● Bizkaiko Foru Diputazioa-Euskaltzaindia: E.H.H.A.-C.D.- -ROM delakoa pasatzea (II) .....	1103
● José Maria Makua Zaronari omenaldia .....	1111
● Euskaltzain Ohorezko berriak: Pedro Pujana-Joan Coromi- nas .....	1115
● Bilbao Bizkaia Kutxa-Euskaltzaindia: Literatura-sariak, 1995 .....	1149
● Rosa M. <sup>a</sup> Arza Azuetaren “Zilarrezko eztaiak” lanean .....	1139
● Aurkibidea 1995 .....	1177
FRAILE, Gabriel: Elissamburu, Framazoak eta Juduak .....	767
GALDOS ZUBIA, Eli: Euskaltzaindiari Gipuzkoaren Urrezko Domina	443
GARATE, Gotzon: Aramaio. Bizkaiera .....	699
GARMENDIA LASA, M. <sup>a</sup> Karmen:	
— Euskaltzaindiak Herri-Aginteekin egindako II. <i>Hitzarmena</i> ....	839
— J.A. Mogeli omenaldia .....	1133
GARMENDIA ARRUEBARRENA, José:	
— José Antonio de Azpiazu, euskerólogo .....	417
— Iztueta y sus estrofas acerca de las cabras .....	1059
GOENAGA, Patxi: Euskararen batasunaz eta duintasunaz .....	651

GORROTXATEGI, Joakin: Gerhard Bähr-en <i>Baskisch und Iberisch te- siaz</i> .....	821
GORROTXATEGI, Mikel: Guizaburuaga/Gizaburuaga .....	389
HARANBURU, Antton: Urrezko Domina Euskaltzaindiari .....	437
HARITSCHELHAR, Jean, euskaltzainburua:	
— Xabier Kintana Euskaltzaindian sartzea .....	13
— III. Herri-literatura Jardunaldiak: azken hitzak eta eskerrak ...	233
— Gipuzkoako Urrezko Domina jasotzean .....	447
— <i>Sabino Arana</i> kultura saria jasotzean .....	451
— Luis Villasante Kortabitarte .....	457
— Iratzerder-en omenaldian .....	485
— Bizkaiko Foru Aldundia-Euskaltzaindia: E.H.H.A.-C.D.-ROM: Eskerronezko hitzak .....	503
— Palabras del Presidente de la Real Academia de la Lengua Vas- ca/Euskaltzaindia ante S.M. Juan Carlos I, con motivo de la Audiencia concedida a la Institución .....	509
— Espainiaren Erret Akademiak Espainiako Gobernuburua den Felipe González jaunari egindako gutuna dela eta Euskaltzain- diaren <i>Adierazpena</i> .....	513
— Patxi Goenaga Euskaltzaindian sartzea .....	649
— Anai I. Elizanbururen mememugan .....	715
— Euskaltzaindiak Herri-Aginteeekin egindako II. <i>Hitzarmena</i> ....	865
— Euskaltzaindiaren ARAUen aurkezpen .....	1089
— Euskaltzaindiaren XIII. Biltzarreko Agiriak ( <i>Euskera</i> , 1994, 3) liburukia aurkeztean .....	1095
— Bizkaiko Foru Aldundia-Euskaltzaindia: E.H.H.A.-CD-ROM: <i>Hitzarmena</i> .....	1103
— José Maria Makua Zarandonaren oroimenez .....	1111
— Euskaltzain ohorezko berriak: Pedro Pujana-Joan Corominas	1117
IÑARRA, Jon:	
— III. Herri-literatura Jardunaldiak ON Manuel Lekuonaren ome- nez .....	85
— III. Herri-literatura Jardunaldiak: Azken hitzak .....	235
IRIGOIEN, Alfonso: Federiko Krutwig hiriko saria .....	1144
KALTZAKORTA, Xabier: Tartaroak .....	181
KEREXETA, Pedro: <i>Eibarko hiri-toponimia</i> .....	535
KINTANA URTIAGA, Xabier: Bilbao, euskararen bizitzan .....	15

KNÖRR BORRAS, Endrike:	
— Espainiaren Erret Akademiak Espainiako Gobernuburu den Felipe González jaunari egindako gutuna dela eta Euskaltzaindiaren <i>Adierazpena</i> .....	513
— En la presentación de <i>Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Pamplona/Iruña</i> . Onom. Vasc. 12 .....	527
— In memoriam Julio Caro Baroja (1914-1995) .....	1169
KORTAZAR, Jon: Aho tradizioko literatura eta ahozketasuna .....	213
LARRE, Emile: Ama hizkuntza biziko da. Ohar batzuk Iparraldeko begitik .....	147
LASA, Martin: Mikel Elissambururen bizia eta lanak .....	745
LEKUONA, Juan Mari: Manuel Lekuonaren metodologia ahozko literaturaren ikerketan .....	109
LIZUNDIA, Jose Luis:	
— Mendateen zerrenda .....	387
— Luis Villasante Kortabitarte jaunari Bizkaiko Foru Diputazioak egiten dion gorazarrea .....	461
— <i>Ipuinak eta bertsoak</i> .....	491
— 1995. urterako Euskaltzaindiaren egutegia .....	565
— <i>Diccionari de la Lengua Catalana</i> -ren aurkezpena Valenciako Unibertsitatearen paraninfoan .....	1099
MAKUA GOIENETXE, Jose Mari: J.M. Makua Zarandona jaunari Euskaltzaindiak Oroitarria .....	1113
MORVAN, Michel:	
— Commentaire critique sur les “Materiales para un diccionario etimológico de la lengua vasca” .....	409
— Commentaire critique sur... (Beule-Buzuntz) .....	1039
— Commentaire critique sur... ..	1051
MUÑOZGUREN URKIOLA, Fernando: <i>Eibarko hiri-toponimia</i> . Onomasicon Vasconiae, 13 .....	531
OGIZA, Aitor: <i>Eibarko hiri-toponimia</i> .....	535
OIHARTZABAL, Beñat: Hizkuntz Atlasa dela eta .....	1031
PRADERA, Jose Alberto: Bizkaiko Foru Aldundiak Aita Luis Villasante Kortabitarte jaunari omenaldia .....	477
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA: ikus <i>Euskaltzaindia</i>	
ROS CUBAS, Ander: G. Bähr-en euskal aditzari buruzko lanak eta eztabaidak .....	801

SALABERRI MUÑOA, Patxi: Aramaioko hizkuntz ondareaz .....	693
SALABERRI ZARATIEGI, Patxi:	
— <i>Eslaba aldeko euskararen azkerketa toponimiaren bidez. Onomasticon Vasconiae</i> , 11 .....	523
— <i>Eibarko hiri-toponimia</i> liburua dela eta .....	541
SALABURU, Pello: Euskaltzaindiaren ARAUAK aurkezpena .....	1091
SATRUSTEGI, Jose Mari:	
— Testu ihartuak euskal tradizioan .....	161
— Pedro Diez de Ulzurrun, sendagilea (1924-1994) .....	585
— Nils M. Holmer (1904-1994) .....	589
— Julio Caro Baroja (1914-1995) .....	1166
SAN MARTIN, Juan:	
— Antonio M. <sup>a</sup> Labayen Toledo (1898-1944) .....	579
— Dr. Justo Garate Arriola (1900-1994) .....	593
— T. Hernandorena (1898-1994) .....	599
— Josu Oregi Aranburu (1919-1995) .....	1153
TAJADURA, Federico: Palabras del Consejero de Presidencia del Gobierno de Navarra en el acto de firma del <i>Acuerdo</i> con Euskaltzaindia	861
UGARTE GARRIDO, Jose Luis: Gerhard Bähr eta Euskal Herria ...	829
URIBE, Jose Ramón: Aita Gabriel Jauregiri Omenaldia .....	609
URIBEETXEBARRIA, Tomás: Euskaltzaindiak Herri-Agiteekin Sinaturiko II. <i>Hitzarmena</i> .....	859
URKIZA, Julen: Aita Gabirel Jauregi .....	703
URKIZU, Patri: Artazuriketak eta kontagintza .....	153
VILLASANTE KORTABITAR, Luis: Bizkaiko Foru Diputazioak <i>Luis Villasanteri</i> omenaldia .....	471
ZARAUA, Esther: <i>Eibarko hiri-toponimia</i> .....	535
ZABALA, Antonio: Rafael Andolz .....	203
ZUDIMENDI, Joxe Ramón: On Manuel Lekuona: haustura eragotzi zigun gizona .....	223